

TXANO
IRATXOAREN IPUIÑAK
Zubiri'tar Iñaki



“EUSKERAZALEAK” ALKARTEAK ARGITARATUA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAZ

**TXANO
IRATXOAREN IPUIÑAK**

**Zubiri'tar Iñaki
(Euskerazaintzako)**

**“EUSKERAZALEAK” ALKARTEAK ARGITARATUA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAZ**

AURKIBIDEA

IRATXOA	7
URREZTI'KO ASTOA	11
OILLARRA TA ALKATEA	15
KOSKABILLOTXU	19
MENDIBARREN'GO SORGIÑAK	23
AIZKOLARIAREN BOTOIA	27
LARRAZABAL'GO KILKERRA	31
TXARRI ERNAIA	35
SAGUA TA SAKRISTAU	41
SOÑULARI ZOROAK	47
IRU TXAKURKUMEAK	53
TARTALO TA UNAIA	59
OILLASKO KEMENTSUA	63
TXAKUR GOSETIA	69
YONTXU TA GIZAJALEA	75
TXOLO TA IPURTARGIAK	79
AZERIA TA ARTZAINTXUA	83
UTZITAKO UMEA	87
POLI'REN ESTUALDIAK	93
KATU LAPURRA	99
OTSOEN ERREGEA	105
YOSU TA ARTZA	113
NARRO'REN GORA-BEERAK	121
IRU ANAI MAKESTUAK	129
OILLAR ZENTZUDUNA	137
GABONETAKO JOALEAK	147
XABIER'EN ZALDIA	153
IGELLEN ITXARKUNDEA	157

Lege Gordailua: BI-521-00

Fotoconposaketa eta inprimaketa: Flash Composition, S. L.
Alameda Recalde, 6 - 48009 BILBAO

AURKEZPENA

Zubiri'tar Iñaki gure lankideak liburu barri bat eskuratu dausku. Aspalditxuan erdi-isillik egon da txori abeslariaren antzekoa dan gure idazle au, baiña barrero entzun al izan dogu beronen abesti lilluragarria.

• • •

Irakurgaiak dira liburu onen mamiña. Idazpuruak berak diñoan lez, ipuiñak. Baiña zelako ipuiñak? Zelan eratuak?

Ipuin-mota bat alegiak edo «fabulak» dira, elerti-arloan antxiñatik datorren ipuin-mota, gure elertian beti landu dan idaz-bidea. Baiña ez dira ipuin, alegi, uts-utsak: Giza-norkiak eta abere-norkiak artu emon txeratsuetan agertzen dira liburu onetan. Iñoz agertzen dira irudimenezko norkiak be, aingeruen antzekoak, Txano bera csaterako, eta iñoz mitoloji-giroko norkiak be bai, Tartalo esaterako.

Liburuaren erakundea aztertu ezkeru, auxe da agertzen jakuna: Ez dira ipuin itxiak, alkarragaz lotuta datoz, kerixak moltzoan etorten diran antzera, eta guztiak batzen dauzan lokarria Txano da. Eta Txano'k laguntzaille on bat dauka beti, inguruko jazokizun mingarrien barria edo albistea dakartson Txepetxa.

Geienetan iru urrats izaten dira ipuin bakotxaren barruan: Jazokizun larria, Txepetxaren albistea Txano'ri eta urtenbidea.

Txepetxak egiten dauana ez da iñoz txarto egindakoaren salakuntza. Egoera txar baten albiste-emotea eta eskaria edo erregua izaten da. Txano'k beti onartzen dau eskari ori eta beti aurkitzen dau urtenbide gozo bat.

• • •

Idazleak Bizkai'ko euskerea darabil eta idazkerea edo ortografia Euskerazaintza'rena. Izan be Iñaki langille bizi-bizia dogu Euskerazaintzaren barruan. Bizkai'ko aditzaren ondoan beti ipinten dau dagokion gipuzkoerako adizkia. Ondo dago.

Euskerea oso argia ta ulerterreza da eta irakurleak adizki batzuk zarrak, gaur galduta dagozanak, eta beste batzuk aztergarriak aurkituko dauz.

• • •

Elerti-lanetan egiten dan itaun bat, idazkiaren elburua zein dan izaten da eta egin dogu irukurgai onen aurrean be itaun ori.

Alegiak (fabulak), azkenean geienetan, idatzita ekarten dabe ipuiñaren irakatsia edo «moraleja». Idatzita ez dau aurkituko irakurleak olakorik baiña errez susmatuko dau zein dan ipuiñen irakatsia: Gizakiak eta abereak ondo alkar-artu eta egokioro alkarrari lagundu bear dautsoela, guztion artean izadi au obetu daigun. Eta ortik ateraten da gizakien artean agertu bear dan ontasuna. Ekoloji-giroan doa ba irakatsia, baiña ontasunezko ekoloji-zaleen giroan.

Eta beste ikuspegi batetik begiratu ezker, elburua euskerea zabaltzea da, erri-euskerea atan be. Eta ori lortzeko ipuiña ta elebarria ez dira okerreko bideak, bide onuragarriak baiño.

• • •

Amaitu baiño len aitatu dagidazan tarteka eta aurreko gaiari buruz idazleak sartzen dauzan bertsoak. Oso egokiak eta alaiak dira.

• • •

Lortu dagiala liburu onek euskeraz irakurteko zaletasuna, euskerea zabaltzeko lagungarria izan daitela. Umeai edesteko ipuin politikak aurkituko dabez or gurasoak naiz aitita-amamak.

Zoriona ta esker ona Zubiri'tar Iñaki adiskide ta lankideari.

Olazar'tar Martin'ek.

Murugane'ko basoan, areitz bateko zuloan etxetxua eban (zuan) Txano iratxoa, itxartu ondoren, besoak luzatu, eta arrausi andi bat eginda gero, igelen erestaldia entzuteko gertatu zan.

Txano'k igelen eresia maite-maite eban (zuan), eta udabarri ta udaldiaren goiz eguzkitsuetan, beroak istinga edo padurea kiskaltzen ebanean (zuanean), itxartu baiño ez, arin baten eguzkipean dizdiratzen ziran uretarantz abiatu, eta ertzera elduta, oiuka onetaraxe asten zan:

–Ugarazio, Ugarazio, idoiaren ereslari bikaiña, abestu egizu (zazu) niretzat iien arteko zure soiñu zoragarria. Ez al-dakizu gauza bat..? Ara... zuk abesten dozuncan, aizea laztanakaz beteten da, eta orduan danatzaz aztuta amesen mundu baten bizi izaten naz...

Baiña goiz aretan, Ugarazio, igelen erregea ez zan iñondik azaltzen, eta Txano, Iratxoa, uren ertzetik batetik bestera joian (zioan) bere lagunari alperrik deika, bazterrak bere begi sarkorrekaz arakutzen zituala. Noizbait, eta aspertuta etxera biurtzeko zorian zala, ara non ikusi eban bere adiskidea iien artean kukurio jarrita, anpulu (malko) lodiak eriozala. Txano urreratu (urbildu) yakon (zitzaion), eta adiskidetsu auxe itaundu eutsan (zion),

– Baiña Ugarazio, nire igel maitia, zer dala-ta orren lur-jota egoteko..? Goiza ames eta eresiakaz beterik dago, eta neuk be gaur ames egin nai dot goiz guztietan lez (bezela) zure eresiak entzutean. Asi zaitez astirik galtzeke, nire igel maitia...

– Oi Txano– negar baten Ugarazio'k erantzun eutsan (zion) –, ez al-dakizu, gaur goizaldean, Txepetxa, nire lagun-miña atxillo egin dabela (dutela)..?

– Baiña zelan daiteke ori, Ugarazio neuria...? Atzo illuntzean, Urigoiti'ko bidetik niñoala, sasi bateko erpiñean Txepetxa ikusi neban (nuan) eguzkiaren azkenengo printzai bere abesti zaratatsua jaurtiten. Alkar agurtu genduan, eta gero areitzan daukadan nire etxetxura abiatu nintzan. Esan, zer billakatu da gure Txepetx maite ta zaratatsua...?

– Izugarria izan da, Txano maitia... Dana ikusi dot goizean, nire maitasun-abestia jaulkitzera gertatzen nintzanean... Mutiko batzuk agertu dira, eta ertzeko mimenak liskatu ondoren, txori bat abesten asi da. Abestiaren ederra... Bazirudian, zeru zati bat mimenen artean kokatu izan zala... Andik ebillen Txepetxa, edertasun arek erakarrita, urreratu (urbildu) da, eta mimen baten gaiñean kokaturik, liska zitalean atzitua izan da. Alperrik izan dira gure txoriaren egakatzeta astinketak; mutikoeck kaiola batera sartu, eta bereala, alde egin dabe (dute), Txepetx gaixoaren negarrak etenbarrik aditzen zirala... Oi, Txano, nire iratxo maitea, goizalde eguzkitsuetan txori orren txio zaratatsua ez ditut barriro be (ere) entzungo. Ai ene, Txepetxaren alaitasuna itzungo da, eta berarekin batera, mutu billakatu naz..!

Naigabeak menperatuta, igela isildu zan, eta noizbait isillaldiari eten egiñez, Txano iratxoak,

– Aizu nire igela- itaundu eutsan (zion)-, Norantz abiatu ziran mutikoak kaiolarekin..?

– Ez dakit besterik, Urigoiti'ko bidetik joan dirala baiño, azkenengoz txepetxaren negarrak andik aditu nebazalako (nitualako).

Itz oneik entzun baiño ez, arin baten Txano esandako bidetik abiatu zan, eta areitz-ostoakaz egiñiko bere euritakoa zabalduz, aidean zear egazkada bizian, luzaro barik erriko enparantzara eldu zan, eta astirik galtzeke, adi-adi jarri zan. Iratxoa entzumen argi-argikoa zan, eta luzaro barik etxe batetik etorkiozan txepetxaren txio izutuak entzun zituan.

Laster igarri eban (zuan) etxeko ganbara batetik sortuak zirala, eta goiko sapailora (balcoira) igonda, atea itxita egoanez, azpiko zirritutik sartu, eta eskegita egoan kaiola-gaiñean kokatu zan. Orduan, izututako txoriari auxe esan eutsan (zion):

– Nasaitu zaitez, Txepetxa; Ugarazio'k, istingako igelak, atzitua izan zareala esan daust (dit) eta gaizkatzera (salbatzera) natortzu. Ni Txano, iratxoa naz.

– Kaiolaren atea zelán (nola) edegiten dan ba al-dakizu...?– egaztiak itaundu eutsan (zion)–.

– Ez da bear, Txepetx neurea. Itxi egizuz (ezazkizu) begiak, eta esan:

Txiruli, Txirula,
Mendibarren'go sorgiñak
itxaroten gau isilla,
eta txepetx kantariñak
askatasunaren billa.

Ozta-ozta itz oneik esanda, kaiolaren atea edegi zan, eta txoria onen inguruan egan egiten asi zan, pozaren-pozez auxe iñoala:

– Txano, nire iratxo maitia, bizitzara biurtu nozu, eta orren ordaiñez, zer egin dagiketsut (dezaizuket)..?

Une batez, iratxoa oldozkor geratu zan, eta gero,

– Aizu, Txepetx– esan eutsan (zion)– zatoz biar goizean istingara, eta Ugarazio, igelen erregearekin, irurok batzar bat izango dogu.

Urrengo eguncan, eguzkia istingaren gaiñetik berotzen asten zanean, iratxoak, igelen erregeak, eta txepetxak batzar bat ospatu eben (zuten), eta Txano, iratxoa, onetaraxe itz egiten asi zan:

– Gure barrutian, arazoak gero ta txartoago biurtzen asi dira, eta atzo txepetxari jazo (gertatu) yakona (zitzaiona) oartzat artu bear dogu. Nik aalmen ezkutua badi-tut, eta erabilteko gerturik nago, baiña zeozer egiteko, baten batek jazoten dan guz-tiaren jakitun ipiñi bear nau, leku guztietan egoterik ez dot-eta. Igelak, uretan, eta txepetxak eguratsean ikusi dagienari (dezatenari) buruz jakiñerazoko dauste (didate), eta ditudan aalmenak ustiatuz, mundu obeago bat egiten saiatuko naz.

– Au gure poza..!– txalo ta oiuka erantzun eutsoen (zioten) Ugaraziok eta Txepetxak.

URREZTI'KO ASTOA

Goiz aretan, Txano iratxoa loaren besoetan zala, Txepetxaren txio larriek iratzarri eben. Esan bear dogu, gure iratxoa oso lotia zala, eta goiza ondo sartu arte, ez ebalá (zuala) bere areitzeko zulotik urten gura (nai).

– Ai enc..!– bere buruari esan eutsan (zion)– Barriro be, txepetx barritsu orrek ez nau utziko bearreko atsedena artzen. Zer nai izango dau oraingo onetan..?

Eta burua zugaitzaren zulotik atarata, bere adiskideari asarez itaundu eutsan (zion),

– Txepetx denganiño orrek, ez al-dakizu au nire atsedenaldua danik..?

– Oraindiño lotan..? Badira orduak eguzkia agertu dala, eta istingako igelen abestia nonai zabaldu da.

– Bart berandu etorri nintzan etxera, eta...

– Gauzale ori..! Noiz etorriko yatzu (zaizu) zentzuna..?

– Jakin bear dozu, barritsu orrek, gabean egiten dodazanak, lagunen onerako izaten dirala. Baiña, esan, zerk zakaz orain neurera..?

– Ara, gaur Urrezti basetxetik igarrotean, ango astoa ikusi dot, eta benetan diño-sut, luzarorako astorik ez dogula.

– Zer ba..?

– Begiak utsari zuzenduak zituan, eta inguruan zenbat gura bedar izan arren be, berak jaramonik ez. Eta argala, zer dan argala..! Saietsak kitar baten firuak lez agirian zituan, eta bazirudian edonoiz lurrera amilduko litzakela. Astoaren gaixoa..! Orduan zutzaz gogoraturik, ona etorri naz, Urrezti'ko asto zorigaiztokoari lagundu dagiozun (dezaiozun). Zoaz arin baten, luzarorako astorik ez dogu-ta.

Orduko, Txano itxartu izan zan, eta bere zulotik urtenda, areitz-ostoakaz egiñiko bere euritakoa zabaldu, eta aizeak eraginda, eguratsean zear Urrezti'ra abiatu zan. Bereala ikusi eban basetxea, eta andik laster, larradi eder baten erdian astoaren irudi geldi ta isilla. Eguratsetik jatsi zan, eta areitz-ostoakaz egiñiko euritakoa tolestu ondoren, astoagana urreratu, eta,

– Aizu, lagun, zergaitik orren itun eta lur-jota..? adiskide andia zaitut, eta maite dodazanak ezin dagikedaz (ditzaket) atsekabeturik ikusi. Esaidazu larritzen zaituana.

– Ara ba, Txano maite ori... Badakizu, nigandiko onena emonez, urte asko igaro ditudala etxe onetan lan egiñez. Gogoan izango dozu, urrean (noski), astakume nintzanean etxe onetara ekarri ninduela, esnearen lorketea ta errian zearko banaketea egiteko. Urte asko bete dodaz etxe onetan lan eta lan, egun bat bera be nire egite-

koari uko egiñez. Eta au dana gitxi bai'litzan, ondo dakizunez, Gernika'ko asto-leiaketatari iru txapelketa, burusi ta guzti, irabazi nebazan (nituan) etxeokoi ogerleko asko irabazi-erazoz, baita orreri dagokion ospe ta aintza be.

– Bai, gomutan dot ori dana, asto-leiaketa bat bera be ez dot galtzen-eta. Esan, egia al-da, Barrabas IV'gna, Nabarniz'ko asto arrigarria, zure lengusua izan zala...?

– Bai, olan da, eta esan bear dautsut (dizut), berarekin izandako leiaketa baten, gaiñetik urten nintzala eta ordutik lurralde onetako astorik ospetsuena billakatu naz. Baiña orain zoritxarrez, ori guztia ur joana da, eta nitzaz ez da iñor gogoratzen...

Isildu zan astoa asperen bat jaurtiteko, eta gero,

– Ugazabak irauan artean, ondo bizi izan naz, lan atsedengarria egiñez, eta “zer gura ta a” emoten eustala, gizon arteza ta ona zalako, baiña bera il zanetik, ez dot egun zorionsurik ezagutu, alarguna edo atsoa dala-ta. Begira, zaar-saria edo jubilaziñoa artu bear izango neuken neure bizitzaren azken urteotan, etxeokoi atsoak lengo beste lan egitera beartzen nau, eta ugazabak emostazan baba gozoak, aspalditik ez dot bat bera be ikusi...

– Esan– eten egin eutsan (zian) Txano'k– orren txarto zarabiltz atso-edo orrek...?

– Bai, beti ezin-ikusi andia izan daust (dit)...

Ona elduta, bere zorigaitzak aztuta, une batez astoak barre egin eban (zuan), eta gero ariari ekin eutsan esanez:

– Baiña bein baten ziri ederra sartu neutsan (nion). Etxerakoan, bere amar arroak nire bizkar-gaiñean neroiazala, Urtxiña'ko ubidea zearkatzean, arri bat jotzen nebalakoa (nualakoa) egin, eta plaust..! bere amar arroak, esnepegarrak eta guzti uretara jausi (erori) ziran. Atsoaren asarrea..! Etxekojaunari, nik gurata bota egin nebala esan eutsan (zian), eta ordutik ezin-ikusi ori sortu yakon (zitzaion). Ilteko zorian, ugazabak ni ondo erabilteko agindu eutsan (zian), baiña bai zera..! Arrezke-ro, jopu baten antzera narabil, eta ondo dakit gose ta neke utsaz luzarorako ez nazala izango...

Naigabe utsaz, astoak asperen luze bat jaurti eban (zuan), eta makaltasun utsaz, belaunak makurtu yakozan (zitzaizkion) bedar-gaiñean etzan arte. Gero, mintzo negartsuz, iratxoari auxe esan eutsan (zian),

– Aizu, Txano maitia, ez al-do zu nire alde zeozer egingo..? Neu lako txapeldun batek eskatzen dauan gauza bakarra, bere egunak bakean eta duintasunez amaitzea da. Barruti onetan, azal eta zabal dabil (gauza ezaguna da), Murugane basoko iratxoak aalmen andia dauala izakien ezbeirak atontzeko. Ez al-do zu zeozer egingo nire alde..?

Gernika'ko arri-narratzaren txapeldun ospetsua egoera nergargarri onetan ikus-tean, Txano'ri biotza bigundu yakon (zitzaion), eta unetxu batez ausnar egonda gero,

– Aizu– itaundu eutsan (zian)–, non dago zure ugazabandrea..?

– Orain asko ez dala, errekatxura joiala ikusi dot bogadea ikuzteko (garbitzeko), eta oraindiño an egongo da urrean (noski)...

Ezer esan barik, Txano basetxearen atzetik igaroten zan errekatxura joan, eta

ikutz-arriaren ondoan, etxeokoi zaarra ikusi eban (zuan). Iratxoa arresiaren gaiñean kokatu zan, eta mintzo argiaz, asi yakon (zitzaion):

Jakin bear dozu, gero,

Urrezti'ko atsoa,

jubilau bear dozula

zure etxeokoi astoa.

Olan ez ba'dozu eiten,

andra txaldan eta zoroa,

ziñez etorriko yatzu

gura ez dozun geroa.

Urrezti'ko etxeokoi zaarrak, baiña, ez entzun egin, eta bogadea ikuzita gero, etxe-aurrean edatzen zan burdin-aritiko eskegitara eroan eban, eguzkitan legortu zeiten. Alako baten, eta azken zatia ozta-ozta eskegita gero, ustekabez, eskuak burdin-arian itsasi yakozan (zitzaizkion), eta an geratu zan bera be eskegita aizeak batetik bestera zabuka erabillela,

– Ai, ai, ai..! - oi u bizitan Urrezti'ko atsoa asi zan– Ari au deabruak artuta dago..!

Baiña aalegin guztiak egin arren be, ezin zeitekean aritiko askatu. Orduan, Txano'ren abotsa aditu zan auxe iñotsala:

– Oso erraza da, kinka larri orretatik urtetea. Ez dozu besterik, itz emon baiño, etxeokoi merezi dauan zaarsaria emongo dautsazula (diozula), eta onezaz gaiñera, berak egindakoaren ordaiñez, lan egin barik bizi izanez gaiñera, janari on-ona emongo dautsazu (diozu) bizi daiten artean.

– Bai benetan. Ziñez diñotsut, burdin-ari onetatik askatzen ba'nozu, gure etxeokoi babarik gozoenak berarentzat izango dirala, baiña arindu zaitez, besoak sormintzen asi yataz (zaizkit), eta olan jarraitzekotan, makailau baten antzera biurtuko naz.

– Ori tamal andia litzake, etxeokoi andrea, eta olakorik jazo (gertatu) ez dakizun, etxeokoi astoa duintasunez eta ondo janaritua erabilliko dozula berba emoten ba'daustazu (ba'didazu), aske izango zara.

– Bai benetan, eta esanda lez (bezela) bizirik irauan arte, etxeokoi babarik gozoenak zenbat-gura artuko ditu.

– Begira, gero, zeuk agindutakoari ondo eutsi, bestelan, burni-aritiko ez, intxaurrondoko adarrak goienetatik eskegita irauango dozu, makailaua biurtu zaitez arte. Entzun...?

– Bai, Txano'txu neuria, zin dagitsut berbeiri eutsiko dautsadala (diodala), eta gure barrutiko astorik zorionsuena, gure etxeokoi izango dala.

– Ondo da, etxeokoi andrea. Astebete guztietan astoarekin alkarizketa bat izango dot, eta emondako berbea ez ba'dozu beteten...

Au esanik, Urrezti'ko etxeokoi zaarra askatu zan, eta arin baten etxera sartuta, astoari etxeokoi baba gozo-gozoak eskiñi eutsazan (zizkion).

Eta benetan, itz emondakoari, etxeoandra zaarrak eutsi eutsan (zion) makaillau biurtzea gogokoa ez ebalako. Eta astoak Gernika'n iru bidar goratzarreko burusia lortu eban txapeldunak, il zan arte aukerako biziera izan eban.

OILLARRA TA ALKATEA

Ibarreta'ko oillarra ta erriko alkatea lo egiteko orduan ez ziran bat etorten. Gau beranduan alkatea etxeratzen zanean, oillarrak auzoko bazterrak kukurrukuka astintzen zituan, eta onek alkatea bere onetatik ataraten eban. Esan bear dogu, gure gizona oso arroa zanez, errian Arroxo ezizenaz bereizten ebela (zutela), eta onezaz gaiñera, ondo jatea eta edatea atsegin yakola (zitzaiola). Augaitik ba, lotara joan orduko ezin egikean (zezakean) eroan, bera lako gizon ospetsu bateri egazti ziztrin batek loa uxatu egion (zezaion), eta areago, erriaren alde ainbeste ta ainbeste aalegintzen zanean. Lenengo oillarraren goizalde aurretiko deia aditzen zanean, Arroxo furrustada bat az erantzun oi eutsan (zion), eta urbillago egon ba'litz, oiñetako jaurtaldi bat az erantzungo leuskion (lioken). Eta gero, ozta-ozta loa artzen asten zanean, barrero be, oillar denganiñoak bere bigarren deia barreiatzen eban, eta olan etenbarrik egunsentia etorri arte.

Alkate gaixoa argaltzen asi zan, eta bere emazteak bein eta barrero janzkiak estutu bear izan eutsazan. Izan be, ezin egikean (zezakean) jasan, oillar arlote batek, erriaren onari emonda bizi izaten zan alkate baten etorkia era orretan ondatu egian (zezan), eta Arroxo, bide guztiakaz egoera larri areri urtenbide bat emoten aalegintzen asi zan.

Luzaro samar gogoan erabilli ostein, Jazinto'ri, erriko urizaiñari, enparantza ta kale guztietan aldarri batzuk botatea agindu eutsan (zion) oillar guztieri jakiñerazoz, goizeko zortzirak baiño len, zigor andipean debekatua zala iñongo kukurrukurrik jaurtitea.

Urizaiñaz gaiñera, eleizan sakristaua zan Jazinto, aldarriak mintzo argiaz bota ebazan, baiña olan eta guzti be, Ibarreta'ko oillarrak ez entzun egin, eta bere abestiak gero ta zaratatsugoak biurtu ziran. Egoera larri aretan, medartzen jarraitzen eban Arroxo'k, argalaren-argalez bere praktentzako gerrikorik ez egoala egiztatu eban, eta orduan, bere adimenaren bikaintasunari ordua eldu izan litzakiola, eta guda-ekintza bat garatzea erabagi eban. Onen ondorioz, Jazinto'ri, oillategira oillomozorrotua joateko agindu eutsan (zion), eta gabeko lenengo kukurruku jaurti baiño ez, sukaldeko aitzo bat az oillarra sastakatu egian (zezan). Arratsalde aretan, baiña, udaletxeko leio baten kokatuta, Txepetxa'k alkateak urizaiñari agindutakoa entzun eban, eta oillarra adiskide andia ebanez, astirik galtzeke, arin baten Txano'gana joan, eta alkate maltzurak asmatzen ebanaren (zuana) jakitun ipiñi eban.

Errian, Ibarreta'ko oillarra danok ederresten eben, abots zolkoa izanez gaiñera,

bere aldarriak doi-doi bear ziran orduetan jaurtiten ebazalako. Txepetxaren barria entzun baiño ez, Txano'k ekitea erabagi eban, eta illunabarrean, oillategiko atondoan, iku baten azala ipiñi eban. Gau illuna izanik, atea edegi ebanean, Jazinto'k azala ikusi ez, eta bapatean, blindiblaust...! lurrera jausi zan zabal-zabal, aitzoaz arramaska bat aurpegian egiñez. Aika bizitan, biaramonean alkateagana aurkeztu zan, eta bere ezbearren barriak emon eutsazan. Arroxko'k, baiña, benetako gizonak kikildu ez dabela bear esanez, gau aretan barriro igorri eban Jazinto, oillar garbitu bear ebala agintza zorrotzaz. Baiña jakiñaren gaiñean egoan Txano, ate ondoan jaboi zati bat jarri eban, eta urizaiña bere zitalkeria beteteko abiatzen zanean, laprast egiñik, aurreguneko baiño mokorkada andiagoa artu eban, eta didar baten etxera biurtu zan.

Urrengo egunean, urizaiñak, alkateari jakiñerazo eutsan (zion), munduko urre guztiagaitik be, ez leukela barriro be oillategira sartuko. Bere onetatik atarata, alkateak didar baten auxe iragarri eban (zuan):

– Oillar denganiño orrek, laster jakingo dozu nor nazan...!

Eta egun aretan bertan, alkateak berak oillar garbituko leukela erabagi eban (zuan), eta gautu zanean, aizkora bat erabillela oillategira sartu zan... Ereti aretan, baiña, Txano'k bare bat ipiñi izan eban oillategiko arlasta baten, eta barea zapaldu baiño ez, irrist egin eban eperdian bere biziko mokorkadea artzen ebala. Ondorea izugarria izan zan, eta Arroxko gaixoak jesarri eziñik astebete bat iraun eban. Epe onetan, baiña, naikoa astirik izan eban, oillararen aurka bere mendekua asmatzeko. Gomutara ekarri eban, erriko enparantzan karlatarraren bigarren gudatik kañoi andi bat egoala, erriaren guda-ekintza aztu-ezin baten gomutagarri. Bai, dalako kañoia erabilliko leuke oillategi madarikatua bein betiko ezerezteko, eta oillararekin oilloak be ostenduko ba'litzaz, (ba'lira) ainbat obe, alkate Jaun arekin jolasterik ez egoan-eta. Arrezkero danok jakingo leukie nor nor zan.

Iru egun bear izan ziran dalako kañoia leku barrira eroateko, eta bere abotzar andiak oillategi gaixorantz zuzenduta egoanean, edozein oillotarrari arnasa kenduko leuskio (liohe). Eta oi ebanez, Arroxko'k gabaren asierari itxaron eutsan (zion), berak eztanda egiteko gerturik. Une aretan, baiña, oillar zangarrari onetaraxe aditu yakon (zitzaion):

Alkate ganorabako
erri onen zerbitzari,
zeu agintari ba'zara,
neu erriko ordulari.
Jakín eizu bein betiko
alkatetxu zelatari,
ez nozula beartuko
isillik irauteari.

Oillararen aldarria entzun bitartean, baiña, alkateari adikunea lazotu yakon (zitzaion), eta oarkabea ustiatuz, Txano'k kañoiaren zuzenbidea oillategiaren gai-

ñetik goratu eban (zuan), eta alkateak danbadea egin ebanean, jaurtikia oillategi gaiñetik egan egin, eta alkatearen etxeko teillatua ostendu zan...

Izugarria izan zan. Alkatearen didarrak alboko errietan entzun ziran, eta Arroxko'k bere billoari teink egiñez, buruan geratzen yakozan (zitzaizkion) ule urriak galdu zituan... eta gaba lo egin eziñik igaro ondoren, urrengo egunean udaletxera joan zanean, idaztegiko besaulki baten Txano iratxoa ikusi eban.

– Kaixo– agur egin eutsan onek–.

– Zer arraio egiten dozu nire idaztegi..?

– Ara, alkate Jauna, ni Txano, inguru oneitako iratxoa nozu, eta zurekin alkarizketa bat izateko etorri naz. Jakín bear dozu, ondo jakín be, erdipurdiko itunben bat jaristea, auzi on-on bat irabaztea baiño obea dala, eta augaitik, zure etxeko teillatua atondu artean, on izango litzakizu (litzazuke) oraingo zure egoerea zentzunez aztertu, eta bearreko erabagia artzea

Une batez Txano isildu zan, eta gero,

– Eskubide osoa dozu, alkate Jauna, gabeko atsedena izateko, baita orko oillarrek Jaungoikoaren aginduari jarraituz, izarrek agindu dagitsanetan (dezakionetan) orduak emoteko be. Augaitik, beraz, auxe itarantzuten (esondatzen) dautsuet bioi: Zeu, egunero etxera biurtuko zara orain oi zanean baiño goizago, eta sabela ariña-goaz, bearreko izatekotan, zure sabelaren ospakizunak eguberdian, eta ez gabean, egin dagikezuz-eta (ditzakezu-eta). Oillarrek, barriz, orduak iragarriko dauz zeu lo betean zagozanean, eta iñongo oztoporik agertu ez daiten, abots bigunez egingo dau, danok entzun aal izateko beste, baiña zarata andi barik. Neuk esondatutako auxe ontzat emoten ba'dozu, biar bertan oillararekin emen azalduko naz, eta biok dagokizuen agiria izenpetuko dozue, guztien eta erriaren onerako.

Alkateak baietza emon eban (zuan), eta urrengo egunean, Txano'ren aurrean, itundutako agiria izenpetu izan zan, eta ordutik erriak pake osoa ezagutu eban.

Arratsalde aretan, Txano areitz-ostoakaz egiñiko bere euritakoaz, aizeak eragin-da Ugarazio igela ikertzera joan zan, beste kapel orlegi bat iikaz ciotu egitsan, lengoa zeezer altzitua ebalako; igelak lan egin bitartean, iratxoak Alkate ta oillararen artekoa edestu eutsan, eta kapela amaitu ebanean (zuanean), Ugarazio'k auxe esan eutsan (zion):

– Ondo jokatu dozu, Txano, eta izan be, zeu lako adiskide bat izateak pozez beteten nau. Gabeko besana illunak egunaren argia estaltzen dauanean, eta nire maitasun-eresiak jaurtiten ditudanetan, oillararen ordu-jote urruntsuak zorionez beteten nau.

KOSKABILLOTXU

Jaio zanean, ozta-ozta garbantzut bat baiño geiago izango zan, eta galdu ez ekion, amak bereak eta bost jasan bear izan zituan. Seaska erabilli-bearrean, abarka baten lo egiten eban, eta garbi-aldiak egiteko, katillu bete ur naikoa zan. Gosaritzat, titare baten sartzen zan esnea emoten eutsan (zion); eguberdian, ondo egositako iru txilista, eta gabea, barriro titare bete esne. Amak galtzerdi baten barruan sutondoan kulunkatzen eban, eta umea aspertzen zanean, oillasko baten gaiñean etxe-aurretik egurasten eban.

Umea adimen oso argikoa zan, eta zernaitarako gai zala uste izanik, etxeok abelgorria zaintzeko bialtzea erabagi eben (zuten), eta bei baten apatx-pean zapaldu izan ez zeiten (zedin), zaintzaldia, oillasko baten gaiñean egiten eban, akuillutzat ereiñotz-adar bat ondo zorrotua erabililela. Abelgorriak alatzen ziarduean, umeak iakaz guztitariko otzarak eiotzen zituan, eta bitartean, bertsolaritzari emoten eutsan (zion), antze andia lortzen ebala (zuala).

Beiñola, otzara bat eiotu bitartean, onetaraxe abesten asi zan:

Zazpi bei ditut zainpean
ederrak eta otzanak,
etxeok ondasun dira
maite ditudan laztanak.
Oillasko baten laguntzaz
alatzeru eroanak,
ez ditut buruausterik
ezta alperriko lanak.

Otzaratxu bat eiotzen
ari naz buru-belarri
norentzat izango ete
nire eskuen opari...?

- Olan ziarduala, bapatean atzetik abots bat aditu eban auxe iñotsala:
- Ez zaituz larritu orregaitik, otzaratxu ori emoidazu, eta kitto.
 - Nor zaitut, lotsabako ori, nire esku-lan bat duan eskatzeko..?
 - Ni ez naz iñongo lotsabakoa. Barruti onetako Txano iratxoa nozu.
 - Eta zertarako bear dozu nire otzaratxua..?
 - Basoko mallukiak eldu edo umotu daitezenean, bilduteko.
 - Gozoak al-dira mallukiok (marrubiok)..?

- Aboratu daiteken gauzarik gozoena.
- Une batez umea oldozkor geratu zan, eta gero,
- Torizu otzaratxua, baiña malluki batzuen ordaiñez.
- Olan izango da, lagun, baiña esaidazu, zer egiten dozu emen ikastolara joan-bearrean...? Olan jarraitzekotan, asto-belarriak urtengo yatzuz (zaizkizu).
- Zer arraio da ikastola edo-ori...?
- Mutikoai adimena zorrotzen yakien (zaien) lekua, eta asto andi bat ez ba' dozu biurtu gura, esaiozu amari ara bialdu dakizula.
- Ondo da, Txano, eta zure aolkuaren ordaiñez, otzaratxua duan emongo dautsut (dizut). Artuizu.
- Eskerrikasko, lagun, eta ez aztu amari esaten, ikastera igorri bear zaituala egunerero. Agur.
- Agur, Txano, esango dautsat (diot).

Etxera eldu (iritxi) baiño ez, mutikoak amari esan eutsan ikastolara joan nai ebala (zuala), berak asto-belarriak sortu ekiozan ez ebala gura-ta. Ama oldozkor geratu zan, eta erriko maisuarekin itz eginda gero, semea ikastolara bialtzea erabagi eban. Semearen txikitasuna, baiña, buruauste andia zan, eta noizbait, lepotik koskabillo bat eskegi eutsan, olan, onen zarateak guztiai jakiñerazoko leukie (lieke), gure mutikoa ur egoala, eta beraz arduraz jokatzeko, zapaldu ez zeiten. Jakiña, errirako bidea luzea zanez, eroan eta ekarteko bidaldia etxeko oillasko baten gaiñean egingo leuke.

Asi zan ba, gure mutikoa ikastolara joaten, eta lepotiko dingilizkia zala-ta, ikastolan eta errian, “Koskabillo txu” ezizenaz ezagutua izan zan, eta izan be, ezizena atsegin izan yakon (zitzaion), bera txikia ba'zan, izen barriak luze samar emoten ebalako (zualako). Ikastolara eldu baiño ez, oiko idazmaitik ikusteziña zanez, maisuak bere ondoko aulki garai baten ipinten eban (zuan).

Koskabillo txu, adimen oso argikoa zanez, laster ikasten ebazan eguneroko gaiak, eta itaun baten erantzuna iñork ez ekianean, maisuak Koskabillo txu'ri galde-tu baiño ez, onek argi ta garbi erantzun oi eban. Bereiztasun onek, baiña, bere ikaskideen bekaitza edo czin-ikusia erakarri eutsan (zion), eta bein baten, aren etsaiek mendekua artzeko batu ziran, onen ondorioz zitalkeri bikoitza asmatuz.

Goiz baten, etxeko oillaskoan ikastolara eldu zanean, egazti gaixoa arrikada bizitan uxatu eben (zuten), eta aurrerantzean, Koskabillo txu'k oiñez egin bear izan eban (zuan) joan-etorria. Andik laster, etsaie tariko batek koskabilloaren lokarria ebagi eutsan (zion) eta gure mutikoa zapaldua izateko arrisku bizian billakatu zan; noizbait ikastolara joateari uko egin bear izan eutsan (zion). Augaitik ba, barriro be beiak alatzer a eroaten jarraitu eban (zuan), eta oiko alaitasuna galduta, zaintzaldi osoan negar eta negar egiten eban (zuan)...

Bein baten, baiña, malloak mara-mara eriozala, norbaiten mintzoa aditu eban (zuan), eta biurtzean, Txano iratxoa ikusi eban, berak egiñiko otzara bete mallukiaz etorrela,

- Aizu, Koskabillo txu– esan eutsan (zion)–, Murugane basoan mallukiak eldu-

ten asi dira, eta zure otzaratxuaren ordaiñez, ale batzuk ekartea otu yat (zait). Torizuz.

Baiña Koskabillo txu'k zapuztu zituan esanez,

– Nik ez dot mallukirik gura, ezta beste emokaririk be; nai dodana, ikastolara joatea da, gauzak ikasteko eta egunen baten idazle izateko.

– Aizu, Koskabillo txu, laga egiozu (zaiozu) negar egiteari, bestelan ugolde itzela sortuko dozu eta ori kaltegarria izango litzake erriko alorrentzat. Jan egizuz (zazkizu) malluki batzuk, eta onen bitartean zeozer asmatuko dot zure kinka larriari urtenbide bat emoteko...

Eta Koskabillo txu'k Murugane basoko malluki gozo-gozoak txastatzen zituala, Txano'k oldozteari buru-belarri emon eutsan (zion). Doi-doi mutikoak azken mallukia jan ebanean (zuean),

– Aizu, adiskide– iratxoak esan eutsan (zion)–, etxeko beiak etxeratuta gero, ortura joanda, kui (kalabaza) bat artuko dozu, andiena izan be, eta zabalduta, onen azi bat mamurtu barik iruntsiko dozu, itz oneik astiro esanez:

Kalabazatar-azia
geratu zaitez estean
aldatz-beera joan barik
amabost astebetean.
Epe ori igarota,
illargi bete ostean
mirari bat sortuko da
guztien begi-aurrean.

Koskabillo txu adimen argikoa zanez, laster ikasi eban aapaldia, eta buruz ikasi ebanean (zuean), Txano'k auxe esan eutsan (zion),

– Begira, adiskide, ekintza orretan arriskurik andiena, kuiaren azia bidean beera joan daitela da, eta ori eragozteko, etxeko beien zaintzaldi bitartean, esku-gaiñetan buruz beera ikotika ibilliko zara etxera biurtu arte. Argi dago...?

– Bai, Txano neuria, eta zer jazoko da orren ostean..?

– Ori, garaia etorri dakizunean zerorrek ikusiko dozu. Ez aztu, beraz, amabost astebeteko epean buruz beera ikotika ibilli, eta orduan arrigarri bat jazoko da.

Txano'k agindutakoa egin eban Koskabillo txu'k. Lenengo egunetan, alatu bitartean mutikoa buruz beera eskuen gaiñean ikotika ikustean, beiek uste izaten eben (zuten) zoratu egin zala, baiña azkenean orretara oitu ziran, eta ez outsoen (zioten) beste jaramonik egin.

Olan, amabost astebeteko epea igaro zan, eta arrezkeroko lenengo illargi betean, ustekabez, Koskabillo txu'k bere baitan arrigarri bat gertatzen yakola (zitzaiola) oartu eban (zuan). Kuia edo kalabazea, bere barruan azten asia zan, eta onekin batean, bera be gorantza egiñez mutiko ederra biurtu zan. Poz baten, etxekoai ikastolara joaten jarraitzea nai ebala (zuala) esan eutsen (zian), eta egunoro errirako bidea artuta, ikastolan aurkezten zan, maisuaren poz andirako. Orain, besteak bai-

zen garaia izanik, ikaskideek ez eutsoen (zioten) barrerik egiten; eta mutiko oso argia zanez, aldiaren bidean ikaste-sari (beka) bat lortu eban, eta urte batzuk igarorik, euskal idazle ederretsia billakatu zan.

MENDIBARREN'GO SORGINAK

Iru aizpa ziran Mendibarren'go sorgiñak zein baiño zein gaiztoagoak. Gazteari, Ankamotz izenekoa, aztal bat peitzen (faltatzen) yakon (zitzaion), eta makur oneri aurre egiteko, gorostizko adar batzaz ordeztu izan eban; erdikoari beso bat soillik ebanez (zuanetz) Besamotz esaten eutsoen, eta uts au ordeztuko, kaiñabera-zati bat sorbaldeari lotuta erabillen.

Eurotariko zaarrena ta gaiztoena, Begibakar izenekoa zan, jaiotzetik begi bat baiño ez ebalako (zualako). Au gaiztakeririk izugarrienak asmatzeko gai zan, eta berak esanikoa, bere aizpak beste barik onartzen eben (zuten). Betzulo utsa estaltzeko apo bat erabillen.

Aldiaren bidean, baiña, begimena moteldu, eta soiñaren indarra uts egiten asi yakienean (zitzaienean), bizi ziran leizetik iturrirañoko urketea egitea gero ta neket-suagoa biurtu izanik, goizalde baten akelarre batetik biurtu ziranean, iru aizpak batzar bat ospatu eben (zuten) eta onen ondorioz, urkariñe baten laguntza bearrekoa uste izanik, orretarako egokiena, neskato bat izango litzakiela erabagi eben (zuten). Orduan Begibakarra'k Ankamotz'eri,

– Aizu aizpatxu neuria, biar errira joango zara, eta erriko etxe guztiak ikerturik, begimen zorrotzeko ta soin ariñeko neskato bat ostu, eta gure leizera ekarriko dozu.

Gautu zanean, Ankamotz errira jatsi zan erratzaren gaiñean, banan-banan etxe guztiak ikertzeko asmotan, baiña illunpetan berak ikusi aal izateko, sutondoan zotz bat piztu, eta agindutakoa idoroteko etxeko gela guztiak ikertzen asi zan. Gau aretan, baiña, aize zakar indartsua sortu zan, eta gelarik-gela joiala, erabillezan zotz guztiak itzungiten yakozan (zitzaizkion), eta besterik ezean, esku-utsik leizera biurtu zan.

Begibakar'eri bere utsegitea azaldu eutsanean (zionean), asarre bizian, aizpa zaarrak auxe esan cutsan (zion),

– Aizpatxu neurea, ez zara ezertarako gäüza; sorgiñaren izena ez zenduke eroan egin bear be. Gau onetan, Besamotz, gure aizpa, bear doguna egitera joango da.

Besamotz errira joan zan izarrak zeruan agertu ziranean, eta lenengo etxera elduta, kebidetik sartu, eta sukaldera jatsi zan, bearreko zotza piztuteko asmoz. Besamotz, baiña, apur bat txolin edo txoriburua zan, eta zotzari bere kaiñaberazko besoaz piztuteko eutsi bitartean, sukaldetik ebiltzen sagu ugariak zenbatzen asi zan, eta ustekabeturik, kaiñaberazko besoak zotzaz batean su itzela artu, eta didar bizitan, kebidetik urten bear izan eban (zuan). Zorionez, enparantzako iturrian suak artutako kaiñaberazko besoa ta janzkia amatau aal izan ebazan (zituan). Leizera

biurtu zanean, Begibakar'ek apaldu barik zigortu eban, abobetekoak esaten eutsa-
zala (zizkiola).

– Ganorabako andiak zarie zuek biok– aizpai esan eutsen (zian)– Nigaitik ze,
galduta ibilliko zintzakeze, iñuzenteok. Biar, nerau joango naz, zuek ezin dozuena
egitearren, txatxalak, besteren txatxalak...!

Esan eta egin; urrengo illuntzean bere erratza artu, eta errira jatsi zan. Begiba-
kar'ek bere aizpai buruz, alde andi bat eban, eta auxe izan be: ez eban bear argirik
illunpetan ibilteko, betzulo utsean jarrita eukan apoak, illundietan zuzentzen ebalako
(zualako), «Eskumatara, ezkerretara, gora, beera, etabar» iñotsala. Gau aretan
ba, erriko etxe guztiak ikertzen asi zan, baiña ez eban aurkitzen bear izaten ebana
(zuana), eta gogait-eraginda, esku-utsik leizera biurtu bear izango leukela uste izaten
ebanean (zuanean), ara non erriko azken etxean, billaturikoa ikusi eban (zuan)...
Uxue izeneko amabitsu urteko neskato zoragarria zan. Urreratu yakon (zitzaion),
eta betazalen pean begi eder-ederrak igarri eutsazan. Isil-isillik besoetan bigun artu,
eta erratzaren gaiñean leizera eroan eban (zuan).

Urrengo goizean iru sorgiñek inguratuta Uxue itxartu zanean, negar etsi bateri
emon eutsan (zian) etxekoai dei ta deika.

Baiña dana alperrik izan zan, eta umearentzat aspaldi izugarria asi zan. Eguno-
ro, sorgiñak oraindiño lotan zirala, Uxue'k pitxar bat artu, eta iturrian bete ondoren,
leizera biurtu (itzuli) bear izaten eban (zuan), eta iges egin ez egian (zezan), sorgi-
fien adiskidea zan azeri batek bide osoan laguntzen eutsan (zian). Leizea arkaitz
sendo bataz itxita egoan, eta edegiteko, azeriak itz oneik iñoazan:

Mendibarren'go arkaitza
edegi zaitez beingoan,
urkariñea baidator
pitxar bete ur lepoan.

Urketea eginda, sorgiñek Uxue gaixoa kateatzen eben (zuten), eta egun osoan
zear negarrari emoten eutsan (zian). Neskatoak ez eban jan gura sorgiñek emoten
eutsoen (zioten) janaritik, iguingarria zalako, eta urketa bitartean idoroten zituan
basaran eta masustak soillik jaten ebazanez, oso argal eta aul aurkitzen zan. Ainbes-
te negar egiteagaitik, begiak gorri ta txikiak biurtzen asi izan yakozan (zitzaizkion),
eta bidegitea zaintzen eutsan (zian) azeriak erruki andiak jota, geiago jan egian ado-
retzen eban (zuan).

– Ezin dot, azeri– iñotsan Uxue'k–, il naiago dot.

– Zure begiak len ederrak ziran, baiña orain itzungiten ari diran izar bi dirudie...

Eta leizera eldutean, atea edegi zeiten azeriak itz miraritsuak esanda gero, nes-
katoa sartzen zanean, piztiari naigabez sortutako asperen bat iges egiten yakon
(zitzaion).

Gau guztietan, sorgiñak euren batzarretara edo akelarretara joaten ziran, eta
onein ostein, errietan zear sakabanatzen ziran euren gaiztakeriak egiteko. Anka-
motz ekusan mutiko-neskatoa, egurrezko bere aztalaz jotzen saiitzen zan, eta zarta-

dea artzen ebana (zuana) betiko erren billakatzen zan. Besamotz, ostera, inguruko
baseritarrak etxeratzen ziranean, kañaberazko besoaz jotzen ebazan besoa zimeldu
ekien. Begibakar'ek, erriko seaskak ikertzen zituan, eta jaiobarriren bat idorotean,
betzulo utseko apoa aurpegira jaurti oi eutsan (zian), eta gaixoak begi bat galtzen
eban (zuan). Gero, janarizat, bakoitzak suge bat arrapatu, eta leizera biurtuta, sar-
tagin andi baten, galipotaz, erregosi (frijidu), eta pozaren-pozez irusten ebezan
(zituzten) soñu zantarren artean. Ez zan arritzekoa, beraz, Uxue gaixoak janari
artzeari uko egitsan (egin zezan), gero ta makalago biurtzen zala.

Bein baten urketea egiten ebala, Txepetxak ikusi eban, eta,

– Uxue, laztana– itaundu eutsan (zian)– zer egiten dozu emen, etxean egon-bea-
rrean..?

– Mendibarren'go urkariñea izatera sorgin batzuk beartu nabe...

Eta jarraian, jasaten zituan nekeak eta izuak edestu eutsazan (zizkion). Amaitu
ebanean, azeriak,

– Begira Txepetxa– esan eutsan (zian)– egia da Uxue'k diñoana, eta neu gertu-
rik nago laguntzeko, leizea edegiteko itzak ezagutzen ditut-eta...

Une batez Txepetxa oldozkor geratu zan, eta ezer esan barik aalik ariñen osten-
du zan; laster eldu zan, Txano'k aretitan jabetzen eban etxetxura, eta didar baten
itxartu eban. Atean azaldu zanean, Txepetxak Uxue'rekin jazotakoa edestu eutsan,
zeozer egiteko eskatuz...

Egun aretako illuntzean, Txano iratxoa, bere euritako miraritsua artuta, istinga-
ra jatsi, eta iien artean Ugarazio bere lagun miñaren billa asi zan. An egoan igelen
errege orlegia, bere maitasun bizia lur eta zeruari abesten. Txano'k uretatik urtete-
ko eragin eutsan (zian), eta orduan,

– Aizu, Ugarazio, zeugandik mezedo andi eta arin bat bear dot.

– Zer da nigandik bear dozuna..?

– Biar goizalderako bi milla igel Mendibarren'go leizaren aurrean bear ditut.

Igelari arritasun-asperen bat iges egin yakon (zitzaion) eta gero ezpaitu,

– Ez da auntzaren garberdiko estula eskatzen daustazuna (didazuna), arraio..!

– Zu, igelen erregea izanik, bazara ori ta geiago egiteko gai...

Oldozkor geratu zan Ugarazio, eta andik laster,

– Egun biren epea emoten ba'daustazu (ba'didazu), orduan baietz esango
neuke...

– Ondo da, adiskide ori. Beraz, etziko egunsentian bi milla igel orrean begira
Mendibarren'go aitzaren aurrean egongo naz, eta orduan egitekoa azalduko dau-
tsuet (dizuet). Ni agertu arte isillea egongo zarie...

Egun bi geroagoko goizean, Uxue gaixoa azeriarekin pitxar bete ur leizera eka-
rrala, Txano iratxoak aitzaren aurrean geldierazo zituan. Lur guztia igelakaz estali-
ta ikusten zan, danak isil-isillik ekintza-unearen begira. Txano'k Uxue'ri pitxarra
lurrean ipinteko agindu eutsan (zian), eta gero, azeriari,

– Aizu, lagun, esan egizuz leizea edegiteko itzak.

Orduan, azeria onetarxe asi zan:

Mendibarren'go arkaitza
edegi zaitez beingoan,
urkariñea baidator
pitxar bete ur lepoan.

Itz oneik ozta-ozta esanda, arkaitza zabaldu zan, eta zulotik bi milla igel mul-
tzoka sartu ziran kro-kro bizitan; une aretan lo betean zegoen sorgiñak izuz beterik
iratzarri, eta igelen erasoari aurka egin eziñik, munduko azkena zala uste izan eben
(zuten). Ango didarrak, madarikaziño ta aiñenak illunpe betean..! Azken baten,
Begibakar'en betzuloko apoak, ateko zabalunea ikusi, eta beste aizparekin lekore-
ra urten zan, baiña izuaren-izuz itsu eginda, bildurrez zoraturik arkaitzen beera
amildu ziran, sorgin bakoitza elorri bana biurturik.

Kanpoan egoan Uxue'gana Txano urreratu, eta auxe esan eutsan (zion).

– Uxue, ez negarrrik egin, gaur bertan errira biurtuko zarealako. Txukatu mal-
kook, eta gerturik zaitezanean, etxera, gurasoakana eroango zaitut.

Laster biurtu zan neskatoa bere lengora, eta andik laster, areitezko ostoakaz
egindako euritakoa zabaldurik, Iratxoa'k Uxue eguratsean zear etxera eroan eban.
Poz baten joian neskatoak, Txano'ri auxe esan eutsan (zion):

– Euritakoaren zoragarria...!

– Ume laztana– Txano'k erantzun–, asko jasan dozu aspaldi izugarri onetan, eta
iñork ez zeuk aiña merezi olako esku-erakutsirik. Ia erriko jaietarako olakoren bat
zuzetatzat lortzen dodan...

Eta urrengo eguncan, illuntzeak istinga bakez eta urrez estaltzen ebanean,
Txano, Ugarazio'gana joanda, Uxue'rentzat areitezko ostoakaz egiñiko euritako
bat eskatu eutsan, eta errian Andra Mari'ren jaiak ospatzen ziran garaian, Uxue'k
ames egindako euritakoaz, aidean zear osteratxu bat egin aal izan eban (zuan), begi
ederrak zorionezko argiaz piztuta...

AIZKOLARIAREN BOTOIA

Baziran errian, oso ezeukiak ziran senar-emazteak, eta euren iru seme-alabak
janaritzeko istillu gorriak jasaten ebazanak (zituanak). Seme nagusi biak egunoro
ikastolara joiazan, eta alabea zan irugarrena, txikiegia izanik, amarekin etxean gera-
tzen zan. Oso polita zan umetxu au, begi andi urdiñak zituala, eta txit maitekorra
zanez, aitaren kutuna zan.

Goiz aretan, mutikoak ikastolara joanda gero, senar-emazteek izketan ziarduen.

– Ez dakit zein luzaro iraun aal izango daben (duten) gure semeek ikastolan-
iñoan emazteak–, diru geiago lortzen ez ba'dogu...

– Tamal andia litzake ori– erantzun eutsan (zion) senarrak–, zeozer izateko ikas-
ketak bearrekoak dira-ta. Begira, emen nozu egurketeari emonda, beste gauzarik
ikasi ez dodalako. Gure umentzat etorki ohea nai dot.

– Zuzen zagoz, maite ori, baiña estu ta larri ikusten dot nire burua, bearreko
janaria lortzeko.

– Orain banoa basora egurketea egiteko, ia gaur errian ondo saldu dagikedan
(dezakedan) zeozer erosteko.

– Joan ondo,

– Agur, emazte neurca...

Egurlariak astoa gurdinari buztartu eutsan (zion), eta egurraren billa basora joan
zan. Bearrizan utsaz, ez eban arkondararik erabilten; burua txapel zaar batatz estali-
ta, jake-prakak antzera zorro batatz jantziten zan, eta oiñetakotzat, txokloak edo
eskalaproiak. Zorroa aurretik edegita, botoitzat ezkur batzuk josi izan eutsazan (ziz-
kion) bere emazteak.

Aizkolaria lanera abiatzen zala, zorro batatz jantziten zan bere emaztea be, negar
baten etxe-inguruko ortu txiki batera aitzur batekin joan zan, lapikorako zeozer ata-
rateko asmoz.

Negar baten, ezin egikean (zezaken) burutik kendu etxekoan bearrizan gorria.

Aizkolaria basora eldu (iritxi) zanean, astoa bazkatu bitartean egur-mozketeari
emon eutsan. Arratsaldean, gurdibete egur eroiala, errira abiatu zan, eta etxerik-etxe
aal eban ondoen egurra salduta gero, txin urri batzuk aldean eroiazala etxera biurtu
zan, burura etorkiola bere egoera estutik urteteko, urtenbiderik ez egoala.

Eta ibaiaren ertzetik joiala, alako baten didar larri batzuk aditu ebazan (zituan),
eta urreraturik, txalupa batetik andra bat jausi izan zala ikusi eban, eta itoteko
zorian, laguntza-eske didar bizitan ziarduen berak eta txalupariek.

Aizkolaria gurdia gelditu, eta aiko-maikotan ibilli barik, uretara txonbo egiñik,

andreagana ugeri egiñez, soiñekotik oratu, eta ertzera eroaten saiatu zan. Zentzuna galtzeko zorian, baiña, emakumeak gaizkatzaillaren botoi bateri eutsirik, teinkada bat azaldu eutsan (zion). Andik laster, aizkolariak andrea ertzera eroatea jaritsi eban, eta bere lagunaren eskuetan utzita, jazotakoari garrantzirik emoteke etxolara bihurtu zan, etxekoekin aparta izateko, eta gero oeratu aurretik umeekin jolas egitearren.

Urrengo egunean, emazteak uts egindako botoia beste ezkur bat azaldu ordeztu eutsan (zion), eta aurreguncan egindakoa aintzakotzat artu barik, egurlaria astoa buztartu, eta lanera joan zan.

Ibaitik gaizkatutako andrea, baiña, jauregi eder bateko ugazabandira aberatsa zan, eta bere senetara bihurtu zanean, gaizkatzaillera saritu gura izan eban, baiña iñork ez egikion aren nortasunari buruz zantzurik emon, urretatik atara baiño ez egurlaria joana zalako, eta emakume esker onekoa izanik, bide guztiakaz gizonaren nortasuna jakin nai eban. Bere aalegiñak, baiña ustel billakatu ziran, eta noizbait aspertuta, egunkari, irrati ta ikustirriaren (telebisioaren) bidez, guztitariko iragarkiak agindu ebazan, bere gaizkatzaillari sari on bat emongo leuskiola (liokela) jakiñerazoz; orretarako baiña, berak ari erauzitako botoi bardin bat erakustea bearreko baldintza izango litzakela.

Luzaro zabaldu ziran errian esandako iragarkiak, baiña gure egurlaria, sendiarrentzat bearreko janaria lortzeko oso arazopetuta egoanez, eta onezaz gaiñera, irratigailurik etxean ez izanik, ezta irakurten jakin be, gertatzen zana ez eban ezagutu.

Baiña Txepetxa'k, erriko jazoera guztien barri artzen ebanez (zuanez), jazotakoa ezaguerara etorri yakon (zitzaion), eta azterketa sakon bateri emon eutsan (zion). Onen ondorioz, jakin aal izan eban, gaizkatzaillera ez zala errian bertan bizi izaten, eta itaunketak erri-aldamenetatik jarraitu ebazan (zituan).

Bein baten, etxola baten ondolik igaroten zala, jaiegun izanik, egurlari batek bere alabatxu kutunarekin larra bateko loretxuak biltzen ebezala (zituztela) ikusi eban. Urreraturik, jakearen ordez zorro bat erabillega oartu zan, eta urragotik (urbi-llagotik), ezkurrezko botoi bikaz lotuta egoala, baita oneitariko bat josi-barria zirudiala be.

Egazti argia zan Txepetxa, eta laster oartu zan egurlaria andre aberatsak billaturiko gizona zala, eta arazo guztiai buruz, Txano, iratxoa, jakitun ipinten ebanez (zuanez), urrengo egunean bere adiskidea ikertzera joan zan.

Egan egin eban ba Murugane'ko basora, eta eldutean, areitzeko Txano'ren etxetua utsik ikusi eban; suzmo bakanak jota, istingara abiatu zan, eta azterketa laburraren ostean, bere adiskidea Ugarazio'ren ondoan ikusi eban, onek igelen erestaldi zoragarria zuzentzen ebanean (zuanean). Baekian Txepetxa'k, erestaldia amaitu arte ez ebala Txano'rekin berba egiterik, eta igelak isildu ziranean, iratxoaren sorgindurea amaituta, urreratu, eta aizkolariari buruzkoa jakitun ipiñi eban (zuan).

– Txano, nire ustez, zeozer egin bearko genduke gizon txiro orren eta bere sendiaren alde. Ezeuki osoak dira, eta gaiñera aizkolariak irakurten ez daki, beti lanean jardun daualako. Egurrari ataraten dautsanaz eta bere emazteak zapi bat baiño

andiagoa ez dan ortu bateko obariaz, estu-estu bizi dira euren iru seme-alabekin. Negar egitekoa da, Txano, eta sorosi dagizuzan (ditzazun) etorri naiatzu...

Une luze samar batez oldozkor egon zan iratxoa, eta gero asperen luze bat jaurtita,

– Nasaitu zaitez Txepetxa– esan eutsan (zion)–, biar bertan joango naiake, ia zer egin dagikegun (dezakegun).

– Eskerrik asko, Txano, munduko iratxorik onena zara.

Biamonean, areitz-ostozko euritakoaz Txano basora aizean zear abiatu zan, eta luzaro barik egurlaria bere asto ta gurdiaren ondoan ikusi eban lanari bete-betean emonda.

– Aizu, adiskide, zurekin autu bat izan nai dot.

– Zeuk esango, baiña labur izan zaitez, gurdi au bete egin bear dodalako, errian egurra etxerik-etxe saltzeko.

– Neure esatekoa oso garrantzitsua dan ezkerro, jesarri gaitez iradu barik, eta gero gurdia beteko dozu.

Biok aukeran jesarri ziranean, Txano'k,

– Aizu, adiskide– itaundu eutsan (zion)– zu ete zara lengo egunean ibaian itoteko zorian egoan andra bat gaizkatu zenduana..?

– Bai, olantxe da.

– Jakin bear dozu, dalako andrea jauregi bateko alargun aberatsa dala.

– Niri bardin daust (dit) aberatsa ala ezeukia izan daiteke. Lagun urkoari estualdian beti sorosi bear dautsagu (diogu).

– Eta ez al-dakizu, bere gaizkatzaillera saritu naiez dalako alargunak guztitariko mezuak jaurti dituala, aren nortasuna ezagutzearen..?

– Ez. Egia esateko, gurean ez dogu egunkaririk ez irratigailurik ezagutzen. Irakurten be ez dakit.

– Zelan daiteke, zeu lako gizon batek irakurten ez dakianik..?

– Oso erraza da. Ara... umetarik lan egin bear izan dot, etxera diru apur batzuk ekarteko.

– Jakin bear dozu, sari bat emoteko, jauregiko ugazabandreak bere gaizkatzaillera ezagutu gura dauala.

– Bere eginbearra beteten dauanak ez dau iñongo saririk artu bear. Ori txikitandik be ikasi neban, Jaungoikoaren legea da-ta.

Txano iratxoak arrituta begiratu eutsan (zion), berekiko iñoala aurrean eban egurlaria ezjakiña izan arren be, barru andiko gizakia zala. Orduan auxe esan eutsan (zion),

– Diñozunetan zuzen zagoz, baiña mundu onetan be, zuzen eta ongillea dana saritua izan daiteke.

Egurlariak soiñak jaso zituan, eta alkarrizketa amaitutzat emonda, bere egitekoari jarraitu eutsan (zion).

Txano, une batez ezpaitsu geratu zan, eta gero, ezer esan barik, jauregiko zuzenbidea artu, eta aizeak eragindako euritakoaren bidez laster eldu (iritxi) zan alargu-

naren jauregi ederrera. Iiakaz egiñiko txanoa buruan ondo egokitu, eta soiñeko zimurak leunduta, ugazabandrea ikusi gura ebala (zuala) iragarri eban. Areto eder batera lagundu eutsan (zion) neskame batek, eta laster azaldu zan jauregiko jaubemea.

– Zer nai dozu, adiskide...?– itaundu eutsan (zion) andreak...

– Ara, gaizkatu zinduzanaren barriak dakartsudaz.

Pozezko didar bat jaurti eban alargunak, eta gero,

– Ordua da ezkutu ori argitu daiten. Esaidazu dana.

Orduan, Txano'k, Egurlariarekin izandako autua azaldu eutsan (zion), eta amaitzean, alargunak,

– Zeuk diñostasunez, dalako egurlaria ez da edozelakoa, eta aren elbidea emoten ba'daustazu (didazu), gaur bertan arratsaldean aren etxera joango naz.

Eskaturiko argibidea emonda gero, Txano aldendu zan Ugarazio'ri oiko ikustaldia egiteko. Bazkaldu ostean, jauregiko ugazabandreak egurlariaren etxolara joateko abiamenak egin ebazan (zituan).

Illunabarra zan; egurlaria etxola-aurrean jesarrita, arratsaldeko bakea gozatzen egoala, sei zaldi bikaiñek lerraturiko gurdi eder bat bere ondoan gelditu zan. Emakume apain bat jatsi, eta beragana joanda alboan jesarri yakon (zitzaion). Ezkurrezko botoi bat erakutsi eutsan, esanez,

– Botoi au zeurea al-da...?

– Bai, lengo egunean galdu neban andra bat uretatik atara nebanean (nuanean).

– Egiztatu dagikedazu (dezakedazu) zeurea dala...?

– Ez dot beste botoirik erabilten. Galdutakoaren ordaiñez, emazteak beste bat josi eustan (zidan).

Au esanik, egurlariak bere zorroari jositako botoi barria erakutsirik, auxe eratsi eban (zuan):

– Andrea, jakin bear dozu, txiro izan arren be, ez dodala iñoiz guzurrik esan.

– Barkatu egidazu (zaidazu); aurrerantzean zure itzak ez dodaz ezbaian jarriko. Jakin bear dozu, egurlari Jauna, bizitza zor dautsudala, eta zeuk egindakoa saritze-
ra etorri naiatzula. Begira, nire jauregiko etxaguntzea ta ondasun guztiak zeuk erabilli dagistazuzala (ditzakidazula) gura dot. Arduralari edo jagole zintzo baten billa, beti aalegindu naz, eta orain aurkitu dodanean, ez dot galdu gura. Zer diñostazu nire eskintzeari..?

Egurlariak arrituta begiratu eutsan, eta gero,

– Andrea, ez naz gauza orretarako, irakurten eta idazten ez dakit eta...

– Ori ikasiko dozu. Benetako gizon bat izatea askozaz beñiñagoa da. Gertu egizuz (zazkizu) zure gauzak eta emazte ta seme-alabekin nire jauregira etorriko zara.

Eta olan egin eban egurlariak. Arduralari zintzo ta arteza zanez, andik laster abedetu zanean, bere jarduna guztien pozerako bete eban, eta anditu ziranean, seme-alabak Ikastola Nagusira sartu ziran.

LARRAZABAL'GO KILKERRA

Larrazabal'go larrean, kilker oso begiko ta abeslaria bizi izaten zan. Uda urretzen zanean, abots zoliaz guztiai eguraldi ederra iragarten eutsen (zien). Bein baten, Txano iratxoa, aren zuloaren aurretik bidebatez igaroten zala istingako igelen erestaldia entzuteko, une batez bere zuloaren atean gelditu zan, eta alkar agurtu ondoren, Txano'k auxe esan eutsan (zion):

– Aizu, adiskide neuria, kilkerren printzea, zoragarria da zure egoen arrabita (bioliña) entzutea, udako eguraldi ederra gogora dakarrelako. Jo egizu (ezazu) nireztat zure soiñu alai.

– Unetxu batez soillik izango da, nire emaztegaia ikustera joan egin bear dot-eta, ari nire eresirik ederrena joteko. Ez dau gogokoa itxarotea, eta atzeratuten ba'naz asarratuko da.

– Ez nekian emaztegaia zenduanik. Noiz ezkonduko zarie..?

– Egunak laburtzen asi daitezenean. Orduan ezkonduka, egoen arrabita isilduko dot, eta nire ondorengoak jaio ta gero barriro be joten asiko naz.

– Non dago zure emaztegaia...?

– Istingatik urrun ez dagoan Mendigarai'ko egian.

– Aizu, Kilker maitia, bidebatez istingara lagun joango gara, eta gero zeu emaztegaigana joango zara.

– Itxaron apur bat, jai-janzkia ipiñi dagidan (dezadan).

Au esanik, kilkerra zulotik ostendu zan, ata andik laster jai-janzkiaz apainduta agertu zan. Buruan, bedarrezko kapelatxu orlegia erabilten zulo bikaz ormiduta, adarrak igaro zeitezaz; soiña, gau baizen baltza zan besana dizdiratsu bat az estalita, eta sei oiñetan ebanozko txokloak. Izan be, Larrazabal'go kilkeraren itxurea zauzgarria zan, eta bera ikustean, Txano iratxoak ezin eban menperatu ederrespeneko txistu bat.

– Arraio, lagun– esan eutsan (zion)–, Betxuanalandia'ko erregea emoten dozu..!

– Zer da Betxuanalandia edo-ori..?

– Afrika'ko erreiñu bat.

– Naikoa dot nire maiteñoaren ederrespenaz. Jakin bear dozu, adiskide, aren inguruan kilker asko dabilzela, eta nire abestiaren bikaintasunagaitik aren maitasuna jaritsi dot. Baiña goazen, bera ikustearren berantetsia nago-ta.

Mendigarai'ko egiara abiatzen zirala, abestu bitartean, kilkerra pozaren pozez ikotika joian. Orduan, Txano'k auxe oartuerazo eutsan (zion).

– Arrats ederra da benetan, baiña etsai asko zure aurka dozu, eta badaezpadan, on izango litzakizu (litzazuke) isiltsuago abestea.

– Zeintzuk etsai..?

– Lenengo ta bein, iturria; onek zure endako lagun asko garbitu dau. Kontuz ibi-lli, beraz..!

– Egarrri naz, eta nire maitetxua ikusi aurretik edan gura dot.

– Gero, bedartzaren artean zelatari dagoan sugea. Au beti gose da, eta kilkerkia asko atsegin yako (zaio). Erasoten ba'dautsu (ba'dizu)...

– Orduan, zer egin dagiket (dezaket), Txano maitia...?

– Matraillen artean sartu egiozu (zaiozu) zotz bat, eta onetarikorik eskura ez ba'dozu, darabiltzun oiñetako bat naikoa izango litzake aren gosea baretzeko.

– Ez dot aztuko zure burubide ori.

– Gero, belatxingaren kumeak; oneik beti kilker-eske dabiltz, eta aita-amak ikusten ba'zaitue, kabira eroanda, zure azken arnasa emongo zenduke kumeen urdail bete-eziñetan.

– Izugarria izango litzake, Txano maitea. Zer egin dagiket (dezaket) olakorik jazo ez dakidan...?

– Erasoko ba'leutsue (ba'lizute)), astirik galtzeke auxe esaten asi zaitetz:

Belatxin amabost txintxin,
kilker-errege izateko
kañoi bat dakart atzetik
belatxingak garbitzeko.
Banoa maiteagana
mosutxu bat emoteko,
eta berak gura ba'dau
biok laster ezkontzeko.

– Eta, Txano maitia, au esaten ba'dautset (ba'diet) ez dauste (didate) kalterik egingo...?

– Belatxingak entzun baiño ez, eurok garbitzeko kañoi bat atzetik datorrela, izu gorrian iges egingo dabe. Baiña itzok esatean, biribilketa bat dantzan egiten asiko zara.

– Ondo da, Txano, pozgarria da zeu lako adiskideak izatea. Ezkondu naitenean, eztegukoa (ezteietakoa) izango zara.

– Eta neuk pozik onartuko be, aitabitxi izatekotan batez be.

Isillune baten ostean, iratxoak barrero,

– Jakin bear dozu, baiña, belatxingak uxatu ondoren, buruausteak ez yatzuzala (zaizkizula) amaituko. Zure maitetxua bizi dan zuloaren ondoan, Oianburu'ko ikazkiñak txondorraren ondoan lanean diardu, eta bere amabi semeai, kilker bana ekarriko dautsela (diela) agindu dau. Kilker-arrapaketan oso trebea dan ezkerro, bera-gandik aalik urrunen ibilli zaitetz.

– Olan egingo dot, Txano, eta eskerrikasko.

Atan orretan, adiskide biok istingara eldu ziran, eta iratxoa igelen erestaldia entzutearren, an gelditzen zala, Larrazanbal'go kilkerria, egian gora bideratu zan. Alde egin aurretik, Txano'k barrero,

– Ondo joan kilker adiskide ori, eta ez aztu, emon dautsudazan (dizkizudan) oarrak.

– Ez, iratxo maitia, gogoan izango ditut.

Andik laster, kilkerak lats txiki bat zearkatu bear izan eban, eta zelan egiteko ausnar egoala, irrist egin eban (zuan) eta uretara jausita, izuz beterik palastaka asi zan. Tiraiñak eroateko zorian, baiña, ostu andi bat albotik igaro yakon (zitzaion), eta oneri eutsita beste ertzera igaro zan.

Larrialdia igarota, zidor batetik joiala, areitz tantai batetik katamixar (katagorri) bat bapatean azaldu, eta eraso eutsan (zian). Kilkerak itzulipurdi batzuk emonda, bere azkena zala uste izaten ebanean, katamixarra gelditu zan, eta adi-adi begiztazen ebala (zuala),

– Barkatu, lagun– esan eutsan (zian)– intxaurtzat artu zaitut-eta.

– Ni intxaurtzat artu izan bear be...! Neuk ezagaturiko katamixarrik ergelena zara.

Eta asarre bizian Larrazabal'go kilkerak bideari jarraitu eutsan (zian). Baretu zanean, baiña, abotzarra zabal-zabal eginda, ezustez suge andi batek eraso eutsan (zian). Kilkerak zotz bat matraillen artean sartu gura izan eutsan (zian), baiña une aretan zotzik eskura ez izanik, arin baten oiñetako bat kendu, aren abora sartu, eta sugeak lerrenak eginda mamurtu bitartean, gure kilkerak igesari emon eutsan (zian).

Baiña Larrazabal'go kilkeraren atsekabeak ez ziran oraindiño amaitu, eta baso-soil baten zear joiala, itsumustuan, belatxinga bi oldartu yakozan (zitzaizkion) eta irusteko zorian, biribilketea dantzan egiten asi zan, atzetik kañoi bat ekarrela belatxingak garbitzeko esanez. Izu egindako egaztiek aida baten iges egin eben (zuten), eta kilkerria oartu zan bere maitiaren egoitzatik ur (urbil) egoala, txondor bat ikusi ebanean.

Goizalde aretan, etxetik urten zanean, ikazkiñak bere seme kutuna negar baten utzi izan eban (zuan). Bere amabi semetariko bakarra zan kilker bat ez ebana, eta aita etxetik urten zanean, kilker bat ez ekartekotan, munduko umerik zoribakoena izango litzakela, seme kutunak esan eutsan (zian). Augaitik ba, arratsalde aretan, txondorra ondo ta astiro erreten zanean, kilker bat arrapatzera abiatu zan.

Txondorretik ur samar, Larrazabal'go kilkerria andik igaroten zanean ikusi, eta arrapalada baten ikazkiñak atzitu nai izan eban (zuan); kilkerria, baiña, urrenen egoan zulo batera sartu zan. Abo bête agiñakaz geratutako gizona, ez zan kikildu, eta bedar-izpi bat az zulo-barrua eragin eban (zuan) agertu arte. Noizbait, pozaren-pez kilkerria atzitu, eta txapel pean sartuta etxera joan zan.

Seme kutunak, Larrazabal'go kilkerria kaiola txiki batera sartu, eta leioaren ondoan ipiñi eban gabaz abestu egian (zezan), orretarako ugaza-orri (ostu) ugari kaiolan ipiñiz. Baiña maiteminduriko kilkerak bere bioliña erabilli nai ez izanik,

lur-jota, ez eban (zuan) besterik egiten asperen jorantsuak jaurti baiño.

Iru gau-ta-egun txondor-ondoko kilker-eme maiteminduak Larrazabal'goari alperrik itxaron eutsan (zion), eta agertzen ez zala ikusirik, naigabe biziak artuta negar baten aren billa asi zan. Txepetxak ikusi eban kilker-emea etsiak jota bidetik joiala, eta bere atsekabearen zergaitia jakitean,

– Aizu– esan eutsan–, oraintxe bertan Txano iratxoa istingara zuzentzen zala ikusi dot. Zagoz emen unetxu batez, eta jakitun ipiñiko dot.

Laster eldu zan Txepetxa istingara, eta Txano'ri kilkeremearena esan eutsan (zion). Astirik galtzeke, iratxoa ezkongaiagana joanda, bion artean Larrazabal'go kilkeraren billa asi ziran. Baiña aalegindu ba'ziran be, billaturikoa ez zan iñondik agertzen.

Zailla zan benetan kilkerra aurkitzea... Ikazkiñaren seme kutunak, ain irrikaturiko bioliña mutu egoala ikustean, asarre baten kaiola artu, eta etxeko oxin sakonera jaurti izan eban. Zorionez, uretara barik, kaiola ormako adartxu baten korapillotu, eta eskegita geratu zan.

Larrazabal'go kilkerra oartu zan, Txano'k bere arrabita edo bioliña entzungo ba'leu, onik urten leitekela, eta augaitik aalik zaratsuen abesteari emon eutsan (zion). Kilkerren printzea zancz, bere bioliña yaukala zan, eta onezaz gaiñera, oxinak oiartzuna anditzen eban. Jo ta jo egoala, areitz-ostozko euritakoaz aizearen eragiñez zabaldua zearkatzen eban Txano'k, bere adiskidearen eresia aditu, oxinera jatsi, eta kaiolaren barruan egoan kilkerra jaregin eban (zuan). Laster batu ziran besarkada sutsu baten kilkerra ta bere emaztegaia. Arrezkero, eta danok bat etorrita, igarotako atsekabeak aztu egiteko, iru egun geroago maiteminduen ezteguak ospatu ziran.

Kilkerren printze bateri egokionez, ospakizuna bikaiña izan zan. Berreun kilker lerraturiko gurdi eder baten, Larrazabal'go kilkerra bere emaztegaiaren egoitzara abiatu zan. Emen, berreun igelek inguraturiko emaztegaia, aren begira egoan, eta guztitariko biolin-jote ta igelen eresiakaz eztegu bikain-bikaiñak ospatu ziran; Txano iratxoa, aitabitxi ederretsia zanez, ezkon-saritzat urrezko lapiko bat eskiñi eutsen. Eta olan, kilkerren enda bikain bateri asiera emenez, urrengo udabarrian euren ondorengoan arrabitak zabalduan zear bazterrak alaituko leukiez (lituzkete)...

TXARRI ERNAIA

Egun aretan, Txano iratxoa, erriko azokan eguratsetik lurreratu zan. Abereak maite ebazan (zituana), eta aspaldi aretan istingako igelek isillik irauenez, azokara joatea erabagi izan eban (zuan). Andik iradu barik joiala, txarri mirrin batek gogoa erakarri eutsan. Azurretan egoan, eta janari-ezagaitik, urrean, batetik bestera aldar-ka (alboka) ebillen. Gero, ijito batek zugaitz batera lotu eban. Izan be, aulkeriz il ekion aurretik, azokara saltzeko ekarri izan eban.

Txarria lotuta egoan zugaitzaren adar baten kokatu zan Txano, eta itxaron eban (zuan). Erosleak bata bestearen atzetik igaroten ziran, baiña jaramon gitxi txarri mirriñari. Goiz-erdian-edo, itxura zintzoko baserritar bat txarriaren aurrean gelditu zan. Txano'k bereala ezagutu eban Artadi basetxeko nagusia, eta txarriaz erukiturik, alde egiteko zorian zan baserritarari, goiko adarretik auxe esan eutsan (zion),

– Aizu, Artadi'ko adiskidea, erosi egizu txarri ori, eta ez zara damutuko.

– «Katu» ori erosi dagidan (dezadan) diñostazu..? ez al-dozu ikusten, il dakion aurretik ijito orrek saldu gura dauanik..?

– Lenengo ta bein, ori «katurik» ez dala esan bear dauzute (dizute), eta gaiñera, mundu onetan txarri zuurrik jaio ba'da, aurrean dozun ori da. Eroan eta eskuko amabost egingo dozu (txoko edo mauka andia).

Artadi'koak burua txorkatu eban (zuan), eta gero,

– Ez dakit ba, nire emazteak abobeteak esango ez ete daustazan (dizkidan), olako ezgauza bat etxera ba'dakartsat. Berak, txarri on bat loditzeko erosi dagidan (dezadan) esan daust-eta...

– Mire uté zeñó - tartetu zan ijitoa - eto e pura maraviya; zolo le farta hablá y escribí...

– Baiña ni, «secretario» edo idazkari bat crostekoa asmotan ez naz etorri, txarri on bat baiño. Zenbatean emongo zeunskit (zenidake)..?

Gaua baizen illuna zan esku batatz, ijitoak burua txorkatu eban, eta noizbait,

– Pué por zer p'a uté, ze lo dejo en veinte duro! ea..!

– Ogei ogerleko..! Burutik eginda zagoz-ala..?

Onen ostean gangaillenez asi ziran biok, eta azkenean, amar ogerlekotan bat etorri ziran.

Makaltasun (aultasun) utsaz, nekez ebilken txarria Artadi'ko etxekojaunak besoetan artu, eta asto-gurdian ipiñita, etxerantz abiatu ziran. Olan joiazala, txarriagana urreraturik, Txano'k auxe esan eutsan (zion),

– Aditu ondo auxe, lagun: zu ez zara edozelango gauza, eta odoloste, lukainka,

giar ta urdazpia izateko, zure azken arnasa emon nai ez ba'dozu, etxeoandreaki olako zirikadak edo ziltzak etorri ez dakiozan, jan eta edan gitxi, ozta-ozta bizirik irauteko beste, eta olan bizi-luzea ezagutuko dozu.

– Eskerrikasko, adiskide. Nor zaitut..?

– Txano, barruti onetako iratxoa nozu, eta ez aztu neuk esanikoa.

– Zeuk itarantzuna (esondatua) egingo dot.

Etxera eldu (iritxi), eta etxeoandreak txarria ikusi baiño ez, senarrari ospintsu auxe esan eutsan (zion):

– Baiña Dunixi, kokolo ori, zelan otu yatzun (zaizun) olako «katu» bat etxera ekarte...?

– An egoan batek, crostekoa ta erosteko eskatu daust (dit), eta orra or..

– Ai, iñuzente ori, neuk be azokara joan egin bear izango dot, bestelan gauza onik ez...

Onen ostean, etxejoaunak txarria kortara (ukuillura) eroan, eta an ira-meta baten gainean lo egiteko ipiñi eban (zuan).

Txarria oso ernai azaldu zan, eta laster kortako beste lagunekin berba egiten ikasi eban (zuan). Etxekoek be laster igarri eben (zuten) txarriaren doai ori, eta Gurru-gurru izena jarri eutsan (zioten). Etxekoandreak egunoro mamiñak eskukatzen eutsazan (zizkion), eta loditzen ez zala ikusirik, andik laster janaririk ez emotea erabagi eban (zuan).

Gurru-gurru, baiña, guztiz argia zanez, kortako lagunak aska edo ganbelak iker-tuz, bizirik irauteko beste jaten eban, baiña Txano'ren aolkua gogoraturik, gitxi ta astiro.

Artadi'ko etxejoauna laster oartu zan kortako beste lagunekin Gurru-gurru oso ondo alkartzen zala, eta orduan beiak, astoa, eta oilloak zaindu egiazala (zituzan) erabagi eban (zuan). Aldiaren bidean, Gurru-gurru'k eguna argitu baiño ez, oillarri ta oilloak kortatik ataraten ebazan, aztarka janaria idoro egien. Jarraian, beiak eta idiak larradira, eta astoa esne-banaketatik biurtzen zanean, au be zaintzen eban (zuan). Eta bere lagunak janaria billatu bitartean, guztitariko aolkuak eta irakaspe-nak emoten eutsezan (zizkien).

Oilloak maite zituan, eta onein txitakin jolas egin oi zuan, batetik bestera bizkargaiñean eroiazala txalojote ta barreka. Oillarri bere egitekoak gogora ekartsa-zan, sendia ondoen jagon egian (zezan).

Astoa lagun-miña eban, eta arratsalde guztietan, esne-banaketatik biurtuta, larran alatzen zanean, biok alakarrizketa luzeak izaten ebezan (zituzten). Laster oartu zan Gurru-gurru, etxeko astoa apal baizen filosofoa zala, gero ta geiago biok alkarrari ederresten eutsocla (ziotela).

Bein baten, astoa lur-jota ikusi eban, eta zergaitia itaunduta, onek auxe esan eutsan (zion),

– Ai, Gurru-gurru maitia...! jaiegunetako arratsaldeetan atsedean artu-bearrean, ugazabandrea lepoan artuta lagunak etxetara briskan egiteko eroan bear dot... Au nire zoritxarra...!

Malko andi bi eriozan etxeko astoari, eta bere lagunak errukituta, Gurru-gurru'k orduan,

– Begira lagun– esan eutsan (zion)–, ezbear orretatik zure burua aske ikusi gura ba'dozu, egizu auxe ta auxe...

Jarraian, egin bear ebana astoari azalduta gero, banandu ziran.

Urrengo jaiegunean, briska egitetik ugazabandrea biurtu zanean, astoagana joanda, Gurru-gurru'k auxe itaundu eutsan (zion),

– Ta, adiskide, zelan joan yatzu (zaizu)..?

– Oba ezin... Ara, bidean zear giñoazala, ertzeko sasitzara urreraturik, igurtzike-ta itzela ugazabandreaki emon daust (diot), eta aren didarrai jaramon egin barik, olan iraun dot luzaro samar. Onantzakoan, janzkia arramaskaz beterik ebala (zuala), ez da azartu nire lepoan biurtzeko, eta oiñez etortean, mormorka abobetekoak esan daustaz (dizkit). Onezkero, ez dot uste briskan egiteko, nire zerbitzuak artuko ditua-nik.

Eta olan jazo zan etxeko astoaren poz andirako, Gurru-gurru gero ta ederretsia-go ebala.

Bein baten, gabaz azeri batek ate-zabalunetik sartu, eta oillorik ederrena agiñe-tan artuta eroan eban (zuan). Urrengo egunean, Gurru-gurru'k oilloak lekorera atara ebazanean (zituanean), oilloaren uts-egiteaz oartu zan, eta oillarragana joan-da,

– Aizu Txapelgorri– itaundu eutsan– oartu al-zara oillo gorri eder bat uts egiten yakula (zaigula)..?

– Bai, adiskide, eta kezka beterik nozu; bart norbait kortara sartu zalaren suzmoak jota nago-ta...

– Baita neuk be. Ezpaibarik, ori azeri baten ekintza izan dalakoan nago... Eta olan izatekotan...

– Olan izatekotan, Gurru-gurru maitia, dalako lapurrari aurre egin bear dautsa-gu (diogu).

– Zu zara benetako oillarri esan bear dana...! Izan be, txapel gorri ori iñon ezin obeto zure buruan baiño.

Gurru-gurru'k ausnartzeari emon eutsan (zion), eta andik zati batera, oillarri mintzatuz,

– Aizu, adiskide, argi dago niretzat, gaur gabeen pizti ori beste oillo baten billa biurtuko dala, eta bein betirako uxatu bear dogu. Nire ustez, onena auxe ta auxe izango litzake...

Jarraian, oillarri bere asmoa azaldu eutsan (zion), eta ontzat emonda, gau aretan egi biurtzea erabagi eben (zuten).

Gaberdian inguru, dana bake betean egoala, ateko zabalunetik soin gorritzat ta luzanga kortara sartu zan, eta aldamenak usnatu ondoren, oilloen agatara isil-ostu-ka abiatu zan. Ozta-ozta, baiña, bere doillorkeria egiteko abiatzen zala, bapatean, kukurruka bizitan mokoka ta erpeka oillarri oldartu yakon (zitzaion). Arriutako azeria une batez ezpaitsu gelditu zan, eta olan egoala, buztan uletsuan Gurru-

gurru'k ozka egin eutsan (zion), azeria txingote baten antzera batetik bestera astintzen ebalu (zuala). Noizbait, ikaratutako piztia zaunka bizitan jaregin zan buztanaren erdia txarriaren matrailletan galdu ondoren, eta tximista alakoa ostendu zan inoiz ez biurtzeko.

Urrengo egunean, Gurruguru'k oillategi osoaren zoriona artu eban, baiña berak oillo maitekorrai azaldu eutsenez (zienez), egindakoaren arrakastea, txapel gorria ondo irabazita eban oillar zangarrari zor eutsoen (zioten).

Artadi'ko etxean arazoak ondo samar joiazan, eta etxejoaunak etenbarik bedeinkatzen eban (zuan) Gurruguru'k etxera etorri zan eguna. Orduko, txarria etxejoek inoen guztia ulertzeko gai zan, berak itz egiteko gauza ez bazan be. Aldiaren bidean, baiña txarriaren begietan, onen oldozkunak irakurri egikeazala (zitzaizkela) begitandu jakon (zitzaion) ugazabari, eta onek bein baiña geiagotan onura ekarri eutsan (zion).

Bein baten, Artadi'ko ugazaba asarreko itxuraz etxera eldu zan, eta emaztearen itaunai erantzunez, auxe esan eutsan (zion):

– Zergaitik asarre nagoan...? Ara ba... dakizunez laster izango dira erriko jaiak, eta urtero lez mus-txapelketea atondu izan da. Aurten, txapelkun bikoteari dirumordo bat emonez gañera, zidarrezko txol apain bana artuko dabe (dute). Beste urteetan lez, erriko errementariarekin izena emon neban txapelketa orretan tartekoa izateko, baiña orra or, nire laguna geisotu dala, eta orain bakarrik geratu naz...

– Billatu egizu ba, beste lagun bat eta kitto.

– Berandu da orretarako, muslari onak jolasteko berbatuak izan diralako, eta gañera errementariarekin ondo baiña obeto alkartzen nintzan. Orain, oster, erdi-purdiko muslari batekin asi bear, eta gañera alkartasuna ez da itzetik ortzera lortzen dan baldintza...

Berba oneik esanda, Gurruguru'k adi-adi begizatzen ebalu oartu zan, eta urreturik burua laztandu eutsan (zion) maite-maite. Alako baten, txarriaren begietan txinpart bat ekusala antz emon eutsan (zion), eta irudi au gogoan untzatuta oeratu zan. Gau aretan, baiña, ezin izan eban (zuan) Gurruguru'ren irudia gogotik kendu, eta biaramonean lancan ziarduala, arazoa ezin egikean (zezaken) burutik uxatu.

Etxera apaltzeko biurtu zanean, txarriaren burua eskuetan artu, eta begietara so egin eutsan (zion). Bapatean barriri be iruditu yakon (zitzaion) aurreguneko txinpart berbera aren begietan agiri zala, eta orduan ziltzari aurre egin eziñik,

– Aizu, Gurruguru, gai izango zintzakez musean nire laguna izateko...?

– Gurruguru...!

– Orrek esan gura dau baietz, ezta...?

– Gurruguru...!

– Saio bat egiteaz ez dogu gauza andirik galduko.

Au esanik, karta-eskukadea artu, eta egonarririk andienaz asi yakon (zitzaion),

– Ona emen musaren arauak: lenengo, andia, gero txikia, bikote edo pareak urrengo, eta joko azkenean.

Eta olan, banan-banan jokoaren ezkutu guztiak azaldu eutsazan (zizkion). Las-

ter menperatu eban (zuan) Gurruguru'k argiak jokoaren trikimailluak, eta andik laster keñuz auxe adiarazteko gai izan zan: kartak-utzi, barriak eskatu, eta jokoari ekin, baita abo ta begiakaz keñuak egiten be.

Jokoaren ogeitamaikak izan zan Gurruguru'rentzat zaillena, begiaren azala ezin egikealako (zezakelako) bear dan lez erabili. Noizbait, ekiñaren-ekiñez ugazabak eta berak erabagi eben, jokoaren ogeitamaikak buruaren zirkin bereizi batz adierazotea. Eta olan egunoro ziarduela, ugazaba ta Gurruguru'k alkar-ulertze osoa jaritsi eben, eta Yon Deuna'ren jaietarako, gerturik egozan txapelketan jarduteko.

Baztertze-aurrejokoak (eliminatoiak) asi ziran, eta banan-banan Artadi'koek gañia artuta, txapelketaren azken jokaldira eldu ziran. Nor-geiagoko onek zauskada andia sortu izan eban, eta ez zan gitxiagorako; alde batetik parrokoa ta alkatea, eta bestetik Dunixi Artadi'koa ta bere txarri ernaia. Iru bidar zortzi amarrekoak nortzuk lenengo egin, eta areitxek irabazle.

Azken norgeiagoko asi zan, eta gauzak bardin samar gertaturik, azkenean joko biña lortuta, irugarren eta azkena jokatzen asi zan. Itzela izan zan parroko-alkatearen etorria azken jokaldi onetan, guztitariko karta onak artzen ebezala, eta leikideak asmatu daitekezan txarrenak, oster. Eta olan ez arian, Artadi'koak lau amarreko ebezala, leikideek zazpigarrenean egozan. Eta azken jokaldia izango zana asi zan. Gurruguru'k esku zan, eta alanbear batez ogeitamaikakoak etorri yakozan (zitzaizkion). Orduan, ugazabari erabagitako buru-keñua bialdu eutsan, baiña leikideek karta onak arturik, musik ez egoala agindu eben...

Eta azken ekitaldia asi zan. Gure adiskideek danetan paso ta paso... eta azkenean, parroko-alkateak arri baten falta zirala, joko erabagiteko garaia eldu zan. Esku zan Gurruguru'k, paso egin, baiña irugarrena zan ugazabak ordago bota eban, eta bigarrena zan alkatea ogeitamaika izanik, onartu eban. Kartak mai-gañean ipiñi ziran, eta eskuz ogeitamaika ebazan Gurruguru'k irabazle billakatu zan... Txapelkunak ziran, beraz, Artadi'koak, eta poz baten, diruketea ta txola bana etxera eroan ebezan (zituzten).

Asko mintzatu zan errian ekintza oneri buruz, eta Gurruguru'k ernaia erritar guztien ederrespena bereganatu eban (zuan). Etxekoek be asko maite eben, eta guztitariko ereguakaz erabilia zan, baiña gure Gurruguru'k zuurrak, Txano'ri emondako berban jarraitu eban (zuan), beti argal iranez.

Eta urteak joan urteak etorri, bein baten zaararen-zaarrez Gurruguru'ri ilteko ordua etorri yakon (zitzaion), eta Artadi'ko bake betean etxejoen maitasunak inguratuta, azken arnasa emon eban.

Txano'k baiña, ezin egikean (zezakean) aztu aspaldiko adiskidea, eta bere era-giñez Artadi'ko etxejoaunak illarri'au eraiki eban (zuan)

Emen datza Gurruguru
txarri ernaia ta apala,
biziluze izateko
iraun ebana argala.

Maitekorra ta isilla
astoa lagun ebala,
beiak jagoten ebazan
oillo-babesle zala.

Emendik igarotean
bidari on eta garbala,
gorde muslari bikaintzat
merezi dauan itzala.

Eta nik neuk, Txano iratxoaren aginduz, Gurruguru'ren ekintzen oroigarri,
bere bizitzaren zertzelada oneik idatziz jarri ditut.

SAKRISTAUA TA SAGUA

Erremiji, erriko sakristaua, gizon zorionsua oartzen zan. Izan be, parrokoaren urrengo, eleiztarrek geien ederresten ebena (zutena) zan.

Ikustekoa zan jaiegunetako meza nagusian, bere doai arrigarria parrokoaren latinkeria parra-parra erantzuteko, eta zelako duintasunez laguntzen eutsan (zion), bai mezaliburua aldatzean, bai «amen» erantzutean, edo-ta intzentsua aizatu bear zanean. Diru-eskea egiteko orduan, ikustekoa zan bere duintasun eta benetasuna otzarea eleiztarren suurpean erabilteko. Bazirudian zerga-biltzaille bat aulkietan zear igaroten zala, guztiai euren betekizuna oroituera zoteko, eta izan be, ez zan katurik bere eginbearra aztu egikeanik (zezakenik), Erremiji'ren begien zenteillek ezereztua nai ez ba'eban (ba'zuan).

Baiña sakristauaren jeiñuaren bikaintasuna, abesteko garaian nabarmentzen zan. Mintzo beteaz, argi, ondo aboskatuz, zalantzarik txikiena be erakutsi barik, parrokoari erantzun oi eutsan (zion), eleiz osoa edertasunez betetzen ebala. Eta ertilari on bateri dagokionez, aldameneko errietatik be, meza orretara lagun asko etozan abestien bikaintasunak erakarrita.

Onezaz gaiñera, joale-jotearen ardurea eban; parrokoa ez egoanean, eleiztarren mezuak idatziz artu, sakristegia garbi-garbi iraunerazo, eta zer esanik ez, eztegu (eztei), bataio, illeta, eta beste eleizkizunetan tarteko bear-bearrekoa zan.

Obitegiaren zeregiña bere ardurapean egoan, eta batatz beste, polito irabazten eban (zuan). Gaiñera, sakristauaren emazteak eleizearen garbitasuna bere ardurapean eban (zuan), eta batatz beste, Erremiji'ren etxean ondo bizi izaten zan.

Baiña zoritxarreko egun baten, gauzak okertu ziran, okertu be; ordurarte izandako bakea galdu zan, ez dakigu nondik etorritako sagu barrabas bategaitik...

Izan be, sakristegia ez da leku egokia sagu bat erakarteko, goserik andiena jasan arren be. Baiña neguko gau aretan otzaren-otzez etorritako sagua, ango epeltasunak inguratuta, bere egoitza an bertan izatea erabagita, arasa andi baten pean, aspalditik orman utzitako zulo bat bizilekutat aukeratu eban. Dalako arasea liburu zaarrakaz beterik egoan, eta neketsua zan lekuz aldatzea.

Bizi izateko, sagu arek adimeña zorroztu bear izan eban (zuan), eta laster sakristegiko maiak eta arasak arakatu zituan, guztitariko gaiak jaten zituala, esaterako: jaunartzerako erabilten ziran otill-orriak, baita Erremiji'k arratsalde-erdirako askaritzat ekarrezan ogi-tartekoak batez be. Beiñola, mai baten gaiñean sagua ikusi eban bere ogitartekoari ekiñez, eta asarre baten abobeteoak jaurtiten eutsazala (zizkiola) sagu lapurra uxatun eban. Aurrerantzean, ogitartekoak babesteko, arasa

bateko kutxatillan gorde eroiztan baiña sagu barrabasak usaiña ustiatuz, laster mugatu, eta olaren saietsean zulo bat egiñik, sakristauaren ogitartekoak bere kolkorako ziran. Bein baten, Erremiji'k sagua saltsaren erdian ikusirik, didar bizitan makilla bat az eraso eutsan (zion), baiña denganiñoa igesari emonda, arasa nagusi-pean ostendu zan. Arazoa sakristaua kezkatzen asi zan, eta olakorik barriro jazo ez ekion, ogitartekoak metalezko ontzi baten barruan gorde eroizazan.

Egoera barriari aurre egiteko, saguak adimena zorroztu bear izan eban (zuan), eta orduan otill-orriai ardurea emon eutsen (zient), baiña Erremiji'k laster jakin eban, jakin be, norik marrazkatzen eban aingeruen ogia, eta iñon diran iñondikoak sagu denganiñoaren aurka jaurtirik, metalezko kutxatxu baten ezkutatu ebazan (zituan).

Saguari ateka guztiak ixten joiakiozan, eta bearrizan gorriak eraginda, sagaratzeko erabilten ziran ur eta ardo-andelak gosea arinduko leuskioela (lioketela) uste izanik, maitik sorura jaurti zituan, eta andela apurtuta ardoari bere biziko zurrutadea emon eutsan (zion). Gero, moskorragaitik alboka egiñez, bere zuloan ezkutatu zan ames gozoon besoetan.

Sakristauak ur eta ardo-andelen ondapena egiztatu ebanean, oiuz bizitan parrokoagana joan, ata bide aretatik gauzak jarraitzerik ez ebela (zutela) oiukatuz,

– Jauna– esan eutsan (zion)– gure parroko jarraipena zemaituta dago, eta sagu barrabas ori sakristegitik uxatzeko berorrek zeozer asmatzen ez ba'dau, galduta gagoz...

– Nasaitu zaitez, Erremiji, zeozer otuko yaku (zaigu), Jaungoikoak lagun...

Baiña aspaldi aretan parrokoa lanpetuta egon zan, eta saguaren arazoa aztu egin yakon (zitzaion), sakristauaren atsekabeak amaitzerik ezagutzen ez ebala (zuala).

Bein baten, gose gorriak eraginda, saguak eske-otzarea usnatu, eta onetan diru-txartelen mordo bat ikusi eban. Baziran iru egun baraurik egoala, eta txartel batzuk, zikiñenak izan be, koipe-aldi bat az igurtzita izanik, gozo-gozoak iruditu yakozan (zitzaizkion), eta beste barik arein marrazkatzeari emon eutsan (zion). Egia esateko ez zan gain-gaiñeko janaria gertatu, baiña bere goseak mugarik ez, eta zulora biurtu zanean, txartel batzuk irutsi egin zituan, arein apur batzuk or-emen ikusten zirala.

Sakristauak ondapenaren aztarnak ikusi zituanean, asarre doneak eraginda, parrokoagana joan, eta ezin egikeala (zezakela) bere jardunean jarraitu, esan eutsan (zion), eta sakristegi aretan bera ta saguarentzat ez egoala lekuri. Jaungoikoaren diruari olako erabilte zantarra emoteak, marra guztiak gaintitzen zituan...

Parroko Jaunak zuzen egoala esan ondoren, berba emon eutsan aaleginduko litzakela bideren bat idoroteko, baita laster be... Eta egitan, urrengo egunean sagu-arte bat ekarrela sakristegian azaldu zan. Astirik galtzeke, amuzkitzat sakristauak gaztai-zati bat ipiñi, eta jarraian, nasaitasun-oarpenaz abadeneko (apeztegiko) gorengo maillan eban bizilekura joan zan.

Sakristegiko leio bateri leiar-zati bat uts egiten yakon (zitzaion) eta egun aretan zulo aretatik Txepetxak sagutartea ikusirik, arin baten Txano'gana joanda, sagu gaxoaren galtzoria azaldu eutsan. Iratxoak saguak maite zituan, eta bere adiskidea sorostea erabagi eban (zuan).

Gau aretan, Txano iratxoa sakristegira joan zan, eta kaletik barrura irazten zan argi aulpean, sagu-arte baten aurrean gaztai-zati bateri usaiña artzen sagua ikusi eban.

– Geldi or...!– oiuz egin eutsan (zion) Txano'k– ez jan zati ori, ilgo zara-ta..!

Izan be, saguaren itxurea errukigarria zan, azurrak eta azala baiño ez zituan erakusten-eta. Errukiturik, iratxoak zotz bat emon eutsan (zion), eta zotzaren bidez artea zelan eragin eztanda egiteko azaldu eutsan (zion). Onen ostean, amuzki gozoa jan, eta urrengorarte.

Erremiji'k sagutartea egunero atontzen eban, eta gauero saguak amuzkiz jabetzen zan. Oneri esker, sakristegiko saguak bizirik iraun aal izan eban (zuan), eta sakristaua, ostera, gero ta lur-jotago oartzten zan. Bein baten parrokoagana joanda, sagu a Satanas'ek artuta egoala esan eutsan, eta beste biderik ez ekusala, sakristegi osoa lurreratzea baiño, eta orubea bedeinkatu ondoren, beste barri bat eraiki.

Parrokoak, baiña, beste ustekoa izanik, arazoa gogoan erabiliko leukela esan eutsan (zion), eta onen ostean zeozer otuko litzakiola...

Orduko, baiña, sakristauaren jokabidea negargarria biurtu izan zan. Meza nagusietan, abadeari jarraitzea aztu egin yakon; latiniaren orde, iñork ulertu ezin egikeazan (zitzaiken) itzak jaurtiten zituan; diru-eskea egitean, erreskada osoak eskatu barik aztuten yakozan (zitzaizkion); abestutean, lengo mintzo bete, eder, ozen, zolia, txilibitu barregarri baten antzekoa zan. Argalaren-argalez, prakak jausten yakozan (zitzaizkion), eta gerrikoaren zuloak amaituta, onen orde soka bat erabilten. Joale-jotean, egunsentikoa ala illuntzekoa ete zan, ezin jakin. Izan be, egoera larri aretan parroko arazoak buruz-beera joiazan. Noizbait, zeozer egin bear leukela erabagi eban parrokoak, eta sakristauari deituz,

– Aizu Erremiji– esan eutsan– sagu ori uxatzeko, biderik ziurrena, zulo guztiak espaloiez itxitea da. Biar bertan arloari ekingo dautsagu (diogu)

– Barkatu beist berorrek, baiña sagu madarikatu orren zuloa, arasa andipean dago, eta lekuz aldatu bear dogu.

– Egingo dogu, Erremiji, egingo dogu.

Urrengo egunean, arasa andiko liburu guztiak bion artean banan banan ustu ebazan (zituzten), eta irugarren egunean, arasa betiko lekutik aldatu aal izan eben (zuten). Zuloa utsik egoan, sagua janari-billa joana zalako, eta espaloiaz zulo au eta beste guztiak itxita gero, arasea oiko lekura aldatu, liburuak sartu, eta dana lengura biurtu zan.

Gau aretan, eiza urritik saguak bere zulora sartu gura izan ebanean (zuanean), ezin zeitekeala oartu zan, eta etsiak artuta, sakristegia betirako uztea erabagi eban.

Gau otza zan, eta nora ez ekiala; eleizpetik ibiltzen asi zan. Gau aretan, baiña, saguaren larrialdiaz Txepetxak jakitun ipiñita, Txano'k bere adiskide txikia ikertzea erabagi izan eban (zuan), eta eleizpean sagua ikusirik, auxe esan eutsan (zion),

– Nora zoaz, baiña, sagu ori, gau gorri onetan...?

– Etxetik uxatua naz, eta egoitza barri baten billa noatzu.

– Zatoz nirekin.

Txano'k abadeneko ateraiño lagundu, eta ate-aurrean geldituta,
– Entzun auxe ondo, adiskide– esan eutsan–, sar zaitetz atepetik, eta zurubian gora azken maillaraiño igongo zara, sakristauaren egoitzaraiño izan be. Etxe onetan zenbat-gura zulo zure aukeran izango dituzu, eta arrapaeziña biurtuta, zelangura bizi izango zara. Zoaz ondo ba, eta agur.

– Agur, Txano maite ori, bizitza zor dau sut.

– Ez dot besterik egin, bear dodana baiño.

Txano'k alde egin eban, eta aginduta lez, sagua zurubian gora asi zan. Mailla askoduna zan, baiña noizbait gora elduta, atepeko zirritutik sartu, eta epeltasun gozo batek inguratuta, egoitzat sukaldeko zulo egoki ta sakona aukeratu eban (zuan). Sartu aurretik, ogi-zati gozo bat jan eban, eta gero lotara joan zan.

Gauzak ondo samar joiazan, zuloz beteriko etxe aretan saguak zenbat-gura janari lortzen ebalako (zualako); eta aldi berean, Erremiji poz-pezik egoan, sakristegiko sagu barrabasagandik jaregin zalakoan. Baiña, ondikotz..! adu txarreko egun baten, sakristauak bere jaioteguna ospatzeko erosiriko gozopillaren barruan, sagua ikusi eban, buru-belarri jaten ziarduala. Oiu izugarria jaurtiz batera, sukaldeko aiztoa artu, eta saguari eraso eutsan (zian). Au, baiña, ugariak ziran etxeko zulo batetik ostendu izan zan, eta sakristauaren didarrak erriko enparantzaraiño eldu (iritxi) ziran.

Erremiji'k ezin egikean (zezaken) olan luzaroagorik jarraitu, eta parrokoagana joanda, beste parroki bateko jarduna artuko leukela esan eutsan (zian), edo au eziña izanik, erriz aldatuko litzakela.

Izan be, parrokoak sakristaua benetan ederresten eban, eta goi-arnasak jota, auxe esonatu (proposatu) eutsan (zian),

– Begira, Erremiji, parroki onetako eleiztarrek maite zaitue baita neuk be. Nire ustez, saguaren ostenketa (suntzipena) eskatuz, bederatziumren bat arratsaldeko zazpitan ospatzea onena litzake, kandelak eta intzentsu asko erabilliz. Zer deritxazu asmoari...?

– Ondo derist, parroko Jauna.

Dalako bederatziumrena ospatu zan eleiztar guztiak tartekoak izanik, kandela ta intzentsu asko erabilten zala. Amaitu zan gau berean, sakristauaren etxean Erremiji ta parrokoa alkartu ziran, eleizkizunaren arrakastea iruzkintzeko. Alako baten, atea jo eben, eta orlegiz jantzitako iratxo bat agertu zan . Kapelaz agurtu, eta,

– Zuen ondoan jesarri (escri) naiteke...?– itaundu eutsen (zian).

Baietza emonda, aulki baten jesarri zan, eta onetaraxe berba egin eban:

– Jaun agurgarriok: Murugane'ko nire egoitzan nintzanean, goietatik mintzo aginkor bat aditu dot, ona etorteko agintzen eustala (zidala). Badirudi bederatziumren bat egin dozuela, eta onen ondorioz, epaikaritzat izendatu nabe.

Une batez, Txano ixildu zan, eta gero,

– Izan be, sagu baten suntzipena eskatzea ez da legezkoa, Jaungoikoak sortua dalako. Beste aldetik, Erremiji, erri onetako sakristauak, baditu eskubide guztiak pake betean bizi izateko, eleiztarren arimen onerako emonda. Augaitik ba, nire aalmena ustiatuz, sagua agertu daitela agintzen dot.

Txoko baten adi-adi egoan sagua bereala maira igon zan, eta orduan Txano'k,

– Zuen bien arteko pakea sortu daitela agintzen dot, eta orretarako, sagua esku-bide guztiakaz etxe onetan bizi izango da, etxeko zerbitzari izanik; au da, garbiketala lanai emonda, eta etxean iñor ez danean, atea zainduz, urrutizkiñaren mezuak artuz, eta sukaldeko sua begiraturuz. Sakristauak, ostera, sagua etxekotzat erabilliko dau, janari ona ta oatze egokia emonez, baiña oroz gain maitasun eta begirunea eskiñiz.

Epaiketa au entzutean, parrokoak, sakristauak eta saguak txalo-jote durundutsu batez erantzun eben (zuten), Txano bedekintuz orren zuur jokatzecagatik, aztu egin barik baita be, bederatziumrenaren eragintza arazo guzti aretan.

Andik laster Txano agurtu zan, eta zurubian beera joiala, bere abesti onen zatiak aditu ziran:

Izaki guztiak dira
bizi izateko gaiak,
naiz sagutxu txiki izan
naiz sakristegiko zaiñak.

Izan zaitetze maitetsu
ta benetako anaiak
uxa gorroto zitala,
garbitu zuen erraiak.

Erein maitasun gartsua,
ez billakatu etsaiak,
izan zaitetze lagunak
itz gozoko ta arraiak.

Gabean zear Iratxoaren beste apaldiak galdu ziran, baiña aurrerantzean, sakristauak eta saguak alkarrekiko begirune ta onginaia ez ebezan (zituzten) iñoz galdu.

Bein baten, euren ugazabak txarto erabillitako zazpi lagun batu ziran: asto, txakur, katu, azeri, azkonar, antzar, eta artz bat. Luzaro iraun eben (zuten) euren zoritxak alkarri aipatuz, baiña egoera larri aretatik zelan urten, iñork ez zekian.

Andik igaro zan Txepetxa, arein arrenkurai amaia emoteko Txano'gana joan zan, eta bere adiskidearen barriak entzunda gero, urrengo egunean iratxoak areitz-ostoakaz egiñiko bere euritakoa artu, eta abere gaixoen batzar-lekura eguratsean zear joan zan.

Eztabaida betean egozan abereak, zur eta lur geratu ziran, aidean zear orlegiz jantzitako gizontxu bat eurokana egan egiñez etorrela areitz-ostoakaz egiñiko euritako baten bidez. Lurreratu zanean auxe esan eutsen (zien):

– Parkatu, lagun maite orreik, onen ustekabez etorri nakizuen, baiña zuen egoera dala-ta burutapen bat etorri yat, eta zuekana aalik ariñen nator.

– Zelako asmoa otu yatzu (zaizu) ba...?– itaundu eutsan (zion) azeriak–.

–Ara... nire ustez, onena auxe izango litzake: zuen artean soiñulari talde bat sortzea, erririk-erri eresiak eskintzeko, eta orretarako gai zarien ezkerero, bizimodu polita ataraz gaiñera, ez dozue iñoren erabilte txarrik jasan bear izango. Illabete baten barruan ementxe batuko zarie, eta orduko dana gerturik egongo da.

Zazpi zoritxarreko abereak banandu ziranean, Txano'k erritar batzukana joanda, diru-eske bat atondu eban, eta luzaro barik, bildutakoaz, ereskin batzuk erosi ziran, eta oneik izan be: dunbala, auspo-soiñua, turuta, danborra, txilibitua, arpea ta pianoa, baita asto-gurdi bat be.

Illabetea igarorik barrero bildu ziranean, Txano'k auxe esan eutsen (zien):

– Ona emen, ereskin talde bat sortzeko bearreko lanabesak gerturik. Dunbala astoak joko dau, txakurrak auspo-soiñua, azeriak turuta, azkonarrak danborra, antzarrak txilibitua, artzak arpea, eta katua, mintzo onekoa dan ezkerero, bakar-abeslaria izango da, eta pianoa, pianoa...

Ez egoan baiña lagunik, ereskin ori jo egian (zezan), eta iratxoa ezpaitsu egoala, bide batetik tximiño bat agertu zan. Lagun onek zirko baten ziarduan, baiña txarto erabillia zanez, egun aretan bertan andik iges egin izan eban (zuan).

Alagala etorkiola ikusirik, Txano'k orduan,

– Eta pianoa tximiño onek joko dau.

– Bai benetan– tximiñoak erantzun eutsan (zion)– zirkoan guztitariko creskiñak joten ikasi dot, eta niretzat pianoak ez dau iñongo ezkuturik.

Eta esandakoa egiztatzeko, biribilketa bat joten asi zan.

– Ederto, lagun– Txano’k esan eban (zuan)–, orain zuen soiñulari-taldea osorik dago, eta joan zaitekeze munduan zear.

Onen aurretik, baiña, zeozer esango dautsuedaz (dizkizuet): esanekoak eta lotsazkoak izan zaitezala. Astoa, zuen nagusia izango da, eta berak esanari beste barik men egingo dautsazue (diozue), eta auxe diñot, azkonarra olde pirri edo asarrekoa dalako. Azeriak be guzurrak alde batera utzirik, ez dau oiko bere trikimailurik erabilliko. Eta orain danok gurdira, munduan zear erririk-erri zuen erti gorena guztiai erakusteko.

Au esanik, ereskiñekin lagun guztiok gurdira igon ziran, eta astoa abiatzeko zorian zala, Txano’k,

– Entzun, lagunok, zuen ereskin-taldeak izen bat erabilli bear dau. Zein aukeratu zendukie..?

Une batez ausnar egonda gero, astoak,

– Zer deritxazu «Soiñulari Zoroak» izendatzeari..?

– Oba ezin; joan zaiteze ba, eta bidegite on..! Baiña orren aurretik, entzun egizue au:

Joan zaiteze mundutik
lagun saiatu maitiak,
sar jendeen biotzera
ames eta udabarriak.
Zuekin beti izango
nire gurari biziak,
osasuna izan daizuen
baita ondasun andiak.

Gure lagunak abiatu ziran, eta lenengo errira eltzean, (irixtean), gurdi-aurretik ibilliz, turuta-jotez azeriak erritarrari iragari eutsen (zien), illuntzeko ordu onetan erestaldi bat ospatuko litzakela eta danok deituak zirala.

Eta olan erriz-erri joanda, «Soiñulari Zoroak» arrakasta andia ezagutzen asi ziran. Entzulcak emonkorragoak azaldu zeitezana, eske-txalia txakurrak agiñen artean erabillen. Andik laster, baiña, zirkotik kukusakaz izurritua etorritako tximiñoak bere lagun guztiak kutsutu zituan, eta koko lepotarren ziztadai aurre egiteko, soiñulariek jo bitartean, azka bizitan jardun bear izaten eben (zuten), soiñualdia dantzaldia biurtuz.

Egoera larri au ezin jasanik, bein baten astoak taldea batu, eta auxe esan eutsen (zien),

– Lagunok, koko lepotarrak dirala-ta, ezin dagikegu (dezakegu) olan jarraitu, eta areikandik jareitzen ez ba’gara, gureak egin dau.

– Zorduna– asarre bizian esan eban (zuan) azkonarrak– zirkotik etorritako tximiñoa da, eta zugaitz batetik iru egun eskegita iraun dagiala (dezala) esondatzen dautsuet (dizuet).

– Ixo, azkonar prakerre ori..!– astoak erantzun eutsan (zian)–, tximiñoak ez dau

iñongo erririk kutsapen orregaitik. Orain, kukusakandik jaregitea lortu bear doguna da. Ia guztien artean zeozer otuten yakun (zaigun)..

– Ori erraza da– eten egin eutsan (zian) azeriak– etorri zaiteze nirekin eta ikusiko dozue.

Azeriaren atzetik errekarra jatsi ziran danok, eta ertzera elduta, azeria ortzen artetik zotz bat artuta, uretara sartu zan, gero ta sakonago joaten zala. Kukusak uretatik iges egiñez gorantza joiazana, musturrera urreratzen (urbiltzen) zirala. Noizbait, eta uretatik zotza bakarrik agiri zala, eta kukusa guztiak irakiten lez emen bilduta, azeriak zotza askatu, joairan beera koko lepotarrak itoten zirala.

Au ikusirik, bere lagunak bardin egin eben (zuten), eta andik laster, kukusakandik jarei errira biurtu ziran, aspaldi aretako ereskiñaldirik onena eskiñiz. Astoaren aginduz, gau aretan azeriak ano bikoitza apaldu eban (zuan) eta gaiñera txin batzuk, erriko ardandegian «txikito» batzuk txastatzeko.

Esan bear dogu emen, azeria ardaozale andia zala, eta aal eban guztietan, astoa ustebagetzen zanean batez be, ziskutik txanpon batzuk kentzen eutsazala (zizkiola), eta gero, bere lagunak gurdia estalkipean lotan ziranean, isil-ostuka ardandegian txautzen zituan, gau beranduan txolin samar biurtzen zala.

Beiñola, txin batzuk ostu ondoren eta bere lagunak loak artuta egozala, itzarrik egoan azkonarrari dei egin eutsan (zian) «txikito» batzuk artzeko. Joan ziran ba enparantzako ardandegi batera, eta edaten asi ziran. Olan ziarduela, erriko alkatea sartu zan, didarka abestuz. Orduan, gure lagunek erantzun eutsen (zieten), baita ondo be, entzuleen eritxiz alkateak baiño obeto egiñez. Orduan au pipertu zan, eta abobeteoak aurpegira bota eutsezana (zizkien). Azkonarrak, baiña, bere onetatik urtenda, aurre egin eutsan, eperdian bere biziko aginkada emonez. Ondoreak itzelak izan ziran, eta an egoan txinelari, alkateak azkonarra ta azeria atxillo egiteko agindu eutsan. Baiña ango astrapala ustiatuz, azeriak igesari emon eutsan, eta lagunakana biurtuta, azkonarra udaleko espetxean atxillo egoala salatu eutsen (zien).

Astirik galtzeke, astoa gurdia artu, eta bere lagunekin espetxera abiatu zan azkonarraren askatasuna eskatzeko. Baiña eperdia oraindiño erreminuduta eban (zuan) alkateak, oneik be giltzapetzeko agindu eban (zuan), eta espetxera joan ziran. Danok ez, baiña, tximiñoa gurdi-estalkipeko zimur baten ezkutauta geratu zalako, eta bere lagunak askatzeari emon eutsan (zian). Espetxeko aurrekaldea aztertut ondoren, Tximistorratzan gora igoten asi zan goian bizi izaten zan txinelaren egoitzaraiño. Sapaillotik (balkoitik) sartu zan, eta isil-ostuka ibilliz, ate-ondoan eskegita egozan giltzak artu, eta kalera jatsita, espetxeko atea edegi, lagunak askatu, eta danok isil-isillik gurdira igonda, arin baten erritik urten, eta illundietan galdu ziran.

Urrengo egunean, astoak pekatari biak epaituz, iru eguneko barau osasuntsua jasan egien (zezaten) agindu eban (zuan). Zelan otu izan yakon (zitzaion) alkateari ozka egitea azkonarrari itaundu eutsanean (ziane), onek erantzun,

– Begira, lagun, asarre baten nengoan, eta gaiñera, alkatearen atzekalde ederra zirikada garaiteziña zan..

Au entzutean, astoak iru eguneko baraualdia bateraiño beeratu egin eutsen

(zien).

Aldiaren bidean, «Soiñulari Zoroak» gora andia egin eben, erri guztietan arrakasta andia lortuz. Eta ospeaz gaiñera euren ziskuaren diruak anditzen ziran. Beiñola, baiña, bide urruntsu batetik joiazala, iru laguneko lapurtalde batek erasoak izan ziran, diruaren ziskua ta ereskin guztiak ostuten eutsiezala (zizkietela). Ondo-riok izugarriak izan ziran, eta lur-jotako astoak batzar bat dei egin eban (zuan).

Guztion critxia izan zan, euren aurrezkien eta bearreko ereskiñen alde aalegin-du bear leukiela, eta urrengo egunean, zabaldian zear sakabanatu ziran lapurren gora-beerak jakiteko. Gabean alkartu ziranean, azeriak barriak ekarrezala esan eutsen (zien). Andik urrun samar egoan baso usu bateko etxol baten, lapurrak bizi izaten zirala, eta ateko zirritu baten zear, euren ereskiñak ormatik eskegita ikusten zirala.

«Soiñulari Zoroak» luzaro samar aztertu eben (zuten) euren ateka larria, eta urrengo egunean ara bertaratuta, egitekorik onena aukeratuko leukiela (luketela).

Urrengo eguneko goizaldean, azeria biderakuslea zala, gure soiñulariak baso aretarantz abiatu ziran, eta illuntzean eldu (iritxi) ziran. Gau bete egin zanean, leio batetik astoak barrura begiratu eban, eta lapurrek zarataka ta barre-santzoka ziar-duela asarre bizian ikusi eban, bidebatez euren ereskiñak irri-antzean jotzen ebezala (zituztela). Iru ziran, eta arein nagusia zirudianak,

– Bai– lagunai iñotsen– abere-talde kokoloari kendu geuntsezan (genizkien) diruak eta ereskiñak ondo baiño obeto etorriko yakuz (zaizkigu), eta luzaro barik zaar-saridunen bizimoduari emongo dautsagu (diogu).

Eta bonbil bateri bere biziko txurrutada emonez, abesten eta barre-santzoak egiteari jarraitu eutsan. Astoak nekez menperatu aal izan eban bere asarrea, eta leiotik alde egiñik, oldozkun sakon bateri emon eutsan (zian). Gero, lagunakana biurtuz, katuari auxe agindu eutsan:

– Entzun, egizu negarrez dagoan ume batena, baita aalik sendoen eta unkigarrien, eta gero itxaron...

Asi zan ba, katua negarrez ari dan ume gaixoarena egiñez, eta lotara joan izan ziran lapurrak lo egin eziñik, nagusiak menpeko bateri,

– Entzun, urlia– agindu eutsan (zian)– urten zaitetz lekorerera, artu egizu negarrez dagoan ume ori, eta bota egizu ibaira, ia azken baten lo egin dagikegun (dezakegun).

Lapurra urten zan, eta umea billatzen ari zala, ustekabez astoak ostikada indartsu bi jaurti eutsazan (zizkion) lurrera amilduz. Bereala tximiñoak esku-oiñak lotu ostean begira geratu ziran.

Umea isiltzen ez zala ikustean, lapurren nagusiak beste lagunari urten zeiten eta ume nekagarria artuta, ibaira botateko agindu eutsan (zian). Olan egin eban menpekoak, eta illunpetan negartiaren billa ziarduala, astoak beste ostikada indartsu bi jaurti eutsazan (zizkion). Zentzuna galdutako lapurrari tximiñoak esku-oiñak lotu eutsazan (zizkion), eta gure lagunak begira geratu ziran ostera.

Kanpoko ume barrabasa isiltzen ez zala ikusirik, asarre gorriak menperatuta,

lapurburua urten, eta aren billa asi zan. Alako baten, astoaren ostikadak bete-betean artu, eta bera be tximiñoak lotu eban (zuan).

Gero, lapurrak gurdira eroan, eta aldarerik onenean, «Soiñulari Zoroak» urrengo urira eroan ebezan (zituzten). Egunsentian elduta, lapurrak ertzaindegira eroanda, an geratu ziran atxillo, gure ereslariek guztien zorionak artuta gero. Erritarrek goratzarre eder bat egin eutsien (zieten), eta guztitariko esku-erakutsiak, dirua ta janaria artu ondoren, orain uts egoan lapurren etxolara biurtu ziran. Ondo jaten eta edaten, atsedan artzen, eta ereskiñak jotzen, astebete bat emon eben (zuten). Onen ostean, «Soiñulari Zoroak» euren lengo bizimoduari jarraitu eutsoen (zieten), lurraldean zear euren erti gorena erakutsiz.

Urteak joan, urteak etorri, baiña, gure adiskide ereskinlariak zaarrak billakatu ziran, eta batzar nagusi bat ospatu ondoren, guztion critxia zaar-saridunen bizimoduari emotea izanik, gurdia artuta, lapurrek oraindiño utsik lagatako basoko etxolara biurtu ziran, eta aurreztatuko diruakaz emen euren azken urteak bake betearen emon ebezan (zituzten).

Bazan txakurreme bat bere iru kumeekin leku bakarti baten bizi izaten zala. Gai-xoak ez eban bearreko janaririk lortzen eta begiratutxuan bizi arren be, kumetxuak nekez azi egikeazan (zitzaken).

Bein baten, Txano' gana joanda, Txepetxak egoera larri oneri buruz jakitun ipiñi eban (zuan), eta errukituta, iratxoa txakurreme gaixoa ikertzera joan zan. Aterpe drangala baten aurkitu eban, eta izan be, abere zoritxarrekoa ikustean errukitu zan. Txakurremea azurretan egoan eta olan jarraitzekotan luzarorako bizi-irauntzerik ez.

– Aizu– esan eutsan (zian)– zer egiten dozu basabazter onetan danek utzita...?

– Ezin izan dot beste leku obarik idoro, auxe baiño.

– Zelan janaritzen dozuz zuen kumeok...?

– Ara... gaba egiten danean, errira jaisten naz, eta zaramategietan musturkatuz aal dodanaz jabetu, eta goizaldea barik, leku onetara biurtzen naz kumetxuok edoskitzeko, eta olan diraut gaberarte.

– Esan, ama zoribako orrek, erri osoan ez da etxerik artu zaituanik...?

– Baliteke, bakar ba'nintz, baiña nire iru kumeak ikustean erriko ate guztiak ixten yataz (zaizkit).

– Ara... gaur gabeen nire adiskide batek janari batzuk ekarriko dautsuz (dizki-zu), baiña au urtenbiderik ez danez, biar goizean barriro be etorriko naz, eta egitekoa erabagiko dogu.

– Eskerrikasko, Txano, gogoan izango zaitut beti.

Biamonean, goizean goizik, iratxoa biurtu zan, eta ama ta kumeak bilduta, auxe esan eutsen (zien):

– Gau osoan zuentzako urtenbide baten billa saiatu naz, baiña ez dot beste biderik ikusten, zuek, kumeak, amagandik banandu zaitzela baiño.

Au entzutean, txakurremea negarrez asi zan eta kumetxuak begiratu, esan eutsen (zien),

– Ai, ni gaixoa...! Zuek barik ez dakit bizi aal izango nazanik

Eta banan-banan laztandu zituan. Lenengo, kumerik ederrena zan bere biotzeko Txan, gero onen ostetik etorran Txen kume bizi ta ernai, eta azkenean irutarikorik erkiñena zan Txun bere kume maitekor kutuna. Kumetxu onek, zoritxar bat iragarriko bai'leuan, amagan estutu zan miin (mingain) larroskaraz aren aurpegi maitia laztanduz.

– Entzun egistazue (ezaidazute)– kumeak mintzatu asi zan Txano, –oraingo egoera larrian ez dozue bizi izaterik, eta augaitik ba, amagandik banandu bear

dozuela esatera etorri naitzue. Uri andietan txikietan baiño aukera geiago izango dozue, eta augaitik, uriburura zuekin lagun joango naz. Ara elduta, zuetariko bakoi-tzak bizibide bat billatuko dau, eta aalegintzen ba'zarie, bearreko jarduna aurkituta, zuen esku bizi izango zarie.

Isildu zan Txano une batez, eta gero,

– Zuen ama, nasaiago bizi izango da txoko onetan, eta lenengo aldietan, nire sorospena izanik, laster bere lengora biurtuko da. Orain alkar besarkatu egizue (zazute), eta onen ostean uribururako bideari ekingo dautsagu (diogu).

Negarrez eta aika, kumetxuak amagandik aldendu ziran, eta Txano'rekin uriburura abiatuz iru egun geroago eldu (iritxi) ziran; orduan Txano'k auxe esan eutsen (zien):

– Maiteok, nire basoko egoitzara biurtu bear dot, lan asko nire begira dodalako. Uri andi onetan aukera andiak idoroko dozue bizi izateko. Apal eta zintzoak ba'zarie ez dozue damurik izango, eta oroz gain gorde zuen gogoan amaren oroitz kutuna. Agur laztanok, biotz on..!

Itz oneik esanda, Txano bere areitz-ostokaz egindako euritakoa zabaldu, eta eguratsean zear ostendu zan.

Iru kumetxuak bananduta, kaleetatik ibiltzen asi ziran, nora ez ekiela. Bapatean, kale nagusitik ibilli ebillen Txan kume ederra, andra batek ikusi eban, eta kumetxuaren edertasunak gogoia eroanda, gelditu, eta didar bizitan onctaraxe asi yakon (zitzaion):

– Txakurkumearen ederra..! Egundo ez dot olako zoragarririk ikusi... Aizu, txakur polita, nirekin bizi izatera etorriko zintzakez...? Badiñotsut ziñez, ez zareala damutuko.

Izan be, andra dotore aren itxurea edozein erakarteko gai zan, eta gose gorria jasaten eban Txan'ek, poz baten baietz esan eutsan (zian). Orduan, etxeko morroi batek andrearen aginduz, Txan artu, eta andrearekin onen berebil ederrean jauregi batera eldu ziran.

Iritxi baiño ez, andreak txakurkumea garbitu, usain gozoz igurtzi, eta gero janari bikain-bikaiña emoteko agindurik, areto eder batera eroan, eta lumazko buruki eroso bat eskiñiz, auxe esan eutsan (zian):

– Nire maite ori, etxe onetan zure aukeran bizi izango zara, eta orretarako, aboa zabaldu baiño ez dozu bear. Etxeko morroi guztiak zure aginduetara jarriko dira, eta nire kutuna izango zara.

Arrezkero, Txan'en bizimodua gainbeera aldatu zan, egunoro garbitzen ebela, autaturiko janariakaz elikatzen zala, eta astean bein ule-edertzaille baten erabiltea izaten ebala (zuala). Izan be, txakur ederra ta esanekoa zanez, egunoro ugazabandreak uriko egurastegitik berarekin eroian, eta arro-arro bere txakurra ezagunai erakusten eutsen (zien), Txan'en edertasunak guztien ederrespena erakarten ebala. Eta olan, txakur batek ames dagiken (dezaken) bizierarik erosoena gozaten eban (zuan).

Bein baten, uriburu aretan txakurren edertasun-leiaketa bat iragarri zan, eta uga-

zabandreak Txan aurkeztea erabagi eban (zuan). Orain, antzik be ez eban (zuan) emoten kalean aurkitutako lengo txakur erkiñaz, eta igaroten zan nonaitik ikusleen ederrezpeneko begikadak beragan josten ziran, ugazabandrea arrotasunez puztuten zala.

Txakur-leiaketea arrakasta andikoa izan zan, eta abo batez, Txan'ek goratzarreko txapela lortu eban, bere ospea gorengo maillataraiño igonez, eta irabazitako garaipen-ikurra zan zidarrezko txola, areto nagusiko lekurik nabarmenenean dizdiraka bereizten zala. Zer esanik ez, Txan'en bizimodua aintza betekoa zala.

Txen'ek, Txan'en bigarren anaiak, ostera, aspaldi batez bereak eta asto baltzarenak jasan bear izan ebazan (zituan). Iru egun kaleetan zear emon ondoren, uribururu aretan berarentzat etorkirik ez egoala oartu zanean, aldamenetara joatea erabagi, eta kaleak atzean utzita, zabaldiran zear joan zan. Gose itzela zanez, janari-billa bater guztiak usnaturik, noizbait, zirko edo antzoki ibiltari baten kapardia ikusi eban, eta uts ala bete, ezer galtzerik ez eban-eta, aratu zan. Kapardira sartu baiño ez, itxura maitetsuko gizon bat urreratu yakon (zitzaion), eta laztan batzuk egin eutsazan (zizkion). Txakur etorri-barriaren itxurean oi-ez-lako adimen argia ikusi zeitekean, eta bigarrenez oldoztu barik, Txen artu, eta gizon arek zuzendariagana jo eban.

– Aizu, nagusi Jauna – esan eutsan –, txakur asko erabilli dodaz nire jardunean, baiña onen adimen-itxurakorik ez dot egundo ikusi. Txakur onen begi-ernaitasuna itzela da, eta zeuk baimena emongo ba'zeunst (ba'zenit) abere onegandik arrigarri bat lortuko neuke.

– Nire aldez aske zara txakur ori zure aukeran azteko, baiña aurretik, jaten emon egiozu, indarren mugan dago-ta.

Eta olan Txen'entzat ospe andia lekarkioken bizimodu bat asi zan. Bere azlearen ardurapean, antzoki ibiltarietan erabilten diran trikimaillu guztiak, eta elefante ta zaldien gaiñean egiten diran bitxikeri ikusgarriak laster ikasi zituan, baita suzko uztaipetan zear ikoti egitea be. Baiña ospearen gaillur gorena lortu eban (zuan), batuketak eta kenduketak egiten ikasi ebanean (zuanean).

Olan ba, Txen, txakur ederra, esanekoa, eta ospe andikoa billakatu zan, eta kapardiko eregu guztiak berarentzat izan ziran.

Askozaz txarragoa izan zan Txun'en adua (patua). Ez eban Txan bere anaiaren edertasuna, ezta Txen 'en adimen argia.

Lenengo egunetan uriburu'ko kale zaratatsuetan zear ibilli zan, leku guztietan bere burua lan egiteko eskintzen ebala (zuala), baiña bere begien itxura maitetsuari ez eutsan (zian) iñork jaramonik egiten. Irugarren egunean, olan ibilteak aspertu eraginda, eta andik alde egitea erbagiteko zorian zala, noizbait, uriburuko gozotegi on baten jarduna lortu eban (zuan). Dendako nagusia, baiña, oso zikoitza zanez, jateko, gozotegiko ondakin urri batzuk emotsazan, eta denda-osteko-zorro-pillo baten gaiñean lo egiten eban (zuan).

Egunez, otzara bat aboan eroiala, bezeroen etxeetara abiatzen zan aginduak eskuratzeko. Ugazabak zorrotz agindu izan eutsan, eroiazan gozokietatik apur bat

bera be ez jateko, eta gabean len esandako ondakiñak emotsazanean, Txun'en begi gozo maitetsuen eskaerai ez eutsan (zion) jaramonik egiten, ozta-ozta bizirik irauntzeko beste emotsala. Baiña berarentzat mingarriena, amagandik baztertua bizi izatea zan. Gau guztietan, zorro-pillo gaiñean etzaten zanean, ezin egikeazan (zitzaiken) malkoak menperatu, eta isillean negarrari emotsan.

Gau baten, ama geisorik egoala ames egin eban, eta biaramonean dana utzita, bere anaiakana joan zan. Egurastegian Txan ikusi eban garbi ta orraztu-barría errege baten itxuraz bere ugazabandreakin egurastegitik joiala. Urreratu yakon (zitzaion), eta,

- Aizu, Txan- esan eutsan (zion)-, bart mezu ezkutu bat izan neban ama geisorik egoala esanez. Ni biar beragana joango naz. Etorriko zara nirekin gure amari laguntza emotera...?

- Ai, Txun maite ori...! ez dakizu zelako (nolako) atsekabea eragiten daust (dit) barri orrek, amatxu maite-maite dodalako, baiña ez dot joaterik, datorren astean txakur-erakusketa baten tartekoa izan bear dot-eta. Edozelan be, (nolanai ere) emoiozuz nire goraintzirik maitetsuenak.

Eta errege baten itxuraz, Txan'ek bere egurasteari jarraitu eutsan. Zur eta lur geratu zan Txun, eta orduan, bere anai Txen'en billa antzoki alderraira edo zirkora joan zan. An aurkitu eban (zuan) Txen guztien ereguz eta ederrespenaz inguratuta. Beste anaiari lez, amarena esan eutsan, eta urrengo egunean biok alkarrekin beragana joateko eskintza egin eutsan (zion), baiña bere jakintzaz arroputz andia biurtu izan zan Txen'ek, eskintzea alderatu eban esanez,

- Tamal andia eragiten daust barri orrek, Txun maitia, baiña ekitaldi barri bat ikusleai eskintzeko zorian naz, eta au dala-ta, zurekin ez dot joaterik. Amari esango dautsazu, baiña, etenbarik gogoan daukadala; ez aztu nire goraintzirik maitetsuenak emotea.

Itz oneik esanda, Txen'ek bere saiora biurtu bear ebanez, jakintsu bateri dago-kion duintasunaz, alde egin eban.

Txun'ek, amaganako bidaldiari ekin eutsan, gogotik kendu eziñik bere anaien berekoitasuna. Iru egun geroago jaioterrian zan, eta betiko basabazter ziztriñean ama aurkitu eban. Gaixoa ezin ebilken, anka bat ausita ebalako, eta bere semea ikustean begiak zorionez bete yakozan (zitzaizkion). Alkar estu-estu besarkatu eben (zuten), eta gero amak,

- Aizu, Txun maite ori, non dira zure anaiak...?

- Ara... bizitzaren bidean gora andia egin dabe biok, eta arazopetuta izanik, ez dabe etortzerik izan, baiña gogoan zaitue etenbarik.

Amaren begietan naigabe baten itzala agertu zan, eta gero, seme kutunari,

- Aizu, Txun, nire laztana, zelan joan yatzu (zaizu) uriburuan...?

- Ondo ez, ama, gose andia jasan dot-eta, baiña txarrena zugandik urrun egotea izan da. Orain, zurekin geratuko naz anka ori osatu dakizun arte.

Itz oneik entzutean amak estu-estu besarkatu eban, poz baten auxe iñotsala:

- Zu zara seme on bat esan bear dana...

Jarraian, Txun'ek anka garbitu ta lotu eutsan, eta gero janariaren billa alde egin eban. Baekian ezin egikeala (zezakela) janaririk lortu sastegietan baiño. Edozelan be, uriburutik etxerañoko bidaldian gauza bat ikasi izan eban: bidegurutzetan, aga baten gaiñeko olezko kutxa baten, baserritarrek eguneroko ogia jasoten ebela, eta au ikusita, eguneroko ogi bat ostu egiten eban, eta olan bera ta ama polito janaritzen ziran.

Egunak joan eguna etorri, baiña, amari anka osatu yakon (zitzaion), eta bein baten,

- Aizu Txun- esan eutsan (zion)- ni ondo nago onezkero, eta ordua da uriburura biurtu zaitezcan.

- Ama, ez naz itzuliko. Emen geratuko naz zurekin betirako. Mundu onetan maite dodan bakarra zu zara, eta zu zaintzen jarraituko dot.

Maitasunezko malkoak isuri yakozan (zitzaizkion) amari, eta gero,

- Ba'dakizu gauza bat, Txun maitia...? Bizitzan lenengoz zoriontsua naz, eta zeuri zor dautsut. Nire semetariko makalena ta mirriñena beti izan zara, baiña zure biotzean maitasun neurrigabe batek kabia izan dau, nire kutun ori...

Eta Txun amarekin bizi izatera geratu zan, eguneroko ostutako ogiaz polito bizi izaten zirala biok. Bein baten, baiña, Txepetak bidegurutz baten Txun ogia ostuten ikusirik, Txano jakitun ipiñi eban. Iratxoak bereala zabaldu eban areitz ostoa-kaz egiñiko euritakoa, eta eguratsean zear, Txun'en egoitzara abiatu zan. An aurkitu eban amarekin ogi gozo bat jaten.

- Aizu, Txun - itaundu eutsan - zelan jaritsi dozu ogi ori...?

Gorri-gorri egindako Txun'ek bere ostuketea autortu eutsan, eta orduan Txano'k ama-semeak laguntzea arabagi eban.

Andik laster erriko okintzan jardun bat lortu eutsan (zion), eta Txun lan egiten asi zan. Aldiaren bidean, Txun maite-maite eban (zuan) okiñak, etxeko albo baten, olezko etxetxu bat ama-semearentzat egin, eta lengo basabazter ziztriña utzita, etxetxu barrira aldatu, eta an zoriotsu bizi izan ziran urte askotan.

TARTALO TA UNAIA

Bein baten, akelarretik etxera biurtzen zan sorgin bateri, beste mundu batetik etorritako, eta ia ikusteziña zan kizi edo zatitxu bat begian kokatu yakon (zitzaion). Luzaro samar iraun eban dalako sorgiñak begia erabili eziñik, eta noizbait, makurra jasangaitza biurturik, bere lagunek lurralde aretako sorginburuagana eroan eban.

Sorgin onek begia zeatz aztertu eutsan (zian), eta zatitxua zapiñoaz atara ezin egikeanez (zezakenez), putz egin eban indartsu, eta begi makaleko sorgiña oztopo aretatik jare billakatu zan.

Iñurritxu bat baiño txikiagoa zan zatitxua, eguratsean zear egan egin eban, eta noizbait sastegi baten kokatu zan.

Izaki bizia zan, eta egunen bidean, satsaz janaritzen zala, azi ta azi, sei illabete igarorik, Tartalo begibakar erraldoi izugarria biurtu zan. Iru metro andia zan, eta narru guztia ule zakarrez estalita; itz egitean, aren abotsa trumioia baizen durundutsua izanik, entzuten eutsoen guztiai esaneziñeko izua eragiten eutsen (zien). Begi andi bakar dizdiratsua bekokiaren erdian eban, eta zailla zan bere ikusmenetik oartu ez izatea.

Sastegi guztia jan ebanean (zuanean), gose utsaz basora aldatu zan, eta emen bearrak jota, egunoro zugaitz bat irusten eban (zuan), indar itzela lortuz. Garai aretan, leize urruntsu baten bizi izaten zan, eta iñor sartu ez zeiten, berak bakarrik ekiazan giltz-berbakaz atea edegi zeitekean.

Illabeteak eta urtebeteak igaro ziran, eta gosea etenbarik anditzen yakonez (zitzaionez), baso aretako zugaitz guztiak irunsi ondoren, beste janari-mota bat aurkitu bear izan eban (zuan)...

Goiko zelaietan, Unaia, artzain-neskato zoragarriak bere artaldea jagoten eban, eta Tartalo'k aren ardiakaz bere gose itzali-eziña baretzea asmatu eban. Eun ziran Unaia'ren ardiak, eta neskatoa bere arditegi edo sarobean lotan zala, astean bein, Tartalo goiko alagunetara bideratzen zan, eta ardi bat artuta, bere zorrora sartu, eta pozaren-pozez txistuka, leizera itzultzen zan. Beste aberekiaz osotua, ardi bakoi-tzak astebete bat irauten eutsan, eta onein narruz jantzita, ez eban iñongo oztzik jasaten, gero ta lodiago biurtzen zala.

Unaia, baiña, astebetero ardi eder bat uts egiten yakola (zitzaiola) oartzen zan, baiña asko arduratzen bazan be, ezin egikean (zezaken) lapurraren nortasuna igarri. Urtebetea igarota gero, larogei ta emeretzigarren astebetea burutu zanean, ardi bat bakarrik ebala oartu zan Unai gaixoa. Gau aretan, Tartalo asteroko ardia zorroan sartuta eroiala (zeramala), mintzo izugarri, zemaikorraz, onetaraxe agurtu zan:

Jakin egizu Unaia
mendiko artzain ergela,
azken ardiaren billa
laster etorko nazela.

Loditu egizu ondo
neskato artzain memela,
Tartalo'k txastau dagian
azken ardian okela.

Eta barre-zantzo itzelak jaurtiten zituala, Tartalo bere egoitzara biurtu zan, salokeri utsaz ezpanak miatzatuz. Gau osoa emon eban Unaia'k bere azken ardia besarkatuz, eta argitu zanean, ardia atara eban goiko larradi aretan alatu zeiten. Ezin egi-kean, baiña, bere atsekabea garaitu, eta negarrez, ardiari auxe esan eutsan (zion),

– Zuritxu, nire ardi maitia, zer egin dagikegu (dezakegu) Tartalo okerrak eroan ez zagizan...? larogei ta emeretzi ardi galdu ditut onezkerok, eta maiteen dodan nire ardi zuri garbia, laster kenduko dauste.

Negar etsi bateri emon eutsan Unaia zoragarriak, eta arratsaldea egin zanean, ustekabez, eguratsean zear aizeak ekarritako areitz-ostoakaz egindako euritako bat ikusi eban, baita arrituta oartu be, gizon txiki bat bere ondora jaisten zala.

Zur eta lur eginda, Unaia'k auxe itaundu eutsan:

– Nor zaitut, eguratsean zear zatorkidazan ori...?

– Txano, lurralde onetako iratxoa naz, eta zure malkoek erakarrita etorri naz. Txepetxa'k, nire txori lagunak jazoten (gertatzen) yatzunaz (zaizunaz) jakitun ipiñi nau, eta aida baten etorri naiatzu.

– Esan, Txano, ni sorostearren etorri zara...?

– Bai, lagundu nai dautsut, eta bein betiko Tartalo'ren basakeriai azkena emon be. Orain entzuidazu auxe ondo: gautu daitenean, zeu ta Zuritxu'ren billa gizajalea etorriko da...

– Neu be arrapatu gura ete nau...?

– Bai, azken ardiak gaiñera, zeu be jan gura zaitu. Baiña entzun auxe ondo: bere leizera zorro baten barruan eroango zaitue, biar zuek biok jateko asmoz. Gabean, baiña, lotan dala, leizeko txoko baten azten diran ostoz zurizkako landaretariko bat artu, eta egosiko dozu. Gero, onegaz txaplasta bat egin, eta Tartalo'ren begi bakarrean ipiñiko dozu. Egoski au begimen-laiñogarria da, eta erraldoia itxartu daite-
nean, ikusi eziñik, batetik bestera aztamuka asiko da, eta orduan, txoko baten dagoan osin sakon batera zuzenduko dozu, andik amildu daiten.

– Eta zelan urtengo gara leizetik...?

– Oartu ondo Tartalo'ren giltza-berbak sartzekoan, eta erabilli egizuz urtete-ko. Orain agur eta biotz on, Unaia ta Zuritxu maiteko.

Au esanik, Txano'k areitz-ostoakaz egiñiko bere euritakoa zabaldu eban (zuan), eta aizearen besoetan ostendu zan bere basoko kabian lo egiteko, illuntzen asten zan-eta.

Gautu zan, eta ardiari besarkatuta irauten eban Unaia'k aize enbata baten antze-koa zan durundu bat entzun eban, eta eskorta edo sarobeko atea zabalduz Tartalo sartu, eta unaia ta ardia artuta, zorro batera sartu zituan, auxe iñoala,

– Azkena yat (zait) ardi iñuzente au, eta bere artzaiñemea iruntsiko ditut, jaki gozo-gozoak izango diralakoan.

Eta zorroa artuta, iru metro luzeko urratsak egiñez, barre zaratatsuen artean bere egoitzara abiatu zan. Leizeko abora eldu zanean, onetaraxe asi zan:

– «Kukurrukain, kukurrukain, edegi zaituz orain».

Atea ixten eban arritzar astuna zabaltzen asi zan, eta ardi-urdaiaz egiñiko kan-
dela bat piztuta, zorroa zabaldu, eta Unaia ta ardia agertu ziran.

– Nire kutunok– eskuak alkar igurtziz Tartalo'k esan eutsen (zien)– ez dakit sukalki ala erreki biurtuta jango zaituedan. Edozelan be, orain apaldu, eta lo egin bitartean, arazo ori argitu dot.

Au esanik, ardi baten ondakiñak jaten asi zan, aldizka zatotzar andi batetik bere biziko ardo-txurrutadak artzen ebazala (zituala). Bitartean, Unaia ta ardia izuaren-izuz Tartalo'ren aulkipean ezkatatu izan ziran.

Gero, ardien narru-pillo baten gaiñean etzanda, gizajalea abesten asi zan:

Ordua etorri yatzu
Tartalo jale ernaia,
ardi gozo bat jateko
eta beronen unaia.

Edan dagigun poz-
pozik ardoaren bizigaia,
biar izango dalako
gosetearen amaia.

Eta ardo-zatoari bere biziko txurrutadak emonez, eperdirañoko moskorrak artu-
ta lo geratu zan, egundoko zurrungak jaurtiten ebazala (zituala).

Orduan, arin baten, ardi urdaiaz egiñiko kandelaren argipean, txoko baten azten ziran ostoz zurixkako landarea artuta, Unaia'k kaspel baten egosi, eta gero txaplasta bat egiñez, Tartalo'ren begi bakarraren gaiñean jarri eban.

Erraldoia illunditan itxartu zanean, beste kandela bat piztu eban (zuan), baiña txaplastaren laiñogarriagaitik itsu egoala egizatzean, didar bizitan onetaraxe asi zan:

– Unaia, nire Unaiatxu maitia, itsu billakatu naz, eta ateraiño zuzentzen ba'nozu, zeu ta ardia jaregingo zaituet...!

Orduan, erraldoiaren aulkipean egoan Unaia, oiuka asi zan:

– Entzun, Tartalo, zoaz eskumatara... olantxe... Orain biurtu zaituz apur bat ezkerretara... kontuz arritzar orregaz eta gero artez–artez jarraitu... olantxe...!

Edu onetan, Unaia'k, Tartalo leizeaz beste muturrean egoan oxiñera zuzendu

eban, eta alako baten, azpikoa galduta, erraldoia arkaitzen beera oxiiñaren ondoraiño amildu, eta an bertan il zan.

Orduan Unaia, Zuritxu ardiarekin ateraiño joan, eta giltz-berba oneik jaurti zituan:

– «Kukurrukain, kukurrukain, edegi zaitetz orain».

Itz oneik esan baiño ez, arritzarra edegiten asi zan, eta eguneko argia ikusi eben. Aldc egin aurretik, Unaia'k leizearen txoko guztiak arakatzean, txoko baten lapiko bete urre aurkitu eban, eta artuta, ardiarekin bere etxolara biurtu zan.

Leizean idorotako urreaz, jauregi eder bat eraiki eban (zuan), eta emen urte zoriontsu asko ardiarekin bizi izan zan.

OILLASKO KEMENTSUA

Arratsalde aretan, Kirriki oillasko gaztea, ikoti bat az oillategitik etxeko leio baten kokatu zan, eta sukaldera begiratu eban. Bazkaria amaituta, etxeko ugazabak bakarrik egozan, eta senarrari mintzatuz,

– Aizu, Kosme– emazteak esaten eutsan (zion)–, nire ustez, Kirriki oillasko gaztea garbitu bear dogu. Ollategian, bere betekizunak ondo dakiazan oillar ederra badogu; augaitik beraz, oillaskorik bear ez izanik, sasoiako jaiak ustiatuz, Kirriki'z asita banan–banan oillasko guztiak garbituko ditugu. Zer deritxazu nire asmoari..?

– Ez dago txarto, baiña egunen baten gure oillarra urtetsu biurtuko da, eta oraingo oillasko bat az ordeztu bear izango dogu, au dala-ta...

– Ze ordeztu ta ordeztu-oste..! Ordurarte, gure amabiko oillaskoak gordetea burubagekeri anditzat jotzen dot. Artotan iruntsiko dabena (dutena)...!

– Bai, ori be egia da...

– Ez bedi ba besterik esan. Etzi Kepa Deunaren jaiak dira, eta Kirriki garbituko dogu.

Berba oneik entzuten zituan Kirriki, bildur baten egoan, eta arazoari, merezi eban (zuan) ardurea emon eutsan (zion). Izan be, oso ondo bizi izaten zan etxe aretako oillategian, baiña orain beretarren adu edo patu negargarria argi-argi ekusan. Ez egoan beste biderik, eta asperen sakon bat jaurti ondoren, leiotik ikoti andi bat egiñik, oillategiko esi-gaiñetik igaro, eta gurdibidearen erdian kokatu zan. Une batez ezpaitu egon zan, baiña gero, bizinaiak eraginda, bidean gora abiatu eta goikaldera irixtean, une batez atzera begiratzeko gelditu zan. Bere jaiotegia azkenengoz ikustean, malkoai eutsi eziñik, aiene mingotsetan negarrari emon eutsan (zion). Olan egoala, mintzo bat aditu zan, eta burua biurtzean, orlegiz jantziriko iratxo begiko bat ikusi eban (zuan), areitzezko ostoakaz egindako euritako bat tolosten ebanean.

– Aizu, Kirriki, ni Txano iratxoa naz. Txepetxa'k zure egoerari buruz jakitun ipiñi nau, eta orregaitik emen nozu. Ez negarrrik egin...

– Ai, Txano neuria, jaio nintzan etxea utzi bear be...!

– Bai, baiña bizirik irautea bejiñena da. Ekiezu bizitzarèn eragozpenai adorez beterik, eta ez zara damutuko. Gizonakan ez jarri uste onik, begi maitekorrez begiztatzen zaituenean batez be, onen azpian zitalkeria datza-ta. Izan zaitetz zintzo ta kementsu, eta lagundu egiezu makal eta ezinduai. Zeugan, Kirriki maitia, enda zangar eta adoretuaren oldea datza, eta au ondo erabilten ba' dozu, gaiñetik urtengo zara. Kementsua izan zaitetz beti.

– Bai, Txano maitia.

– Orduan, txukatu malkook, eta biotz on...!

– Agur, Txano, eta eskerrikasko.

Iratxoa areitzezko ostoa kaz egiñiko euritakoa zabaldu, eta aizearen eragiñez ganetxu baten atzetik ostendu zan.

Kirriki, malkoak txukatu eta bidean zear abiatu zan. Uda izanik, zabaldiak gai asko eskintzen eutsan, eta noiz zizariak, noiz lurrera jausitako garauak janez, guztitariko gaiakaz elikatzen zan, bizimodu aske ta osasuntsuari emonez.

Udazkenean, baiña, gauzak zailagoak biurtu yakozan (zitzaizkion), eta basoan babestuta, gosea ta otza jasaten asi zan. Bein baten, iru katamixar (katagorri) aurkeztu yakozan (zitzaizkion), eta batak,

– Aizu, oillasko, zertan diarduzu emen...? Baietz egingo neuke gose zarea...

– Bai, lagun, azken egunotan goseak artuta nago.

Katamixarrak errukitsu begiztatu eban, eta, iru intxaur emonda, Kirriki'k gosez iruntsiten ebazala, auxe esan eutsan (zian):

– Begira, adiskide, ni ta nire aizpa bi oneik, irukote bat osotzen dogu, intxaurrak, urrak, ezkurak, eta guztitariko garauak arrapatuz, negurako janaria biltzeko. Gure lanean, baiña, etsai asko doguz, eta zeu gure jagole izango ba'zintzakiguz, ordaiñez, zenbat-gura janari emongo geunskizu (genizuke). Zer diñostazu...?

Iru intxaur gozo janda gero. Kirriki'k poz baten auxe erantzun eutsan (zian),

– Bai pozik artuko neukela be zaintza ori.

– Orduan asi zaitekez.

Aspaldi zoragarria emon eban Kirriki'k katamixarrekin baso aretan, itxaur gozoen ordaiñez, iru aizpen inguruan egun osoan ebillela, eta galtzori-suzmoren bat artzen ebanean, kirriki ta kirriki katamixarrai jakiñerazoten eutsen (zian), oneik, tximista lakoak goiko adaburuetan ezkutatu zeitezan.

Baiña neguaren etorrereaz, gauzak okertu ziran zearo, katamixarrak lo egiteko euren zuloetan babestu ziranean batez be, eta janaria galduta, Kirriki batetik bestera norabarik joian ezkur urrien billa. Noizbait bearrianak eraginda, andik alde egin eban, eta ibilli ta ibilli, bein baten basoaren muga etxola bat ikusirik, atea jo eban. Aizkolari indartsu batek edegi eutsan (zian), eta,

– Oillasko maite orrek, zer nai dozu...?– itaundu eutsan (zian)–.

– Ara, Jauna, gosez eta otzez ezin dagiket (dezaket) jarraitu; etxe onetan artuko ba'ninduzu, ostatuaren ordaiñez, lan egingo neuke...

Goitik beera begiratu eutsan (zian) aizkolariak, eta,

– Mugonez zotozkigu, oillasko arrotza– esan eutsan (zian)–, araiñegun ordularia makestu edo matxuratu yaku (zaigu), eta egunsentian zure didarrak esnale izango yataz (zaizkit) basoko lanera joateko, eta onezaz gaiñera, eguberdian nire emazteak atondutako bazkaria lanlekura ekarriko daustazu (didazu). Onen ordaiñez, egu-nero amabi artoale gozo ta ederrak jaten emongo dautsudaz (dizkizut).

Berbatua lez, Kirriki goizaldeko itxar-deia jotzen asi zan, basoan ziarduan aizkolariari eguberdian janaria erooten, eta lan onein ordaiñez amabi artoaleak jaten zituala.

Neguaren azkenean, Kirriki oillasko ederra biurtua zan, eta bein baten, aizkolariak begi maitekorrekaz begiztatzen ebala oartu zan. Orduan, Txano'k esanikoa burura etorri yakon, (zitzaion), au da, gizonen begikada txeratuakan uste onik ez ipintea, eta gau aretan, senar-emazteen lo-gelara urreratuta, biok alkar esaten eutsoenari adi-adi geratu zan.

– Bai, emaztetxu laztana– iñoan aizkolariak– etxera etorritako oillasko ori, eder-ederra billakatu da, eta etzi gure ezkontzaren amargarren urteurrena dan ezkerero, burduntzian erreki gozoi biurtzea otu yat. Zer deritxazu orreri...?

– Ondo derist, senar maitia, eta igaztik gordeta daukadan ardao gorriko bonbil bat, bustiko dogu.

Eta pozaren pozez abesten asi ziran,

Oillasko iñuzente bat
etorri yaku etxera,
ta erreki biurtuta
sartuko da urdaillera.

Saman beera laguntzeko
ardo gorri edanbera,
eta gero sabelbete
joango gara oera.

– Arraioa!– berekiko esan eban Kirriki'k– Zuzen egoan Txano iratxoa, gizon maitetsuagan nire uste ona jarri ez nengian (nezan) esaten eustanean (zidanean). Ospa egitea onena izango da.

Eta astirik galtzeke alde eginda, zugaitz bateko adarretan lo egin eban. Biaramonean, andik urrundu zan, eta bere kabuz bizi izatea erabagi eban. Edozelan be, oraindiño negua zan, eta beraz, aukera andirik ez janaria idoroteko. Gose gorria jasanez, mendi-beera asi zan, eta egun baten indargeturik, errota bat ikusi eban; atea edegita egoanez, janari-billa sukaldera sartu zan. Leku aretan, or-emenka artogarau bellegi ederrak ikusi zeitekezan, eta buru-belarri irusteari emon eutsan. Olan ziar-duala, isil-ostuka sartu izan zan errotariak atzitu eban esanez,

– Bazaukat lapur ori, zeuk be iñoren lepotik bizi gura, ezta...?

Eta lokarri bat az aulki bateko oiñean lotu eban, auxe iñotsala,

– Orain bai, zenbat-gura arto emongo dautsut, eta lodiaren-lodiz ler egiteko zorian zaitezanean, erriko zeian salduko zaitut.

Gaba isil eta izugarria etorrita, Kirriki bere adu edo patu zorritzarrekoaz ausnar-tzen egoala, katutzar baltz bat urreratu yakon (zitzaion), eta orduan Kirriki'k onetaraxe arrenkatu eutsan (zian):

– Aizu, katu ederra, zure erpeakaz ez daustazu (didazu) lokarri au ebagiko...?

– Ondo irabazia dozu jasaten dozuna, ez uste nire nagusiaren lapurrai lagundu-ko dautsedanik (diedanik).

Eta bizkarra ustaituz, illundietan ostendu zan.

Beste egun bat igaro zan, eta gau berandua zala, etxeko txakurra urreratu yakon (zitzaion), eta,

– Aizu txakur polita, zure agiñakaz ez daustazu (didazu) lokarri au eten egingo...?

Baiña txakurrak jaramonik ez, eta ostendu zan.

Irugarren gabeen, Kirriki etsiak jota zala, sagutxu bat urreratu yakon (zitzaion), eta oneri bardin,

– Aizu sagutxu maite orrek, zure ortzakaz ez daustazu (didazu) lokarri au marraskatuko...?

– Zergaitik lotu zaitue...?

– Artagarau batzuk jateagaitik.

– Ori, lagun, ez da iñongo pekatuik, neuk be aal dodazanak arrapatzen ditut-eta.

Itz oneik ozta–ozta esanik, lokarria marraskatzen asi yakon (zitzaion), eta Kirriki laster jare billakatu zan.

– Eskerrikasko, laguntxu ori, gogoan beti izango zaitut.

– Agur oillasko eder ori, ondo joan.

Kirrikik, egunsentiari itxaron barik, urten eta alde egin eban. Eguraldi ona asten zan, eta orain zabalduan janari geiago idoro zeitekean. Egunak joan egunak etorri, Kirriki, oillar eder-ederra biurtu izan zan, baita kementsu ta zangarra be.

Bein baten, larra zabal baten zear joiala, oillo-talde bat ikusi eban. Amabitsu-edo izango ziran, eta bera ikusi baiño ez, arrapalada baten urreratu (urbildu) yakozan (zitzaizkion). Orduan areitariko oillo gorri ederra zanak,

– Aizu, oillar eder ori– itaundu eutsan (zian)– ez zara gurekin bizi izatera geratuko...? Ara... bart, mendiko sastrakatik urtenda, azeri zital batek gure oillarra ortzetan atzitu, eta mendi–gora croan eban (zuan). Ostendu baiño leen, gaur gabeen etorriko litzakigula barriro be, eta gutariko bat eroango leukela, esan euskun. Au gure ezbeharren andia...! Ez zara gurekin geratuko, azeriak ostu ez gagizan...?

Une batez, Kirriki'k oldozkor iraun eban, eta gero zangarra izateko Txano'ren burubidea gogoraturik, irmo ta adoretu, baietz esan eutsen, gerturik egoala azeriaren aurka burrukan egiteko. Oilloek pozaren–pozez goratu eben, eta indartu zeiten, bakoitzak iru artagarau eskiñi eutsazan (zizkion). Eta olan indartzen zala, Kirriki'k oilloekin eguna emon eban.

Gautu zanean, eta oilloak aga batzutan kokatu ziranean, illargi betea agertu zan, bazter guztiak argi gozoaz zurizkatzen ebazala (zituala). Alako baten, menditik jatsitako azeria agertu zan, eta oilloakana joanda, auxe esan eutsen:

– Badakizue, zuetariko bat arrapatzeko gauoro etorriko nazala, eta olan amabi egunetarako janaria ziurtatuko dot.

Au esanik, agatara igoten asi zan, baiña bapatean, Kirriki oldartu yakon (zitzaion) eta bere biziko mokokadak musturrean emon eutsazan (zizkion). Azeria didar baten asi zan, eta bere etsaia oillar bat zala ikustean,

– Baiña oillar kokolo ori, ni erasoten ausartzen al zara...?

Eta agatik jatsita, Kirriki'ren aurka oldartu zan.

Oillar kementsua, baiña, atzera egiten asi, eta ibai-ertzean jagiten zan sarats batera joanda, onen enborrean gora igoten asi, eta kukurruku bizitan azeriaren era-soari itxaron eutsan.

Laster asi zan piztia oillarraren atzetik igoten, baiña atzaparrakaz oillarrari eutsi-agiñean zala, ikoti bataz Kirriki goiko beste adar baten kokatu zan. Ekintza au bein eta barriro jazo zan, eta adarrak meeagotzen ziranez, gero ta geiago makurtzen ziran, oillarra arrapatzeko zorian zan azeriak, asarre baten abobetekoak jaurtiten ebazala (zituala). Ustekabez, baiña, oillarra goienetariko adar baten kokatuta egoanean, azeriaren azta larregi izanik, zartatu egin zan, eta oillarra eguratsean mako andia marratuz lurtean kokatu zanean, azeria, ostera, beeko uretara amildu, eta eurite lodiarenean ostean, urak arrotuak etozanez, azeri arroputza tirañean bera ito zan.

Andik laster, kirriki'k oilloen agatara joanda, kurruku indartsua jaurti eban (zuan), eta iretargipean lo geratu zan. Noizbait, eguzkia jagi zanean, oilloek Kirriki zangarra inguratu, eta goraka ta txaloka asi ziran, euren nagusia aukeratzen ebela (zutela), eta menpetasunaren ezaugarritzat, bakoitzak artogarau bat eskiñi eutsan (zian), auxe iñotsala,

– Gora gure oillar kementsua...! orain ez gara azerien bildur, eta gure txitak bake betean aziko doguz enda eder bat sortuz.

Eta Kirriki, arrezkero Kurruku izen gudakoia artuta, urte askotan bere oillo ta txitekin bake betean bizi izan zan.

Basetxe baten, eiza-txakurreme batek zazpi kume izan zituan, eta etxejoaun zikotzak janari gitxi emotsanez, zazpigarren kumetxuari erraperik ezaiñena egokitu yakon (zitzaion), eta gaixoari esne gitxi xurgatzeko etorkionez, zotza baizen argal eta zimela azten zan. Kumetxuen aita, baiña, entzute andiko eiza-txakurra izanik, etxe aretara eiztari asko etorren, kumetxuak erosteko asmotan.

Bein baten, On Satur, eizazale porrokatua zan erriko jauntxo aberats bat besetxera etorri zan, eta kumetaldea aztertu eban areitariko cderrena erosteko asmoz. Banan-banan lenengo seiak eskukatu ondoren, zazpigarrena artu ebanean (zuan), onek esan eutsan (zion),

– Jauna, eroaten ba'nozu ez zara damutuko.

– Zeu eizarako aukeratu zagidazan (zaitzadan), diñostazu, garbantzuz orrek...? Ez dot beste ardurarik orixe baiño...

– Begira, Jauna, onen mirriña nozu gose andia jasaten dodalako, baiña orixegaitik argi-argia naz, eta eizarako txit egokia aizearen arintasuna dodalako. Eroan nagizu (nazazu) Jauna...

– Eroango ba'zindudaz (zinduzt) garbantzuz ori, etxeko saguak jango zindukiez...

– Jauna, jan dakidan sagurik oraindiño ez da jaio, eta gaiñera, onen itxura mirriñekoa izanik, ugazabak oso merke salduko nau...

Orduan, On Satur bere biziko tratuan etxejoaunarekin asi zan, eta onek txakur gaixoa il ekion bildurrez, erriko jauntxoari ezerezkeri baten saldu eutsan (zion).

On Satur'ek txakurra jakearen sakelera sartu, eta etxera abiatzen zala, bere kolkorako auxe esan eban (zuan):

– Garbantzuz au ilten ba'yat (zait) be, gauza andirik ez dot galduko.

Erriko Jauntxuak txakur erosi-barriari «Garbantzuz» izena emon eutsan (zion), eta laster oartu zan, oartu be, oi-ez-lako txakurra zala. On Satur, baiña, diru-gose andia izanez gaiñera, eiza-txakur ona izateko argala izan bearko leukela ustekoa zan, eta au dana bere zekenkeriari ondo etorkionez, gose gorria jasan-erazoten eutsan (zion).

Askotan, gose andiak eraginda, «Garbantzuz» gaixoak ugazabari,

– On Satur- iñotsan-, eizatxakur bat ariña izan bear da, baiña bildur naz olan jarraitzekotan egazti biurtuko ez ete nazan...

– Ken ortik- erantzuten eutsan (zion) ugazabak- zeurea salokeria baiño ez da. Argaltasuna osasunerako onena da, eta gaiñera, norberaren adimena zorrozten ei'da...

«Garbantz», baiña, ez etorren bat on Satur'ekin, eta argaltasunak emoniko zorroztasuna, bere onerako ustiatzea erabagirik, ona emen asmatu zituan trikimai-llu batzuk:

Gau guztietan ugazabandreak, sagu-arte atontzen eban, amuzkitzat gaztai-zati bat ipiñirik. Lenengo gabea, eta dana isil-isillik egoala, sagu bat urreratu, eta amuzkiaren inguruan usainka asi zan. Zatiari oratzeko zorian, baiña, «Garbantz»'k aginkor auxe esan eutsan (zian),

– Geldi or...! Arrapatzen ba' dozu gaztai-zati ori, bizitza galduko dozu. Begira, zelan egin bear dozun...

«Garbantz»'k aboaren artean zotz bat artu, eta sagu arteko ezarketan erabilli ondoren, arteak eztanda egin, eta saguak gaztai-zatia nasai-nasai jan aal izan eban (zuan).

Saguak bere eskerrona adierazo eutsan (zian), eta onen ostean, aal ebanetan, janari-puskak «Garbantz»'ri ekarkiozan, eta asko ez bazan be, gose gorria apur bat arintzeko beste bazan.

Ugabazandreak egunoro esnea maskillo baten egosita gero, goiko leio baten ipinten eban (zuan), otzgaillura sartu aurretik otzitu zeiten. «Garbantz»'k alperriko begikuneak maskilloari jaurti oi eutsazin (zizkion), baiña adimenari ekin eta ekin, noizbait esnea edatea jaritsi eban. Ona emen zelan (nola):

Bein baten, «Garbantz» kanpora urtenda, oartu zan, ango aldetik, esku-mailladi bat egoala, eta onen bidez igonda, esnea miatzatu egikeala (zezakeala) oartu zan, eta asebate bat izan eban. Ugazabandreak, baiña, laster igarri eban esneaz zeozer ezoitua jazo izan zala, eta urrengoan zelatari jarrita, «Garbantz» saltzaren erdian arrapatu eban.

– Denganiño, barrabas orrek, orixe da emoten dauskuzun (diguzun) ordaintza zure alde orrenbeste eginda gero...?

Eta errazkada bizitan jazartu eban, bere bizkargaiñean kaiñabera autsi arte. Esne-lapurretari jarraitu aal ez izatea tamal andia izan zan, agaz jabetzen ikasi eban (zuanean) batez be. Baiña «Garbantz»'k janariaz ames egiten eban (zuan), eta bein baten beste aukera bat aurkeztu yakon (zitzaion).

Gau baten, sukaldetik janariaren billa ziarduala, ozgailluaren atea ondo itxita ez egoala oarturik, atzaparra ustiatuz edegi eban. On Satur zekenaren etxean ozgaillura beti ia utsik egoan, baiña ereti aretan, gure «Garbantxu»'k oillasko erdi bat ikusi eban. Gosearen-gosez adimena lañiotu yakon (zitzaion) eta arrapalada baten garbituta, azurdi utsa lengo lekura sartu, eta sukaldeko oiko txokoan, zorro-pillo baten gaiñean ames gozok artuta lo geratu zan.

Urrengo goizean, baiña, ugazabandra-neskameak, didar bizitan asi ziran oillaskoa zala ta ez zala. Gauzak ondo ausnartuta gero, ugazabandreaken suzmoak txakurragan jarri ziran, eta «Garbantz» artuta, onen azurdi urria eskukatzen asi, eta bere argaltasuna zala-ta, urdaillean oillaskoaren ondakiñak igarri zituan.

– Lapur, besteren lapur– akar egin eutsan (zian), makilla batez joten ebalabarriri be gure janaria ostu dauskuzu (diguzu), ozta-ozta datorren igandean jai bat ospatu bear genduanean, lotsabako, doillor orrek...

Besterik ezean, «Garbantz»'k etxeko katuari errua bota gura izan eutsan (zian), esanez,

– Barkatu, Ugazabandra on orrek, baiña oillaskoaren jalea etxeko katua dozu, ori ondo dakidan gauza da, neronek bart ikusi neban-eta...

Txoko batetik, katua miauka asi zan, txakurrak esanikoa guzur utsa zala adierazoz, eta egia jakiteko, aren musturra aztertu egiala (zezala).

Olan egin eban ugazabandreak, eta «Garbantz»'k musturra oraindiño koipez igurtzita ebalu egiztatzean, makillakada itzelak jaurti eutsazan (zizkion), auxe iñotsala:

– Barrabas lotsabakoak, gure katu iñuzenteari errua bota, lapurra zeu izan zara-nean... Gaur bertan Satur jakitun ipiñiko dot, eta ikusiko dogu arek zer epaitzen dauan...

Izan be, ugazaba etxera etorri zanean, gauza oso larria zala epaitu eban, eta txakurra etxetik atara bear leukiela, merezi eban oillategian bizi izan zeiten. Orduan, gure «Garbantz» gaixoak beste bizitzaldi larri bateri asiera emonez, bere gosea maillarik gorenetaraiño igon zan.

Oillategian bizimodua oso aspergarria zan, eta txoko baten etzanda, ordutan zear etenbarik arrausika, «Garbantz»'k oilloen eta oillarraren gorabeera aspergarriak begiztatzen ebazan (zituan). Emen be, janariaz ames egiten eban, baiña eziña yakon (zitzaion) apur bat bera be jaristea.

Bein baten, aspertu–eraginda egoala, etxeko neskameak katillu bete janariaz oillategiko txabolara sartu, eta gero ateari kisketa emonda, etxera biurtu zan. Goitsu samar egoan dalako itxiturea, baiña «Garbantz»'k ateraiño otzara uts bat ekarri, eta oneri igonda, aurreko erpe bat az kisketa erabilli aal izan eban (zuan). Laster zan barruan, eta arrapalada baten oilloen janaria iruntsi eban (zuan); jarraian txabolaren txoko guztiak aztertu, bazter baten egoan abisaritik arrautz eder bat artu, eta auxe be garbitu eban (zuan). Katuak baiña, ikusi izan eban (zuan) ekintza guztia, eta sukaldera joanda, ugazabandreak,

– Etxekoandrea– esan eutsan (zian)–, oraintxe bertan txakur denganiño ori ikusi dot, oilloen janariaz jabetzen zanean, eta gero, lapurketea biribiltzeko, abisaritik arrautzarik ederrena garbitu egin dau.

Ugazabandra-neskameak erratza bana artuta, txakurragan joan ziran, eta gure «Garbantz»'ri astiñaldi ederra emon eutsan (zioten). Jotez nekatu ziran, sukaldera biurtu ziran, iñon diran iñondikoak txakur denganiñoari leporatuz.

Gau aretan, On Satur jakitun ipiñita, asarre baten etxeko atzekaldean txakurra kateatzea erabagi eban, eta lengo bizimodua negargarria ba'zan, oraingoa azaltzeko barbarik ez dago. Gau ta egun amaibakotan «Garbantz»'k eriotza eskatzen eban (zuan), eta bein baten, bere burua gosez ilten uztea erabagi eban, ikuskizun siñisteziña izan eban (zuan)...

Gau betea zan, eta iretargi beteko argi aulpean, iratxo bat areitz–ostoakaz egiñiko curitako batetik eskegita, eguratsetik jaisten zala ikusi eban (zuan),

– Kaixo, «Garbantz»– agurtu eutsan (zian)–.

- Zelan dakizu nire izena...?
- Txano iratxoa naz, eta guztien izenak eta gorabeerak ezagutzen ditut.
- Orduan etxe onetan emoten dausten (didaten) janari urriaz eta erabilte txarraz, jakitun izango zara.
- Bai, «Garbantz» laztan ori, eta orixegaitik zugana nator. Begira, laster eizara eroango zaitu ugazabak, eta orduan auxe ta auxe egingo dozu...
- Jarraian une luze batez egitekoa azaldu eutsan (zion), eta amaitzean.
- Egitekoa ondo ulertu dozu...?
- Bai, Txano, eta zuk aginduta lez egingo dot.
- Egun batzuk geroago, Satur zekenak txakurra askatu eta berebil batera sartuta, arratsalde osoan zear ibilli ostein, Gaztela'ko errixka batera eldu ziran, eta ostatu baten gaba emonda, egunsentia egin zanean, eizarako gertatu ziran. Abiatu aurretik, Satur'ek txakurrari okondo ziztrin eta gogor bat emon eutsan (zion), esanez,
- «Garbantz», jan egizu arin, eperrak gure begira doguz-eta.
- Barkatu, ugazaba, baiña okondo zantar ori emiozu beste bateri.
- Zer diñostazu denganiño orrek...?
- Entzun dozuna ugazaba, ori baño gauza obarik emoten ez ba'daustazu (didazu), ez da eizarik izango.
- Zer nai dozu ba...?
- Begira, gozaltzeko, erregositako (frijidutako) arrautz bi urdazpi ugariak, eta gero, katillubete kafesne.
- Burutik eginda zagoz-ala...?
- Ez, ugazaba, gosez eginda nago, eta eskatutakoa ez ba'daustazu (didazu) emoten, ez da eizarik izango.
- Satur zekenak, didar baten abobetekoak jaurti eutsazan (zizkion), baiña «Garbantz»k zirkiñik egin barik etzanda jarraitzen ebala (zuala) ikusirik, eta ain urrundik etorrita gero, eizaketa barik etxera biurtzea jasan-eziña yakonez (zitzaionez), erremuska bazan be, txakurrari eskaturikoa ekarri eutsan (zion), eta asetu zanean, «Garbantz»k ugazabari,
- Orain eizara joan gaitkez– esan eutsan (zion)–.
- Eiza asko jaso eban Garbantzuk eta arratsalde aretan ostatura biurtu ziranean, ugazabari auxe esan eutsan (zion):
- Nire laguntzaz eper asko eizatu dozu, eta bidezkoa deritxat merezi dodan aparria emon dagistazula (dezaidazula), bestelan goizean esan dautsudana (dizudana) barriro be entzun bear izango dozu.
- Izan be, apari ona emon eutsan (zion) ugazaba zekenak, eta «Garbantz»k gau aretan oso ondo lo egin eban (zuan).
- Urrengo egunean be eizan jardun eben (zuten), eta etxera orduko, berebilla eperrakaz beterik egoan. Izan be, Satur'ek ez eban (zuan) iñoiz alako eizaketarik egin.
- Etxera eltzeko zorian zirala, «Garbantz»k ugazabari auxe esan eutsan (zion):
- Aizu, aurrerantzean zure eiza-txakurra izan nakizun gura ba'dozu, egunokaz

beste janaria emon bear izango daustazu (didazu) egunero, bestelan anka egingo dot, eta ez nozu iñoiz barriro be ikusiko. Argi al-dago...?

– Bai, «Garbantz», baiña ez zaitez izan prakerre. Edozelan be, gauza onak ondo ordaindu bear dirala orain oartu naz.

Gauza onak nai ba'dozu
ager zaitez emonkorra,
bestelan beti ugari
gura ez dozun zaborra.
Gosez ilteko zorian
«Garbantz» gogorra
Iratxoari eskerrak
azaldu zan eginkorra.

Eta izan be, Satur zekenak, diru-gose jarraitu arren be, ez eban iñoiz aztu «Garbantz»gandik artutako ikaskizuna, eta aurrerantzean bere eiza-txakurrak ez eban goserik jasan, eta goiz guztietan, eiza-txakurrari erregositako arrautz bi urdazpia ta gutzi emon barik, ez zan etxetik urteten.

YONTXU TA GIZAJALEA

Arratsalde aretan, Yontxu bere arreba Irunetxu'rekin ikastolatik etxera biurtzen zanean, ots andi bat aditu zan, eta ustekabez, gizajale erraldoi bat agerturik, Irunetxu atzitu, eta zorro batera sartuta, etorri baizen arin mendian gora ostendu zan, didar baten auxe iñoala

Etorri yat zorionez
bearreko okelia,
biar baretuko daustan
au nire gose gorria.

Saltsaz atondu ostein
ta astiro mamurtua,
zato bete ardaorekin
abosapairako gozua...!

Yontxu'k gizajale erraldoiari jarraitu nai izan eutsan (zion), baiña aren oinkadak amar metrokoak izanik, jarraipenari laster uko egin bear izan eutsan (zion), eta bide-ertzeko arri baten gaiñean jesarrita, negar etsi bateri emon eutsan (zion). Ustekabez, eguratsean zear aizeak eragindako iratxo bat bere ondora jatsi zan, eta areitzostoakaz egindako euritakoa tolostu ondoren,

– Begira, Yontxu– irautsi eutsan (zion)–, ni Txano, lurralde onetako iratxoa naz. Txepetxak esan daust negar baten zengozala, eta zeuri laguntzearren etorri naz; esan, zer jazo yatzu (zaizu)...?

– Ara, Txano... ikastolatik nire arreatxu Irune'rekin etxera biurtzean (itzultzean), bapatean gizajale erraldoi bat urreratu yaku (zaigu), eta Irune gaixoa zorro batera sartuta, arin baten iges egin dau, nire arreatxua ondo egosita, ardaurekin jango leukela didar baten abesten ebala (zuala). Gizajalearen atzetik joan gura izan dot, baiña amar metroko oinkadak egiten ebañanez (zituanez), ezin izan dot jarraitu. Nire gurasoek jakin dagiencan (dezatencan), atsekabe esaneziña artuko dabe. Ai, ni gaixoa...!

– Aizu, Yontxu, zure arrebaren alde ekiteko gerturik zagoz...?

– Edozer egingo neuke.

– Entzun auxe ondo: gizajale ori Txagolo izenekoa da, eta an goian, arkaitzen gaiñeko gaztelu baten bizi da. Zoaz ara ba, eta aalegindu zaitetz arreba gaixoaren alde. Zure burua estu ta larri ikusten ba'dozu, esan giltz-berba oneik: «Dringilin, Drangalan, edozein edozelan» eta dana atonduko yatzu (zaizu). Ulertu dozu...?

– Bai, Txano.

– Amar bidar esaizuz giltz-berba orreik.

Olan egin eban Yontxu'k, eta amaitu ebanean (zuanean), Txano'k,

– Ondo da, Yontxu, orain zure arrebatsuaren billa joan zaitekez, eta ez aztu neuk erakutsitako giltz-berbok.

– Ez, Txano, eta eskerrikasko danagaitik.

– Agur eta ondo joan.

Txagolo'ren egoitza urrun egoan, eta arratsalde ta gau osoan ibilli ostean, eguntentia baiño len gaztelura eldu zan.

Zubi jasokorra goratuta egoanez, Yontxu'k giltz-berbak esan gura zituan, baiña zoritxarrez aztu izan yakozan (zitzaizkion) eta sartzerik ez ebanez, gaztelua inguratzan eban luebakiaren ertzean jesarri zan, eta negarrari emon eutsan.

Olan egoala, erbiñude edo santandera bat urreratu yakon, (zitzaion) eta begi txiki biziak illunditan dizdiraka, auxe itaundu (galdetu) eutsan (zion).

– Aizu, mutil, zer dala-ta olan negar egiteko...?

– Gazteluko zubia beeratzeko berba-giltzak aztu egin yataz (zaizkit), eta ez dot sartzerik nire arrebaxua onik atarateko.

– Atzo arratsaldean, Txagolo gizajaleak zorro baten barruan ekarri eban, eta berak iñoanez itxartuta gero jango leuke. Nik ezin dagiketsut (dezaizuket) zubia beeratu, baiña eroan zagikedaz barruraiño.

– Ederto, erbiñude maitia. Joan gaitezen ba.

Erbiñudeak, bidetxigor estu malkartsu batetik mutikoa zuzendu eban luebakiaren sakoneraiño, eta esan eutsan:

– Itxaron emen. Goiko gezi-leio aretatik soka bat botako dautsut, eta aren bidez igonik, gezi-leioaren zear sartuko zara gaztelura.

Erbiñudea, ormaren arrakaletatik igon zan, eta ateko zirritu batetik ostenduta, andik laster soka bat jausi zan eta mutikoa lauazka igon zan. Gezi-leioaren bestaldean begira egoan erbiñudeak, auxe esan eutsan (zion):

– Txagolo gizajalea orain lotan dago, baiña badaezpadan isil-ostuka ibilliko gara. Zatoz nire atzetik.

Erbiñudeari jarraituz, igarobide isil batzuk zearkatu ostean, Yontxu gazteluko ziega batera eldu zan, eta ango oatze baten gainean, Irunetxu zetzan. Bere neba ikustean, malkoak txukatutik, besarkada estu bat alkarri emonda, neskatoak auxe esan eutsan (zion):

– Txagolo nire billa etorrela uste izan dot, gaur jango nindukela atzo esan eutsan-eta (zidan-eta).

– Nasaitu zaitez, Irunetxu– Yontxu'k esan eutsan (zion)– eta itxaron, zoezer asmatuko dot-eta.

Andik laster, Txagolo'ren urratsak entzun ebezan, eta Yontxu ta erbiñudea oatzepean ezkutatu ziran. Gizajaleak aldarerik onenean sartu zan, eta eskuak alkar igurtziz,

– Neskato mukitzu ori, zu irusteko ordua eldu yat (zait). Goazen eskaratzera, eta an nire sukaldari ta maitzaiña dan Akerrak tomate ugariatz atonduko zaitu.

Au esanik, Txagolo'k Irunetxu artu, eta goian egoan sukaldera eroan eban, atzetik erbiñudeak eta Yontxu'k erraikioela. Sukaldera sartzean, gizajaleak, didar baten, – Zatoz ona, Aker nagitzar ori. Ordubete baten ostean, neskato iñuzente au tomateaz ondo egosita mairatuko daustazu (didazu).

Au esanda, sartagin anditzar batera orio-txurrutada bat bota, eta azpitik su emonda, neskatoa sartu eban (zuan) auxe esanez:

– Orain kupeldegira noa zaragi bete ardaoaren billa, eta bitartean, zuk, Aker ganorabako orrek, tomateaz neskatoa ondo erregosita egon daitenean, maira ekarriko daustazu (didazu). Entzun...?

– Bai ugazaba, olan egingo dot- dardar baten erantzun eutsan (zion) izututako akerrak.

Txagolo urten zanean, Yontxu'k sua amatau eban, bere arrebaxua sartagiñatik atara, eta Akerra begibakarra zala ikustean, auxe itaundu eutsan (zion),

– Aizu, Akerra, zelan biurtu zara begibakar...?

– Bein baten– abere gaixoak erantzun eutsan (zion)– Txagolo'k mendian artu ninduan bere morroia izan nenkion, baiña nik igesari emon neutsan (nion), eta orduan arrikada batez begi bat kendu eustan, eta ezinbestez bere sukaldari ta maitzaiña billakatu nintzan. Au nire egoera izugarria...!

– Entzun, Aker maite orrek, ni Yontxu naz, eta men egiten ba' daustazu (didazu) gaur bertan aske biurtuko zara. Ez dozu besterik esanekoa izan baiño.

– Bai, Yontxu, esan.

– Or txoko orretan belaki-meta aundia ikusten dot.

– Bai, belakiok sukaldeko tresneria garbitzeko erabilten ditut.

– Artuizu belaki-besakada bat, eta tomate-saltzan ondo bilduta erregosi egizu orio ugaritan, eta Txagolo'k nire arrebea mairatzeko agindu dagizunean (dezazunean), eroan eta esango dautsazu (diozu), iñoizkorik atondutako jakirik gozoena, bere aukeran dagoala.

Andik ordubete batera-edo, Txagolo upeldegitik biurtuta, zaragi andi bat lepoan ekarrela mai-ondoan jesarri zan, eta mintzo durundutsuz,

– Aker, denganiño orrek– oi ugin eutsan (zion)– mairatu egistazu beingoan neskato orren jakia...!

Agindutakoa egin aurretik, erbiñudeak arasa batetik piper-autsa artuta, erregosita belakiak ondo austu ebezan, (zituan) eta Akerra jatokian erratilluaz agertu zanean, gizajaleari auxe esan eutsan (zion):

– Txagolo andia, nire ugazaba ederretsia, benetan esan dagiketsut (dezaizuket) gaztelu onetan iñoiz gertaturiko jakirik gozoena dakartsudala.

Eta mairatuta gero,

– On dagizula, Txagolo andia.

Gizajaleak kurrinka latzaz erantzun eutsan (zion), eta Akerrak ekarritako izara andia idun-inguruan lotuta, onetaraxe abesten asi zan:

Tomate-saltsan bilduta
auxe bai jaki gozoa,
astiro erregosita
ume txatxal iñozoa

Jan dagigun ba poz-pozik
ta edan gure ardoa,
upeltegiko urrea
ta indargarri osoa.

Eta aitzotzar bat artuta, gizajaleak kortako satza erabilten dan sarda bataz jakia ebagiten asi zan, eta gero zatiak aborutzen zituan, pozezko kurrinka bizitan. Erbiñudeak eta anai-arrebak maipetik begiztatzen eben (zuten) Txagolo'ren erabiltea, bear izatekotan andik iges egiteko gerturik.

Tomatez eta piper-autsaz ondo bildutako belakiak baiña, ez ziran Txagolo'ren zintzurretik beera erraz joaten, eta zaragia artuta, bere biziko txurrutadea emon eutsan (zian), eta esku-gaiñaz musturrak igurtzi ondoren, jateari jarraitu eutsan (zian). Ardao-txurrutaz, baiña, zintzurreko belakiak anditzen asten ziran, eta itopena arintzeko, Txagolo'k geiago edaten eban, baiña belakiak areago andituta, arnas-estuka asi zan; noizbait maitik jagita, besaka ta ikotika lurrera amildu zan, orro antzekoak abotik jaurtiz, il zan arte.

Orduan Yontxu' k erbiñudeari ta akerrari mintzatuz, auxe esan eutsen (zian),

– Eskerrik asko lagun maiteok. Zuei esker Irune nire arreba jaregin dogu, eta ori ez dogu iñoiz aztu egingo. Aker maite ori, urte askotan Txagolo'ren jopua izan zareana, orain mendira biurtu zaitkekez, ardien nagusitasuna artzearren, eta an goiko larradian barriro be zorientzua izango zara. Eta zu, erbiñude azkar eta kementsua, nai ba' dozu gurera biurtu (itzuli) zaitkekez, eta an ez yatzu (zaizu) ezer utsik egingo.

Poztu ziran benetan, akerra ta erbiñudea, baiña atera abiatu ziranean itxita egoala egiztatu eben, eta urtenbiderik ez izanik, euren lengo poztasuna nai gabea biurtu zan. Olan egozala, bapatean Yontxu'ri Txano'k esandako giltz-berbak gomutara etorri yakozan (zitzaizkion), eta orduan,

– «Dringilin Drangalan, edozein edozelan»– esan eban–.

Itz oneik jaurti baiño ez, atea zabaldu, eta zubi jasokorra beeratu zan. Gure lagunak lekorerera urtenda, pozaren-pozez dantzari asi ziran. Gero,

– Aizu, adiskideok- esan eutsen (zian) akerrak– banoa mendira, nire ardi maitteak barriro zaintzera.

Yontxu, Irunetxu, eta erbiñudea bakarrik geratu ziranean, mutikoak barriro esan eban,

– «Dringilin Drangalan, edozein edozelan».

Eta bapatean, lau zaldi baltzek lerraturiko gurdi apain bat agertu, eta gure lagunak etxera eroan zituan. Erritarrak eta udalbatzak Yontxu'ri goratzarre andi bat egin eutsen, Txagolo, barruti aretako gizajaleagandik jaregin ebazalako.

TXOLO TA IPURTARGIAK

Txolo mutikoa bere amarekin basoko etxol baten bizi zan. Oso ezeukiak ziran, eta irauteko, ikastolatik biurtzean, piñutatik jausitako ler-aleak amari biltzen laguntzen eutsan (zian). Biaramonean orgatxu baten astoak ama-semeak errira eroaten ebazan (zituan), eta Txolo ikastolan utzita, amak etxerik-etxe ler-aleak saltzen zituan, eta lortutako txin urriakaz janaria erosi, eta mutikoa ikastolatik biurtzen (itzultzen) zanean, lapikokoa gerturik egoan, eta bazkaldu ondoren, ama-semeak ler-aleen biltzeari emoten eutsen (zioten), biaramoneko janaria erosi aal izateko.

Bein baten, amarekin lanean ziarduala, Txolo'k lurrean zauritutako pikakume bat ikusi eban. Egaztikumeak egan egin ezin egikeanez (zezakeanez), ikotika ebillen txio negartsuak jaulkitzen zituala. Txolo biotzperakoa zan, eta basoko izaki guztiak maite ebazanez, pikakumea jaso eta etxolara abiatu zan. Etxerakoan, itz egikean (zezaken) egaztiak,

– Aizu, mutiko- arrenkatu eutsan (zian)– ez nagizu (nazazu) il.

– Zergaitik eskatzen daustazu (didazu) olakorik?

– Ara... nire gurasoak aguretu dira, eta janaria jaristeko gai ez izanik, neuk zaindu ta janaritu bear ditut, bestelan bear utsaz ilgo litzakez (lirake). Gaur eurentzako janari-billa niarduala, eiztari batek egoan zauritu nau, eta orain ezin dodaz nire gurasoak zaindu.

– Nasaitu zaitex, Pikakume gaixo ori, nik izaki guztiak maite ditut, eta areago ezinduta dagozanean. Egon zaitex nirekin, eta osatu arte egoa zainduko daustut (dizut).

Etxolara eldu ziranean, amaren laguntzaz Txolo'k pikakumearen zauria garbitu ta zaindu ondoren, artoale batzuk jaten emon eutsazan (zizkion), eta gero otz zanez, sutondoan ipiñi eban.

Irugarren egunean pikakumea osatu zan, eta mutikoari,

– Aizu, Txolo– esan eutsan (zian)– orain banaz gauza egan egiteko, eta nire gurasoak zaintzeko arin baten joango naiake (natzaie), onezkero gosetuak izango dira-ta. Oso ona izan zara nirekiko, eta egunen baten ordaindu gura izango neuskizu (nizuke). Begira, basoko borda bateko utzikiñetan bizilekua dot, eta bear izatekotan antxe bertan idoro nagikezu (nazakezu) edozertarako. Agur Txolo.

– Agur Pika maite ori. Zure aldegitteak tamal andia emoten daust (dit), baiña gurasoen zaintza beifñena da.

Malkoak begietan, Txolo'k egaztia eguratsean zear begimenetik galdu eban (zuan), eta gero asperen luze bat jaurtita, amarekin basora joan zan.

Txolo'ren gurari bizia, ikasketa andiak egitea zan, olan egunen baten bere amak lan egiteari uko egitsan (zezaion), baiña aldiaren bidean gauzak okertzen asi ziran. Alde batetik ikaste-liburuen salsariak beti gora egiten eben (zuten), eta bestetik, gabeen ikasi bear izaten eban (zuan). Olan ba, diru ezagaitik liburuak ezin ebazan erosi, eta onezaz gaiñera, txiro izanik, gabeen etxolan argirik ezagutzen ez zan, eta basotiko lanatik etxera biurtzen zanean, ezin egikean (zezaken) libururik irakurri. Augaitik ba, Txolo'ren amarekiko gurari biziak ezin zeitekezan egi biurtu.

Bein baten, atsekabe utsaz basoan negarrez egoala, Txepetxak ikusi eban, eta

– Aizu, Txolo– itaundu eutsan (zion)– zergaitik ikusten zaitut negar baten...?

– Begira, Txepetxa, beti ames egin dot jakintzaren bidez egunen baten amari bizimodu on bat emotea, egunen bidean nekatzen asi da-ta, baiña zoritxarrez bearreko liburuak nekez erosi dagikedaz (ditzaket) eta erostekotan be, gabeen gurean argirik ezagutzen ez dan ezker, nire amesak pikotara joan yataz (zaizkit)...

– Txolo, ez negarrik egin, ikusiko dogu zer egin dagikegun (dezakegun)...

Joan zan Txepetxa, eta Txolo malkoak txukatuz, bildutako ler-aleak orgatxuan ipiñita, astoarekin etxera bakarrik biurtu zan, arratsalde aretan nekearen-nekez ama etxolan geratu izan zalako.

Andik egun batzutara, Txolo basoan lanean ari zala, eguratsetik jatsitako iratxo bat aurkeztu yakon (zitzaion), eta,

– Kaixo Txolo– agurtu eban–.

– Kaixo, lagun ori, nor zaitut...?

– Barruti onetako Txano iratxoa naz. Begira, lengo egunean adiskide andia dodan Txepetxa'k zure atsekabeari buruz jakitun ipiñi ninduan, eta ia zer egin dagikedan (dezakedan) natortzu. Esan egistazu (zaidazu) dana.

Orduan, mutikoak Txano'ri bere barrua asazkatu eutsan (zion), eta amaitu ebanen,

– Entzun auxe ondo, Txolo– esan eutsan (zion) iratxoak– amar egunen buruan ipurtargi-talde bat zure etxolako leio-barrenean kokatuko da; areitariko amabiko bat artu, kutxatxu baten gorde, eta illundu daitenean, bearreko argia etxolaren barruan sakabanatuko dabe.

– Ondo derist orreri Txano maitia, baiña ikaste-liburuen soster edo oztopoa, zelan gainditu...?

– Orain illabete batzuk, zaurituriko pikakume gaixo bat etxera ekarri, eta an maitasun andiaz zaindu ta janaritu zenduan. Oroitzen al-zara...?

– Bai, Txano, eta basoko borda-utzikiñetan eban egoitzara biurtu zan.

– Joan zaitez, ba, pikakume aregana, eta liburuen arazoa azalduta gero, laguntza emongo dautsu (dizu).

– Eskerrik asko, Txano. Zergaitik orren eskuzabal laguntzen daustazu (dida-zu)...?

– Izakiak laguntzea nire betebearra da, baiña ama baten aldeko semearen aalegiñak biotzeraiño oartzen dodaz (ditut). Agur, Txolo maite ori, iraun egizu (zazu) beti orren maitetsu.

– Agur, Txano, eta eskerrikasko.

Bere areitzezko ostoakaz egiñiko euritakoa zabaldu eban Txano'k, eta eguratsesan zear ostendu zan.

Txolo etxera biurtzen zala, abesti bat entzun eban onetaraxe iñoala:

Ederra dogu benetan
argiaren goizabarra,
eta gabeko kolkoan
agertzen dan artizarra.

Baiña areagoa da
basoko ume azkarra,
amari emoteko prest
maitasunaren indarra.

Txolo etxolara eldu zanean, amari edestu eutsan (zion) jazorikoa, eta apari urria artu ondoren, oera joan zan.

Andik egun batzutara, ate-ondoan jesarrita egoala, Txolo'k ipurtargiko moltzo bat ikusi eban, eta iratxoaren esana gogoratutik, areitariko amabiko bat artu eta lapikotxu batera sartu ondoren, auxe esan eban:

– Badaukat gaberako bear dodan argia.

– Bai– erantzun eutsan (zion) ipurtargi nagusiak– baiña gure argia nai ba' dozu, illunabar guztietan amabi bana eltxo jan bear doguz.

– Ezaguna dodan istingako igelak, bear bezenbat eltxo nireztat arrapatuko dituala itz emon daust (dit).

Eta illuntze guztietan, ipurtargiek bear izandako janaria, Ugarazio'k, istingako Txano'ren adiskide miñak Txolo'ren etxolara ekarren, eta gautzen zanean, lapikotxutik atarata, ipurtargiek mutikoaren gela argi gozo bigunaz beteten eben (zuten). Orain mutikoak bear izaten ebana, ikaste-liburuak ziran, eta Txano'ren berbak gogoratutik, bein baten basoko borda-utzikiñetara joanda, oiuka asi zan.

– Pika, nire lagun maitia, non zagoz...?

Bapatean, aspaldiko egaztia agertu zan, eta arri baten gaiñean kokaturik, auxe esan eutsan (zion):

– Aspaldiko Txolo, nire adiskide ederretsia, zer nai dozu...?

– Lenengo ta bein, zelan dagoz zure gurasoak...?

– Oso ondo esan bearrean naz. Osatu nintzanean, emon neuntsen (nien) janariari esker, lengora biurtu ziran, eta orain zartzaro atsegiña gozatzen ari dira.

– Orrek poztuten nau benetan.

– Esan, Txolo, zerk zakaz ona...?

– Ara... lengo egunean Txano gure iratxoari, nire amak atsedan artu egian (zezan), jakintsua billakatu nai nebala esan neutsan (nion), baiña orretarako ikastolan erabilten diran ikaste-liburuak erosteko beste dirurik ez nebala, eta berak orduan orretarako zugana joateko agindu eustan (zidan). Orra or nire etortearen zergaitia.

Pika, unetxu batez oldozkor egon zan, eta gero,
– Geu pikak, gauzak ostuteko bereiziak gara, eta bear dozuzan liburuok, ikastolako liburutegitik ekarri dagiketsudaz

(dazaizkizuket), baiña ikastola bateri ostutea ondo ez deritxadanez, auxe egin dagikegu (dezakegu): zeuk ikasgaiak ikasi ostean, liburuok ikastolara biurtuko dodaz.

– Ondo derist, pika maite ori. Edozelan be, gaiak ikasi ondoren, liburuok ez ditut bear.

– Esaidazu ba, zeintzuk gai bear dituzun, eta biar bertan ekarriko dautsudaz (dizkizut).

Orduan Txolo'k, zeintzuk liburu bear zituan esanda, basoko borda-utzikiñetatik exera biurtu zan. Izan be, urrengo egunean, apalostean, eskaturiko ikaste-liburuak pikak ekarri eutsazan (zizkion), eta igelak ekarritako eltxoakaz ipurtargiak janaritu ostean, lapikotxutik atara, eta gela argi bigun eta gozoaz bete zan. Ordu batzuk emon zituan Txolo'k gaiok ikasten, eta urrengo egunean, critxirik onenak lortu zituan, eta olan, egunak joan egunak etorri, ikastaro aretan goratzarreko saria lortu eban. Txolo'k uda aretan ipurtargiai urrengo ikastaroarte oporrak emon eutsezan (zizkien).

Urteak banan banan igaro ziran, eta egun baten Txolo'k osalaritza (sendalaritza) ikasteko, Ikastola Nagusira sartu, eta andik urte batzutara, baimendua billakatu zan.

Andik laster, uri nagusiko etxe batera ama eroan eban, eta auxe esan eutsan:

– Ama, gaurdanik ez dozu lanik egingo, eta etxe onetan erregiña baten antzera bizi izango zara, ondo merezi dozu-ta.

Eta izan be, Txolo osagille ona zanez, amari aal eban onena emon eutsan (zian), baiña oroz gain bere maitasun eta ederrespena.

Noizean bein atsegin yakon (zitzaion) basotik ibiltea, eta orduan Txano Pika'rekin alkartuta, aspaldiko oroitz zoriontsuak gogora ekarrezan, Ugarazio, igelen erregearen abesti gozoek inguratuta.

AZERIA TA ARTZAINTXUA

Mendi-katea arkaitz zorrotzakaz edatzen zan sarkaldetik ekialdera, eta erdi-uneke leize baten azeri-ama batek bost kume izan zituan. Udabarria zan eta aro onetako ugaritasunari esker, bost kumeak polito azten ziran, baiña bein baten amari an ibarrean zetzan basetxeko oillategi bat ikertzea otu yakon (zitzaion).

Eldu zanean, bazterrak zeatz aztertu ondoren, oillo eder bat atzitu, eta ortzen artean jlda gero, bere kabi urrutira abiatu zan. Okel bizigarri arek egun batzuk iraun eban (zuan), eta onen gomutak erakarrita, astebete bi geroago basetxe aretara biurtu (itzuli) zan, eta gau beranduan ollategiko ate koloka zearkatuta, beste oillo eder bataz jabetu nai eban; oraingo onetan, baiña, arazoa ez zan lengo beste baketsu gertatu... Agatetik narraz joiala, jausteko zorian billakatu zan, eta onczaz gaiñera, izuz jotako oilloek iskanbilla andia egin eben (zuten). Noizbait, oillo bat atzitu, eta atepeko zirritutik urten zan.

Bitarte onetan, baiña, lotara joateko zorian zan etxejoauna, oillategiko zaratak erakarrita, etxetik urten, eta oilloa abotik eskegita azeria iges egiten ebanean ikusi eban (zuan).

Lenengo ostuketea jazota gero, auzoko lagun batzuekin alkarrizketa bat izan eban (zuan). Onen ondorioz, bigarren lapurketea jazo zanean, eiza-txakur batzuek azeriaren aztarnak usnatu zuten, eta jarraian, txakurtalde bat mendian gora zantzuen atzetik abiatu zan. Iru ordubete geroago, iru gizon eta bost txakurreko taldea beti azeriaren aztarnen atzetik, aitzakaz inguraturiko lekune batera eldu zan...

Kabi-zuloan azeri-amak kumeak edoskitzen ziarduala, urrunditiko eiza-txakurren zaunkak erakarrita, sarreratik ikusi zituan, eta zirrara batek menperatuta, kabi-aldaketa bat egitea erabagi eban (zuan). Badaezpadan, lendik baeban beste leku bat kabitzat aukeratua, eta kumeak ara eroatea ebatzi eban (zuan). Ereti areitan, oikoa zan kumerik ederrena lenengo gaizkatzea (salbatzea), eta ortzen artean «Ozkorri» izeneko kume bikaiña artuta, kilometro batera egoan bigarren kabizulora aalik ariñen eroan eban (zuan), eta orbel-meta baten gaiñean utzita, bigarrenaren billa biurtu zan. Au be atzitu eban, baiña ozta-ozta arkaitz baten atzetik ostentzeko zorian zala, txakur batek ikusia izan zan, eta arrapalada baten azeri-amaren arka oldartu zan, beste txakurrek errakioela, eta gero eiztariek.

Kumea abotik eskegita, azeri-ama ezin zeitekean arin ibilli, eta andik laster txakurrek inguratuta, kumea lurrean laga, eta aurre egin nai izan eutsen (zien), baiña luzaro barik txakur batek lepotik oratuta, il-zan. Bereala, ezindutako kumetxua garbitu izan zan, eta txakur urduriak, batetik bestera azeriaren aztarnen atzetik ibillita gero, noizbait kabi-zuloaren aztarnak artuta, emen beste iru kumeak ikusi, eta aida baten erail ebezan (zituzten). Gero, eiztariak eldu ziran, eta azeri-ama ta lau kumeak aga luze batetik dingilizka, baserrira biurtu ziran, biaramonean, udaletxera eroateko, oiko pizti-sariak jasotearren. Pozik geratu zan Iraola basetxeko etxejoauna, bere oillategiko arrapataria garbitu izanagaitik.

«Ozkorri» kumetxuak geldi ta isillik iraun eban kabi-zulo barrian, baiña orduak igaro-ala bere ama biurtu barik, kurrinka bigunakaz dei egin eutsan (zion). Gaba eldu zan, eta kumetxuak intziri negartsuakaz amari dei egiten jarraitu eutsan, baiña noizbait, neke ta gose utsaz lo geratu zan.

Zulora sartu zan eguzki-izpi batek «Ozkorri» iratzarri eban (zuan), eta bere burua bakarrik ikustean, barriro be amari deitzen asi zan. Egun osoa intzirika iraun eban, eta gaba barriro etorrita, nekearen-nekez ameskeriz beteriko lo urduri baten murgildu zan. Biaramonean itxartuta, goseagaitik erraiak marrazkatuta, bearrizan utsaz janari-billatzeari emon eutsan (zion). Baiña gaixoak orretarako ez eban oraindiño bearreko eza-guera, eta istillu gorriak jasan arren be, egun aretan ez eban ganorako gauzarik arrapatu. Gaba eldu zanean, janari-billa jarraitzea erabagi eban (zuan). Badirudi, adua edo patua noizbait beratzaz erukitu izan zala; noizbait, ari baten pean, orbelaren artean arilduta sagu-sendi bat usnatu eban (zuan), eta arin baten ama-kumeak iruntsi zituan. Gau aretan pozik lotaratu zan, eta bere amesak nasaigoak izan ziran.

Amaren euskarri barik, «Ozkorri»k aspaldi larri ta luzea jasan eban, ozta-ozta bizi-rik irauntzeko janaritzen zala. Baiña udaren sarreraz batean, zabaldiak betetasun osora iritxita, eta bera andiago ta ezaguera geiagokoa izanik, gauzak obatu yakozan (zitzaizkion), eta udazkenaren ateetan, azeri ederra billakatu izan zan, katamixarrak, untxiak, muskerrak, sugeak, etab., arrapatzeko gai izanik. Aspaldi onetan, amak utzitako goiko kabi-zuloan bizi izaten zan.

Baiña basoek ostoaik galtzen ebezan garaian, euriak eta otzak asi ziran, eta negua asi zaneko, janaritzea oso zailla biurtu yakon (zitzaion), eta ezinbestez, gizonen egoitzak ikertzen ebazan (zituan). Barriro be, bere ama zanaren antzera, Iraola basetxeko oillategia erasoten asi zan. Laster oartu zan etxejoauna, oilloak banan-banan ostentzen zirala, eta azeri baten ekintza zala somaturik, manturioak erabiltea erabagi eban (zuan).

Goiko arkaintzen ondoan, edurrez estalitako zelai eder bat etxejoaunak eiza-lekutzat aukeratu eban, eta iru manturio jarri ebazan (zituan). Lenengo gabean, okelaren usaiñak erakarrita «Ozkorri»k lenengo manturioa ikusi eban (zuan), eta aren inguruan biraka asi zan. Gose andia zan, baiña barruko sen ezkutu batek zuur jokatzera eragiten eutsan (zion). Noizbait, adar bat agiñen artean artuta, okel-zatiari keiñuka asi yakon (zitzaion)... Bapatean, manturioak eztatanda egiñik, okel zatia iruntsi aal izan eban (zuan). Besteak ikertu, eta bardin egin ostean, arein amuzkiakaz jabetuta gau aretan lo egin eban (zuan) nasai-nasai.

Ekintza oneik egiztatu zituanean, Iraola'ko etxejoauna asarratu zan, eta bere buruari zin egin eutsan zelan edo alan azeri madarikatua garbituko leukela. Baiña benetan aalegindu ba'zan be, ezin izan eban (zuan) «Ozkorri» artu.

Gau baten, eizan ziarduanean, azeriak otso-talde baten eraso jasan eban. Edurra-aren gaiñetik iges egiten ebala, eta areik arrapatzeko zorian zala, basora sartu, eta pago baten enborrean gora lau-azka igon zan. Abo bete agiñakaz, otsoek uluka luzaro iraun eben (zuten), baiña guenez, esku-utsik alde egin bear izan eben (zuten).

«Ozkorri» negu gorri a nekez igaroten ari zan, eta illuntze baten, bearrizanak eraginda, Iraola basetxeko oillategira biurtu zan. Oraingo onetan, baiña, lotutako etxe txakurak usnatu eban (zuan), eta zaunkari emon eutsan (zion). Suzmo txar batek artuta, etxejoauna, zipa bat artu, eta azeria oillo bat atzituta urtetan zanean, danba egin,

eta berun-txirri batzuk iztar baten untzatu yakozan (zitzaizkion). Miñaren miñez aiurika, «Ozkorri» mendian gora urrundu, eta bere zulora biurtu zan. Egun batzutarako janaria izanik, oneri esker iraun eban (zuan), baiña oillokia amaituta, goseak eraginda, errenka janari billa abiatu zan. Udabarria asi izan zanez, bizitzaren aztarnak nonnai igarten ziran. Baiña nekez ibilli zeitekeanez, egun aretan «Ozkorri» esku-utsik biurtu zan. Urrengo egunean be, eizaketara urten, baiña bardin, zauritutako isterra zala-ta, ez eban (zuan) eizakirik arrapatu aal. Aultasunak menperatuta, eta gaixoa ozta-ozta ebilkenean, Txepetxak ikusia izan zan, eta astirik galtzeke, Txano iratxoa jakitun ipiñi eban (zuan).

Goiz guztietan, Iraola basetxeko Kerman mutikoak artaldea mendian gora eroian, eta gero, illuntzean etxera biurtzen zan. Goiz aretan, alagunean txilibitua jotan ari zala, ustekabez, bere areitz-ostozko euritakoaz eguratsean zear joiala, Txano agertu yakon (zitzaion), eta,

– Kaixo, Kerman– esan eutsan–.

– Nor zaitut, eta zelan ezagutzen nozu...?

– Ni, Txano, lurralde onetako iratxoa naz, eta nire barrutiko izaki guztiak ezagutzen ditut.

– Zer nai dozu nigandik?

– Ara... emendik ez urrun, Txolope'ko arkaitzetan, zaurituriko azeri bat bere zuloan ilteko zorian dago, eta zeugandik auxe gura dot: beragana joateko, eta lepoan artuta zure sarobe edo esparrura ekarri; emen zaindu ta janarituko dozu, eta osatu daitenean, ordaintzat zure artaldea jagon egingo dautsu (dizu).

– Artaldea jagon diñostazu...? Noiz ikusi da olako pitzia artalde bat zaintzen?

– «Ozkorri» izeneko azeria oso argia da, eta gaiñera eskeronekoa izanik, osatu daitenean, zure artaldearen zaintza pozik be pozik artuko dau, eta beragan adiskide maite-maite bat izango dozu betirako. Joan zaitez lenbailen.

Beste barik Kerman'ek Txolope'n egoan azeriaren zulora joanda, an ilteko zorian «Ozkorri» ikusi eban. Errukituta, azeriaren burua laztandu bitartean, itz maitekorak esan eutsazan (zizkion), eta gero, lepoan artuta bere esparrura eroanda, banan-banan iztarrean sartutako txirriak atara, gero zauria garbitu, lotu, eta janari-zati batzuk eskiñi eutsazan (zizkion). Il-agiñen egoan «Ozkorri»k joranez gaiñezka azkurria iruntsi eban, eta gero, atsegiñezko oarpenaz lo geratu zan. Azeriaren geisoaldiak egun batzuk iraun eban (zuan), eta osatu zanean, Kerman'ek,

– Aizu, «Ozkorri» maite ori- esan eutsan (zion) -, Txano gure barrutiko iratxoak, zeuk nire artaldea zainduko zeunskidala (zenidakela) esan eustan (zidan). Izan be, ori onuragarria izango litzakit (litzaidake), olan txilibitu joteari sarriago emongo neuskio-lako (niolako). Zaintza ori zure gain artuko zenduke...?

– Bai, adiskide maite ori. Esan, zein da zure izena.

– Kerman naz. Orain gitxi, zaintza-txakurra il egin yatan (zitzaidan), eta zeuk aren betekizuna artuko ba'zenduke, mezede andia izango litzakit (litzaidake), txilibitua joteko asti luzeagorik izango neukelako. Ez dakizu, «Ozkorri» maite orrek, egunen baten soiñu-jotzaille izan gura dodala...?

– Aaleginduko naz ereslari on-ona billakatu zaitez.

Eta berbaturiko itunari, zintzo eutsi eutsan (zion) azeriak, eta Kerman txilibitujoteari emon bitartean, artaldea buru-belarri zaintzen eban (zuan). Illabeteak igaro

ziran, baiña bein baten...

Bein baten, Iraola basetexeko etxejoaunak, mendira joan bear izan eban, eta an bere semea txilibitua jo bitartean, berak gorroto izandako azeriak bere ardiak zaintzen zituala ikusi eban. Asarre gorriak artuta, semeari auxe esan eutsan (zion):

– Adiskide dozun azeri denganiño orrek gure etxean oillo asko ostu dausku (digu), eta nire aalegiñak arren, ezin izan dot garbitu. Eta orra or zure txakur zaindaria biurtuta ikusten dodala. Bota egizu zeugandik, bestelan...

Eta au esanik, zizpa artuta azeria zemaitu eban. Izututako «Oskorri»k igesari emon eutsan (zion), eta bere zulora biurtu zan.

Kerman'ek azeriarekin itun bat egin izan ebal (zuala) azaldu eutsan aitari, eta berbaturikoari zintzo jarraitu nai eutsala (ziola); baiña asko arrenkatu arren be, bere aitak jaramonik ez, eta artzaintxuak «Oskorri»ren laguntzea galdu eban. Kerman atsekabetu ba'zan, azeria ez zan are gitxiago naigabetu, sarri askotan bere zulotik Kerman'en sarobeia bakarmiñez begiztatzen ebal (zuala).

Eta barriro be udazkena igaro zan, eta Kerman'en artalde goiko edurretatik iges egitearren etxean babestu zan. Bein baten, edurra zabaldu guztiaz jabetu izan zala, Iraola basetxean amama geisoturik, Kerman osagillearen billa errira jatsi zan. Onek osakai batzuk emon eutsazan (zizkion), eta mutikoa biurtu zan. Baiña etxerakoan, edurtza lodiak artu eban (zuan), eta ordubete bat igarorik mutikoa deslaidu, eta zearo nekatuta laguntza-eske asi zan. Iñork entzun ez, baiña, eta noizbait, aultasunez jausteko zorian zala, ustekabez, norbait laguntzeko etorkiola oartu zan. Eta narru gozo batek besarkatuta, «Ozkorri» zala oartzean, poz baten esan eutsan (zion):

– Au nire poza, «Ozkorri» maitia...! Galdu naz, eta ezin naiteke neurez etxera biurtu, baiña zeuk bai, eroan nagikezu (nazakezu).

– Bai, Kerman, ezin zagikedaz (zaitzaketa) aztu. Goizean, goietatik ikusi zaitut, eta urrundik erriraiño lagundu dautsut, eta gero onantzakoan jarraitu be. Oso nekatuta ikusten zaitut, baiña astiro izanik be, etxeraiño eroango zaitut.

«Oskorri»ri jarraituz, ordubete bat geroago Kerman etxera eldu zan, eta aitari osakai emonda gero, azeriarekin jazo izan yakona (zitzaiona) esan eutsan (zion). Orduan eskerronez gaiñezka, Iraola'ko etxejoaunak, azeriari dei egin eutsan (zion), eta «Ozkorri» etxean bizi izatera geratu zan, guztiek maite izaten ebela.

Eta barriro be udabarria etorri zanean, azeria ardiekin goiko alagunetara joan zan, eta Kerman'ek txilibitua jo bitartean, berak artalde zaintzen eban (zuan), eta olan urteak joan urteak etorri, Kerman ereskinlari bikaiña billakatu zan, eta urira joanda, jardun on eta onuratsua jaritsi eban, «Ozkorri»k zartzaro ona ta maitetsua etxean igaroten ebala (zuala).

Alkar maite dabenean
gizaki ta abereak,
Lurreko bizimoduak
egiten dira obeak.
Artu daiguzan benetan
gure anaitxu maiteak,
Jainkoak egin baigaitu
abereen babesleak.

UTZITAKO UMEA

Beñola, Txepetxa arrapalada baten Murugane'ko basora joan zan, eta iratxoaren ariztiko kabira elduta, didar bizitan onetaraxe asi zan:

– Txano, adiskide maite ori, gauza izugarri bat ikusi dot oraintxe bertan...! Ara... Basogarai'ko soillean, umetxu bat orbelaren artean utzi dabe, eta gaixoa gosez eta bakartasunez negarrez ari da. Sorospenik emoten ez ba'yako (ba'zaio) baita arin be, ez da luzarorako izango. Arren, Txano, joan zakioz, eta ikusi zer egin daiteken...

Astirik galtzeke, bere euritakoa artuta, Txano arin baten Basogarai'ko soilera joan zan, eta umetxu bat orbelaren artean ikusi eban (zuan) gosez eta bildurrez negar bizitan. Urreratu yakon (zitzaion) eta emetxua zala egiztatu eban. Izan be, bear gorrian aurkitzen zan. Orduan ariñeketan, Txano'k abere-talde bateko lagunai dei egin eutsan (zien), oneik izanik: Astoa, txakurra, katua, azeria, katamixarra (katagorria), artza, auntza, tximiñoa, idia ta belea. Iratxoaren deiaz batu ziranean, onetaraxe mintzatu yakon (zitzaien):

– Lagun maiteok: umetxu au leku basati onetan utzi dabe, eta sorospenik emoten ez ba'dautsazue (ba'diozute), laster ilgo da. Augaitik ba, dei egin dautsuet (dizuet), zuen artean sendi bat sortu dagizuen (dezazuten) umearen bearrizanai aurre egiteko. Edozein sendiak buru bat bear dauanez, zuen nagusia astoa izango da, buru argiko ta biotz andikoa da-ta. Bere aginduak aintzakotzat artuko dozuez, eta olan seintxu au, onik urtengo da. Asi zaitze ba lenbailen, eta biotz on...!

Itz oneik esanda, Txano'k bere euritakoaz alde egin eban, Ugarazio, igelen erregearen erestaldia ez galtzearren, eta orduan astoa ango lagunai onetaraxe mintzatu yakon (zitzaien):

– Adiskide maiteok, entzun dozue barruti onetako izakien babesleak esandakoa, au da, nire menpekoak izango zariela, bestelan gure taldeak txulut egingo dau, eta umetxu au ez litzake onik urtengo. Augaitik ba, eta ezetariko czpairik izan ez dagizuen (dezazuten), bere egitekoa zintzo bete ez dagianak (dezanak), nire ostikadarik sendoenak oroigarritzat artuko ditu. Argi al-dago...?

Lagun guztiek menpeko zintzoak izango litzakiozala (litzaizkiokela) abo batez itundu eben, eta orduan taldeko nagusiak onetaraxe jarraitu eban:

– Augaitik ba, eta umea gosez eta otzez dardar dagoan ezkerro, belea errira jatsiko da, eta bearreko izarak eta burusiak ekarriko ditu. Bitartean, katamixarrak miminakaz askatxu bat eioko dau, eta belea biurtu daitenean, seintxua askatxuan egokituko dogu.

Isildu zan astoa une batez, eta gero,

– Edozelan be, umeari izen bat emon bear dautsagu (diogu), bestelan ez litzake benetako gizakia, eta danon artean izen egoki bat asmatu bear dogu.

Astrapala andia sortu zan orduan, guztiek batera berba egiñez, eta guenez, orretarako zentzun andikoa zan tximiñoak, auxe esonatu (proposatu) eban (zuan):

– Gure seintxua polita izanez gaiñera, matrail zuri-gorriak ditu, eta auxegaitik nik Larrosatxu esango neuskio (nioke).

Itarantzun (esondapen) onek lagun guztien baiezpina irabazi eban (zuan), eta gogoz txalotu izan zan. Belea agindutako gaiakaz erritik biurtu (itzuli) zanean, eio-barria zan askatxuan umea ondo bilduta sartu eben, baiña gaixoak gosez negar egi-ten eban, eta orduan astoak auntzari umea edoskitu egian (zezan) agindu eutsan (zian). Umea asetu zanean, irripar zabalaz lotan asi zan, eta aingeru bat zirudian seintxua ederresteko, taldekoek urreratu yakozan (zitzaizkion), eta abo zabalik begiztatu eben, auxe iñoela:

– Gure umea dan ederra...!

– Bai benetan– astoak eratsi eban (zuan)– baiña auxe ez da ederrespenari emoteko eretia, umeak teillatu bat bear dau-ta. Augaitik ba, etxol bat egingo dautsagu (diogu) berarentzat, baita guretzat be.

Astoaren agindupean, artzak zugaitzen enbor batzuk lurreratu ebazan, eta gero idiaren laguntzaz baso-soillaren erdigunera eroanda, astoaren zaintzapean, lagun guztiak etxol polit bat eraikitzen asi ziran, eta ate, leioak, kebide ta guzti eginda gero, teillatua galtzuz (agotzez) estalduta, tximiñoak sutondoan su indargarri piztu eban, eta askatxuan lo ziruan umea etxolara ekarri eben.

Gau aretan, oeratu aurretik, astoak bere lagunak bildu zituan, eta onetaraxe mintzatu yaken (zitzaien):

– Bizi izateko asmoz egoitza barri bat eraiki dogu, baiña bizimodu eroso izan dakigun, arau batzuk gorde bear doguz, eta oneixek alegia: txakurrak etxolako atea zainduko dau; katuak sutondoa ta onen lapikoa batez be, baiña ezelan be ez dakio-la otu aren barrukoa txastatzea; azeria basotik ibilliko aa, eta gertatu daiten edoze-ren barria emongo dausku (digu); katamixarrak gure janaritegia intxaurrakaz ornituko dausku (digu); artza gure arraintzale ta aizkolaria izango da; tximiñoa, okiña ta urkaria; idia, goldelari ta lorketaria; belea goiko gaillurretik begiraria izango da; auntzak gure Larrosatxu laztana edoskituko dau, eta azkenez, Txano'k aginduta lez, nik taldeko agintza ta erantzukizuna artuko dodaz. Zer esanik ez, bere egitekoa bete ez dagianak nire ostikaden indarra ezagutuko dau. Eta orain, oera joan aurretik, Larrosatxu'ren alde bizitza emoteko gerturik egon bear dogula, esan bearrean naz. Gabon eta biarrarte.

Eta astoak aginduta lez, lagun arteko giro atsegin eta eginkorra sortu zan, bakoitzak bere egitekoa beteten ebalaz (zuala). Olan ba, idiaren aalegiñaz gari-uzta ederra bildu eben (zuten) artzak etxola-alboko errekatxuan arrainkariak (amorrañak) arrapatzen zituan, baita egurketea egin be; katuak mairatzen zituan jakiak gozoak ziran; katamixarrak intxaur eta urrakaz janaritegia ondo ornitzen eban (zuan); tximiñoa okin eta urkari bikaiña azaldu zan, eta auntzaren esne pikaintsuaz, Larrosatxu lore

zoragarri baten antzera garatzen zan, eta goizetik gaberarte, umeak bere lagunak irribarre gozoakaz agurtzen zituan.

Baiña luzaro barik, etxolako zeru aratzean odei baltzak agertu ziran. Ona emen jazo zana...

Bein baten, azeria arrapalada baten etxolara etorri zan, basotik gaizkille batzuk etxolarantza abiatzen zirala esanez. Astoak bere lagunai batzar batera dei egin eutsen, eta egitekoa aztertzen ziarduela, bapatean, atea edegi zan, iru gaizkille su-iskilloakaz barrura oldartu, eta gure lagunak oartu ziraneke, soka lodiakaz lotu ebezan (zituzten).

– Ederto, lagunok– gaizkilleen nagusiak esan eutsen (zian)– gure jopuak biurtuta gero, ni Betoker izeneko bidelapur ospetsua nozuela esan bear dautsuet (dizuet), eta nire lagun bi oneik ondo dakienak euren egitekoa dira. Etxol egoki au aspaldi baterako gure opor-lekua izango da, eta gure jopuak zarien ezker, guztitariko begirunez erabilliko gaituzue; etxeko jakirik gozoenak guretzat izango dira, eta ez ba'zarie esanekoak gure iskilloen bikaintasuna ezagutuko dozue.

Itz oneik esanda, Larrosatxu'ren seaskara urreraturik, une batez begiztatu eban, eta gero,

– Ona emen ume ederra esan bear dana...! Emendik alde egin dagigunean, gurekin eroango dogu sari on baten saltzeko.

Arrezkero, Larrosatxu'ren adiskideentzat aspaldi izugarria asi zan, etenbarik gaizkilleen su-iskillopean zemaituta, eta edozergaitik txarto erabilliak zirala. Astean bein, astoak errira joan bear izaten eban zaragi bete ardao ekarteko, eta gaizkille areik etxeko umea saltzeko kenduko leuskioela (lieketela), benetako atsekabea ekartsen.

Bein baten, astoa zaragi bete ardaoaz biurtzen zanean, etxolatik ur samar, areitz baten pean ardi-garezur bat ikusi eban, eta atsedan artzeko gelditu zanean, ustekabez, Txano iratxoa agertu yakon, eta astoak negar baten Larrosatxu'ren salketea ta bere lagunuen nekaldia azaldu eutsanean (ziane), iratxoak une batez isillik iraun eban (zuan), eta gero,

– Entzun ondo– esan eutsan (zian)– auxe ta auxe egingo dozu...

Eta mintzo argiz eta astiro, Txano'k egitekoa azaldu ostean,

– Egitekoa ondo ulertu daustazu (didazu)...?

– Bai, Txano, eta eskerrikasko.

Astoa ardaoarekin biurtu zan, eta gau aretan, lapurrak ondo apaldu ostean, astoak auxe esan eutsen (zian),

– Gaur, etxerakoan, Ardi-garezurrekoa esaten dautsoen (dioten) areitza ikustean, gogora etorri yat (zait), inguru oneitan azal eta zabal dabiliena...

– Ze arraio da, papao ori, inguru oncitan ezagutzen dana...?– itaundu eutsan (zian) Betokerra'k -.

– Ara...– astoa asi zan– gazezur orrenpean zenbatu ezin alako altxorra itsaslapur batek antxiña baten lurperatu eban (zuan), geroago jasoteko asmoz, baiña orren aurretik il egin zan...

– Arraioa..!– bota eban lapurrak– Izan be, ez litzakigu (litzaguke) txarto etorri-ko dalako altxor ori...

Eta gero beste lapur biai itz egiñez,

– Zer deritxazue, lagunok, diruketa orreri ekitea..? Artuko gendukeanaz, eta emengo babalasto onein jopu-lanaz, erregeen antzera bizi izango gintzakez...

– Ori, ori...!– txalotu eben beste lagun biek– Ordua da bizimodu on bat jaritsi dagigun (dezagun), urteak ez dira alperrik igaroten-eta...

Jarraian, Betokerra'k txutxumuka, bere asmoa lapurkide biai azaldu eutsen (zian), eta gero argiak amatauta, lapurrak zurrunga zaratatsuen artean lotan asi ziran.

Biaramongean, su-iskilloak artuta, lapurrek etxeko lagunai auxe esan eutsien (zieten):

– Goazen papauok, artu egizuez aitzurrak eta abiatu gaitezen ardiaren garezurra dagoan leku orretara, ia aurkitzen dogun antxiñako itsaslapurraren altxorra.

Eta etxolako lagunak eurokin artuta, bidelapurak ardigarezur egoan lekurantz abiatu ziran. Ara elduta (iritxita), Betoker'ak astoari auxe esan eutsan (zian),

– Entzun, ergel ori, ona emen iru zorro or bean dagozan bitxi ta urrezkoakaz beteteko. Gerturik egon daitezenean, gora atarako doguz. Orain arindu zaiteze, eta ez ibilli aikomaikotan, bestelaa gure iskilloen eztandak eperdian artuko dozuez.

Lan orretarako egokienak artza ta tximiñoa izanik, aitzurketeari buru- belarri emon eutsoen (zioten), osin sakon bat etenbarik egiñez. Eguberdian inguru, eta osiña oso sakona zanean, tximiñoa didarrez esaten asi zan:

– Auxe bai diruketaren itzela...! Gertu egizuez iru soka zorroak igoteko bete daitezenean.

Eta artzaren laguntzaz iru zorroak arriakaz beteten asi zan. Andik laster, goiko lagunai jasoteko agindu eutsien, eta noizbait zorroak agertu ziranean, irrika zoroak artuta, bidelapurak zorroi oldartu, eta iskilluok eta bearreko zuurtasuna alde batera utzita, zabaldu, eta arriakaz beterik egozala egizatzean, astoak eta bere lagunak lapurren iskilluok osiñera bota ebezan, eta astirik galtzeke, astoak eta, ostikoka, erpeka, adarka, eta aginka, eraso eutsien. Izuak artuta, bidelapurak etxolako lagunak jazartuta, igesari emon eutsoen, eta ez ziran gelditu gautu arte. Arrezkero, etxolakoek zaintza estu bat jarri eben, baiña izuak artutako bidelapurak ez ziran biurtu. Eta barrero be etxolako lagunak zorintsuak izan ziran, Larrosatxu zainduz eta eregatuz.

Eta urteak joan urteak etorri, umea neskatilla ederra biurtu zan, etxolako lagunek gero ta maiteago ebela. Bein baten, Yulen, basoko egurlaria etxolatik igaro, eta barrutik etorkion eresi zoragarria entzutean zoraturik egoala, atean Larrosatxu agertu zan, eta lilluratuta, Yulen'ek bere buruari esan eutsan (zian) nor izango aingeru bat zirudian etxolako neskatillea .

– Aizu, edaten emongo daustazu (didazu)...? Egarri naz-eta.

Larrosatxu'k edaria ekarri eutsan, eta edan bitartean, astoak egurlariari ume deslaitutakoaren jazoerea edestu eutsan (zian), eta amaitu ebanean, Yulen'ek etxola

ikertzeko baimena eskatu eban, eta baietza lortuta, illuntze guztietan, lana amaituta, egunero etxolatik igaroten zan, Larrosatxu ikertzearen eta bein baten bere maietasuna autortu eutsan (zian). Larrosatxu'k, baietza emon eutsan baldintza bataz, eta auxe al egia: astoa ta beste lagunak etxolan bizi izaten jarraituko litzakezala, bakoi-tzak bere egitekoa etxean izanik; aizkolariak pozik be pozik onartu eban bere mai-tiaren baldintza, eta udabarri aretan, eguraldi eguzkitsuko egun baten, gazteak ezkondu ziran, eta txilibitua ondo joten ekian tximiñoak, egun aretan bere soiñurik ederrenak jo zituan.

Aldiaren bidean Larrosatxu ta aizkolariak umeak izan ebezan (zituzten), etxolako lagunak zaintzen ebezala (zituztela). Astoa oso zoriontsua oartzen zan, umeak bizkargaiñean eroaten zituanean basoko ezkutua ikasi egiezan (zitzaten), eta gautzen zanean, artzak amaika ipuin esaten eutsezan (zizkien) izarren dizdirpean loak artu egiazan (zeken) arte.

POLI'REN ESTUALDIAK

Arratsalde aretan, Poli mutikoa negar baten areitz baten enberraren ondoan jesarri zan. Oso zoribakoa oartzen zan, eta basoko bake betean bere ezbearra amaikagarrenez aztertu eban (zuan)...

Mutikoak ezin egikean berbak ondo esan, eta akats batek jota, itzak atzekoz aurrera esaten ebazan; esaterako, «Orain etxera joan gura dot» esan-bearrean, «Ainor txerea anjo ragu dot». Zer esanik ez, lagunek bere lepotik barre itzelak egiten ebezala (zituztela). Alegindu arren be, ezin egikean akats ori garaitu, eta eskolan, maisuak eta ikaskideek aztuta, bazter baten bakarrik egon oi zan. Au aspaldiko gauza zan, eta ikastolan bakeak iraun egian, maisuak ez eutsan (zian) jaramonik egiten, eta an egoan Poli guztiz aspertuta.

Goiz aretan, baiña, maisuari otu izan yakon (zitzaion) Poli'ri itaun (galde) batzuk egitea, ia betiko akatsa garaitu izan ete eban jakiteko, eta alboratu yakonean (zitzaionean),

– Aizu, Poli– itaundu eutsan– zenbat dira bederatzi ta zazpi...?

Une batez ausnar egonda gero, mutikoak,

– Tziradebe ta pizaz, ba... seiama radi... (bederatzi ta zazpi ba... amasei dira).

Au entzutean bere lagunek barre-zantzo itzela jaurti eben (zuten), eta orduan maisuak barriro,

– Begira, Poli, zuk berbak atzekoz aurrera esaten dozuz eta akats ori garaitzeko, erantzun aurretik oldoztu egizu astiro, iradurik ez dago-ta... Orain, esan: zein da gaurko eguna, atzo astelena izan ba'da...?

Orain be, Poli une batez oldozkor egonda gero,

– Ara, sumai Najau: tzoa naletas zani da'ba, urga ba, teartas gozani da, nik teus... (Ara, maisu Jauna: atzo astelena izan ba'da, gaur ba asteartea izango da, nik uste...)

Barriro be, ikaskideek barre zaratatsuak jaurti ebezan (zituzten), eta astrapala baretu zanean, maisuak barriro,

– Begira, Poli– esan eutsan– barriro be ta azkenez beste itaun bat egingo dau tsut (dizut). Ara... Non dago Aralar mendikatea...?

Orain be, oldoztuta gero, Poli'k onetaraxe erantzun eutsan (zian),

– Larara atekadimen, Narrapa'n goda. (Aralar mendikatea Naparra'n dago).

Barriro be, ikasgelan lagunak barreek ler egin eben (zuten), eta atsekabeturiko maisuak, bere txokora biurtzeko agindu eutsan (zian). Baiña oraingo onetan, Poli'k aren agindua atzekoz aurrera be ulertu eban, eta bere txokora biurtu-bearrean, kalera joan zeiten ulertu, eta ikasgelaren atetik ostendu zan.

Negar eta negar, mendiko bidea artu eban, eta eguzkia makurtzen zanean, Murugane basora elduta, zugaitz baten pean jesarri zan malkoak mara-mara eriozala. Areitz aretan, Txano iratxoak enberraren uskune baten bere egoitza eban, eta mutikoaren negar etsia entzutean, bere kabitik urtenda ondoratu yakon (zitzaión), eta,

– Aizu, mutiko– itaundu eutsan (zión)– Zer dala-ta onenbeste negar...? Nasaitu zaitetz, eta esan egistazu (zaidazu) dana.

Orduan Poli'k bere ezbearraren zioa (zergaitikoa) esan eutsan (zión), eta amaitzean,

– Begira, Poli– iratxoak esan eutsan– zeuk berbak atzekoz aurrera esaten dozuz, baita esaten yatzuna (zaizuna) atzekoz aurrera ulertu be. Egia esateko, zailla da diñozuna ulertzea, eta Murugane'ko iratxoa ez ba'nintz, ez neuskizu (nizuke) ulertuko. Izan be, munduan zear joateko zure akatsa oso larria da. Begira, gaba laster etorriko danez, orko orbelaren artean lo egizu, eta biar goizean, egin dagikeguna (dezakeguna) ikusiko dogu. Agur, Poli, eta biarrarte.

Biamonean, ondo lo eginda itxartu zanean, Poli'k bere on doan Txano iratxoa ikusi eban (zuan), eta orduan onek,

– Begira Poli– esan eutsan (zión)– zure akatsarentzat urtenbide baten billa gau osoa emon dot, eta noizbait, gorosti-garauakaz gargar egin dagizun (dezazun), biderik onena izango litzakizula (litzazukela) uste dot. Zoaz ba basotik osteratxu bat egitera, eta gorosti-garau batzuk artuta, areikaz gargar egizuz.

– Doon da, Notxa, (Ondo da, Txano)– mutikoak erantzun eutsan–.

Berealaxe dalako garauen billa abiatu zan, eta areitako eskukada bat artuta, lats baten crtzera joanda, ango urakaz gargar egiten asi zan. Ordu bi emon ebazan gargar eta gargar, eta naikoa zala uste izanik, Txano'ren egoitzara biurtu zan.

– Ta...?– itaundu eutsan (zión) iratxoak– Obatu al-da zure mintzaira...?

– Ez kitda, ñabai duor bi mone dazdo gargar tae gargar. (Ez dakit, baiña ordu bi emon dodaz gargar eta gargar).

Itzok entzutean, Txano atsekabe andiak artuta isillik geratu zan, eta gero,

– Aizu, Poli, joan zaitetz latsaren ertzera, eta ango legarrakaz illuntzerarte egizuz gargarak.

Esanekoa, Poli ara bideratu zan, eta eguzkia ostendu arte gargar eta gargar egizuz iraun eban. Onen ostean, Txano'gana biurtu, eta,

– Mene zuno, Notxa (Emen nozu, Txano)– esan eutsan nasai-nasai.

Mutillari olan entzutean, aurrerapenik txikiena be egin izan ez ebal (zuala) egiztatzean, iratxoak bere biziko naigabea artuta, auxe esan eutsan (zión):

– Begira, Poli, euskal eserak diñoanez, «asto joan eta mando etorri» egin dozu, eta zure akatsarentzat benetako osabidea aurkitzeko, gau osoa beilan emongo dot, ia zer otuten yatan (zaidan). Zoaz ba orbelaren artean lo egitera, eta biar egunsentian zatoz barriro.

Poli barriro be orbelaren artean lo egitera joan zan, eta goizaldean Murugane-gaiñeko zerua urrez jantziten asten zanean, Txano'gana joanda,

– Nongue, Notxa temai iro (Egunon Txano maite ori)– esan eutsan (zión)–.

Mutikoaren ezintasuna bere akatsa kentzeko ikustean, Txano'k asperen luzea jaurti eban (zuan), eta gero,

– Begira, Poli: eguberdian, Txepetxak batzar batera basoko txori guztiai dei egingo dautse (die), eta arein eresi politak entzuten illuntzerarte iraungo dozu, ia zure akats oker ori kentzen yatzun (zaizun).

Eguberdian, basoko txori guztiak Txano'ren areitz-inguruan batu ziran, eta txorrotxioka ta txorrotxioka, arratsalde osoa emon eben (zuten) basoa soifü zoragarriakaz edertzen. Eguzkia joan zanean, Poli'gana joanda, Txano'k auxe itaundu eutsan (zión),

– Ta, zer diñoztazu orain...?

– Oi, Notxa temai iro...! Txiorrotxo dere koas tzunen dot (Oi, Txano maite ori...! Txorrotxio eder asko entzun dot).

Barriro be, Poli'ren akatsa ezin egikeala (zezakela) atondu ikustean, Txano une luze batez oldozkor egon zan, eta gero, mutikoari lo egiteko agindu eutsan (zión), eta bera gau osoan ausnar egon zan biderean baten billa. Urrengo goizean, auxe esan eutsan (zión),

– Egunon, Poli laztana. Atzo lez, bart izarrai goi-arnasa eskatzen gau osoa emon dot, eta orren ondorioz idarokitasuna (etorria) aurkitu dodala izan lei. Begira zer egingo dogun: oraintxe bertan zeu ta biok istingara edo padurara joango gara, eta igelen erregea dan Ugarazio'ri aspaldi batez bere babespean artu zagizan (zaitzan) eskatuko dautsagu (diogu), eta baliteke igelen mintzo zoragarria entzutean, osakuntzea lortu dagizula (dezazula).

– Anjo zentegai ba, Notxa (Joan gaitezen ba, Txano) txaloka erantzun eutsan (zión) Poli'k–

Laster eldu ziran biok istingara, eta onen ertzean geldituta, Txano, Ugarazio bere adiskide kutuna billatzen asi zan. Idoro ebanean (zuanean) iratxoak auxe esan eutsan (zión),

– Ona emen, nire lagun miña Poli, osatu dagizun (dezazun) dakartsudala.

– Zelako gatxak jota dago...?

– Berbak atzekoz aurrera esaten ditu, eta ikastolan tutik be ikasten ez dauanez, bere lagunen barregarria biurtu da, eta egoera larri au jasan eziñik, neugana etorri da osatu dagidan (dezadan). Edozelan be, burura etorri yat (zait), igelen abestiak osagarriarik onena izan daitekezala olako makurra kentzeko, eta aspaldi batez zuekin bizi izan daiten ekarri dautsut (dizut), ia aldiaren bidean atzekoz aurrera berbak esatea aztu egiten yakon (zaion). Esan bear dautsut, baita be, Poli mutiko ernai ta zentzudana dala.

– Ondo da, Txano maite ori. Nik eta nire lagunok aalegiñik andienak egingo doguz, Poli'ri makur ori kendu dakion.

Eta au esanik, Ugarazio'k igelen erregeak kro-kro indartsu bat jaurti eban (zuan).

Txano Murugane'ko basoan eban kabira biurtu zanean, Ugarasio'k mutikoari auxe esan eutsan (zión).

– Esaidazu, Poli, zein adiñekoa zara...?

– Biama koteur naz (amabi urteko naz)

– Arraioa...!– erantzun eutsan Ugarasio'k– Igelen erregea ez ba'nintz ez neuskizun (nizuken) ezer ulertuko. Nik ezaguturiko naste-borrasterik andiena zara, baiña eroapenez eta zeuk belarria zorrozten ba'dozu, ba' liteke zure makur ori kendu dakizula.

– Errikes koas Zioragau (Eskerrik asko, Ugarazio)– erantzun eutsan (zion) Poli'k–.

Gautzen asi zanean, istingaren mimen-txorta baten gaiñean etzanda, mutikoak begiak batu ebazan, tarteka-marteka, igelen kro-kroak laztanak bai'litzazan (bai'liran) entzuten ebazala (zituala),

Eta arrezkero, Poli igelen istingan bizi izaten asi zan, gau ta egunetz arein soiñu atsedengarria aditzen ebala (zuala).

Bein baten, erriko mutil batzuk zapaburuak arrapatzeko istingara etorri ziran, bakotzak ontzi bat ekarrela igelkumeak an sartzeko. Igelen soiñuak entzuten ziar-
duan Poli' gana Ugarazio joan zan, eta dar-dar baten, auxe esan eutsan (zion):

– Aizu, mutiko, zure lagun batzuk erritik etorriak, gure kumeak arrapatzen diardue, eta uzten ba'dautsegu (ba'diegu), istinga onen etorkia galtzori gorrian billakatu-
tuko da. Ez al-dagikezu zeozter egin mutiko barrabas orrekin ekinga okerra eragoz-
teko...?

– Koduginlea naz Ziorasgau temai rio (Aaleginduko naz, Ugarazio maite ori).

Au esanik, Poli ikastolako lagunakana joan, eta mimentalde baten atzetik ezku-
tauta, onetaraxe asi yaken (zitzaiken):

– Zeazo tikor rokpula...! (Zoaze ortik, lapurrok...!)

Eta bere agindua bildurgarriago egiteko, leoi baten orrua itxuratzen asi zan. Ikastolako bere lagunak, baiña, laster oartu ziran Poli'ren zemaiza zala, onen orruak atzekoz aurrera jaurtita, bildots baten beeka emoten ebelako (zutelako), eta barre-santzo zatatsusakaz erantzun eutsan (zioten), arkuak ausi arte, eta biaramo-
nean biurtuko litzakezala esanez. Noizbait, illuntzean mutikoak alde egin eben, eta igelen negarrak gau osoan zear aditzen zirala, Poli'k lo egin barik irauñ eban bere lagun-
en sapaburu-sarraskia zelan eragotzi leuken ausnar eta ausnar. Noizbait, egun-
sentia egin zanean, arriketa andi bateri emon eutsan (zion), eta mimen-txorta baten atzetik pillotuta, erriko mutiokoen begira geratu zan. Eguberdia barik, ikastolako bere lagunak agertu ziran, aurregunean lez aalik eta sapabururik geienak eroateko asmoz. Oraingo onetan, baiña, Poli gerturik egoan, eta mutiko denganiñoak sapa-
buru-arrapatzeari emon baiño ez, arein gaiñean arriketa itzela jausten asi zan, igel-
en krokroekin batera, Poli'ren oiuek leoi baten orruak zirudiela. Arriketea amaitu aurretik, erriko mutiokoen igesari emon eutsan (zioten), eta bildurraren-bildurrez ez ziran istingara barriro be iñoiz biurtu, leku madarikatua leoi izugarri batek zaindu-
ta egoala uste izanik.

Arrezkero, igelek Poli istingako «seme bikaiña» izendatu ondoren, etenbarik euren kro-kro gozoe-
kin mutiokoen entzumena laztantzen eben (zuten). Eta olan

polliki-polliki, Poli oartu barik bere berbetea osatu zan; bein baten, istinga ikertzen eban (zuan) Txano'k, Poli'ri auxe itaundu eutsan (zion):

– Aizu, zelan yoatzu, zure berbetea...?

– Oso ondo, Txano, zeuri eta igelai esker, banoa pixkanaka aurrera, eta ba'naz gauza, besteak lez itz egiteko.

– Biurtu zaitez lenbailen ikastolara, eta esaiozu irakasleari beste mutiokoen ikasteko gai zareala.

Txano'k lagundu eutsan (zion), eta ikastolako atean mutilla ta bera alkar agur-
tuta, Poli sartu zan. Bere lagunek ikusi ebenean (zutenean), barre-santzoka asi ziran, baiña irakasleak auxe esan eutsan (zion):

– Oso txarto jokatu dozue, akats batek jotako zuen lagun baten lepotik barre egi-
ñez. Zuek Poli barrearriztat artu dozue, baiña laster nor nor dan ikusiko dozue, eta nik uste berak gaiña artuko dautsuela (dizutela). Abere batek errukia merezi ba'dau, zer esanik ez, zuen lagunetariko batek. Txano'k lengo baten esan eustan (zidan), istingako igelak Poli'ri esker sarraski batetik onik urten zirala; augaitik, igelen erre-
gea dan Ugarazio'k eta bere lagunek, mutiko au istingako «Seme Txit Bikaiña» izendatzea erabagi dabe (dute), eta au gure erriarentzat duintasun andia izanik, erri-
ko udal-batzak goratzarre andi bat egingo dautso (dio).

Eta olan jazo zan. Igelak lez, Udalak Poli «Seme Txit Bikaiña» izendatu eban (zuan), eta arrezkero, errikide guztien ederrespenak noranai lagundu eutsan (zion).

Andik laster, bere akatsa guztiz garaituta, Poli ikastolako mutillik aurreratua eban billakatu zan, eta onezaz gaiñera, sari askotan istingara joan, Ugarazio ta bere lagun-
en soiñu zoragarria udako egun baketsuetan ames gozoen artean entzuteko.

Iñoren makurrakaitik ez eizu egin barrerik naikoa zoritxar da-ta akats baten jasaterik.

Maite izan lagunari biotzaren sakonetik, ta ezagutuko dozu benetako zorionik.

Murugane basoan ikazketan ziarduan Boni ikazkiña, aspertuta egoan. Katukume denganiño bat agertu izan yakon (zitzaion), eta amaikagarrenez uxatu arren be, katu barrabasa ezin egikean (zezaken) aizatu. Baziran iru egun an zala, baiña ez egoan biderik katukume barrabasa ostendu zeiten (zedin). Lanpetuta izanik, ezin egikean (zezaken) astirik galdu, eta zirt edo zart zeozer egitea erabagi eban.

Enbor-zati bat artu, eta katu denganiñoa aretan lotuta, errekaeren gaiñean ipiñi, eta baretasun-asperen bat jaurtita, latsean beera ostentzen zala ikusi eban (zuan). Argitu bear dogu emen, Boni biotz oneko gizakia izanik, baita erriko «Abere-Babesaren Lendakaria» zan aldetik be, katutxua onik urten zeiten (zedin) saiatu izan zala, eta augaitik, aipatu dogun neurriak artu izan zituan, bere barrua nasaitzeko.

Egia esateko, aitortu bear dogu katutxua ez joiala pozik, uren bilin-bolakak, eta zipriztiñak, ez yakozan (zitzaizkion) gogokoak izaten, eta enbor-zati aren gaiñean baiño, askozaz zoriontsuagoa izango litzakean, sutondo epel baten aurrean lukainka-zati bat jaten. Bizpairu bidar uretara jausi (erori) zan, eta noizbait ordubete bi igarorik, otzez dardar errota baten anteparara eldu, eta uren bilin-bolakak eta zipriztiñak amaituta, noizbait, lotuten eban lokarriak ortzakaz ebagi, askatu, eta astirik galtzeke, errotara sartu, gose itzela zan-eta. Baiña etxeoandreak ikusi ebanean, eta etxean beste katu bi egozanez, inarrakada (isaskada) bizitan aizatu eban, eta etxeo atea bere atzetik itxita, etxeo katu biri ezelan be sartzen ez lagatea agindu eutsen (zien). Gure katukumea gosez ilteko zorian, aal eban (zuan) lez (bezela) andik urrundu, eta latsari jarraituz errira urreratu zan.

Zorionez, errira sartzen zanean, makal eta gosez ozta-ozta ebilkela Txepetxa oartu zan, eta errukiak artuta, Txano katuaren egoerari buruz jakitun ipintea erabagirik, aalik ariñen aren abira joan zan. Ordubete bat edo, itxaron bear izan eban (zuan), eta iratxoa eldu zanean, katukumearen larrialdia edestu cutsan (zion). Une batez Txano'k isillik iraun eban, eta noizbait,

– Ez da orren erraza katu batentzat egoitza on bat aurkitzea, katuak oso berekoiak diralako... Baiña egon pixka bat. .. bai, errian alargun aberats bat ezagutzen dot, Justiñe izenekoa, izan be, eta aren etxean Ñogoño izeneko katu ori artzeko gerturik izatekotan, oso ondo bizi izango litzake. Edozelan be, egokia da jakitea, dalako alargunak katu ori bere etxean artzeko gerturik ete dagoan. Edozelan be, esango dautsazu (diozu) Ñogoño katuari, bere ostatuaren ordaiñez jokaera ona gorde bear dauala Justiñe Andrearen etxean. Joan zaitetz ba aalik azkarren katuagana, ia alargunaren biotz ona irabazten dakian...

Arratsalde aretan bertan, Txepetxa, katuagana joanda, Txano'ren burubidea azaldu eutsan (zion), eta amaitzean,

– Begira, Ñogoño, (izen au Txano'k gure iratxo andiak jarri dautsu), joan zaitez Justiñe Andrearen etxera, eta esaiozu zeuk dakizun biderik unkgarrienaz, zelako egoera larrian zagozan, eta Jainkoarren, bearreko sorospena emon dagizula (deza-zula). Joan ba, Justiñe alargunagana, eta apal eta zintzo mintzatzen ba'zaiakoz (zatzaizkio) ez zara damutuko... i

Gaba zan orduko, eta artez-arte Ñogoño katua Justiñe'ren etxera joan zan, eta atean oles egin eban. Justiñe Andreak berak atea edegi eutsan (zion), eta dardar egoala ikusirik, errukitu zan,

– Zer nai dozu katutxu laztana...?– itaundu eutsan (zion)–, sar zaitez barrura otz andia da-ta. Zerk zakaz etxe onetara..?

– Begira Ugazabandrea, ni Ñogoño izeneko katua naz, eta ona emen nire gora-beerak...

Jarraian, katuak bere egoera larria edestuta, etxean artu egian (zezan) arrenkatu eutsan (zion).

– Ondo da– alargunak esan eutsan (zion)– artuko zaitut, Nogoño, zure egoerea benetan negargarria dalako, baiña jakin bear dozu, etxe onetan gauzak ondo zaindu bear dozuzala. Ondo jaten emongo dautsut (dizut), eta orren ordaiñez zure jokaerea obaeziña izango da. Ez dozu obenik txikiena be egingo; etxe onetako txakurra edo-zertan zure nagusia izango da, eta beraz esanekoa izango zaiakoz (zatzaizkio). Etxe onetan bada txori abeslari bikain bat, etxea alaitzen dauskuna (diguna), eta emen iraun nai ba'dozu, maite izanez gaiñera, dalako txoria ondoen bizi izan daiten aaleginduko zara. Ez dozu iñongo janaririk ostuko, eta etxea txukun iraunerazoko dozu. Argi aldago...?

– Bai, Ugazabandrea, berba emoten dautsut, nire alde ez dozula iñongo arrenkurarik izango. Txakurra nagusizat artuz gaiñera, txori abeslaria semerik maiteko-rrentzat erabilliko dot.

– Ondo da, Ñogoño– Ugazabandreak esan eutsan (zion) -, dirudianez, zeu eta biok oso ondo alkartuko gara. Jarraitu olan, eta ez zara damutuko.

Justiñe Andreak, seaskatatzat sutaurrean otzara goxo bat ipiñi eutsan (zion), eta gau aretan ontzibete esne ogizatiekin apaldu ostean, Ñogoño'k zeruan lo egiten ebalu uste izan eban.

Arrezkero, katuarentzat aspaldi zoragarria asi zan, zenbat gura janari goxoa izaten ebalu. Baiña Ñogoño oso milika biurtu zan, eta etxea aberatsa zanez, ona ta osasuntsua zan nai-aña jaten ebalu (zuala). Egunen bidean, baiña, Ñogoño biribiltzen eta edertzen asi zan, katu bikaiña billakatuz. Ugazabandreak gero ta maiteago eban (zuan), sari askotan Ñogoño'k artule-matazak ariltzen laguntzen eutsala (ziola) sutondoan. Katu txit ederra biurtu izan zanez, eguraldi ona zanean, etxeoandreak zirrikozko lokarri batez kalera ataraten eban jendearen begien egarri izateko, guztitariko gozotasunak erosten eutsazala (zizkiola).

Ñogoño ondo bizi izaten zan, eta edozein katuk irrikatu dagiken (dezaken)

baiño bizitza zoriontsuagokoa zan. Aspaldiz ikazkiñarekin jasandako gose gorria aztu izan yakon (zitzaion) onezkero, eta orain «zer gura ta a» izaten eban (zuan).

Len esan dogunez, etxean Moñoño izeneko kanaria kaiola baten barruan egoan, eta abesteari emotsanean, bazirudian zeru zati bat etxean kokatzen zala, eta txoria abesten asten zanean, guztiak isiltzen ziran aren edertasuna ez galtzearren.

Ugazabandreak zoroki maite izaten eban, eta bera abestu bitartean, agindu zorrotza emon izan eban, iñongo zaratarik ez egiteko. Kanariaren kaiola urrezkoa zirudian, eta eguzki baten antzera dizdir egiten eban (zuan). Baegoan etxe-kanpoan txakur eder bat, beste agindurik ez ebalu txoria zaintzea baiño, eta Moñoño'k abesten ebanean (zuanean), zorion esan-ezin batek menperatzen eban (zuan).

Baiña egunak joan egunak etorri, katua berekoi itzela biurtu zan, eta bein baten otu yakon (zitzaion), zoriontsua ez litzakela izango Moñoño jango ez ba'leu. Eta arrezkero, ez eban (zuan) besterik asmatzen txoria zelan arrapatu baiño, orduak eta orduak emoten zituala gauzak asmatzen.

Bein baten, Ugazabandrea kalera joan izan zala, bere asmoak egi biurtzea erabagi eban, eta etxeko areto nagusiko leioaren ondoan eskegita egoan Moñoño'gana joanda, luzaro samar zein izango litzaken biderik ziurrena kanariak jabetzeko asmatzen egon zan, eta katu oso argia zanez, egitekoa laster garatu eban (zuan).

Aretoaren erdian egoan mai baten gaiñera ikoti egiñez, emendik argi dilindari baten kokatu zan, eta leku onetatik seaskatuz, gero ta Moñoño'ganago urreratzen zan. Noizbait, ikoti indartsu batz kaiolan aurreko atzaparrak jarri ebazan, eta agaen zear txori gaixoa atzitu nai eban. Kanariak ez eban iñoiz alako bildurrik artu, eta txio larriakaz aalik urrunen katuagandik egoten saiatzen zan. Olan iraun eban nai-koa luzaro bion arteko burrukak, eta noizbait nekatuta, Ñogoño'k bere aalegiñak urrengo egunerako geroratu zituan.

Izan be, katu denganiñoak egun aretan ezin izan eban kanariak jabetu, baiña ekiñaren ekiñez baekian azken baten txori politaz jabetuko litzakela.

Eta olan, etxeoandrea kalera joana zanean, Ñogoño'k bere aalegiñak jarraitzen zituan txori gaixoaz jabetzeko. Kanaria baiña, txit argia zan, eta bazekian zein kaiolako lekuan ziurrenik egongo litzaken. Edozelan be, atzapar batez kaiolari eutsita, eta besteaz agaen artean txoriaren billa saiatzea ez zan arazo erraza. Egunak joan egunak etorri, baiña, Moñoño'ri indarrak aultzen yakozan (zitzaizkion), eta bildur-raren-bildurrez abestuten aztu egin yakon (zitzaion). Ugazabandrea bere txori kutunaren isil tzeaz oartu izan zan, eta estu ta larri erriko albaitearuari dei egin eutsan (zion). Onek, arro-arro txoria aztertu eban, eta itzulertuezin ugariak esanda, noiz-bait, Afrika'tik etorritako izurria zala esanda, berba luzeko sendakaia idatzi, eta are luzeagoa zan ogerlekoko kontua eskaturik, joan zan. Katuaren Moñoño aurkako crasoak baiña amaitzerik ez, eta argi ekusan alargun gaixoak luzarorako txoririk ez ebalu (zuala).

Bein baten, baiña, etxeko baratzetik ebillen txakur ederra, izuaren-izuz Moñoño'k jaurtiten zituan txio urratuak erakarrira, leiora urreratu (urbildu) zan, eta Ñogoño lan betean ikusi eban. Ugazabandrea kaletik biurtu baiño ez, txakurra urreratu yakon (zitzaion), eta,

– Aizu, Ugazabandrea– esan zion oiko begirunez–, badakit zein dan gure txoria larritzen dauan (dion) makurra...

– Ez niri esan, gero, zeuk be Afrika'tik etorritako izurri ori ezagutzen dozula. Ogerleko ugari eralgi, eta ezer gitxi jaritsi dot. Gure Moñoño ez da luzarorako izango...

Eta menperatzen eban (zuan) naigabea jabetu eziñik, negarrari emon eutsan (zion).

– Barkatu beist Ugazabandreak, baiña berori biar kalera doalakoan etxean geratuko ba'litz, gauza bitxi bat erakutsiko neuskio (nioke)...

Esan eta egin. Biaramonean, kaleara joaten zalakoa egin eban Ugazabandreak, baiña joan-bearrean baratzcan geratu zan txakurrarekin leioan zear begiratzen ebala. Luzaro barik txoriaren izu-didarrak entzun zituan, Ñogoño'ren erasoak jasatean. Gitxik egin eban (zuan) ba, kanaria arrapatu ez ebanean (zuancan), eta ekin-tzea amaitutzat emonda, Justiñe leiotik aretora tximista baizen arin sartu, eta euri-takoaz katuari eraso eutsan (zion) didar bizitan iñotsala:

– Katu barrabasa, nork siñistu legike (lezake) onenbeste zure alde egin ostean, orren eskerbako ordainduko zeunskidala (zenidakela)...? Gosez eta otzez ilteko zorian etorri zintzakidazan, eta maitasun utsaz zure alde egindakoa olan ordaintzen daustazu (didazu)..?

Eta bere asarre gorria menperatu eziñik, Ugazabandreak euritakoa artuta bere biziko astiñaldia Ñogoño'ri emon eutsan (zion), eta ondo berotuta egoanean, etxe-ko atea zabaldu, eta kalera jaurti eban (zuan), lekoreko otzean bere egoera barria ausnar egian (zezan).

Bost egun emon zituan Ñogoño'k kaleko otza ta gosea jasaten, eta egoera barria jasaneziña zanez, Txepetxaren billa asi zan, sasi baten erpiñean idoro arte. Orduan bere egoera barria edestu eutsan (zion), aren laguntza eskatuz. Akar egin eutsan Txepetxak orren eskerbakoa izanagaitik, eta azkenean errukituta, aalegiñak egingo leukezala agindu eutsan (zion).

Txepetxa, Justiñe alargunagana joan zan, eta katuarekin biotzperakoa azaldu zeiten eskatu eutsan (zion), egindakoa auleri-aldi bateko ondorioa izan zala, eta olakorik ez litzakela barriro be jazoko. Baiña Moñoño maite-maite eban (zuan) alar-gunak, ezetz eta ezetz egindakoa parkatuko ez leukela, eta katuak etxe aretan sar-terik ez ebala (zuala).

Gau aretan, Txepetxak Txano iratxoagana joanda, katuaren zoritxarra azaldu eutsan, bere alde zeozer egiteko eskatuz. Noizbait, Txano'k burubide bat emon eutsan.

Urrengo eguncan, Txepetxa'k Justiñe Andrearen neskameburuari entzunaldi barri bat Ugazabandreakin eskatu eutsan (zion). Gogo txarrez bazan be, alargunak baietz esan eutsan (zion) eta, eta azaldu zanean, Txepetxak auxe esan eutsan (zion):

– Barkatu beist berorrek, baiña atzoko alkarrizketan zeatz bat aztu egin yatan (zitaidan), eta auxe alegia: etxe au saguz beterik dagoala, gitxienez ogeiren bat euren aukeran bizi izaten dira, eta au gitxi bai'litzan, musker lodi bat be badago

bazterretan, eta gauzak olan jarraitzekotan, egunen baten, etxekoadre agurgarria, beste etxe batera joan bear izango dozu, eta...

Itzok entzutean, Ugazabandreak ezin izan eban menperatu izuzko oiubat, eta orduan Txepetxa'ri bere etxeo ondapena eragozteko arrenkatu eutsan (zion), eta berak ordaintza ona emongo leuskiola (liokela)...

Biaramonean, Txepetxak Ñogoño etxera ekarri eban (zuan), eta sartu baiño ez, baeban katillubete janari goxo, eta amaituta gero, saguen jazarkuntzeari emon eutsan (zion). Askok ziran etxe aretan egozan saguak, eta egun bakotxean sagu bana arrapatuz, eta bidebatez ondo janez eta obeto lo egiñez, ogeigarren eguncan, etxe-ko saguak garbitu izan ziran. Orduan Ugazabandreak joanda, Ñogoño'k begirunerik andienaz auxe esan eutsan (zion):

– Begiraizu, Justiñe Txit Agurgarria: etxeo saguak ostendu egin dira, eta orain-ngo etsai bakarra, muskertzarra da. Berorrek bearreko epea orretarako emongo ba'leust (ba'lit), arazoa atonduko nengike (nezake).

– Bai, Ñogoño maitea. Ar dagikezu (dezakezu) bearreko epea, eta gero ikusiko dogu...

Jarraitu eban katuak muskerraren eiza, eta andik iru astebetara garaille itxuraz, Ugazabandreakin oiñetara musker eder bat utzi eban (zuan). Zer esanik ez, alargunaren poza, piztia ikustean. Orduan, aztu egin yakon (zitzaion) katu maltzuraren zitalkeria, eta kanariagana eroanda, biok betiko zintzotasunaren ziña alkarri egin eutsan (zion) eta aurrerantzean bakerik andienean bizi izan ziran, etxe aretan Moñoño'ren txorrotzioak aditzen zirala, Ugazabandreak eta Ñogoño'k artulezko arillak eratu bitartean. Orduan, katuak ereslaritza ederresten ikasi eban (zuan), kanariari esker gero ta maiteago ebala benetako erti ori.

Etxe aretatik alde egin baiño len, Txepetxa'k Ñogoño katua urrengo bertso au ikasi egian beartu eban, bide zuzenetik alde ez egian (zezan)

Katu jatun ganorabako eskertzarreko ta maltzurra, ez bazara kontuz ibiltzen ezagutuko dozu egurra. Etxean artu zenduzan maitasun bizi ta agurra, egokiro eskertu-bearrean ekarri zeuskun iruzurra.

Etxeko saguak garbituz baita gure musker gogorra, zatika ordaindu dauskuzu zerorrek egindako zorra. Ziur naz ez dozula aztuko zeuk izandako sostorra, eta izango zareala etxeo eredu bizkorra.

Izan be, aurrerantzean Ñogoño abere etxetiar baten eredia biurtu zan, eta Moño-
no'k abesteari emotsanean, zeruan zala uste izaten eban.

OTSOEN ERREGĒA

Arratsalde aretan, Urrutilanda'ko Txepetxa Murugane'ra estu ta larri eldu zan. Arin baten etorren bere lengusuarekin berba egiteko. Urrutilanda'ko erreñuan, matxinada bat sortu barria zan eta onen ondorioz, Errege ta Erregiña beste askorekin erail izan ziran. Kiril Printzeak, erregeen seme bakarrak, morroi baten laguntzaz iges egin aal izan eban (zuan), eta iraultzailleek jazartuta, aal eban (zuan) lez ezkuta bizi izaten zan. Noizbait, morroia be erail izan zan, eta printzea mendien artean eta leku malkartsuetan igesi ebillen. Bein baten, etsia, Kiril printzeak ango Txepetxa Murugane'ko lengusuagana igorri eban laguntzaren eske, eta Urrutilanda'n jazoten zana jakitun ipiñi eban (zuan) onetaraxe:

– Aizu, lengusi maite ori, nire nagusia dan Kiril printzeak zeugana igorri nau, Txano'k, barruti onetako iratxoak jakin dagian (zezan) Kiril Printzea zelako egoera larrian dagoan, eta bearreko laguntza emon dagion (dezaion).

Gure Printzeak ezin dagike (dezake) olan luzaro iraun, eta arin be arin laguntzarik ez ba'dautsazue (diolet) emoten, ez da luzaro bizirik izango.

Bere txorikidearen larritasuna ikustean, 'gure Txepetxak lengusuari Txano'ren kabiraiño lagundu eutsan, eta eldu ziranean, Urrutilanda'ko Txepetxak iratxoari erreñu aren iraultza eta Kiril printzearen egoera larria azaldu eutsan (zion). Une batez, Murugane'ko iratxoak isillik iraun eban, eta gero, onetaratxe mintzatu zan:

– Urrutilanda'ko Txepetxa, entzun auxe ondo: zoaz biar bertan Kiril printzeagana, eta esaiozu, oraingo egoera larritik urteteko, leku malkartsuetan otsoekin bizi izatea bide bakarra dala. Orretarako, aurkeztu daitea Ur Galduetako, iturrian, eta an alkartuko yako (zaio) Otsoen Erregea bere taldearekin. Aspaldi luze batez, eta gauzak baketu arte, Printzea ta otsoak alkarrekin mendi basatietan bizi izango dira, eta berak uste izandako unerik egokienean, otsoen laguntzaz, bere gurasoen erreñuaz jabetuko da. Biurtu zaitez aalik ariñen, Urrutilanda'ko Txepetxa, Kiril Printzearen egoera benetan kezkatua da-ta.

Txepetx arrotza poz baten bere erreñura itzuli zan, biotzez Txano ta bere lengusua bedeinkatzen zituala, eta andik iru egunetara Urrutilanda'ra elduta, Kiril Printzearen billa astirik galtzeke asi zan, eta noizbait gora-beera asko igarota gero, Printzea arru baten ezkutauta idoro eban (zuan).

– Aizu, Kiril Printze maite ori, Murugane'tik natortzu, ango iratxoari laguntza eskatzetik. Otsoen Erregeaz aspaldi luze batez bizi izan bear dozula agindu daust, dagokizun ordua eldu arte, eta abagune au aurkeztu dakizunean, zure gurasoen erreñuaren alde burrukan egingo dozu. Dalako Otsoen Erregea, Ur Galduetako Iturrian

idoroko dozu, sarri askotan ango urak edatera doa-ta. Zoaz ba lenbailen aregana, eta jarri zaitetz bere agindupean. Otsoen Erregea zure kinka larritik onik atara zagikezan (zaitzaken) bakarra da, eta esaiozu, Txano iratxoaren alde zozkiola.

Aalik ariñen bideratu zan Kiril Printzea Ur Galduetako iturrira. Utsik egoan eta une luze samar batez begira egon ostean, alako baten otso eder batek zuzendutako, ulu bizien artean ogeitsuko otso-talde bat agertu zan.

– Zer diarduzu emen, mutiko...? – nagusiak itaundu eutsan –. Ni, Yuri, erreñu onen otsoen erregea nozu, eta iturri onen jabea nazanez, nire baimenik bage inork ez dau edaterik.

– Kiril Printzea naz, eta Goriz'en jazarpenetik igesi nabiltzu. Dakizunez, urrean (noski), dalako iraultzaille okerrak nire gurasoak erail ditu, eta ordutik nik igesari emon dautsat (diot). Gosez eta otzez ilteko zorian naz, eta Txano, Murugane'ko iratxoaren aolkuz zugana nator onik atara nagizun (nazazun).

Une batez, Yuri otsoak Kiril Printzea isillik begiztatu eban (zuan), eta gero,

– Goriz iraultzaille ori gizon okerra da, eta gu, otsoak eriotzeraiñoiko jazarpenaz zemaitu gaitu.

Bizirik irauten lagunduko dautsut, eta orren ordaiñez, zuk Goriz'en aurka darabilgun burrukan lagunduko dauskuzu (diguzu). Gerturik al-zagoz...?

– Bai, Yuri, eriotzeraiño lagunduko dautsuet

– Ara... laster gautuko da, eta gurekin eizara etorriko zara.

Eta gero, otsokideai mintzatuz,

– Entzun egistazue, lagunok: aurrerantzean, Kiril Printzea guretariko bat izango da, eta danon laguntza izanez gaiñera, neuganako dozuen begirune bardiña gordeko dautsazue. (diozue). Argi dago...?

Baietz erantzun eutsoen bere lagunek, eta andik laster gautu izan zanez, otso-taldea Kiril printzearekin eizara abiatu zan. Gau aretan orein eder bat atzitu ta jan ondoren, goizaldea barik mendi andien arteko leize baten babestu ziran. Urrengo egunean, gautu ondoren, barrero eizatzera, eta basurde eder bi arrapatuta, asetu arte iruntsita gero, egunsentia egin zanean euren leizetara baztertu ziran.

Eta olan, eizatzen aal eben (zuten) arrapagaiakaz janarituz, Kiril printzea, bizkortzen asi zan, eta illabete bat igarota gero, bere indar guztien jabe biurtu zan. Yuri'k, Otsoen Erregeak, maite-maite eban Kiril, baita onek be taldeko nagusia, gero ta geiago izan be.

Eta egunak joan egunak etorri, Kiril Printzea gazte ederra egin zan. Izan be, otsoekin egin bear izaten eban egunoroko eizaketak indartuta, ikusteko zan, uluka ta arrapalada bizian otsoekin joanean eizaki baten atzetik aalik ariñen, oparia amildu arte. Berarekin Yuri oso arro oartzan zan, eta are geiago ikustean, zelako laguntza andia taldeari ekarkion. Yuri otsoa ta Kiril Printzea oso ondo alkartzan ziran, eta otsoai buruz jakin daitekena Kiril'ek ikasi eban (zuan). Ordukotz, Goriz iraultzailleak bere zapalkuntzan indartuta uste izanik, errege biurtzea erabagi eban (zuan). Iru egun iraundako aren bureskunde-jaien ostean, Errege Goriz lenengoa izenaz ezagutzen asi zan. Errege anker au erriaren etsaia azaldu zan, bere menpekoak zergakaz eta guztitariko zigorrakaz zapalduz, erritarren gorrotoa beragana erakarriz.

Gau baten, Yuri ta Kiril'en agintzapean otsotaldeak eizean ziarduala, Goriz errege lapurtzaillearen gudatalde bat, mendi baten ustekabetua artu eben (zuten). Taldea gudari gitxi batzuk kuku egiten eben (zuten), eta Kiril'ek Yuri'ren burutura emon eutsan (zian) gudariai erasotea. Ezustean artutako Goriz'en gudariak igesari emon eutsoen, sarraski andi bat jasanez. Onen ondorioz, gudariak iskillu asko galdu eben, eta Kiril Printzea'k sastakai bataz gaiñera, uztai ta azkon ugariakaz jabetu zan.

Laster ikasi eban (zuan) Kiril'ek, artutako iskilluak erabilten, eta luzaro barik, otsoekin egiten zituan eizaketan, bere azkonek apara bikaiñak egiten ebezanez (zituztenez) zenbat gura janari lortzen eban otso-talderako. Aldiaren bidean, begia nora an kokatzen zan berak jaurtitako azkona, eta augaitik, otsoen egoera zearo obatu zan. Edu onetan urte batzuk igaro ziran bere iskillu-trebetasunak etenbarik gora egiñez. Eta Goriz errege lapurrak otsoen aurka eraso ugariak egin arren be, ezin aal izan zituan garaitu. Izan be, Yuri ta Kiril'en ekintza zala-ta, otsoak atzi-eziñak billakatu ziran, euren lurralde basati ta malkorretan ondo babestuak. Urteak igaro ziran, eta adiñagaitik, Yuri makaltzen asi zan, eta bere azkena ur egoala igarririk, otsoai batzar batera dei egin eutsen (zian) bere azken agurra emoteko, eta bidebatez taldeari eskatu eutsan (zian), Kiril printzea euren erregetzat aukeratu egien (zezaten). Otsokideek abo batez onartu eben (zuten) erregearen guraria, eta Yuri il zanean, Kiril printzea Otsoen erregetzat aukeratu izan zan jai andi baten ostean.

Orduko, Kiril printzea gazte eder eta bizkorra billakatua zan, eta zabaldiko bizitzeari esker, ez zan berarekin indarretan ez arintasunean neurtu egikeanik (zezake-nik).

Bestaldetik, leku basatietan bizi izan arren be, erreñua ez egoala pozik baekian Kiril'ek, eta arazoa ondo aztertuta gero, erreñuko uri nagusira joatea erabagi eban (zuan), eta uztai-geziak artuta, baita sastakaia be, otso maiteai agur esan eutsen (zian) eta uri nagusira bideratu zan. Agur egite aretan negar asko isuri zan, otsoek euren erregea benetan maite ebelako (zutelako), eta egunen baten biurtuko litzakela itz emonda, alde egitean, berarekin otso bat eroatea erabagi eban, orretarako, Yorki, Yuri'ren semerik azkarrena aukeraturik.

Irugarren egunean, printzea ta bere otso-laguna erreñuko uri nagusira eldu ziran, eta batetik bestera ibilli ondoren, otsoa bere txakurra zala esanez, ostatu merke baten kokatu ziran. Apaldu ostean lo-gelara igon eta gero, Kiril ocean lotan zetzala, Yorki'k iratzarri eban (zuan) esanez,

– Nagusia, jagi zaitetz, zurubian gora urrats motelen otsa aditzen dot-eta.

Egia zan, eta isil-ostuka leioa edegita, otsoa lepo-gaiñean ipiñita, Kiril teillatutik etorren ur-oditik kalera jatsi zan, doi-doi gudari batzuk lo-gelea eraso ebenean (zutenean). Uriburuko ostatu guztiak ertzaintzak zelatuta egozala oartu zan Kiril, eta ezkutunen baten billa erritik urtetea erabagi eban (zuan). Alako baten, baso batera eldu ziran eta estalpe baten billa joiala, argi batek erakarrita, etxol batera eldu ziran. Alargun eta onen alabearen egoitza zan, eta leio batetik begiratzean neskati-lla gazte ta ederra ikustean, dei egin eutsan (zian) esanez,

– Aizu, neskatilla, txakurra ta biok galduta gatorkizuz. Gaurkotz ostaturik emongo zeunskigu (zeniguke)...?

Neskatillea amagana joan zan, eta biurtzean,

– Baietz diño amak, baiña oso txiroak garean ezker, lastamarraga ezain bat baiño ez daukaгу zuretzat.

– Ondo da, neskatilla. Zein da zure izena...?

– Izargi.

– Zure edertasunari ondo dagokion izena.

Kiril bere txakurrarekin sartu zan, eta otz andia zanez, sutondo epelean jesarri ziran. Izargi'ren ama berrogei bat urteko izango zan, eta mutilla sartu zanean, zirra-
ra batek artuta, ezin egikean (zezaken) begiak mutillagandik baztertu. Alako baten, eta bere biotzaren eragiña menperatu eziñik, jagi zan, eta mutillagana urreratuta,

– Kiril printzea, nire mutilla...!– didar baten esan eutsan (zion)– ez al zara oroi-
tzen nitzaz, zure gurasoen gazteluan neskame izandakoa...? Aldi areitan nire sena-
rra gazteluan aizkolaritzat ziarduan, eta an bizi izan gintzazan Goriz lapurrak bota
ginduzan arte. Etxola onetara bizi izateko etorrita gero, nire senarra il zan, eta arrez-
kero Izargi nire alabearekin bizi izan naz. Jaungoikoa bedekintua bedi bizirik ikus-
ten zaitudalako. Urte askotan artutako zorionik andiena da auxe...!

Eta alargunak negar baten iraun eban luzaro. Baretu zanean, onetaraxe jarraitu eban (zuan),

– Entzuidazu, Kiril Printzea; Goriz'ek erregearen aulkia artu egin dau, eta bizi-
rik zagozan ba'leki, garbituko zindukez. Ezagutu ez dakizuen, aurpegiaren itxurea
aldatu bear dautsugu, eta orduan uriburutik ibilliko zaitezke, ezeren ardura barik.

Au esanda, alargunak apaltzen emon eutsan (zion), eta printzea nekatuta egoa-
nez, onen ostean lo egiteko etzan zan. Urrengo egunean, gosaldue ostean, amak eta
Izargi'k Printzearen aurpegia itxuraldatu eben (zuten), eta jarraian, Izargi'k lagun-
duta, Kiril bere otsoarekin uriburura joan zan. Bidetik joiazala, Kiril'ek bere kau-
tan iñoan ez ebala (zuala) egundo be ikusi Izargi baiño neskatilla ederragorik.
Bidean zear ebiltzala, Izargi'k printzeari jakiñerazo eutsan (zion) bizibidetat, txi-
roak ziran-eta, errege-gazteluan lan egiten ebala (zuala) neskametzat, eta irabazita-
koaz berak eta amak estu bazan be, burua ataraten ebela (zutela); orduan Kiril'ek
auxe esan eutsan (zion),

– Begira Izargi, ezinbestez jardunen bat lortu bear dot, dirurik ez dot-eta. Zer
diñostazu...?

– Ara, Kiril printzea, nik esondatuko neuskizu, gazteluan gudaritzat izena emon
dagizula (dezazula), jardun ori ondo ordaindua dalako. Nik lagunduko dautsut idaz-
tegiara, orko izen-artzeduna ezagutzen dot-eta. Goazen ara astirik galtzeke.

Izargi'k lagunduta, idaztegiara joan zan, eta eltzean, neskatileak,

– Begira, Jauna– esan eutsan (zion) ango arduradunari–, lengusua dodan gazte
onek, gudaritzat izena emon gura dau.

Arduradunak goitik beera aztertu eban, eta itxura oneko gazte zala ikusirik,
errolatu eban, eta jarraian, Yorki'k lagunduta etorrela ikustean,

– Aizu, gazte– esan eutsan (zion)– jakin bear dozu, gazteluko gudari-otseintzan,
txakurrak ez dirala onartzen, eta banandu bear izango dozue.

Urten ziranean, eta otsoagandik baztertu bearragaitik kezkatuta ikustean, Izar-
gi'k auxe esan eutsan (zion),

– Aizu, Jaun printzea, zer gertatzen dan ikusi arte, nai ba' dozu neronek Yorki
zainduko dot.

– Eskerrik asko, Izargi, ezin ori baiño askabide obarik, ondo zainduko dozula
badakit-eta.

Jarraian, otsoak lagunduta Izargi gazteluko lanetara abiatzen zala, Kiril gudalte-
giara joan zan. Emen, gudari-janzkia ta bearreko iskilluak artu ebazan (zituan), eta
andik laster, bere gudari-ikasketak asi ziran.

Illabete bat igaro zanean, eta bere gertulanak ontzat emonda, Goriz'en gudaros-
tean Kiril gudaketan asi zan. Bein baten, burruka gogor baten ondorioz, Printzeari,
aurpegiko antzaldakia ezabatu yakon (zitzaion); zoritxarrez, bere buruzagiak jazoz-
kizun au ikusi izan eban, eta arrituta, azterketa bat egin eban (zuan).

Onen ondorioz, Goriz'en gazteluan ziarduan otseinburu batek printzea ezagutu eban.
Bereala epaitua, criotzera galdu izan zan, eta ziega zikin batera sartuta, iru egunen
buruan uriburuko enparantza nagusian urkatua izango zala iragarri zan.

Barri au jakin ebanean, Izargi arin baten atxilloa ikustera joan zan, baiña espe-
txelariet ikertzen ez eben (zuten) utzi. Orduan, etsitako neskatileak, Yorki'ri jaki-
ñerazo eutsan (zion) zein ziegan egoan, eta kanpotik, leiatillea erakutsi eutsan
(zion).

Gau aretan, otsoak ziegako leiatillatik Kiril Printzea ikustean,

– Jauna, Jauna– dei egin eutsan (zion)– zer egin dagiket (dezaket) zure alde...?

– Begira, Yorki, iru egunen buruan urkatuko nabe, eta Otsoen Erregea gaizkatu
gura ba' dozue, berealaxe, gure mendietara joango zara, eta erreinuko otso guztiai
Ur Galdutako iturrira dei eginda, auxe aginduko dautsezu (diezu): andik irugarren
egunetara, mendietatik jatsiko zariela uruburuaz jabetzeko. Onen aurretik, baiña,
zoaz Izargi'gana, eta esaiozu, urkatzera croan nagienean (nazatenean), bere etxolan
utzi nebazan (nituan) iskilluak eskuratu dagistazala (dezaizkidala). Ez aztu auxe,
gauzarik beiñena da-ta.

Mezu au, otsoak neskatileari bereala eroan eutsan (zion), eta jarraian, erreinuo
mendietara joanda, otso guztiai, euren Erregearen agindua jakiñerazo eutsan
(zien). Bereala mezulariak bazter ezkutuenetara joan ziran, eta azken gabean, Ur
Galduen iturrian, gaberdiari otsotalde andi ta izugarria bildu zan, eta Yorki'ren agin-
tzapean danok arin baten uribururantz uluka bizitan abiatu ziran.

Atxillotutako Kiril Printzearentzat azkenengo gabaren orduak, izugarri ta astiro
igaroten ziran. Urkapena uriburuko enparantza nagusian izango zan, eta bitartean,
bere egitekoa aalik zeatzen aztertzen eban, bere buruari itauntzen eutsala (ziola)
Izargi'k ekarriko ete leuskiozan (lizkioken) eskatutako iskilluak, au da, sastakaia ta
uztai-geziak. Noizbait, egunsentia egin zan, eta eguzki eder baten lenengo izpiek
uriburuan argia barreiatu eben (zuten).

Orduak igaro ziran astiro, Kiril'ek bere buruari itauntzen eutsala (ziola), Yorki gai izango ete litzaken erreñuko otsoak batu ta uriburura ekarri, euren erregearen alde burrukan egiteko. Otsoen Erregea geien mintzen ebana (zuan), bere gurasoen iltzaillepean bera be iltea... Izan be, uste au jasangaitza yakon (zitzaion), eta zitalkeri au eragozteko bere indar guztiak erabilteko gerturik egoan. Eta noizbait, eguzkiak gingatik uriburuko kale ta bazter guztiak berotzen zituanean, gudari bik eskuak lotu eutsuezan (zizkioten) eta bultzaka ta biraoka, ziegatik atarata, jendetza andiaren artean, enparantza nagusian jarrita egoan urkamendira croan eben (zuten).

Enparantzako aginte-oltzan, Goriz, errege izendatu barriak bere jarraigoarekin txantxetan eta barreka ziarduan, azkenez lengo erregeen semea be garbitua izango litzakelako, olan bere guraririk andiena betetuz. Alako baten, urrunditiko ulu batzuk aditu ziran, eta bere gudalburu nagusiari,

– Aizu, zer dira motel dantzudazan ulu orreik? Otsoenak dirala, esango neuke.

– Nasaitu zaitez, Errege Jauna– gudalburuak esan eutsan (zian)–, jolasten diarden mutikoak dira, besterik ez.

Eta euron barre ta jolasai jarraitu eutsien (zieten). Andik laster, enparantzagune osoan isiltasun andia edatu zan, gudari bien artean, eta eskuak lotuta, Kiril Printzearen irudi ederra agertu zanean. Orduan ikusle batzuk irainka asi yakozan (zitzaizkion); beste askok ordea isillik zirauen mutillatzaz errukituta. Errege iraultzaillearen aurpegiak, ostera, bere gorrotoa erakusten eban (zuan).

Kiril Printzea urkamendiko zurubiak igoten asten zanean, urkatzailla urreratu yakon buruan eriotz-gaiei ipiñi oi yakon (zaien) txotoa sartzeko, baiña une aretan...

Tximista lakoa, Izargi atxilloagana oldartu zan, eta aizto bat ekarrela, eskuen lokarriak ebagi, eta bere iskillioak eskuratu eutsazan (zizkion). Orduan, Kiril Printzeak onetaraxe oi egin eban (zuan):

– Urrutilanda'ko adiskideok, ni nozue Kiril Printzea, Goriz'ek erail ebazan erregeen semea...! Burrukatu egizue zapaltzaillearen aurka, eta nik emongo dautsuedaz irrikatzen dozuezan askatasuna ta on-izatea...!

Eta uztaiarri eutsiz, arin baten geziak oltzan egozan agintariei jaurtiten asi zan. Une aretan, Yorki'k zuzendutako otsoak asarre bizian agertu ziran, eta Kiril Printzearen agindupean jarrita, oltzan egozan agintariai igesari eragin eutsien (zieten). Goriz zitalak alde egin nai ebanean, Kiril Printzeak burrukan egitera beartu eban (zuan), eta andik laster, errege lapurra ilda izanik, otsoen eta erritarren erasopean Goriz'en gudarosteak igesari emon eutsan (zian), Kiril Printzeak gaiña artzen ebala (zuala).

Egun batzuk geroago, enparantzaz bertan, Kiril Printzea Urrutilanda'ko erreñuaren erregea aldarrikatu izan zan. Eta urtebetea barik, egun eder baten Izargi ederrarekin ezkondu zan, eta bere gurasoen gaztelura eroan eban erregeña izan zeiten.

Bere erriarentzat Kiril Erregea agintari ona ta maite-maitea izan zan, baiña danok Otsoen Erregea izendatzen eben, eta otsoekiko ederrespen-ezaugarritzat, Urrutilanda'ko otsoak ez ziran iñoiz jazartuak, eta euren malkartegietan bake betean bizi izan ziran urte askotan.

Kiril'ek ez eban gura, euren lagun maiteakandik zearo baztertua bizi izatea, eta bere adiskide-miña zan Yuri'ren agintzapean, otsotalde batek Otsoen Erregearen gaztelua zintzo-zintzo zaintzen eban (zuan). Izan be, ezin ori baiño ziurtasun andiagorik bere emazte ta umeentzat.

Urtean bein, Kiril Erregeak erreñuko lekuri basatienetan jai andi bat ospatzen eban (zuan), eta erriko menpekoekin eta ain mate ebazan (zituan) otsoekin lagun-duta, egun zoragarri bat emoten eban (zuan), aspaldiko aldiak gogoraturik. Eta agirian, bere menpekoai agintzen eutsen (zian) otsoen lagunak izateko, eta onein aurka zeozer egiana legeak zigortua izango litzakela. Olan, otsoekiko guztien begiruneak bizirik iraun eban (zuan), piztiak eta gizakiak alkarrekiko itzala gordeten ebela (zutela).

Benetako otsoen errege ta erriko aiskide zintzoa izan zan Kiril erregea zangar eta bildurbakoa. Maite ebazan erritarrak baita bere anai otsoa, guztion nagusia baida zeruko gure Jaungoikoa.

Maite daiguzan abereak gure menpeko anai txikiak, eta Jainkoaren aurrean biurtuko gara andiak. Maitasuna ta itzala dira onura andiko lokarriak, nekeak jasateko indarrak ta gure itxaropen biziak.

Bein baten, Yosutxu bere etxolan zala, atean kox-kox bat aditu zan, eta bere aitak,

– Yosutxu– agindu eutsan (zion)– joan zaitez ia nor dan.

Atea edegi ebanean (zuanean), artzume txiki bat agertu yakon (zitzaion), otzez dar-dar baten.

– Gurre-gurre– mutikoari esan eutsan (zion)–.

Eta miiña atara eutsan (zion) gose zala adierazoteko.

Yosutxu'k sartu zeiten esan eutsan (zion), eta aitagana eroan ebanean, onek abereari,

– Aizu, artza– itaundu eutsan (zion)– nor biali zaitu onaiño...?

– Ara, Jauna...– atsekabez esan eutsan (zion) artzak-eiztari batzuk nire ama ta anaiak erail ebezan (zituzten), eta ni bildur baten ezkutatu nintzan sastraka batzuen artean. Gero, eiztariak ostendu ziranean, andik iges egin neban aal nebanez bizi izaten nintzala, eta noizbait nire indarrak amaitzeko zorian, Txepetx batek ikusi ninduan, eta nire gorabeerak edestu neutsazanean (nizkionean), baso batera lagundu eustan (zidan), eta areitz bateko kabian dei egiñik, iratxo bat agertu, eta Txepetxak oneri niri jazorikoa edestuta gero, une batzuk isillik iraun ondoren, Txano eritxan iratxoak, auxe esan eutsan (zion),

– Begira, Txepetxa, artzume onek gaba ementxe igaroko dau, eta biar Lamindano'ko egurlariaren etxera lagunduko dautsazu (diozu), barruti onetako gizonik errukitsuena dalako, eta ziur naz artzume gaixo au ondo erabillia izango dala etxe artan.

Artzumeak egurlariari Txano'ren itzok edestu eutsazanean (zizkionean),

– Benetan eskertzeko da– egurlariak erantzun eutsan (zion)– gure Txano andiak, geugan orren uste ona izan dagiala (dezala), eta benetan lagunduko dautsugu (dizugu), baiña zeu lako beste abo bat janaritzeko estu ta larri bizi bear izango dogu...

– Begira aitatzu– Yosutxu'k eten egin eutsan– eskolara joateari utziko dautsat (diot), eta olan egurketan zuri lagunduz, artzumea janaritzeko beste lortuko dogu.

– Ondo da, seme, baiña, artzumea zaintzeko beste atarako dot, zuk ikasteari utzi barik.

Gero, artzumearen izenari ekin cutsoen, eta abo batez etxekoek «Txau» izena emotea erabagi eben, gose zanean «Txau» esaten ebalako (zualako).

Etxolan bizimodu barri bat asi eben (zuten) ezustez etorritako arrotzarekin. Etxekoandreak eguncan iru bonbilbete esne atontzen eutsazan (zizkion), eta olan

artzumea bajoian polito azten eta indartzen. Abere otzan eta maitetsua zancz, etxe-koek ederresten eben (zuten), baita berak eurok be.

Egunak joan egunak etorri, artzumea anditu zan, eta bein baten, aizkolariari lanean laguntzeko gai zala erabaki eban (zuan) «Txau»k, eta aizkora bat az egurke-teari emon eutsan. Laster ikusi zan, indarretan aurrerapen andiak egiten ebazala (zituala), eta gizon bi besteko lana egiteko gai zala. Olan ba, egur asko saltzen eben, eta aren baten etxeko irabazteak anditzen ziran.

Urteen bidean, Yosutxu'k ikasteari uko egin bear izan eutsan (zion), eta aitare-kin lanean asi zan. Aspaldi zorionsua, benetan, etxekojauna, Yosu, eta artza, alkarrekin aldarerik onenean abestuz eta barreka basora joaten ziranean.

Olan urte batzuk igaro ziran, baiña bein baten zoritxar bat etorri yaken (zitzaien) Lamindano'ko egurlariari. Gizon oso aberats batek sari onaren bidez, Yon'en aitak erabillen erri-basoa udalari erosi eutsan (zion), eta orduan lanezagaitik, etxolan gorriak ikusten asi ziran. Etxekojaunak jardun bat lortu eban errian, baiña Yosu'rentzat eziña izan zan. Bein baten, semeak gurasoai auxe esan eutsen (zient),

– Lauentzako irabazpide urria dogu, eta auxe erabagi dot: «Txau» ta biok muntutik joango gara bear doguna irabazteko, eta olan, zuek obeto bizi izango zarie. Biar, beraz, etxetik alde egingo dogu.

Gurasoek negar egin eben (zuten), amak batez be, baiña beste biderik ez egoanez, etsi bear, eta urrengo goizean, lepo-zorro baten janari batzuk sartu, eta gurasoai agur esanda, Yosu'k eta Txau'k bizimodu barri bateri ekin eutsoen (zioten).

Asiera baten polito bizi izan ziran gauza barriak ikusten, baiña etxetik janariak laster amaitu yakezan (zitzaizkien), eta nai-ta-ez jardun bateri emon bear izan eutsoen (zioten). Ondo ausnartu ondoren, erri batera sartzen ziranean, Yosu'k didar bizitan iragarten eban (zuan), arratsaldeko zazpiretan, berak eta artzak erakusketa ikusgarri bat umeentzako egingo leukiela. Ordua elduten zanean, umeek inguratu-ta, Yosu'k eraginda, «Txau» dantzan egiten asten zan, mutiko-neskatoen jolasera-ko. Gero, txin (txanpon) bategaitik, artzak ume bana lepo-gaiñean artuta erriko enparantzatik inguraketa bat egiten eban (zuan). Izan be, arrakasta andia jaritsi eben (zuten) Yosu'k eta artzak, eta euron estualdia amaituta, ondo ta pozik aspaldi batez bizi izan ziran. Baiña negua asi zanean, umeak etxetik ez ziran urtetan, eta gure lagunak beste bizimodu bat aurkitu bear izan eben (zuten).

Uri andi bateko inguruetan, beñiñola, narritarien zirko bat ikusi eben, eta burutapen batek jota, Yosu nagusiagana joanda, artzaren ikusgarrien zerbitzua eskiñi eutsan (zion). Nagusiak baietz esan, baiña gauzak zailak izanik, janaria ta oearen ordaiñez bakarrik jardungo leukiela. Aspaldi luze bat narritariekin emon eben (zuten), «Txau»k dantzan egiten ebala, eta Yosu'k agintzen eutsazan (zizkion) ikusgarriak egiñez. Bein baten, baiña, gaztea aspertu egin zan euren lana duan egitea-gaitik, eta narritarien kapardia utzirik, berak eta artzak beste bizimodu bat izatea erabagi eban (zuan), eta barriro be mutiko-neskatoekiko jolasetan asi ziran, artzak dantzan egiñez eta umeak lepo-gaiñean eroiazala. Polito irabazten eben, eta eurok be aren baten pozik

Bein baten, erriko enparantzan ziarduela, aizkora-demarako atonketak egiten zirala ikusi eben (zuten), eta enborrak talankeren gaiñean josten ebezala ikusten ari zirela, gizon batek Yosu'ri, auxe esan eutsan (zion),

– Ta, tartekoa izaten nai izango zenduke...? Jakin bear dozu sari andiak emoten doguzala.

– Zelako sariak...?

– Irabazleari bost milla ogerleko.

– Aizu, Jauna, – itaundu eutsan (zion) Yosu'k– artzak tartekoak izan daitezke...?

– Ez dakit ba...– gizonak esan eutsan (zion) burua txorkatuz– olakorik ez da iñoiz ikusi-ta...

– Orixegaitik, Jauna– zirikatu eban gazteak– artz batek aizkolaritzat diarduala jakiteak ikusle asko ta irabazpen andiak erakarriko leukez. Jauna, orrek ondo ausnartzea merezi dau.

Ezer esan barik gizonak alde egin eban, baiña urrengo egunean Yosu'gana etorrita,

– Aizu, gazte– esan eutsan (zion)– zeuk atzo esan zeustana (zidana) gogoan erabilu dogu, eta baietz, zure artza tartekoa izan daitekela, erri onen jai-erakundeak erabagi dau.

– Noiz izango dira aizkora-demak...?

– Etzi, eguberdian.

– Artu ba gure izenak orretarako.

Onen ostean, egun bitako epean, lengo gaitasuna irabazi arte, egun osoan Yosu'k egur-mozketara beartu eban (zion) artza, eta leiaketearen egunean, Yosu artzarekin azaldu zan erriko enparantzan. Zabaldu izan zan, dema aretan artz bat aurkeztuko litzakela, eta augaitik ikusle ugariak etorri ziran iñoiz ez ikusitakoak erakarrita.

Lau aizkolari ta artza aurkeztu ziran, eta zizirikoaren eztanda entzun zanean, bostok ebateari emon eutsoen (zioten). Asiera baten, artza atzeratua ebillen, baiña Yosu'ren adoreak kutsatuta, bere czpalak egan egiten asi ziran, gazteak ozta-ozta non jo erakusten eutsala (ziola). Eta noizbait, artzak zortzi kanaerdiko enborrak lenengoa bagoi ebazan, Yosu'k bost milla ogerlekoko saria irabazten ebala (zuala). Zoritxarrez, artzaren gaitasuna enborrak ebagiteko andiegia izanik, ez ziran beste aizkora-dematan onartuak, eta irabazpide oneri uko egin bear izan eutsoen (zioten) Yosu'k eta «Txau»k.

Iru egun geroago, biok erria utzi eben (zuten), eta bidean zear joiatzala, Yosu'k artzari auxe esan eutsan (zion):

– Aizu, «Txau», zer egingo dogu onenbeste diruz...? Aldcan erabiltea arriskutsu ta neketsua da.

– Ugazaba– erantzun eutsan (zion) artzak– onena, dirua lurperatzea izango litzake.

Urrengo errian, Yosu'k bustiñezko lapiko andi bat erosi eban (zuan), eta erritik urtenda, dirua aretan sartuta areitz baten ondoan lurperatu eban (zuan), eta uda

zanez, zearkatzen zituen errietan, neskato-mutikoekin oiko dantzai ta lorketai emon eutsien (zieten), bizi izateko beste ta geiago diru irabazten ebela (zutela).

Alako egunean, erri batera eldu ziran Yosu ta «Txau», eta enparantza nagusian zear joiazala, tximiñoz beterik egoala ikusi eben (zuten). Tximiñoak zugaitzetatik lurrera jatsi, eta gero etxeetara sartzen ziran, barriro be zugaitzetara igoteko. Etxe guztiak leioak itxita ebezan (zituzten) tximiñoak sartu ez ekiezan, baiña barrabas areik ur-odian gora teillaturaiño igonik, emetik sabaira sartzen ziran aal eben guztia ostuteko. Erri aretako jendeak oso kezkatua zirudian. Au dana ikustean, gure lagunak udaletxera igon eta alkateari argibideak eskatu eutsoezan (zizkioten).

Izan be, alkateak atsekabearen irudi bizia emoten eban, eta Yosu'ren itaunai onetaraxe erantzun eutsan (zian):

– Aspaldi bat dala, ez dakigu nondik berreun tximiñoako talde madarikatu ori errira sartu yakun (zitzaigun), eta ordutik Irribarretoki deritxan gure erriari barre egiten aztu egin yako (zaio). Egunsentia egin baiño ez, lo egin daben zugaitzetatik jatsita, janariren billa etxe guztietara sartzen dira, eta ate-leioak ondo itxita izan arren be, denganiñoak teillatuetatik sartzen dira aal dabena ostuteko, eta gero ondo ase, zugaitzetara jan-osteko biagoa egiteko. Erri onetan barre egiteko guraria amaitu yaku (zaigu), eta bide guztiakaz tximiñoak erritik uxatzeko saiatu arren be, txulut egin dogu.

– Bideren bat izango da, alkate Jauna– esan eutsan (zian) Yosu'k– erritik jaurtiteko.

– Ara, gazte: azken baten etsiak artuta eiztariari dei egin geutsen, eztandaka uxatu egiezan (zitzaizen), baiña erriko «Abereen Babestald»koek iskanbilla itzela sortu eben (zuten) eta uko egin bear izan genduan.

– Sari on bat iragarriko ba'zendukie, tximiñoak uxatu egiezanentzat (zitzaizenentzat)...

– Sari ederra aldarrikatu dogu, baiña orain arte ez da iñor etorri.

Une aretan, bazter batetik urtenda tximiño bat alkatearen mai-gaiñean ikotika asi zan. Irribarretoki'ko endoreak asarre baten paper-zapalkin bat jaurti eutsan, baiña tximiñoaren buru-gaiñetik igarota, leioko leiar bat brintzatu, eta ango zulutik tximiñoak alde egin eban (zuan), alkateak abo betekoak esaten eutsazala (zizkiola).

Gure lagunak enparantzara jatsi ziran, eta orma baten itsasita egoan aldarri bat Yosu'k irakurri eban. Ezagutzera emoten eban, tximinoak erritik kanpora betirako igortzeko gai izango zanak bosteun dukateko saria artuko leukela.

Egun osoan Yosu'k ezin izan eban burutik kendu, tximiñoak jaurtitearren eskin-tzen zan saria, eta noizbait burutapen batek jota, alkateagana joan zan, eta,

– Alkate Jauna, uste dot tximiñoak erritik jaurtiteko bidea otu yatala (zaidala). Begira...

Eta isil-misilka, bere asmoa azaldu ondoren, alkateak aderez beterik onartuta, erriaren izenean Yosu'ri bere ederrespena adierazo eutsan (zian).

Illuntzean, tximiño guztiak enparantzako zugaitzetan lo egiteko kokatu ziran, artzak lagunduta, Yosu'k aldarri auxe jaurti eban:

– Tximiño maiteok: zuek be jalasteko eskubiderik badozuela erabagi dau Udal Xit Bikain onek, eta au egi biurtzeko, biarko jai bat atondu dau. Orretarako erbes-tetik etorritako artz batek galdi andi bitan txango batera eroango zaitue, eta gero, ibai-ondoko zugaitz baten eskegita, asetu arte zenbat-gura janari idoroko dozue. Ez egizue galdu, beraz, Irribarretoki'ko udalak duan eskintzen dautsuen (dizuen) ereti yaukal au.

Yosu'k aldarri au amaitu ebanean, zugaitzetan kokatuta egozan berreun tximiñoak, pozez gaiñezka didar zorotan asi ziran, eta baietz, goizaldean danok txangora poz baten joango litzakezala, eta onen pozean lo egin eben.

Urrengo goizean, galdi biak gerturik egozan, eta egunsentian arrapalada baten tximiñoak zugaitzetatik jatsi, eta gurditara sartuta, abiatzeko gerturik egozan. Yosu'k galdiak zuzentzen ebazan (zituan), eta agindua emonda, «Txau»k lorketeari emon eutsan (zian). Berreun tximiñoek eta gurdien zameak, gure artza astiro joaten beartzen eben (zuten), baiña noizbait, leioetan kokatutako erritar guztiak jarraigoa iñongo bake-oarpenaz begietatik galdu eben (zuten).

Astiro-astiro, Irribarretoki'tik jarraigoa urrundu zan, eta ordu batzuk igarota, eguberdian ibai-ondoko zugaitz bateraiño eldu ziran. Zugaitz onen adarrak zenbatu-eziñeko ogitaterkoakaz orniduta egozan, eta gelditu ziran.

– Aupa lagunok– Yosu'k oiue egin eban (zuan)– jan egizue nai-aiña gure udalaren pentzuan...!

Itz oneik ozta-ozta esanda, tximiñozko odei bat adarretara oldartu zan, eta jateari emon eutsan (zian). Onen bitartean, aizkora bana artuta, Yosu'k eta artzak zugaitz-mozketeari emon eutsoen. Janariaren pozean, beean jazoten zana tximiñoak ez ziran oartu, eta bapatean, zugaitza, ogitartekoak, eta tximiñoak blaust...! uretara jausi ziran. Urak arin etozan, eta begi itxi-edegi baten, tximiñoak begimetik galdu ziran itsasorako bidean...

Gero, gurdiekin, Yosu ta «Txau» Irribarretoki'ra biurtu ziran, eta ango biztanleek egundoko abegi ona egin eutsien (zieten), iru eguneko jai andi bat ospatuz, Yosu ta artza gizurantz erabiliak izanik. Tximiñoak biurtzen ez zirala ikustean, eskititako bosteun dukateko saria, alkateak Yosu'ri emon eutsan (zian), bide-batez Irribarretoki'ko deduzko semeak bera ta artza izendatuz.

Pozik urten ziran erritik Yosu ta artza, baiña diruaren azta ibilteko oztupo andia zanez, bide-ertzeko areitz baten ondoan buztiñezko lapikoan lurperatzea erabagi eban (zuan) Yosu'k. «Txau»k bere erpe zorrotzakaz zulo bat egin, eta antxe bertan euren altxorra lurperatu eben (zuten). Oso zuurra zan artzak, ezaugarritzat enborean atzaparrakaz koska batzuk egin zituan eta poz baten bidegiteari jarraitu eutsoen (zieten).

Alako egunean, baso baten gaba egin yaken (zitzaizen), eta argi batek crakarrita, baso-soil baten iru gizonen talde bat suaren inguruan ikusi eben (zuten). Arein itxureak gauza onik adierazoten ez ebanez (zuanez), Yosu'k zugaitz-enbor baten atzetik ezkutauta, kuku egin eutsen (zien). Iru bidelapur ospetsuak ziran, Pirri ezizeneko gaizkille batek aginduta. Taldeko beste bateri, begien akatsagaitik Betoker

esaten eutsoen, eta irugarrena Dindirri izengoitiko zana, suurretik etenbarik mukizko txistil edo tanta bat eriolako. Une aretan lapur areik suaren inguruan jesarrita, okel-zati bana jaten ziarduen.

– Aizu Nagusi– esaten ari zan Betokerra– aspaldi onetan badirudi zailla biurtu yakula (zaigula), iñoren sakelak arintzea. Olan jarraitzekotan, gure erriko aguretxean aterpea billatu bear izango dogu.

– Izan be– tartetu zan Dindirri’k jakeko maukaz suurra igurtziten ebala (zuala)– aspaldi onetan bidariek ez dauskue emoten merezi doguna, eta badirudi zin egin dabela gosez il gaitezana...

– Lagunok– eten egin eutsan (zion) Pirri’k– gure jardunean, beste guztietan legez, buruaren argitasuna lagungarria da, eta ardandegian astia emon-bearrean, zuek egiten dozuen antzera, ekintzak atontzeko zentzuna erabilliko ba’zendukie, neuk egiten dodan legez, orduan beste kuku batek joko leuskigu (liguke)...

– Isildu zan Pirri une batez pipea piztuteko, eta pautada batzuk jaurti ta gero,

– Zentzuna erabilliz, biar eguberdian inguru, zalpurdian Barrenso’ko Markes-andrea kutxa bete bitxiakaz igaroko dala jakin dot. Zubi-ondoan begira egongo gara, eta Betoker’ek zalpurdia geldierazorik, su-iskilloak eskuktan ni ate batetik eta Dindirri bestetik, bitxiakaz eta diru guztiaz jabetu gara. Eta orain lo egin dagigun (dezagun), biar naikoa lan izango dogu-ta.

Bidelapurrak burusietan bildu ziran, eta laster arein zurrungek bakea eten egin eben (zuten). Yosu, baiña, lo egin eziniñ egoan, buruan erabillirik zelan edo alan lapurretea eragotzi bear ebala (zuala), eta noizbait, egitekoa ondo ausnartuta, bera be lo geratu zan.

Goizean itxartu baiño ez, Yosu’k artzari auxe esan eutsan (zion),

– Aizu, «Txau», atzo jakin genduan ez, iru lapurrok zalpurdia eraso gura dabe, eta ori zillegia ez dan ezkerero, aalegin guztiakaz eragotzi bear dogu. Eguberdian zubi-ondora eltzean zitalkeri ori jazoko da, eta naikoa astirik dogun ezkerero, bearreko neurriak artuko doguz. Bidelapurrok suiskilloak daukiezan ezkerero eta geuk bat bera be ez, atondu dagigun (dezagun) makil indartsu bana, eta zubian gaizkilleen erasoaren begira egongo gara.

Itz oneik esanda, basoan barrendu ziran, eta ugazaba-artzak makil eder bana aukeraturik, besoaren indarrez erauzi, eta gosalduta gero iradu barik zubira joanda, sastraka baten atzetik zelatan jarri ziran. Alako baten, koskabillo batzuen txilinkadea aditu zan, eta andik laster zalpuri eder bat agertu zan. Ozta-ozta zubia zearkatzeko zorian zala, baiña, oianetik gaizkilleak agertu ziran, eta Betokerra’k gurtzailleari gelditzeko agindu eutsan (zion), eta Pirri’k eta Dindirri’k ate bana edegita, eroiazan diru ta bitxiak su-iskilloen zemaitzapean bidariai eskatu eutsiezan (zizkieten), eta Markes-emearen didar eta negarrai jaromonik egin bage, arrapakiñaz jabetzeko gertatu ziran. Une aretan, baiña, sastrakatik urtenda, Yosu’k eta «Txau»k makillen eragiñez bidelapurrai iskillak erabilteko astirik emon barik, zartada bizitan iges egitera beartu ebezan (zituzten). Bere burua bidelapurrakandik jare ikustean, Barrenso’ko Markes-emeak ez ekian zelan eskertu gure lagunai, eta pozak

menperatuta, katanarru bete urrezkoakaz emon eutsan Yosu’ri, eta onezaz gaiñera, bioi bere gazteluan jardun ona emongo leuskiela (liekela) agindu eutsen. Izan be, Yosu’k aizkolariak zirala esan eutsan (zion), eta pozik onartuko leukiela edu orretako jardun bat.

Eta beste barik, Yosu’k eta artzak Barrenso’ko gazteluan aizkolariaren jardunari barriro emon eutsoen (zioten). Bein baten Yosu’k neskametzat ziarduan bere erriko neskatilla bat ikusi eban, eta izketan asi ziran. Orduan, Yosu’k jakin eban lan-ezagaitik Lamindano’n gosete andia sortu izan zala, eta bearrian utsaz, gaztediak jaioterria ustuten ebala (zuala). Barri au jakitean, Yosu’k atsekabe itzela artu eban, eta ustekabez burura etorri yakon (zitzaion) baebala diruketa bat aurreztuta, eta onena izango litzakela bere erriaren alde erabiltea. «Txau»k be onartu eban eritxi au, eta urrengo egunean Lamindano’ranta abiatu ziran.

Baeben Markesemeak emondako katanarru bete urrezkoak eta onezaz gaiñera, bide-ertzeko zugaitz banatan eortzitako diruketa bi, eta asto bat erosita, jaioterrira biurtu ziran. «Txau» oroimen onekoa izanik, oztopo andi barik ezkutuneak aurkitu ebazan, eta bustiñezko ontzi biak astoaren txalma-gaiñean ipiñita, jaioterrirakoa egiten asi ziran.

Alako egunean, mendi bat zearkatzean Lamindano erria ikusi eben (zuten), eta arin baten Yosu bere jaiotetxera joanda, atean oles egiñik, noizbait bere gurasoak besarkatu aal izan ebazan (zituan). Oneik jakiñerazo eutsoen (zioten), erriaren udal-erabilte okerragaitik, erri-basoak atzeritarrai saldu izan zirala, eta egurra kanpora bialita, bertakuok lanik ez ebela (zutela), eta bearrianak eraginda, jaioterritik alde egiten ebela (zutela).

– Laster oartu zan Yosu, udalak egindako salketa legearen aurka zala, eta salerosketea indarbagetuta, bere diruakaz birrerosi ebazan baso guztiak, eta serrategi bikain bat irasita, onen laguntzaz erritarrai ekoizpen andiak ekarri eutsiezan (zizkieten) errediza-lantegi batzuk sortu ziran. Laster alkate barria billakatu zan Yosu, eta bertakoen oneritxi ta maitasunez inguratuta, bera ta artza urte askotan bizi izan ziran.

Gazte bat bere artzarekin txirotasunak jaurti izanak, munduan zear joan ziran billatuz euren jan-edanak. Neska-mutikokoak alaituz eta egiñez beste lanak, etenbarik lortu ebezan aurrezki andi ta bakanak.

Bein baten jakin ebenean erritarren estutasuna, dana utzita biurtu ziran emonez euren ogasuna.

Olan jokutzen dabenak
merezi dabe maitasuna,
eta mundutik joatean
lagun guztien begiruna.

NARRO'REN GORA-BEERAK

Mutikoa oso txikia jaio zanez, danok Narro izenaz ezagutzen eben (zuten), eta ikastolara joateko garaia etorri yakonean (zitzaionean), bere ama larritu zan, Aize-ti'n, bere jaioterrian, aizea beti indartsua zanez, sarri askotan lumatxoaren antzera bere semea eguratsean zear eroan ebalako (zualako). Olakorik jazo ez ekion, amak burdiñezko oiñetakoak ipiñi eutsazan (zizkion), baiña ikastolara eldu orduko, asti-ro joan bearragaitik ikastaldia amaituta, Narro gaixoak ezer ikasi barik negar baten etxera biurtu bear izaten eban (zuan). Orduan, amak etxetik ikastolara soka bat edatu eban (zuan), eta oneri eutsita Narro'k bere ikasketak jarraitu aal izan ebazan (zituan). Laster, baiña, baten batek sokea ostu eban, eta eusgarria galduta, Narro'k etxean geratu bear izan eban (zuan). Ama, baiña, ez zan uko egiten dakienetarikoa, eta semea egazti biurtzea otu yakon (zitzaion); noizbait, eta asmamena zorroz-tuz, oilloen lumakaz ego eder bi egin, eta aizegille zaar batez bearreko lema atondu eutsan (zion). Narro pozik joian egunoro eguratsean zear ikastolara, ikaskideen ederrespina irabaziz, baiña lema aizegille zarraz egiña zanez, bein baten aize-putsi indartsuak ausi eutsan (zion), eta Narro gaixoa, bost kilometro arantzago egoan erri bateko eleizaren joaletegian agertu zan. Gau aretan, semea ekarri eutsonean, (ziotenean), zearo lur-jota, semearen alde zer egin ez ekiala, amak leio baten ondoan negarrari emon eutsan (zion). Olan egoala, leio-barrenean Txepetxa koka-tu zan, eta,

– Aizu, emakume– itaundu eutsan (zion)– zer dala-ta orren atsekabez negar egi-teko...?

– Ai, Txepetx maite ori, munduko amarik zoribakoena nozu.

Eta jarraian, Narro, bere semearen ezbeirak ikastolara joateko azaldu eutsazan (zizkion). Amaitu ebanean (zuanean), isillune baten ostean Txepetxak auxe irautsi eutsan (zion),

– Aizu, Murugane'ko iratxoa jakitun ipiñiko dot, eta berak urtenbideren bat billatuko dau.

Andik iru egunetara, Narro'ren amak leioaren ondoan josten ziarduala, Txano, Murugane'ko iratxoa eguratsean zear bere areitz-ostozko euritakoa erabillela ager-tu yakon (zitzaion), eta onen itaunai erantzunez, bere semearen ezbeirak edestu eutsazan (zizkion). Dana jakin eta gero,

– Urtenbide bakarra– iratxoak esan eutsan (zion) -, aizearen asarrea baretzea da; au lortzeko lo eragin bear dozu, eta orretarako, gau guztietan Narro oera sartu dai-tenean (dedinean), lelo auxe mintzo indartsuz aboskatuko dau: «Aize neketsu asa-

rrebera, joan zaitez lo egitera», eta aizearen indarra otzanduta, urrengo egunean bare-bare egongo da.

– Millesker Txano, gure iratxo ongillea– esan eutsan (zion) emakumeak– diñostazuna egingo dogu.

Eta ordudanik, gau guztietan mutikoa'k Txano'k itarantzuniko leloa oerakoan amarekin esaten eban (zuan). Izan be, arrezkero Narro'k aspaldi zoragarria igaro eban (zuan), iñongo soster (oztopo) barik ikastolara joan zeitekeala. Baiña aldiaren bidean aizearen indarra aztu eginda, ama-semeari Txano'k agindutako esaerea aztu egin yaken (zitzaien)...

Urrilla'ren goiz baten oi eban lez ikastolara joanean, ustekabez aizearen putz indartsu batek Narro astindu, eta eguratsean zear eroan eban (zuan). Bildurrak jota, gogora ekarri nai izan eban (zuan) aizea baretzeko lengo leloa, baiña aztu izan yakonez (zitzaionez), «Aize neketsu...» baiño ezin egikean (zezaken) besterik gomutara ekarri, eta sumindutako ego-aizeak mendi-arantcan zear lurralde ezezagun batera eroan, eta noizbait gaztelu baten erpiñean aizeak Narro kokatu eban.

Dar-dar bizian teillatutik beera jatsi, eta leio bat ikusirik, andik sartu eta gaztelua ikertzen asi zan. Ibilbideen sare bat zearkatu ostean, eta dana utsik egoala uste izaten ebanean (zuanean), beerantza joaten asi zan. Alako baten, eta gazteluko beekaldetik joiala, ate baten ondolik igarotean, suzmurren otsak gogoa erakarri eutsan (zion), eta morroillo-zulotik begiratzean, izuz elbarrituta geratu zan.

Gelako mai luze baten ondoan tartalo izugarri batek ume bat iruntsiten ziarduan, eta noizean bein ezpanak esku-gaiñaz igurtziten zituala, abopeka onetaraxe abesten eban (zuan):

Gazteluzaarreko Tartalo
gose-egarriak artua
egunoro ume bat bear;
bestelan goseak sutua
mai au osorik jango leuke
inpernu-garrak bultzatua.
Tringilin trangelan, lagunok,
gora Tartalo ausartua...!

Narro'k morroillo-zulotik izuz menperatuta Tartalo begiztatzan ebalu (zuala), ustekabez, baten batek besotik artu, eta biurtzean irudi izugarri bat begiztatu eban (zuan). Kataburuko txakur andi bat zan, eta Narro gaixoari besotik oratuz, irribarre nazkagarriaz auxe iñotsan:

– Ni Tartalo'ren zaintzaburua, Katatxa izeneko naz, eta oraingo onetan izan be, alagala zatozkit, nire nagusi umejaleak, ezinbestez bizarra moztu yakon (zitzaion) otsein bat bear dau-ta, oraiñarteko bere bizarmoztaillea lengo egunean jan egin ebalako (zualako).

– Jan egin ebalu (zuala) diñostazu...?– Narro'k dar-dar baten itaundu (galdetu) etsan (zion)– egia esateko naiago izango neuke, askozaz be, beste jardun bat aurkitu zengidan (zenezaidan)...

– Etxe onetan jardunak banatzen dituana, zaintzaburua nazan ezkerro, neu naz, eta oraintxe bertan, Tartalo gure nagusiaren bizar-mozkiña izendatzen zaitut. Zatoz nirekin.

Itz oneik esanda, Katatxa'k atea edegi, eta mutikoaren besoari eutsita, janda gero biagoa egiteko zorian zan Tartalo'ri, zurikeririk andienaz auxe esan eutsan (zion).

– Entzun beist Nagusi Txit Bikain orrek: lengo egunean berorrek alabearrez irunsi eban (zuan) bizar-mozkin baldarra ordezteko, mutiko au dakarkiot, benetako zerbitzaria izango dalakoan...

Une batez Tartalo'k bere begi bakar gorritaz Narro begiztatu eban (zuan), eta gero, irribarre izugarriaz,

– Bai, bestelan urdaillerako izango zatxataz– korrok itzela jaurtiz esan eban (zuan)–. Zein da zure izena...?

– Narro, Jauna.

– Jakin bear dozu, Narro ezain orrek, zure betekizuna ondo ez egitekotan, nire zerbitzuan ez dozula luzarorik iraungo. Ara... lengo egunean bizarmozkiña garbitu bear izan neban (nuan), labanaz aurpegian irugarren ebatea egin eustalako (zidalako). Etxe onetako legearen arauz, irugarren utsa egitean, pekataria irunsi egin bear dot. Orain, beraz, badakizu zelako baldintzetan jardungo dozun.

Eta itz oneik esanda, zurrunga zaratatsua jaurtiz, Tartalo lotan asi zan. Oinmuturrez, bere nagusia itxartu ez zeiten (zedin), Katatxa'k Narro'ren eskuari oratu eutsan (zion), eta gela izugarri aretatik urten ziran.

– Orain otseinen gelara eroango zaitut, Tartalo'ren beste jopuak ezagutu dagizuzan (ditzazun).

– Aizu, Katatxa– Narro'k eskatu eutsan (zion)– eskertuko neuskizu (nizuke), Tartalo'ren oiturak eta gorabeerak azaldu zengidazan (zenezazkidan), gure nagusia obeto ezagutu dagidan (dezadan).

– Ondo derist orreri, zure nagusia izango dan ezkerro. Tartalo gure ume-jaleak, egunoro ume bat ondo erreta jan bear dau. Gau betea egiten danean, gaztelutik alde egiten dau, eta ortik dabil nik ez dakit nondik, eta egunsentia asten danean, ume bat zorro baten barruan lepoan dakarrela biurtzen da, eta lotan diardu eguberdirarte. Orduko, goizaldean ekarritako umearen erreki gerturik dago, eta gosez beterik irusten dau bertso oneik jaurtiten dituala:

Lan gaitza artzen dau Tartalo'k
billatuz bere janaria,
baiña noizbait zorroan dakar
merezi dauan eizakia.
Ume txiki bat gora beera
ez da izango munduko amaia,
kontuan artuta batez be,
niretzat dala bizikaia.

Gero, eta jandako egosketea ondo egiteko, besaulkian bere biagoa edo lo-kuluxka egiten dau, eta illuntzean bazkariaren ondakiñak iruntsita, moztaillearen txandea dator, eta ondo bizargetua danean, betiko zorroa daroala, gaztelutik urten oi da.

Itz oneik entzutean, latz-ikara batek menperatuta, Narro'k Katatxa'ri auxe esan eutsan (zion):

– Aizu, lagun, eskertuko neuskizu (nizuke), moztaillearen eginkizun ori kenduko ba'zeunst (ba'zenit)...

– Ori eziña da, Tartalo'k berak izendatu zaitualako, eta gaur bertan illuntze betean bera urten aurretik, bizarra moztu bear izango dautsazu (diozu). Eta orain goazan otseindegira zure lagunak ezagutu dagizuzan (ditzazun).

Eskutik oratuta, Katatxa'k Narro ibilgune batetik eroan eban (zuan), eta ate bat edegita, otseindegira sartu ziran. Zuzi baten argipean, Narro'k aberetalde bat ikusi aal izan eban (zuan).

– Begiraizu, Narro– zaintzaburuak esan eutsan (zion) -, orain jatordua danez, talde guztia emen batu da. Dakizunez, ni talde onen burua naz, eta esanekoak izan dakidazan (dakizkidan), askotan zigorra erabilli bear izaten dot. Txoko aretan dagoan Orangutan izugarri ori, gazteluko atezaiña da.

Bein baten Tartalo bere eiztaketatik esku-utsik biurtzen zala, zootegitik igarotear tximiñotzar ori ostu, eta gaztelura ekarrita, atezain izendatu eban (zuan), joputaldeko iñor urten ez zeiten.

Aboa gosearen itxuraz zabalik erakusten eban orangutan bildurgarria, Narro'k bildurrez begizatatu eban (zuan). Izan be, zaila izango litzakio (litzaioke) edozeiñeri, tximiño erraldoi aren aurka gaztelutik urtetea. Narro gogo onetan egoala, Katatxa'k onetaraxe jarraitu eban (zuan),

– Or ikusten dozuzan sugetzar andi biak, Tartalo'ren oea ta lo-gelaren garbitasuna egiten dabe (dute). Oearen etzankia ildakoen azurrakaz egiña da, eta gure giza-jaleak beste illazkirik ez ei'dau gura. An txoko aretan dagozan azeri biak gaztelutik urten daitekezan bakarrak dira, egun eroko joputegirako janaria billatu bear dabela. Eta iges egiteko naia kendu dakien Tartalo'k erren biurtu ditu, anka bana autsi dautsela (diela).

Izan be, azeri gaixoak erren biurtu izan ziran, gaztelutik ur ibilli zeitez.

– Gazteluan aldiak emoteko– jarraitu eban katatxa'k– bela batek orduak, erdiak eta laurenak kra-kra bizieta emoten ditu. Or kurrinka ari diran basurde bi orreik, Tartalo'ren errekiak atonduz gaiñera, sutondoa zaintzen dabe.

Narro'k ormaren itsasita sei katamixar (katagorri) ikusi zituan, eta katatxa'ri auxe itaundu eutsan,

– Or ikusten dorrean katamixarrok, zer egiten dabe gazteluan?

– Katamixar orreik, gaztelu guztia garbi-garbi iraun-erazoten dabe buztan ule-tsua azpikoa isastuz...

Alako baten, Narro'k erbiñude bizi bat geldí-eziñik batetik bestera igitzen zala ikusirik,

– Eta erbiñude bizi orrek, zer darabil...?

– Ezer ez. Bein baten negu gorria zala, gaztelura sartu zan, eta orain, goseak eraginda otseintza-lagunen janaritik ostu egiten dau. Askotan atzitu nai izan dot, baiña ez da mundu onetan erbiñude madarikatu ori arrapatu dagikeanik (dezakenik). Bere soin luzanga zirritu guztietatik sartzeko gai da, eta gaztelu guztia bere aukeran iker-tuta gero, bapatean, edozein bazterretik bere janari-zatia artzeko agertu, eta gero tximista alakoa ostentzen da. Orain otordua danez, jesarri zaitetz mai orren ondoan eta maizaiña dogun azkonarrak, bazkaria ekarriko dautsu (dizu).

Gose andia zan Narro, janariari gogoz ekin eutsan (zion), eta amaitu ebanean (zuanean), urreraturik, Katatxa'k,

– Aizu, Narro– esan eutsan (zion)– arratsaldeko zazpiretan Tartalo'ren bizar-moztaldia izango da, eta ordurarte atsedean artu dagikezu (dezakezu).

Izan be mutikoa guztiz nekatuta oartzen zan, eta lastamarraga bat ikusirik antxe bertan etzan zan. Zazpirak barik, Katatxa'k iratzarri eban (zuan), eta,

– Jagi zaitetz, Narro– esan eutsan (zion)– Gaztelutik urten baiño len, Tartalo zure begira dozu bizarra moztu dagiozun (dazaiozun). Zatoz beingoan.

Gizajalearen gelara sartu ziran, eta besaulkian jesarrita egoan Tartalo'k muti-koari asarrez auxe esan eutsan (zion),

– Atzeratuta zatoz eta olakorik ez yat (zait) atsegin. Asi zaitetz ba lenbailen, urte-teko iraduz nozu-ta.

Narro'k bizarra jaboiaz busti eutsan (zion), eta ondo igurtzita zanean, labantzar bat azkarrekin asi yakon (zitzaion). Amaitzeko zorian zala, baiña, bildurrak menperatuta-edo, labanaren igikun baldar batez, aurpegian ebate bat egin eutsan (zion). Tartalo'k asarrez beterik birao bat jaurti eban, eta auxe esan eutsan (zion),

– Mutiko madarikatu ori, badakizu irugarrenez zauritu nagizunean (nazazunean) erreta iruntsiko zaitudala, au emengo araua da-ta. Arduratu zaitetz ba, bestelan...

Eta jaten ebalako keiñua egiñez, jagi eta logelatik urtenda, zabaldira joan zan bere eiza izugarriari emoteko. Bildur baten, Narro joputegira biurtu zan, irugarren utsegitea noiz egingo leuken bere buruari itauntzen eutsala (ziola)...

Gau aretan bildurraren-bildurrez begiak batu eziñik lastamarragan zetzala, uste-kabez, erbiñudea urreratu yakon (zitzaion), eta,

– Aizu, mutiko, entzun dot Tartalo'ren bizar-mozkiña izendatu zaituela, azkenaren utsa ordezteko. Ta, zelan joan yatzu (zaizu), gaurko moztaldia...?

– Bildur naz, erbiñude maite ori. Gaur lenengo ekitaldia izanik, urduritasunez aurpegian ebate bat egin dautsat (diot), eta berak biraoka esan daust (dit), irugarrenean iruntsiko nauala...

– Bai, orixe da gaztelu onetako legea... Arduraz jokatu bear dozu, bestelan zureak egingo dau...

Aspaldi izugarriak jarraitu eutsan (zion) lenengo egun oneri, oiko bizar-moztaldia alamen izugarria biurtuz. Narro mutiko argia zan, eta ardurarik andienaz bere egitekoa beteten eban, gero ta trebeago biurtzen zala. Baiña bein baten, ondikotz...! mutikoa ezuste baten bigarrenez Tartalo'ri aurpegian beste ebate bat egin eutsan (zion).

– Mutiko madarikatua...!– oi ugin eutsan umejaleak aurpegiaren odola txukatuz– ez yatzu (zaizu) aukera bat baiño geratzen nire urdaillerako izateko. Kontuz ibilli, bestelan...

Eta au esatean, Narro'ren anka bat eskukatuz, auxe eratsi eban (zuan),

– Lodi-lodi izan ez arren be, okel samurrekoa izanik, erreki ona billakatuko zara.

Gau aretan, joputegiko bere oatzean Narro'k ezin egikean (zezaken) lorik egin, bere etorki illunari buruz ausnar egiñez. Eta barrero be abagune aretan erbiñudea urreraturik,

– Aizu mutiko -itaundu eutsan (zion)– zer dala-ta lo ez egiteko...? Gaberdia atzean geratu da onezkero; zer jazoten yatzu (zaizu)?

Orduan Narro'k egun aretako bere utsa edestu eutsan (zion), eta amaitzean, erbiñudeak,

– Izan be, Narro– esan eutsan (zion)– arazoak zuretzat ez dau itxura onik erakusten, baiña zu nik ezagututako mutikorik argiena zara, eta buruari ekiniez, estualdi orretatik urteteko zeozer otuko yatzu (zaizu).

– Gaztelu madarikatu onetatik iges egin aal izango ba'neu...

– Ori asmotik kendu bear dozu, Tartalo bizirik dagon bitartean, baiña adimen argikoa izanik, urtenbide bat aurkitu dagikezu (dezakezu)...

Eta itz oneik esanda, erbiñudea atepeko zirritutik ostendu zan, oroldiozko bere oatzean lo egiteko.

Narro'k erbiñudearen itzok eraginda, oldozteari emon eutsan (zion), eta guenez, goizaldean Tartalo'ren urrats aztunak gazteluko ibilbideetatik aditzen zirala, tximista baten antzera asmo bat burura etorri yakon (zitzaion), eta gora-beera guztiak aztertuta, begiak batuta lotan asi zan.

Illuntzeko oiko ordua zanean, Katatxa'k Narro'ren billa etorrita, Tartalo'ren logelara eroan eban (zuan), eta sartzean auxe esan eutsan (zion):

– Kontuz Narro, abagune bat baiño aukeran ez dozu-ta...

Umejaleari bizarra jaboiaz igurtziten eutsala (ziola), iñoizkorik asarratuen zirudian erraldoi basatia didarka ta biraoka asi yakon (zitzaion), bere erreki laster biur-tuko litzakela zemaituz. Tartalo'k oi ugin bitartean, iduneko zan (zain) lodia anditu yakon (zitzaion) oso nabarmena egiñez Orduantxe, eta bere eretia zala uste izanik, Narro'k esku irmoz labankada indartsua jaurti eutsan (zion), odolezko txurru-tada bat agertzen zala. Asiera baten Tartalo'k ezin egikean (zezaken) siñistu jazoten yakona (zitzaiona) baiña egiaz oartu zanean, asarrez orruka mutikoaren atzetik oldartu zan erailteko asmoz. Narro'k, ostera, ondo asmatuta eban (zuan) bere bigarren ekitaldia, eta arin baten mai-azpian ezkutatu zan bere erailtzailleagandik urru-nen egokitzen zala. Ustekabez, gizajalcari indarrak auldu yakozan (zitzaizkion), eta goitiko itogarri batek jota, il zan.

Tartalo'ren eriotza zabaldu zanean, joputegikoen zoriona mugabakoa izan zan, danok Narro gizurentzat goratzen ebela (zutela). Urrengo egunsentian, Orangutana'k gazteluko zubi jasokorra beeratu eban (zuan), eta ordurarte jopu izandako guz-

tiak aske biurturik, euren etxetara abiatu ziran, gazteluan geratzen zan bakarra, erbiñudea izanik, leku aretan gogoz bizi izaten zalako. Eta egun batzuk igarorik, Narro bere etxean aurkeztu zanean, amaren zoriona azaldu-eziña izan zan, bere semea iltzat ebalako. Narro'k bere gora-beerak erritarrai edestu eutsezanean (zizkienean), erriko enparantzan oroitarri bat craiki eutsoen, eta andik urtebete batzutarra, erritarrek alkate aukeratu eben (zuten). Eta jakiña, umejale bategandik mundua jaregin ebana, eta onezaz gaiñera erriko alkatea billakatu izanik, aurrerantzean aizea begirune utsaz ez zan ausartu iñoiz barrero be eguratsean zear croaten. Eta ona emen, erritarrok Narro'ren oroitarrian jarritako itzok:

Au da Narro'ri erritarrek
craikitako oroigarria.

Aizeti'ko aize zakarrak
berarentzat oso gaizkia,
utzi ez ikasi egian,
ta bein baten, tamalgarria,
eroan eban izan zeiten
Tartalo'ren bizigarria

Gazteluzarra'n biurtu zan
aurjalcaren bizarlaria,
eta itzelak jasan ondoren,
il eban Tartalo piztia.

Au dala-ta, aizetitarrek
gogoratuz euren semia,
izendatzen dabe biotzez
Jaun Txit Goren eta Argia.

IRU ANAI MAKESTUAK

Urrutigane'ko etxean gurasoekin lau mutil bizi ziran. Seme nagusia kenduta, beste irurak makestuak ziran, baiña aal eben giñoan aitari laguntzen eutsoen base-txeko lanetan, euren iraupenerako beste, ekoizten edo irabazten ebela. Baiña igorte edo legorte andia sortu zan errialde aretan, eta etxean jateko bearrekoa ez zala ikusirik, etxekojaunak seme makestuak deitu, eta auxe esan eutsen (zien):

– Seme maite-maiteok, etxe onetan lau semeentzako ekarriak ez izanik, oiñordekoa soillik geratuko da etxean, eta enparaduok, nire atsekaberik andienaz bada be, munduan zear zuen bizibidea idoro bear izango dozue, eta oso lanzaleak zarien ezkerro, ziur naz gora andia egingo dozuela eta azken baten onik urtengo zariela.

Paul, begibakarra zanak auxe esan eutsan (zian):

– Baiña aita, zelan urten naiteke onik, begibakarra izanez...? Nire makurra ikusi dagienean (dezatenean), danok zapuztuko nabe... Ni gaixoa...!

Eta negarrari emon eutsan (zian).

Ander, jaiotzetik besamotza zanak:

– Aita, zuk ondo dakizu, adorerik andienekoa izan arren be, beso bakarrekoa danak, ez dauala aukera andirik izango bizibide egokiren bat aurkitzeko. Au nire zoritxarra...!

Eta seme onek be negarrari emon eutsan (zian).

Eta Martin, irugarrenak

– Aita– esan eutsan (zian)– gomutan izango dozu, ume izanik etxeko patiñera jausi nintzanean, erren billakatu nintzala, eta aalegin andiak egin arren be, ezin dot bear beste lanik egin. Zelan konponduko naz ba. . . ?

Eta seme au be negarrez asi zan.

– Seme maiteok– aitak esan eutsen (zian)– Egia da diñostazuena, baiña benebenetan, etxean geratzen ba'zarie ezin izango dozue zuen burua onik atara, jasaten dogun legorteak gure itxaropena ondatu dauskualako (digulako), eta gauzak diran lez artu bear ditugu. Augaitik ba, nire damurik andienaz bada be, oiñetxearen alde zuen buruari uko egin bear dautsazue (diozute). Egunero, onik urten zaitezten etxe-kuok zuen alde otoi egingo dogu...

Eta gau aretan, mutil makestuak negarrez oeratu ziran. Biaramonean, oetik jagi ziranean, bizkar-zorro baten bidegite luze baterako amak janari batzuk atondu izan eutsezan (zian), eta oiñordeko ta gurasoen besarkadak malko ugariakaz artuta, iru anaiok ezagutubako bidegite bateri asiera emon eutsoen.

Egun osoan ibilli ziran Paul begibakarra, Ander besamotza, eta Martin errena;

arrestian baso baten ertzean neke utsaz jesarrita, zezor jatea erabagi eben, eta bide zorroa edegita, jan bitartean euren zoritxarra alkarri esaten eutsen (zieten). Basoa Murugane'koa zan, eta eurok oartu barik Txepetx batek esaten ebena entzun eutsen (zient). Gero lo egitera etzan ziran, eta eguneko ibillaldiak nekatuta, luzaro barik begiak batu ebezan (zituzten).

Txepetxa be adar baten kokatu zan, eta egusentirarte lo egin eban. Itxartu baiño ez, baiña, aurreguneko iru anai makestuen zorigatxa bururatu yakon (zitzaien), eta astirik galtzeke Murugane'ko iratxoagana joanda,

– Aizu, Txano– esan eutsan (zient)– iru mutil makestuak gorriak jasaten ari dira. Begira, auxe ta auxe entzun neutsen atzo...

Eta jarraian iru mutillen etxetik aldegitiaz jakitun ipiñi eban (zuan). Amaitzean, Txano'k Txepetxari areikana zuzendu egian (zezan) eskatu eutsan (zient). Eldu zanean iru anaiak andik alde egitera gertatzen ziran, eta orduan Txano'k euren artean jesarrita, auxe esan eutsen (zient),

– Ezaguerara etorri yat (zait) zuen zorigatxa, eta orrezaz gaiñera makestuak zariela be. Jakin bear dozue, baiña, Jaungoikoak adimen argiz apaindu zaituela (dizutela), eta olan izanik, zuen buruak ondo ba' darabiltzuez, onik urten zaitekeze. Zoaze ba munduan zear, ezereen bildurrik gabe. Zuk Paul, begibakarra izan arren be, beste begia ikusmen bikaiñekoa dozu, eta oneri alde andia atara dagekeozu (dezaiokezu). Eta zu Ander, besokerra izan arren be, osorik dakazun bestea indar siñisteziñekoa da, eta ondo erabilten ba'dozu, arrigarriak egiteko gai izango zara. Azkenean, zu Martin, daukazun anka osasuntsuaz, gauza andiak egin dagikezuz (ditza-kezu). Ez zaiteze ba, anai maiteok, kikildu; jo aurrera, kementsuak izan zaiteze, eta azkenean dagokizuen saria artuko dozue.

Itz oneik esanda, Txano, gure iratxoa, areitz-ostokaz egiñiko euritakoa zabalduz, beste iñora joan zan.

• • •

Iru anai makestuak bakarrik geratu ziranean, banatzea erabagi eben (zuten), eta osterako norabideak artuta, aldendu ziran.

Paul begibarrak itsaldeko elbidea artu eban, eta andik iru eguntara arraintza-portu ederreko erri batera eldu zan. Sartzeko zorian zala, bide-ertzean neskatilla bat negarrez ikusi eban, eta areganako errukiturik,

– Aizu neskatilla– itaundu eutsan– zer dala-ta zure negar etsia...?

Neskatilleak aurpegia jaso, eta Paul'ek itxura ituneko begi eder-eder bi ikusi aal izan ebazan (zituan).

– Ara, gazte arrotza– esan eutsan negarrari eutsi eziñik– nire aita, erriko talaria zana, il egin da, eta iru egunen epean orain arte nire etxea izan dana, bertanbeera utzi bear izango dot.

– Zein da zure izena...?– errukiz beterik itaundu eutsan (zient) Paul'ek -.

– Itsasne.

– Izen polita, benetan. Txukatu egizuz malko orreik; zure aurpegian dizdir egi-ten daben (duten) begi eder orreik, luzaro barik zoriona ekarriko dautsue.

– Eskerrikasko gazte arrotza. Zein da zure izena...?

– Paul. Eta erri onetara jardunaren billa nator.

Eta jarraian, begibakarra zala, eta bere gora-beerak edestu eutsazan (zizkion). Amaitu ebanean (zuanean), begi ederretako neskatilleak, auxe esan eutsan (zient):

– Begi bakarrekoa izanik be, aderez eta adimenaz zeu lez apaindua danak bizitza-zen bidean gora andia egin dagike (dezake). Sar zaitez errira, eta nire otoitzak lagunduko dautsue (dizute), bear dozun jarduna idoro dagizun (dezazun).

Irribarre bat agurtu zan Paul, eta andik laster erriko enparantza zabalera eldu zan. Une aretan urizain batek aldarrika esaten eban (zuan), portuko talaria il egin zanez, utzitako jardunerako leiaketa bat egingo zala, eta begimenik onena erakutsi-ko leukena, jardun ori berarentzat izango litzakela. Paul, begibakarra izanarren be, txikitandik oitua zan cukan bestea ondo erabilteko, eta ekiñaren-ekiñez begimen zorrotza, sarkorra, garatu izan eban (zuan). Eta iragarritako jarduna bearrekoa yakonez (zitzaien), izena emoteko udaletxera sartu zan. Izenak artzen ebazan (zituan) idazkariak, begi bakarra zala egiztatzean bar egiteari emon eutsan (zient), baiña azkenez lerrokatu eban (zuan).

Alkateak, leikide baktaxari iru aztergai jarriko leuskioz (lizkioke), eta begime-rik zorrotzena erakutsi leukena, portuko talaria izango litzake.

Paul, azken leikidea izan zan, eta alkateagana aurkeztu zanean, onek begibaka-rra zala ikusi ebanean, barre-santzoka artu eban, auxe iñotsala,

– Ez neuke egundo be asmatu izan, begibakar bat portuko talaria izatera ausar- tuko litzakenik, baiña tira, nire zuzentzaren ezaugarritzat, leiaketara onartzen zaitut. Ona emen, lenengo itaunketea: elcizako dorrean kokatuta dagoan txoria zein dan esan bear daustazu (didazu).

Izan be, dalako dorrea bosteun bat metroko bitartera egoan ez, eziña zan txoria zeaztuta, baiña Paul'ek gomutara ekarri eban, aurreko egunean, eleizearen ondolik igarotean, txindor baten abestia entzun izan ebala, eta orduan auxe erantzun eutsan (zient):

– Alkate Jauna, argi dago txindor bat dala.

Zur eta lur egindako alkatea, orduan,

– Egia da, mutil. Orain bigarren aztergaia: esaidazu kaleko muturra igaroten dauana, zer dan.

Barrero be, Paul'ek ezin zeaztu kalearen mutur urrutia zearkatzen eban (zuan) gauzatxu ñimiñoa zer zan, baiña erri aretan sagu asko egoala oroimenera ekarri-rik,

– Alkate Jauna– esan eutsan (zient)– oraintxe bertan kaleko mutur urrutia igaro dauana, sagu bat izan da.

Alkateak bere kautan autortu bear izan eban (zuan), leikide begibakarra, berak uste izandako baizen ezindua, ez zala, eta orduan,

– Orain, zure eritxiz, zeintzuk dira alkate on batek bete bear dituan baldin- tzak...?

– Ara... erriaren lepotik ondo biziten jakin bear dau. Bere etxeke teillatua atondu bear danean, udaleko langilleak erabiliko ditu nagiak artuta bizi ez daitezten. Edozein atxakiz, erriaren alde egiten dauzan (dituan) bere aalegiñak ordaintzeko, bazkari ederrakaz ospatuko ditu. Eta gauzak biribiltzeko, ille-sari ederra bere aukeran...

– Naikoa da, mutil...!– eten egin eutsan alkateak–, argi dago erriko talariaren jarduna irabazi dozula. Biar bertan portuko talara bizi izatera joan zaitezke, eta sari on bataz, gaiñera, gure arraintzaleen ziurtasuna begirari on bategan dagoalako.

Eta andik laster, Paul, portuko talaria billakatu zan, eta aren begi bakar sarkorak arraintzaleai obari andiak ekarri eutsezan (zizkien).

Baiña ezin egikeazan (zitzaken) aztu, erri aretara lenengoz sartzeko zorian zala, ikusitako neskatilla baten begi eder-ederrak, eta egun zoriotsu baten, Itsasne bere lengo etxera. talariñetzat ezkondata biurtu zan, maite izaten eban begibakarrekin betirako maitasunez bizi izateko.

On da begi bi izatea,
baiña areago ohea
begi bakarra izan arren
buru pitin bat izatea.
Orra or Paul'en zoriona;
talari jarduna lortzea,
eta neskatilla on baten
betiko laguntza maitea.

• • •

Bere anaiakandik aldendu zanean, Ander, besamotzak norabarik be ibiltari emon eutsan (zion). Baekian mutil argi onek, eukan beso bakarrari onurarik andiena atara bear izango leuskiola (liokela), bere ezbearra ordeztzeko, eta augatik, bide-tik ibilli ebillela, beso osasuntsuaz guztitariko iñarkunak egiten ebazan (zituan), au da, arriak jaurti, azta andiak jaso, zugaitz-adar batetik eskegita gorakadak egin, etabar. Olan ba, bideari ekiten eutsan, eta etxetiko janariak amaitzen yakozan (zitzaizkion) garaian, erri bat ikusirik, zer jazoko be, sartzea erabagi eban. Erritik ur samar egoala, baiña, sorospen-eskeko oi u batzuk sagarrondo bateraiño erakarri eben (zuten), eta atso bat adarretan kokatuta ikusi eban (zuan).

– Andrea– Ander'ek itaudu eutsan (zion)– zer dala-ta or goian egoteko... ?

– Ara, gazte ori, sagar batzuk artzeko igon nintzanean, ezustez aize-zartada batek makil-zurubia bota, eta ona emen ezin naitekela jatsi.

– Ez larritu Andrea, neronek jatsiko zaitut.

Eta zaplada baten beso bakarrak oratu eta lurrean ipiñi eban (zuan). Eskorronez, eta areago besamotza zala oartu zanean, atsoak alboan egoan bere etxera dei egin eutsan (zion), eta bazkaldu bitartean, Ander'ek bere etortearen gorabeerak edestu eutsazan (zizkien). Orduan, Andoliñe eritxan Andreak erriko parrokiaren sakristaua-

ren jarduna utsik egoala jakiñerazo eutsan (zion), lengoa il-barria zalako, eta parrokoari aurkeztu ekion betekizunen baldintzak jakiteko.

Onezaz gaiñara, jardun bat aurkitu bitartean, bere etxea eskiñi eutsan Andoliñe'k. Biotzez eskertu eutsan (zion) gazteak, eta bazkaldu baiño ez, errira sartu zan, sakristaua izateko eskatzen ziran baldintzak parrokoagandik jakiteko.

Parrokoa sakristegian zan, eta Ander besamotza zala ikustean, musturra okerturik, auxe esan eutsan (zion),

– Gazte, laugarrena zara eleiza onetako sakristauaren jarduna eskatzen dauana, eta besamotza izanik, estu ta larri ikusiko dozu zure burua betekizun ori lortzeko. Edozelan be, besamotzak Jaungoikoaren semeak diran ezkerro, zeuk be eskubide betea dozu aurkezteko, eta zure izena artzen dot.

– Parroko Jauna, zeintzuk dira sakristaua aukeratzeko baldintzak...?

– Irukotzak dira. Meza Nagusian eske-batze andiena egin dagiana (dezana). Kanpai-joterik luzeena egiteko gai daitena, eta guenez, abeslari ona izan bear. Parrokiko batzorde baten eritxiz iru baldintz oneitan ondoen jardun dagiana (dezana), erri onetako sakristaua izango da.

– Noiz izango da leiaketa ori...?

– Gaur zortzi, gazte, baiña badiñotsut barrero, jardun ori lortzea ez yatzula (zatzula) erraza izango.

– Eskerrikasko, parroko Jauna, esandako epean emen azalduko naz.

Ander, Andoliñe'ren etxera biurtu zan, eta epea etorri arte, soloko lanak egiten ebazan (zuan), baita egurketea ta iraketea be. Andrea oso pozik egoan, eta bein baten Ander'eri auxe esan eutsan (zion):

– Aizu, mutil, oso pozik nago zurekin, lan andi ta ona niretzat egiten dozulako, eta zure aalegiñak ordaintzeko, abestia obatzeko ezagutzen dodan ezkutuki bat esango dautsut (dizut). Ara... iturri ondoko legarrekin gargar egitekotan, abestia obatzeko litzakizu (litzazuke), erriko abeslaririk onena izateraiño. Onezaz gaiñera, besamotza izan arren be, kanpai-joteko indarretan ez zara iñoren atzetik ibilliko. Eta mezatan egingo dozun diru-eskean, andrazkoai erakutsi egiezu (ezaiezu) aal dozun irribarrerik gozoena...

– Ori baizen erraza, enparaua izango ba'litzakit...

– Edozelan be, ez aztu iturriko legarrakaz gargar egitea.

Laster igaro zan astebeteko epea, eta lau leikideentzako yoale-jotearen iñarkuna asi zan. Ikusle guztiek Ander besamotza zala ikustean, ez eben irabazletzat artu, baiña ez ekien zelako egurrekoa zan etorbarria, eta izan be, abobete azurrakaz geratu ziran, leikideak baiño ordubete bat luzarago joteko gai zala ikustean.

Bigarren norgeiagoka igandeko meza nagusian ospatu zan, eta eleizako lau aulki-erreskadatan sakristau-gai bakotzak jarduteko zan. Andoliñe'ren aolkuari jarraituz, diru-eskean, Ander'ek irribarrerik dizdiratsuenak emakumeai jaurti eutsezan (zizkien), eta ante oneko mutilla izanik, diru-batuketarik andiena jaritsi eban (zuan).

Onen ostean, abestiaren entzunaldia egin zan. Ander'ek astebete aretan egune-

ro iturriko legarrakaz gar-gar ugariak egin izan ebazan (zituan), eta abesteari azkena emon eutsanean (zitonean) eleiztarrek ezin siñistu, orren ondo iñork abestu egikeanik (zezakenik), eta uste izanda, euren illetatan mintzo eder arekin lagunduta, erraza izango litzakiela (litzaiakela) zerura sartzea, emon zeitekean eritxirik andiena, Ander'entzat izan zan.

Eta parroko batzordeak, abo batez besamotz bat sakristautzat izendatu eban. Eta jardun oneri egokionez, baeban bere aukeran etxe txukun bat bizi izateko, eta jakiña, alogera ona be.

Eta egunak joan egunak etorri, bein baten, Andoliñe'ren etxean bazkaltzera deitu izanik, Andra onen loba zoragarri bat ezagutu eban (zuan), eta andik laster alkar maitemindurik, egun zorionsu baten ezkondu ziran.

On da beso bi izatea
besamotz izan-bearrean,
baiña argia bearrago da
munduko bidaldi luzean.
Orixegaitik ba, Ander'ek
begira eban bide latzean,
bildur bagarik aaleginduz
bere saria lortu eban

• • •

Martin, anaietariko gazteenak bakarrik geratu zanean, arri baten gaiñean jesarri-ta, oldozteari emon eutsan (zion), eta onen ondorioz, erabillen makulua jardun bat lortzeko akats andia zala erabagirik, eta barriro erabilteko zirikaldian ez jausteko, arrian joaz zatikatu eban; gero, alboko sastrakan aztertuturik, gorosti-adar ederra ebagi eban (zuan), eta sasiatzal ori belaunpean lokarri bat az ziurtaturik, erri egoki baten billa abiatu zan. Gorosti-adarra, baiña, oiñetakoaan kili-kolo oitzen zanez, bustiñezko eskukada bat az egokitu eban (zuan), eta bideari jarraitu eutsan (zion). Izan be, asmakizun barriaz ibiltea, ez zan itzetik-ortzera lortzen dan gauza.

– Edozelan be, Martin– gazteak bere buruari esan eutsan (zion)– ekiñaren-ekiñez noizbait ondo ibiltzen ikasiko dozu, eta bearreko jarduna baietz jaritsiko dozula egingo neuke.

Martin, barru-indar andikoa izanik, bere oztopoak garaitzeko oitua zan, belanpetik erren geratu zanetik batez be, eta erri andi samar bat aurkitzeko asmoz, ibiltzen asi zan. Aalegin andiak egin bear izan zituan, gorosti-adarraz eta buziñezko txaplastaz ibilli aal izateko, baiña Martin ez zan erraz kikiltzen danetarikoa, eta ekiñaren-ekiñez ibiltea polito menperatu eban (zuan); noizbait, etxetik janariak amaitzen yakozanean, erri eder batera eldu zan.

Lan bat jaristea bearrekoena yakon, eta astirik galtzeke, jardun baten billa erriko kaleak arakatu ebazan (zituan). Alako baten, jangaitegiko baten erakus-leioan, mezu-mutil bat bear ebela irakurri eban (zuan), eta an aurkeztu zan. Ugazabak Mar-

tin goitik-beera aztertu eban, eta bere itxura ontzat emonda, (mutillaren prakak akatsa estaltzen eutsoelako), onartu eban, auxe iñotsala:

– Mutil, jangaiaik etxerik-etxe eroateaz asko ibilli bear izango dozula jakin bear dozu, eta orretarako gerturik izatekotan, jardun ori zuretzat. Ostatuturik ba' dozu...?

– Ez Jauna, arrotza naz.

– Orduan denda-ostean lo egingo dozu.

Arrezkero, Martiñ'entzat aspaldi gogorra asi zan, jangaitegiko aginduak etxerik-etxe eroateko, makiña bat zurubi gora ta beera egiñez, txin-eskukada ezain baten ordaiñez. Jardunaldia amaitzen yakonean (zitzaionean), bere akatsagaitik lerrenak eginda oartzen zan, baita pozik be, bizitzaren garraztasunari aurre egiteko gai zalako. Egunak joan, egunak etorri, baiña, bere adimenean gero ta argiako egiten zan, egoera gogor aretatik urten nai ba'eban, bearreko yakola (zitzaiola) eza-guerak obatu, eta zirt edo zart egiñez, erriko ikastegi baten, gau-ikastaldiak artzen asi zan, bere txin urriak areitan txautuz. Oso latza egin yakon (zitzaion), eguneko lana amaituta, atsedean artu-bearrean, gau-ikasketara joatea baiña bere barruko indarrak aurrera ekiteko eragin eutsan (zion), eta nekaldiak jasanez, aldiaren bidean oartu zan, gero ta gizonago biurtzen zala.

– Edozelan be, Martin– poz baten bere buruari iñotsan -, oba dozu gogoaren ogasuna, sakelarena baiño.

Illabete batzuk edu onetan igaro ziran, eta bein baten, udaletxearen aurretik igarrotean, erriko su-iltzailleen nagusitzarako, leiaketa baten iragarkia ikusi eban (zuan), eta beste barik, argibideak artzeko sartu zan. Ogipeko batek, azterketarako baldintzak ezaguerazo eutsazan (zizkion).

* Kultur orokorraren azterketa.

* Ontzi-ondatu bateko giza-gaizkapena.

* Unama edo soka batetik igotea.

* Ikoti edo jauzketa irukotxa.

Iñarkun oneitan eritxirik onena jaritsi egikeana (zezakena), erriko su-iltzailleen nagusia billakatuko litzake.

Iñarkunetatiko bat, Ikoti irukotxa zala jakitean, bere adorea birrindu yakon. Zelan bera lako erren batek olako indarra egin...? Gaiñera anka motza zala danok ikusiko leukie, eta gaiñera barregarria izango litzake.

Baiña Martin ez zan kikiltzen danetarikoa, eta ondo ausnartu ostean, azur-osa-gille bereizlari on bategana joatea erabagi eban. Onek ezin egikean (zezaken) siñistu, egur zati ta eskukada buziñaz atondutako aztal bat az iñor ebilkeanik. Gazte arek bere etorrerea argitu eutsanean,

– Aizu mutil– esan eutsan (zion)– ikoti edo jauzketa irukotxean, jardun ona egin nai ba' dozu, orain darabilzun aztal barregarri orreri uko egin bear izango dautsazu (diozu). Protesi bat ipiñiko dautsut (dizut), eta ziurtzat emon dagikezu (dezakezu), ez daula iñork igarriko ankamotza zaneanik.

– Zenbat izango da...?

Osagilleak eskatu eutsanak Martiñ'eri kemena ezereztu eutsan (zion).

– Begira, osagille Jauna, neuk mezumutiltzat diardut jangaitegi baten, eta ezin dot olakorik ordaindu.

Urteteko atera abiatzen zanean, errukituriko osagilleak auxe esan cutsan (zion),

– Begira gazte, ez dausut orretarako eperik emoten. Erri onetak su-iltzaillearen nagusitza lortu ezkeru, ordainduko daustazu (didazu).

– Eta txulut egiten ba'dot..._

– Orduan beste munduan ordainduko yat (zait).

Zenbait egun geroago, protesi barriaz Martiñ'ek ezin egikean (zezaken) siñistu, orren ondo ibilli zeitekeanik, eta osagilleari eskerrik beroenak emonda, leiaketarako iñarkunak atontzen asi zan.

Illabete bat igarorik leiaketca asi zan, bost lagunen artean Martin artekoa zala. Kultur orokorraren azterketan polito jardun eban. Ontzi-ondapenean galdua, arin eta ondo gaizkatu eban. Unama edo soka batetiko igokuntzan, askozaz lenengoa gertatu zan. Eta ikoti irukotxa zan azkenengo iñarkunean, osagillearen burubideai jarraituz eta jardun luzearen ostean, ariketa ona egin eban (zuan).

Eritxi osoa udaletxean azaldu zanean, Martin irabazle agertu zan, eta erriko su-iltzailleburua billakaturik, etxe ederraz gaiñera, aloger on-ona artzen asi zan. Jakiña, bere lenengo ordaintza osagillearekiko zorra garbitzeko izan zan.

Bein baten, erriko jauregi eder baten sua asi zan, eta su-iltzailleak ara joanda lanean asi ziran. Alako baten, baiña eta galtzoria joanda zirudiane, gorenetak leio baten neskatilla bat oiuka agertu zan. Zaila zan ara joatea garrak eragozten ebelako (zutelako), baiña ezustez, Martin zurubian gora aalik ariñen igonda, itoteko zorian zan neskatilea, besoetan artuta kalera jatsi eban (zuan).

Jazokizun onek entzute andia izan eban, eta jai batez udalbatzak ospatu eban (zuan), gaizkaturiko neskatileak domiña bat Martiñ'en bularrean ipinten ebal (zuala). Baiña ospakizun onetan, neskatilea aberatsaren biotzean Martiñ'en irudi txairoa josi zan indartsu. Andik laster, egun zoriontsu baten gazte biok ezkondu ziran, eta Maitagarrien ipuiñetan lez, neskatilearen jauregian euren kabia betirako jarri eben (zuten)...

Erren biurtu eban Martin
makur batek gazte-gazterik,
baiña bere adore andia
guztitarako zan gerturik.
Ibilli bear izan zuan
mundutik laguntza bagarik,
baiña merezi eban saria
irabazi zuan azkenik.

OILLAR ZENTZUDUNA

Bein baten, Yosebe alargunaren oillategian nintzala, alboko Txepetx barriemollea etorri yatan (zitzaidan), eta auxe esan eustan (zidan):

– Aizu, Oillarra, Txano gure iratxoaren alde natortzu esateko, zurekin berba egin gura dauala.

Egia esan, neguko egun otz aretan ez yatan (zitzaidan) atsegin beste iñora joatea, baiña gure barrutiko ongilleari ezin nengikion (nezaioken) ezetzik esan, eta artez-arte Murugane'ko basora abiatu nintzan, nire buruari itauntzen neutsala (niola), zer izan zeitekean Txano'k nigandik nai ebana (zuana). Eldu nintzanean, bere areitz-zulotik agertu, eta astirik galtzeke,

– Barkatu egistazu (zaidazu), oillar on orrek– esan eustan (zidan)–, baiña oste-
ra bat eldu yat (zait) jakiñerazoz, gure barrutian ipuiñak ez dirala ezagutzen, eta ori umeentzat oso kaltegarria izanik, zelan edo alan ipuin-txorta bat sortzeko, batzorde bateri lagundu bear dausadala (diodala), eta zeu lurralde onetan oso ospetsua zarea-
nez, zure bizitzaren edeskiaz astea otu yat, eta orregaitik dei egin dausut (dizut), zure gora-beerak edestu dagidazuzan (dezaizkidazun).

– Baiña iratxo maite ori, ni ez naz ospetsua, eta eskertuko neuskizu (nizuke) beste bateri dei egin dagiozula, (dezaiozula), ni bakean utzirik oraingo nire txoko epelean...

–Badiñoer erritar guztiek, zeu lako oillar argiduna nekez aurkituko litzakela Eus-
kalerri guztian, eta beraz, ez zara etxera biurtuko zure gora-beerak niri edestu barik.

Gure Txano'ri ezin nengikion (nezaioken) ezetzik emon, eta nire baitan bilduta izandako gora-beerak gomutara ekarteko, noizbait onetaraxe asi nintzakion:

– Ara, Txano maite ori... Agiñeta basetxean jaiotako goiz argitsu baten, eta gure erriko etxeoandreek diñoenez, aro orretan jaiotako txitak, osasun-
tsuen eta cederrenak izan oi dirala, niri buruz egia billakatu zan, buruko miñik ari-
ñena be iñoiz ez dodalako jasan, baiña ekiodan nire bizitzari. Amairu arteko txiten
artean, Ama-oilloak beti iñoanez, ederrena ni izan nintzan, eta azi-ala, Agiñeta'ko
etxeoandreak garbitutako etxeo oillar zaarra neuk ordeztuko neukela erabagi
eban (zuan), eta oillategiko erregea biurtu ninduan. Izan be, etorkiak zuzen egoala
baieztu eban (zuan), Agiñeta'ko oillategiko ondorengoak barruti osoan ospe andia
lortu ebelako (zutelako), eta bidebatez, etxeoandreak dirutxu politik kutxara eka-
rezala.

Aspaldi luzetxu batez ondo bizi izan nintzan Agiñeta'ko oilloen erregea izanik,
eta niretzako dedu bereiziaren ezaugarritz, etxeo egaztien artean bakarra nintzan

nonaitik ibilteko eskubidea nebala (nuala), eta sukaldeko janari-ondakiñakaz nire giarrak koipetzen yatazan (zitzaizkidan).

Bein baten, baiña oilloen errunketea urritu izan zala, eta orren erruduna nerau nintzala atxakiaz, etxeoandreak ni ordezteko beste oillar bat etxera ekarri eban (zuan), eta oillotegitik kanpora jaurti ninduan. Gau aretan lo egin barik iraun neban, eta arazoa zeatz aztertu ondoren, auxe ikusi neban argi: Yon Deunaren jaiak laster izango litzakezala, eta abagunea ustiatuz, erriko jaiak izanik, burduntzirako izango nintzake. Oldozkun onck etenbarik kezkatzen ninduan, eta nenkusan bide bakarra, etxetik iges egitea zan.

Iru egun geroagoko egunsentian, jaiotetxe maiteari eta nire biotzeko oilloai agur erdiragarria emonez, angó nire azken kukurruku jaurti, eta munduan zear abiatu nintzan.

Udaren asikerea izanik, zabaldua bizitzaz eta eragiñez gaiñezka egoan, eta zelangura jaten nebala, iradu barik bideak zearkatzen nebazan (nituan). Gabean, eta piztien bildurrez, zugaitzetako goiko adarretan nire aukeran lo egiten neban, eta olan egunak joan egunak etorri, oartu barik urrezko udazkena etorri, eta gero curiak eta otzak lagunduta, negua agertu zan. Ezin nengikean (nezaken) ordurarte erabillitako bizimoduaz jarraitu, eta bein-beiñcan besterik ez izanik be, gizonaren ur (urbil) bizi zatea crabagi neban, otzaren aurkako babes izateko baita bearreko janaria be.

Ibarretara jatsi nintzan, eta aurkeztu yatan (zitzaidan) lenengo errira sartuta, egoitz egokiaren billa asi nintzan. Kale batetik niñoala, "AROTZA" idazkunea idatzitako ate baten ondoan, gizon lodikote bat niri begira-begira ikusi aal izan neban (nuan), eta ustekabez,

– Sartu zaitez barrura, oillar zangar ori– esan eustan (zidan) irribarre zabalaz– otz andia da, eta barruko txirloran kabi epel gozoa egin aal izango dozu.

Aren itxura irribarretsua eta kaleko otzak sartzeraz eragin ninduen, eta aroztegi bat lenengoz ikusi neban. Txoko baten txirloraketa andia, erdian mai sendo ta luzea bearreko tresnakaz, ormai eutsita ikusi zeitekezan olak eta enborrak, eta lantegi areri erion erakarpen eta txukuntasunak, aspaldi batez ostatutzat artzera eragin ninduen, eta aga batera ikoti egiñez, didar batez nire onespina autortu neban.

– Ederto Kurruku– arotzak esan eustan (zidan)– aukerarik onena egin dozu, eta ziur naz ez zareala damutuko. Oia ta janaria izango dozuz emen, eta bere garaian jakingo dozu zugandik eskatuko dodana; mundu onetan utsean ez da ezer emoten, eta eretia etorri dakizunean, jakiñaren gaiñean ipiñiko zaitut. Bitartean, ondo bizi, eta ez egizu aztu iñarkunak egitea bearreko osasuna lortzeko.

Egun osoa emon neban txirloraren artean, eta gabaren aurretik, eskukada bete artagarau eskiñi eustan (zidan) nire ostalari barriak, eta jarraian aroztegia itxi eta alde egin eban. Arrapalada baten garauketea iruntsi, eta on-izate beteaz aga baten kokatuta, lo gozo bateri emon neutsan (nion).

Arrezkero, aspaldi zorionsua emon neban aroztegi aretan. Erritarrek, lan-eskabide politik egiten eutsuezan «Txirlora» izeneko nire ostalariari, eta esan zeitekean ondo bizi izaten zala. Bitartean, nik lodi ta indartsu irauten neban, eta «Txirlora»k

iñarkunak egitera eragiten ninduan, agarik-aga ikoti egiñez, eta eguraldia ona zanean, kalera ataraten ninduan, ariñeketeari emon nengion (nezaion), baiña beste oillarrek burrukan egitea zorrotz debekatzen eustan.

Izan be, «Txirlora» aitatzat neban, eta niketz aroztegiaren betirako geratuko nintzan, baiña bein baten...

Larunbata zan, eta aroztegia itxiteko zorian, auxe esan eustan (zidan).

– Begira, Kurruku, biar igandea izan arren be, zure sasoiari asiera emonez, lanean jardun bear izango dozu. Uste dot ondo jokatu dozula, zeugan ainbeste erabilte ona izanda gero batez be.

Ez eban jarraitu gura, eta aroztegia itxita, oiko aparria niri emonda gero, alde egin eban (zuan).

Urrengo egunean, ni besopean artuta, kaleetan zear croan ninduan, eta noizbait pelota-leku bat agertu zan. Sartu gintzazanean, aren erdian ol-esiz itxitako iru bat metroko lauki bat egoan, eta onen inguruan gizonetzko talde andi bat metatzen zan. «Txirlora»k besopean ninduala, eta pelotalekuko txoko baten jesarri zanez, nik ezin nengikean (nezaken) somatu zertarako ekarri izan ninduan, baiña ardurako arazoa zirudian, ikuslecn didarrak itzelak ziran-eta.

Bapatean, gizon ozengailudun batek onetaraxe didar egin eban: «Eta orain Jau-nak, Txiritxi eta Kurruku arteko burrukea izango da», eta niri ezer esan barik, «Txirlora»k esitutako lauki aretara jaurti ninduan auxe iñostala: Aupa Kurruku, garbitu egizu etsai ziztrin ori...!

Zur eta lur eginda geratu nintzan, eta txoko batera baztertu nintzan zer jazoko zanaren begira. Une aretan beste oillar bat laukira bota eben, eta orduan dana argitu yatan (zitzaidan). «Txirlora»ren burruka-oillarra edo auzkaoillarra nintzan, eta niri emondako ostatua bizitzaz ordaintzeko eskatzen eustan (zidan). Ni beti bakezale andia izan naz, eta oillarkideen arteko eriotz-burrukak edo auzkak, basakeri anditzat nebazan (nituan), Erroma-aldietan ospatzen ziranak baizen jasan-eziñak...

Une aretan, ozengailudun aldarrilaria onetaraxe asi zan: «Jaunok, orain Kirriki burrukalari saiatuaren, eta Kurruku oillar zangarraren arteko norgeiagoka ospatuko da. Egin zuen demak astirik galtzeke...!»

Eta itz oneik ozta-ozta amaituta, Kirriki, nire leikide saiatua begiztatu neban. Egia esateko, ni baiño txikiagoa zan, baiña kiriotsu eta ariña, oillar auzkari bateri dagokionez, eta orkatzak labanak baizen zorrotzak. Neu be banintzan nor areri auzpegia emoteko, baiña ez neban ezetarik burrukarik egin gura, eta nire zuertasuna erabilteko gerturik nengoan, iñongo auzkarik eragozteko.

Kirriki txokoan ikusi ninduean, begietatik txinpartak eriozala eta iduneko lumak arroturik, urreratzen asi yatan (zitzaidan). Nire asmoa garatzeko unerik egokiena zan, eta laukiaren erdian jarrita, onetaraxe asi nintzakion:

– Aizu Kirriki maite ori. Ona ekarri gaituenek, gure bizitzatik onura onak ataratea gura dabe. Gutariko bat ilda, edo gaizki zauritua billakatuko da, garaillearen ugazabak bere zizkua bete dagian, eta ori cragozteko, burrukan egiteari uko egin

bear dautsagu (diogu), eta orren ezaugarritzat kokatu gaitezen alkarren ondoan, eta lagun-miñak antzera berba egin dagiogun (dezaiogun) alkarri.

Itz oneik entzutean, Kirriki ondoan jesarri yatan (zitzaidan), eta bakerik andie-nean onezkoak egin genduzan. Ikusleen artean siñistezaren isillunea sortu zan, eta gero gertatzen zana ulertu ebenean (zutenean), amaika birao eta oiutan euren asarrea azaldu eben (zuten). Baiña Kirriki'k eta biok gurean jarraitu genduan, eta ikus-kizuna amaitutzat emon bear izan eben (zuten).

«Txirlora»k besapean artuta aroztegira eroan ninduan, eta an, guztitariko akarrak egiten eustazala (zizkidala), buruzbeerako otzara baten pean ipiñi ninduan, auxe inostala:

– Ederra egin daustazu (didazu) babalasto orrek, baiña otzara orren pean illabete bateko espetxaldia jasango dozu, eta egindakoa aztu ez dakizun, egunero sei artagarau jango dozuz, au da, ozta-ozta bizirik irauteko beste, eta gero ikusiko dogu... Ez nekian oillarren artean guda-aurkako apostoluak izango litzakezanik, arraio gorria...!

Eta ateari danbada gortugarria emonez, oldozkun itunetan murgildurik bakarrik utzi ninduan.

Ez yat (zait) egundo aztuko, otzara aren pean eroan neban (nuan) aspaldi izugarria, jakin barik eguna ala gaba ete zan. Illuntzean, aroztegia itxiteko orduan, agindutako sei artagarauak emon oi eustazan (zizkidan), eta gero ogeitalau orduko gabaren begira egon...

Baiña mundu onetan dana amaitzen da, eta noizbait egun baten, nire burua gainetiko otzara barik ikusi neban (nuan). Arrezkero, «Txirlora»k lan egin bitartean, itzaldi luzeak esaten eustazan (zizkidan) auzka-oillar benetako baten jokaerea, agirian ipiñiz. Baiña nire ardua guztia andik iges egitea zan, eta bein baten, atea erdiz zabalik ikusi nebanean, agur esan barik kalera urten, eta ariñeketan erria begiz betirako galdu neban (nuan). Orduko, neguaren gogortasuna zeozer arindu izan zan, baiña bein baten ustekabeko elurketea agertu zan, eta gizakien egoitza barrero be billatu bear izan neban (nuan)...

Jatsi nintzan, beraz, oster a be gizakien egoitzetara, eta erri polit bat ikusirik, sartu nintzan. Bide guztiak arrabete bi edurrez estaliak ikusten ziran, eta kale nagusitik niñoala, etxe eder bateko atea zabalik ikusi, eta otzak eraginda, sartu nintzan, azterketa bateri emoteko. Barrukoak kanpokoak baizeta ona zirudian, eta leio bateko barrenean kokatuta, etxeko larrain baten iru oillo ikusi nebazan (nituan). Bata gorria, bigarrena zuria, eta bestea baltza. Edozelan be, irurak itxura ederrekoa ziran, eta ezpai barik, etxe aretako janari onaren ezaugarria izanik, antxe bertan neuk be aspalditxu bat igaroko ba'neu, nire mamiñak biribiltzeko ondo etorriko litzakit...

Oldozkun onecitan nengoala, ustekabez didar bat aditu neban, eta irurogeitsu urteko emakume bat niri adi-adi begira egoala ikusi neban, eta gero,

– Kloti Andrea, zatoz, zatoz, arin baten– oiui egin eban (zuan) –, jatokian oillar bat leio-barrenean kokatu da-ta...!

Laster entzun nebazan urrats aztunen etorrerea, eta orduan, itxura apaiñeko ta

adin bardiñeko beste emakume bat sartu, eta ni ikustean zur eta lur geratu zan. Noizbait, neskameari esateko gai izan zan,

– Erremi, uste dozu demoniño orrekin ziur egongo gareala etxe onetan...?

– Baiña Kloti Andrea, oillar bat baiño ez da...

– Bai, Erremi, baiña ez dakit Satanask'ek artutakoa egongo ez ete dan ...

– Ken ortik, Andrea. Otzak beartutako oillar ederra baiño ez da. Ez zara gomutaten lengo baten esaten genduana, ara... gure oilloek ez dabela bearrekoa erruntzen, etxean oillar on bat ez dogulako...? Orra or ba, alagala datorkiguna gure oilloen errunketea obatzeko, au da, gure aspaldiko amesa dan egunen baten iru arrautzak bildutea.

– Egia da ori, Erremi. Orain egunean bat, edo geicenez arrautz bi batzen doguz, eta ori orren ondo janaritutako oilloentzat, ezerezkeria da. Bai, gorde dagigun guretzat zerutik etorritako oillar ori, eta ikusi dagigun... Aurrerapenik ikusten ez ba'dogu, orduan, joan daiten etorritako bidetik...

– Parkatu Kloti Andrea, baiña orduan oba litzakigu (litzauguke), oillar orrekin sukalki on bat atontzea lursagar barriakaz.

– Ez derist txarto.

Orduan, dalako Erremi neskameak leio-barrenetik atzitu, eta len ikusitako larrainera atara ninduan. Ango oilloek inguratu ninduen, eta ondo aztertua izan ondoren, nire etorrera ontzat emonda, ni erakarteko euren itxurea arrotu eben. Ni baiña, gosearen-gosez ez nengoan laztankeritarako, eta janariaren erratillua ikusita, oldartu nintzakion garbitu arte, eta gero, oilloen ezaguera zeatzagoa egin neban. Izan be politik eta ondo beteak egozan, eta etxe aren aukerapena eskuko amabost iruditu yatan (zitzaidan).

Eta arrezkero, galdutako mamiñak irabazten nebazala, oilloai ardurak emoten asi nintzakien, eta gauzak bizkarreko aizeaz joaten asi ziran. Areitariko edozein oillok arrautza ipiñitakoaren karraka jaurti baiño ez, Erremi neskameak esku-yoaleiño batez, errunketearen barria etxetik barreiatzen eban, eta Kloti Andrea etorrita, onetaraxe abesten eben (zuten):

Barriz aditu da etxean
yoale-jote pozgarria
guri adierazoteko
beste arrautz errun barria.
Urrezko oillar bat etorri da
azkar eta adoregarria,
gure oilloai emoteko
galdutako indar bizia.

Jarraian, ugazabandra-neskameak oillategira joanda, arrautza sukaldera ekarren, eurok iñoenez otzago iraun egian (zezan). Nire ustez, emakume biak burutik egin-da egozan, baiña ondo erabillia nintzanez, niri bost ardua.

Eta egunak joan, egunak etorri, errunketea obatzen asi, eta bein baten Erremi

neskamearen yoaleñoak birritan jo eban, emakume arein pozerako, eta andik laster, egun gogoangarri baten, iru bidar entzun zan etxe aretan yoaleño-jotea...

Atso arein poza mugabakoa izan zan, pozaren-pozez egun osoa abesten igaro ebela (zutela).

Gauzak niretzat polito joan ziran aspaldi batez, baiña bein baten arazoa okertu zan, okertu be... Badirudi, emakume arein zorotasunak, oilloak kutsatu ebazala (zituan), eta oneik be burutik egindako aztarnak erakusten asi ziran, egundoko bekaitza alkarri erakusten eutsoela (ziotela). Eurotariko bateri neuk ardura emoten asi baiño ez, beste biak zoroak antzera mokoka ta erpeka erasoten eusten (zidaten), igesari emon bear izaten neutsala (niola). Asiera baten bakea sortzeko aalegindu nintzan, baiña dana alperrik billakatu zan, eta azken baten ez neban beste biderik ikusi, sorgin areitatik aldentzea baiño, eta olan ba, udabarri aretako egunsenti argi baten, gure estalpeko teillatura ikoti egin, eta andik laster kalean nintzan...

Eguraldia ederra zan, eta nire kabuz bizi izatea erabagi izanik, ibar-gaiñetiko bideetatik abiatu nintzan nora ez nekiala, aroak eskintzen eustazan (zizkidan) garau eta zizarak janaritzat artuta, eta bein baten bidezabal batetik niñoala, iragarki auxe ikusi neban (nuan): «Argiluze, gaberdiko eguzkia ezagutzen dauan erriak». Zur eta lur geratu nintzan, Euzkadi'n olakorik ez zalako ezagutzen. Bideari jarraitu neutsan (nion), eta barriro be, beste iragarki bat, gaberdiko eguzkiaren ikusketea ez galtzea, arrotzai eskatuz. Niri be, edozein txangolariaren antzera, dalako ikusgarria ezagutzeko zirika gogora sartu yatan (zitzaidan), eta iru kilometrora egoan errirantz abiatu nintzan.

Erri polita ta txukuna zan, eta enparantzara eldu nintzanean, arrizko oroigarri eder bat ikusi neban. Arrian idatzita, auxe irakurri zeitekean: «Kaiku'ri, erri onetako seme argiari, gaberdiko eguzkia ekarriagaitik», eta besaulki baten jesarrita, giza-irudi bat egoan.

Nor izango ete, gaberdiko eguzkia erri aretara ekarri ebanaren oldozkunak zirikatuta, azterketa batzuk egin ondoren, ona emen jakin nebana: Argiluze erria oso lur-jota egoan, leku baztertu baten aurkitzen zalako, eta augaitik arrotz edo txangolari gitxi etorren erriko ikusgarriak ezagutzera, eta bidebatez bearreko ogerlekoak eralgiteko. Arazo garrantzitsu au luzaro erabilli ondoren, bein baten udal-txean erriko batzar nagusi baterako deia egin zan, eta alkateak iragarri eban, arrotzak erakarteko asmatu zeitekezan burutapenak sarituko litzakezala.

Iru illabete igaro ziran, eta noizbait, Kaiku'k erriko seme argiak, udaleko batzar nagusi baten burutapen bikain bat aurkeztu eban (zuan).

– Udal Txit Bikaiña– esaten asi zan–, nire adimena estu-estu erabilli ondoren, ona emen zer dakartsuet: ondo dakizuenez, Iparreko errialdeetan udako gaberdietan eguzkia ez da ezkututzen, ozta-ozta luraren muga miatzkatuta, barriro be gora egiten dau egunsenti zoragarria biurtuta. Bereiztasun onek zenbatu-eziñeko arrotzak erakarten ditu, diru asko jasoten dabela. Zer eta geuk Argiluze'n ordulariak iru ordutan aurreratuko ba'gendukez...? Orduan gaberdiko eguzkia izanik, makiña bat txangolari etorriko litzakigu (litzauguke), eta dirua parrastaka gure kutxatara...

Amaitu aurretik, udalbatzaren txalo-jote itzelak bere itzak ito zituan, eta abo batez, Kaiku, Erriko Seme Txit Argia izendatu izan zan, eta sari andi bat emenez gaiñera, erriko enparantzaren erdian orain ikusten dan oroigarri ederra eraiki izan zan.

Eta gaurko argibide indartsuakaitik, arrotzak Argiluze'ra parrastaka etorten asi ziran, erriko kutxak diruz beteten zirala. Auxe zan ordurarteko erri aren edeskia, eta Kaiku il zanean, ederrespen ezaugarritzat, bere semetariko bat, Kaiku II'gna, alkateztzat aukeratu izan zan.

Oraindiño, gaberdiko eguzkirarte illabete batzuk peitzen baziran be, erri aretan geratzea erabagi neban (nuan). Benetako oillarra nintzanez, banekiazan aureskuaren aldi batzuk dantzan egiten, eta urrengo igandean, meza nagusitik eleiztarrak urteten ziranean, agintza-makilla eskuan ebala (zuala), alkatearen aurrean auresku dantzan egin neban. Amaitzean, ikusleek eta agintariek txalo-jote andi batez nire antze ikusgarria ospatu eben (zuten).

Urrengo egunean, baiña, enparantzaren zear astia emoten niarduala, urizain batek, udaletxean nire begira egozala esanez, areto nagusira eroan ninduan. Une aretan Batzar Nagusia ospatzen zan, eta sartu nintzanean, Udalbatz guztiak txalo-jote batez artu ninduan. Onespenaren ezaugarriak amaitu ziranean, alkatea, (Kaiku II'gna), onetaraxe asi zan:

– Udalkide maiteok: Kurruku oillarrak atzo eskiñi euskun (zigun) dantzaldiak, nire adimena argitu egin dau, baita erabagi onetara eragin be: Zer eta gaberdiko Eguzkiak gaiñera, arrotzek Kurruku'ren auresku ikusiko ba'lebe (ba'lute)...?

Arritasunezko isilla sortu zan itz orreik entzutean, eta alkateak onetaraxe jarraitu eban.

– Augaitik ba, lagunok, oillar ori gure babespean artu dagigun (dezagun) esondatzen dautsuet (dizuet), eta urte osoan zear gure pentzutik janaritu izan daitela eskatzen dautsuet.

Azken itz oneik txalo-trumoi andi batek amatau ebazan (zituan), eta jarraian, egunero kilo-erdi artagarau nire aukeran izango neukela erabagi zan.

Aspaldi zoriotsua gozatu neban, lan egin barik jan nengikeala (nezakela) asetu arte. Baiña... zoriona ez da amaibakoa, eta gauzak okertu yatazan (zitzaizkidan) okertu be. Ara... Kaleko argimutil barriakaz lengo zaarrak ordezte erabagi eban (zuan) udalbatzak, eta orren eralguntzari aurre egiteko, beste aldetik aurrezpenak egin bearko leukez, eta udalbatz argi bateri egokionez, ori erriko oillarraren lepotik egitea erabagi zan, eta nire kilo erdi artagarau, berreun gramora gitxitu zan. Txarre-na, baiña etorteko zan, artagarauak gariakaz ordeztu ziranean, askozaz merkeagoak ziralako, eta noizbait, jeiñutasun aldikada batek eraginda, Kaiku II'gnak areago aurrezteko, Batzar Nagusi baten, garia oloaz ordezte lortu eban.

Batzar aretan lekuko izanik, ezin nengikean (nezaken) nire osteria barik alako bidebagekeririk ontzat emon, eta asarre gorrian leio batetik kalera egan egin aurretik, iru kukurruku indartsuak jaurti nebazan (nituan).

Argi egoan, gerturik ez nengoala erriko argi-mutillen aurrezkie nire lepotik egi-

tea, eta udako gaberdiko eguzkia ikusteko arrotzak etorri baiño len, Kurruku oillar ospetsuak Argiluze'tik alde egitea erabagi eban.

Erritik urtetean, arrotzak erakarteko ozengaituak entzuten ziran lelo auxe barreiatuz:

Kanpotar maiteok ez galdu
Argiluze'ko miraria,
Udan ikus dagikezuen
gaberdiko gure eguzkia.
Munduan errialde gitxi
kidetuko Euskalerra,
baiña gure aberriko aintza
emen dozue izpegia.

Irribarre egin neban (nuan) nire barrurako, eta bideari jarraitu neutsan, jakin bage utzirik, zelan amaituko litzaken erri aretako argimutillen arazoa.

Eta eguraldi ona zanez, mendietako bideak eta zabaldiko babes ustiatuz, iradu barik baniñoan izadia ederresten, emen lo egiñez, or zizarak jaten, eta an ikuspegia gozatuz... Eta beiñola mendiko egalean erri bat kokaturik ikustean, aren txukuntasunak erakarrira ikertzea erabagi neban (nuan), eta aratu nintzan. Sartzeko zorian nintzala, etxol baten aurrean, emakume bat arrizko jesarleku baten negarrez ikusi neban, eta aren itxurak errukituta, alboan geratu nintzakion.

– Ai ene bada -iñoan gaisoak negar baten –, badira iru egun nire oillo ona, maigarria, ostendu yatala (zaidala). A zan oilloa esan bear dana, iru egunez arrautz bi erruntzen eustana (zidana), eta alargundu nintzanetik begiratutxuan izanik be, bizi aal izan naz, baiña nire oillotxuak emostan obaririk bage, gosea ezagutzen asi naz...

Une batez emakumea isildu zan, eta gero niri begira-begira,

– Aizu, oillar eder orrek– esan eustan (zidan)–, ez daustazu (didazu) lagunduko nire oillotxua billatzen...? Jakiña, orretarako, zelakoa dan azaldu bear dautsut... Ara, nire oillotxuak gangarrean izpitxu zuri bat dauka, eta augaitik ez dozu buruausterik izango ezagutzeko, gaiñera, erriko emakume batek jakiñerazo daust (dit), on Bittor, erriko jauntxoaren oillotegian ikusia izan dala, eta andik osteratxu bat egingo ba'zendu... On Bittor'en oillotegia erriko goikaldean dago, zubi bat igaro ta gero. Ai, oillar eder orrek, ekarri ba'zengit (ba'zenezait)...!

Eta berba oneik esatean, malkoai eutsi eziñik, atsotxuak zapiño batz txukatu zituan. Ezin nengikean (nezaken) emakume aren negarra ikusi, eta kurruku batz baketuz, errira sartu, eta berak esanda lez, zubia igarorik, laster oillategi eder baten aurrean nintzan. Ez neban iñoiz ordurarte ainbeste oillorik ikusi, an bosteunetik gora egongo litzakez-eta. Lekua loro-sare batz inguratuta egoan, baiña ori neulako batentzat ez zan iñongo oztoporik, eta azpi-lan baten bidez laster nengoan besaldeen. Iru oillar urreratu yatazan (zitzaizkidan) banan-banan, baiña irurok moka uxatu nebazan (nituan), eta ango jaun eta jabe egiñik, oilloak aztertzen asi nin-

tzan. Laster ikusi neban gangarreko izpi-zuriduna, eta txeratsu ta maitekor dei egiñik, nigana erakarrira, loro-sare azpitiko zulora eroaten asi nintzan. Alako baten, baiña, gangarreko izpi-zuridun beste bost oillo ikusi nebazan (nituan), eta goi-arnasak eraginda, bereala egitekoa erabagi neban (nuan)... Bai, On Bittor, erriko jauntxuak alargun ezeuki bateri oillo bakarra ostuz gaiñera, egun batzutan bearreko arrautza kendu izan eutsan (zion), eta orduan, nire adimen oillarkoiak zuzentzat erabagi eban, bost oillo areik obendunari kendu, eta alargunari ordaintzat emotea. Orduan ba, ostutako oilloaz gaiñera, beste bostak erakarrira, loro-sarearen azpitik dei egin neutsen (nien) eta erriko kaleetan zear, sei oilloko taldeaz abiatu nintzan. Laster baiña uste izan neban, on Bittor'en entzumenera elduko litzakiola (litzaiokela), bere oillategiko sei oilloak alargunaren etxera joan izan zirala, eta olako salakuntzea uxatzeko, mendiko bide bat artu neban (nuan), eta gautu zanean, zabaldian zear eta ikusiak izan barik, alargunaren etxolara biurtu gintzazan. Yosebe eritxan alargunak, poz baten artu ginduzan, eta bere oillategiko estalpean oilloek eta neuk gaba igaro genduan.

Biaramonean, emakume argia zan Yosebe'k, auxe esan eustan (zidan):

– Begira, Kurruku, argi da bost oillo orreikin geratu naiten zure eritxia dala, eta areago nire estualdia agiri danean. Neuk baiña, oillor bear daben janarirako ez daukat, eta orregaitik mezede anditzat, zerorrek egunero menditik eroan dagizuzan (ditzazun) eskatzen dautsut (dizut), eta gabean etxeko estalpera barriri ekarri. Batz beste, egunean iru arrautz errungo daustez (dizkidate) eta bat niretzat izanik, beste biak salduko dodaz, eta olan lortutako diruaz, nire etxolarako bearreko gauzak banan-banan erosiko ditut. Aizu, oillar on orrek, egingo dozu ori nire alde...?

Kurruku batez nire baietza adierazorik, ordutik bizi barri bateri emon neutsan (nion). Goiz guztietan, egun sentian, sei oilloekin mendira iñoian, eta an zizarak eta garauak atzaparrakaz billatzen erakutsi neutsen (nien), eta illuntzean ase, alargunaren estalpean aga baten lo egiten genduan. Yosebe alarguna lodituz gaiñera, etxol arako erredizak-eta erosten asi zan. Egunak joan egunak etorri, baiña, gangar izpi-zuriduneko oilloak euren arrautzak txitatu ebezan (zituzten), eta urtebete bat igarorik, azitako oillandak erruntzen asi ziran... Yosebe'k orduan, berarekin jarraitu nengian (nezan) eskatu eustan (zidan), iñoizkorik bearrekoen nintzaiolako; orren saritzat etxe aretan beti biziko nintzakela, eta zaarra billakatu neintenean, zar-saridun baten bizimodua izango neukela. Izan be, Yosebe alarguna maite izaten neban baita berak neu be, eta andia billakatu zan oillategiko nagusia izaten jarraitu neban (nuan). Alargunaren ekarriak edo ekoitzak anditzen joan ziranez, etxe eder bat egin eban, eta neskame bi akuratu zituan. Eta niri atsedean izateko garaia etorrita, Yosebe alargunak bere agindua bete egin dau, zaarsaridun baten bizimodua niri emenez, orain bake osoan bizi izaten nazala.

Eta gaur, Txano, Murugane'ko iratxo maiteak, umeentzako ipuintzat, nire bizi-tzaren gora-berak edestu dagiodazala (ditzaiodala) eskatzen daustanean (didanean), poz-pozik jaramon egiten dautsat (diot).

Txano iratxo onagandik
eldu yat orain bere naia,
umeentzat idatzi dagidan
ipuin baten gertakaria.
Edeskiak dira benetan
umeentzat urre gorria,
ezerk ordaindu ezin daiken
mundu baten zoragarria.

Oraintxe entzun dozuena
ez da iñongo guzurkia,
niri jazorikoa baiño
benetan eta egitia.
Artu egizue maiteok
oillar onen ikuspegia,
billatuz creti guztietan
on-egiñaren sari andia.

Oillar Zentzuduna.

GABONETAKO JOALEAK

Arratsalde aretan, sutondoan geisorik egoan bere ama otz ez zeiten burusi batez bildu ondoren, sukaldea isastuta Mirentxu amaren ondoan jesarri zanean, onek auxe esan eutsan (zion),

– Aizu maite ori, orain eleizan Jaiotza ipiñi barria da, eta on litzakizu (litzazu-ke) andik osteratxu bat egitea Gure Jaunaren Etorrerea ospatzeko. Zoaz, kalectan oraindiño naikoa argia dozu-ta.

Mirentxu'k mosu bat emon eutsan (zion), eta soingaiñekoa sartuta, kalera abiatu zan. Baziran urte batzuk, erri aretako jende asko makur ezezagun batek jota egoala, eta onein artean, Mirentxu'ren ama geisotariko bat zan.

Laster eldu zan Mirentxu eleizara, eta astirik galtzeke, Jaiotza astiro-astiro begizatzen asi zan, azkenean estalpera eldu arte. Emen une luze batez ango irudiak zeatz aztertu zituan, eta Yosu Aurraren irudiak erakarrita begira-begira geratu zan. Olan egoala, ustekabez burutapen bat etorri yakon (zitzaion), eta itz egiteko oinmuturrez jarrita,

– Yosu, Yosutxu maitia– itz atsekabetuaz esan eutsan (zion)–, ez dagikezu (dezakezu) nire ama osatu (sendatu)...? Ara, igaz ezusteko geiso bat erri onetara etorri zan, eta arrezkero, etxean ez dogu gauza onik ezagutu... Zeuk dana dagikezun (dezakezun) orrek, ez dozu nire ama osatuko (sendatuko)...?

Unc luze samar an geratu zan Mirentxu arrenka, eta noizbait, iñongo erantzunik artzen ez ebanez, urrats astirotsuakaz, urten, eta lekoreko arri-mailladian negar baten jesarri zan. Olan egoala, Jaiotzetik mezu bat Murugane'ko ariztira joan zan, eta Mirentxu, etsia, etxera joateko zorian zala, bere alboan mintzo bat aditu zan auxe iñotsala,

– Ez negarrik egin, Mirentxu, oraintxe bertan Murugane'ko nire aretzera joateko zorian nintzala, Jaiotzetik mezu bat artu dot auxe agintzen eustala (zidala): «Esaiozu Mirentxu'ri, erri onetako makurra, “Joaleen Isilla” dala, eta joaletegian muturik dagozan joaleak joten asi daitezenean, erria osatuko da».

– Aizu, nor zara zu Yosu Aurraren adiskidea izateko...?

– Txano, Murugane'ko iratxoā nozu, eta izakiak laguntzeko aalmen batek jota nago. Augaitik ba, jaiotzetiko oraintxe artutako mezuak agindu daust (dit), esan dagizudan (dezaizudan) erriko joaletegia aspalditik lez jotzen asi daitenean, erriak orain jasaten dituan gaitzak, ostenduko dirala.

– Aizu, Txano, eta zer egin bear dot eleiz-dorreko joaleak jotzen asi daitezana...?

– Ori zerorrek ezagutu bear dozu. Nire ustez, joaleai itauntzea gauzarik egokie-

na izango litzake. Orain illunabarra da, baiña biar argitu daitenean, egin dagikezu (dezakezu).

Biaramonean, Mirentxu joaletegiko zurubitik igonaldi neketsu bateri emon eutsan (zion), mailladian gora ekiñez. Urteak ziran zurubiak erabili barik irauten ebala (zuala), eta toki askotan maillak zerenak janda agertzen ziran. Bidean gora joiala, sugeliñe bat ikusi eban (zuan) eta Mirentxu'k auxe itaundu eutsan (zion):

– Aizu, sugeliñe, joaletegiko kanpaiak zergaitik isildu dira...?

Baiña izaturiko sugeliñea, erantzun-bearrean ormako zulo batetik ostendu zan. Goi samar egoanean, ormako utsune baten ontz bat ikusi eban, eta bardin,

– Aizu, ontz maite ori– itaundu eutsan (zion) –, zergaitik isildu dira gure joaleak...?

Baiña begirakune otz batez, ontzak ez eutsan (zion) erantzun gura, eta bere gel-diunean jarraitu eban. Andik laster, Mirentxu joaletegira eldu zan. Iru joaleak gel-ditasun osoan egozan. Bata andia, bestea bardingoa eta irugarrena txikia. Miiñak eta eusgarriak ugerrez beteak agertzen ziran, eta barrero be, neskatoak itaundu eutsen,

– Esaidazue, arren, joale maiteok, zergaitik isildu zarie...?

Baiña iru joaleek mutu irauten eben (zuten), besterik aditzen ez zala, joaletegi-ko leioetatik uluka sartzen ziran aizearen asperenak baiño. Malkoai ozta-ozta eutsirik, Mirentxu'k joaletegian beera biurtzea erabagi eban (zuan), baiña onen aurretik dorrearen goikaldera igon zan. Arrituta, aspaldiko amiamokoen abi zaarra orain ia ondaturik ikusi eban (zuan). Gogora etorri yakon (zitzaion), amari entzun izatea aspaldi baten egazti orreik udabarrian etozala, eta udazkenean beste lurralde batera ostenduta gero, urrengo udabarrian barrero be oiko bikotea joaletegiko kabira biur-tzen zala.

Andik ikusten zana zoragarria zan, eta abo zabalik neskatoak bere erriko ikus-pegia orokorra lenengoz artu aal izan eban (zuan). Kaleak albaiña mee-meeak emoten eben, eta an, erriko auzo baten, bere etxetxua ikusi zeitekean. Une luze batez bere erriko ta onen inguruko edertasuna nekatu barik begizatzen emon eban. Azkenean, erriko inguru baten egoan padura edo istinga agertu yakon (zitzaion). Len egazti ta igelen bizitokia zan, baiña orain, neguko ituntasunak jabetua, bizitzaren indarrek deslaituta emoten eban (zuan),

Ango begiratokia uzteko zorian zala, padurrean zeozer bizirik egoala antz emon eutsan (zion), eta begiak zorrotzuz, nekez ebillen egazti bat ikusi eban (zuan), kisketean errenka janariaren billa ziardua. Alako baten, moko luzeaz klak-klak egiten asi zan, laguntzaren antzekoa. Ezpaibarik, egazti arek sorospena eskatzen eban (zuan), eta Mirentxu errukitsua zanez, tamal andia artu eban (zuan). Luzaro egon zan egaztiaren joan-etorriak begizatzen, eta noizbait, isildutako joaleai azken begi-kadea jaurtirik, tamal andiz joaletegian beera jatsi zan, eta kalera elduta, etxerakoa egiten asi zan... Baiña, gauza bakana, padurako egaztiaren sorospen-deiak aditzen ebazala (zituala) begitandu yakon (zitzaion), eta etxe-aurretik igarotzean, gelditu barik bideari jarraitu eutsan, eta zelan ez ekiala, andik ordu-erdi batera padurako zelaia agertu yakon (zitzaion). Laster entzun ebazan (zituan) egaztiaren sorospen

edo laguntza-eskaerak, eta urreraturik, amiamoko gaixo bat ikusi eban, kisketean nekez ebilkeala. Mirentxu alboratu yakon (zitzaion), eta egoak laztanduz auxe itaundu eutsan (zion):

– Zer jazo yatzu (zaizu), maite ori...?

Amiamokoak neskatoaren txerak poz baten artu ebazan, eta berba egin aal izan ba'leu, bere ezbearra edestuko eutsan (zion). Ara... Egorako bidegitea asteko zorian zala, azeri baten eraso jasan eban (zuan), eta piztia uxatu aal izan baeban be, burru-ka aretan anka bat ausita, erren billakaturik zan, eta bere lagunak egorako bidegiteari emoten eutsoenean (ziotenean), bakarrik geratu bear izan eban (zuan), eta erren-ka, aal eban lez bizirik jarraitu eban nekez janaritzen zala. Egunak joan egunak etorri, baiña, indarrak galtzen asi zan, eta bere azkena egun gitxi batzuen arazoa zan. Mirentxu'k abere guztiak maite ebazanez (zituanez), amiamokoa gaizkatzea erabagi eban (zuan), eta besterik oldoztu bage, egaztia besoetan artuta, nekez bazan be, etxera eroan eban (zuan).

Iritxi zanean, amak arrituta itaundu eutsan (zion),

– Baiña ume, zer dakarstazu or...?

– Begira, ama, joaletegiko goikaldetik amiamoko gaixo au paduran ikusi dot, eta errukiturik, zaintzeko etxera ekarri dot. Bakizu ama... Yosu Aurra maitasuna ereintzera geugana etorri da, eta maitasunagaitik, neuk egazti gaixo au osatu gura dot. Utziko daustazu (didazu) gure etxean zaindu dagidala (dezadala)...?

– Bai, laztana, etxean egongo da bere lengora biurtu arte, eta augaitik zaurituta-ko anka osatzen asiko gara.

Eta amaren laguntzaz Mirentxu'k amiamokoaren zaintzeari emon eutsan (zion). Zauria ardurazkoa zan, baiña egonarriz eta maitasunez, Mirentxu'k arloari emon eutsan (zion), egunero garbituz, eta obaten zala ikustean, anka-azurra zotzakaz indartu, eta noizbait egaztia anka biakaz ibilteko gai izan zan. Baiña au ez zan nai-koa, amiamokoari padurako janaria ekarri bear izaten yakon (zitzaion), eta Mirentxu'k eguneroko lan astun bateri emon bear izan eutsan (zion). Aitzur eta suillaz, goiz guztietan padurara joian, eta an aitzurketa-lan neketsu bateri emotsan, ertzeko zizarak artzearen. Etxera biurtzen zanean, pozaren-pozez amiamokoak bere moko-tzarraz “klak” eta “klak” egiteari emotsan, eta neskatoak ekarritako janaria amaitu arte, ez eban (zuan) atsedetik artzen. Edu onetan, egaztia indartzen zan, eta lumak lengo dizdir ederra artzen eben (zuten); noizbait, udabarriko egun eguzkitsu baten, ama-alabak amiamokoa bere kabuz biziteko gai zala erabagirik, Mirentxu'k padu-rara eroan, eta antxe bertan askatasuna emon eutsan (zion). Udabariaren eragiñez eta paduraren edertasunaz, Amiamokoa zoratzeko zorian oartu zan batetik bestera egin egiñez, eta ango zizarak eta airaiñak janez, eguna emon eban. Mirentxu etxe-ra tamalez biurtu zan bakarrik, baiña azkenean on-egiñaren pozak bere biotza alai-tu eutsan (zion), eta oeratzean, osatutako egaztiaren alde otoi egin eban (zuan), onik eta osasuntsu jarraitu egian (zezan).

Udea biurtu zan, eta padurako janari indargarriaz sendotuta, lengo ezbearrak aztu eginda, amiamokoa zorionsua oartzen zan. Guenez, egunen bidean udazkena

elduta, zabaldia urrez bete zan. Orduan, Europa'ko amiamokoak saldoka, Afrika'ko lurralde epeletara biurtzen ziran. Padurako amiamokoa be, garaia etorri izan yakola (zitzaiola) uste izanik, illuntze baten bera be eurokin urrengo egunean egorantz abiatuko litzakela erabagi eban (zuan)... baiña biaramonean, alde egiteko gertatzen zanean, Mirentxu'ganako maitasunak joatea eragozten eutsala (ziola) oartu, eta paduran negua emotea erabagi eban (zuan).

Eta barriro be Gabonak eldu ziran, eta amak eraginda, Mirentxu Jaiotza ikustera joan zan. Lengo urtean lez, Yosu Aurrari bere amaren gatxa osatu egian (zezan) eskatu eutsan (zion), eta eleizatik urten zanean, sarrerako malladian jesarrira, negar mingotz bateri emon eutsan. Ostera be, Yosu Aurrak Txano eratorririk, onck neskatuari esan eutsan (zion) erritarren eta bere amaren gatxa kenduko litzakiela, aspalditik isildutako joaleek barriro be jo egingo ba'lebe.

– Txano nirea, orixe bera igaz esan zeustan (zidan), baiña joaleek isillik jarraitzen dabe. Zer egin dagiket (dezaket)...?

– Ori eskatu egiezu joaleai

Mirentxu joaletegiara igon zan, eta lengo urtean lez itaundu eutsen (zien), zerk eragingo eutsen joaleai len lez jotera. Baiña joaleek isillik zirauela ikusirik, Mirentxu dorrearen goikaldera igonda, aspalditik deslaitutako abia ikusi eban (zuan), eta gero, joan aurretik erri-inguruko edertasunari begiratu eutsan (zion), eta padura ikustean biotz-ikara batek menperatu eban (zuan)... Bai, berak joana zala uste izaten eban bere biotzeko amiamokoak, batetik bestera itxura neketsuaz janari billa ziarduan. Arin baten joaletegitik jatsi, eta erria atzean utzirik, padurara joan zan, eta amiamokoagana joanda, besarkatu eban, auxe iñotsala,

– Baiña oraindik emen...? Uste izaten neban (nuan) joan izan zintzazala.

Amiamokoak, baiña, ezin egikion (zezakion) esan Mirentxu'ri beraganako maitasun utsaz, an zirauala. Neskatoa oartu zan egaztiak otza jasaten ebala, eta orduan burutapen batek jota, besoetan artu, errira biurtu, eta astirik galtzeke, joaletegiara gora goikaldera croan eban (zuan), eta abi zaarrera eldutean, txeratsu auxe esan eutsan (zion):

– Begira, amiamoko maitia, ez dakit zelan, baiña nik uste, Yosu Aurraren guraria dala zeure asaben abira biurtu zaitezala, neguko otzari aurre egiteko, eta neuk zaindu zaidazan (zaitzadan).

Eta au esanda, polliki-polliki abi-barruan ipiñi eban... baiña orduantxe, aingeru batek eraginda bai'litzazan, lenengo astiro, baiña gero ariñago oiko arintasuna jaritsi arte, isildutako joaleak iraulka alaiaz joten asi ziran, errian esan ezin-alako zoriona iratzarritz... eta erritar guztiak kalera urtenda, Gabonetako Joaleek erria gaizkatu izan ebela alkarri iñotsoen, lengo gatxak jotakoak osasunez ikustean, eta erritar guztiak tarteko zirala, Gaberdiko Meza ospatu zanean, eten barik joaleek jo eben alaitasun betean. Joaletegiara abian, amiamokoak epeltasun bizigarriaz inguratuta, Jaunaren Jaiotza be ospatu eban (zuan)...

Eta udabarria iritxi zanean, padurako amiamokoak Afrika'tik etozan lagunaren igaroteari itxaron eutsan (zion), eta alako baten, zeru urdiñaren zear joaletegiara

kabian lagun bat egoala ikusirik, amiamoko ar eder bat jatsi, eta padurakoarekin bizitza osorako alkartu zan. Uda guztietan kume bi jaioten yakezan (zitzaizkien), eta udazkena etorreanean, guraso-kumeak Afrika'rako norabidea artzen eben (zuten); udabarrian ostera, padurako amiamokoa lagunarekin biurtzen zan, eta betiko abian kokatuta, aspaldi zoragarria emoten eben, euren mokoetako kla-klak joaleai iraulka joteari eragiten eutsela (ziela).

Padurako amiamokoak eta bere lagunak, euren ekanduari jarraituz, betirako alkartu ziran arein maitasun-lokarria iñoiz ausi barik. Il ziran arte, erriko joaletegiara abira udabarrian biurtzen ziran, eta an jaiotako kumeak indartzen ziranean, udazkenaren garaian, egoko lurralde epeletan negua igaroten eben barriro be biurtzeko.

Gabonetako eresiak

Yosu Aurraren igarleak,

jo egizue aurten bere

zuen brontzezko joaleak,

mundu onetan bear doguz

zerurako eragilleak

biotzean oartu daigun

Jaunaren agur maitaleak

Zerurako begiraleak,

amiamoko abi garaiak,

ortzira begira zaitugu

maitasunen ezaugarriak.

Bikote zintzoen egoitzak,

zuen alkartasun biziak

gizonentzat izan daitezke

jarrai bearreko bidiak.

XABIER'EN ZALDIA

Barrero be gabonetako jaiak etorri ziran, baiña Xabier'en etxean atsekabe bizia danaz jabetua zan. Aspalditxutik, etxeko kutuna, Andoni, gatx ezezagun batek jota oetxuan zetzan sukar gaizto batek jota. Xabier'ek, bere anaitxuaren alde otoi eta otoi egin arren be, etxeko kutunak ez eban obazko-zantzurik crakusten. Atsekabeak jota egoan bein baten, kaletik mutikoen talde bat Jaiotzari abesten igaroten zirala entzun eban (zuan), eta beste barik, kalera urten eta eurokin abesten, Jaiotza iker-tzera joan zan.

Luzaro samar antxe iraun eban, Jaiotzaren arrigarriak ederresten, eta bere anaitxuaren maitasunak eraginda, Yosu Aurrari, onetaraxe otoi egin eutsan (zion):

Kaleak argitan dagoz,
dendak jostailluz beteak
baiña ni, Yosu Maitia
itoten nau naigabeak.
Aspaldiz bakarrik nozu
galduta bizi-adoreak,
gure etxea isillik dago
joan dirala barreak.

Emon zeustan anaitxua
geisorik dago oe txikian
ezagutzen ez nauala
bere ondoan nagonean.
Begiak itxita ditu
buruko zuri gaiñean,
ames larriak artuta
zoro biuru bai'litzan

Zure jaiotza ospatzen da
erri ta lur guztietan,
jostaillu asko ikusten dala
umeen etxe alaietan.
Zaldi eder bat ikusi dot
aspaldi ontako amesetan,
baiña orain ez dot ezer nai
nagon kezka bizietan.

Ez dot jostailurik bear
Yosutxu maite-maitia,
bera bakarrik gura dot
nire anai kutun txikia.
Etxeko poztasuna da,
alaitzen gaitun txoria,
nirekin jolastu ezean
ez niri ekarri zaldia.

Ama negarretan dakust,
aita naigabe bizian,
etxea itzaletan dago
jaio zaran egunian.
Zorion amaibakoa
nagusitzen da ludian,
osatuizu nire anaia
neugaz jolastu dagian...!

Eskaera onen ostean, Xabier etxera biurtu zan, eta bere anaiaren gelara joanda, egiztatu aal izan eban, bere Andoni maitiak lengoan jarraituz, ez eutsela (ziela) bere itz maiteai jaramonik egiten, eta oiñaze baten etxeko atcaren ondoan jesarrita, negarri emon eutsan (zion). Olan egoala, bapatcan Txepetx bat bere ondoan kokatu yakon (zitzaion), eta samur auxe itaundu eutsan (zion).

– Aizu, mutiko, zer dala-ta orren etsia negar egiteko...?

– Ai ene bada...! Andoni, nire anai kutuna aspaldi onetan geisorik dago sukar batek artuta, eta berba egin arren be, ez nau ezagutzen. Gabonak ospatzeko, gura-soek zaldi eder bat ekarri dauste (didate), baiña nire anai kutun barik, ez dot jolastu gura. Oraintxe bertan Jaiotzaren ondoan Yosu Aurrari biotzez eskatu dauatsat (diot), nire anaitxua osatu dagian, baiña es nau entzun gura, len baizen geisorik dago-ta.

– Aizu, Xabier, ez galdu itxaropena, eta jarraitu otoi egiñez...

– Badakizu zer egingo dodan, Txepetx ori...? Nire eskaera aztu ez dakion, zaldia Aterpearen ondoan ipiñiko dot, ia ikusiaren-ikusiz, nire eskaera ontzat artzen dauan...

– Ondo derist orreri, Xabier, baiña, neuk be zoezer egingo dot, eta oraintxe bertan, Murugane basoko Txano iratxoa jakitun ipiñiko dot.

Eta Xabier'ek negarrez jarraitzen ebala (zuala), Txepetxa Murugane'ko basora joanda, Txano iratzarri eban, illuntzea izanik lo egoalako.

– Zer nai dozu Txepetx orrek, ez al dozu ikusten au nire lo-aldia danik...? Joan zaitez, eta biar goizean jaramon egingo dauatsut (dizut)

– Bai, baiña Xabier, oso larri dago Andoni bere anai kutunaren gatxagaitik, eta laguntzaren billa zeugana etortea otu yat (zait).

– Nasaitu zaitez, Txepetx maite ori, biar egunsentian arazo orreri ekingo dauatsat (diot). Gabon...

Onen ostean arrausi andia egiñez, Txano lotan asi zan. Eta agindua izan zanez, eguzkia ozta-ozta agertu zanean, Txano errira abiatu zan, eta artez-arte Jaiotzara joanda, Yosu Aurrari auxe esan eutsan (zion),

– Jaungoikoaren semea zarean ori, Xabiartxu'ren alde natortzu; badakizu bere anai kutuna gatx larri batek artuta dagoala, eta aren makurra kendu dagiozun (dezaiozun) eskatzera nator.

– Bai, Txano maite ori. Atzo arratsaldean Xabiartxu'k bere anaiaren alde otoi egin eustan (zidan), eta bere arazoa aztu ez dakidan, Gabonetan artutako bere zaldi ederra or bertan ipiñi daust. Begiraizu zein ederra dan.

Txano'k zaldiari begiratu eutsan (zion), eta izan be jostailu eder-ederra zan. Zaldi baltz kulunkaria zan eta bere begi eder sarkorrek oso argia zala adierazoten eben (zuten). Une luze batez Txano'k ari begira iraun eban, eta gero,

– Ederra da. Izan be, Xabier'ek asko maite izan bear dau bere anai kutuna, zaldi bikain orreri uko egiteko.

– Bai, Txano, atzo ekarri eustan (zidan) esanez, bere anaia barik ez dauala jolastu nai, eta aren gatxaren gomutagarritzat, emen geratuko litzakela...

– Aizu, Yosu Aur maite ori- eskatu eutsan (zion) Txano'k-, ez al dozu zoezer egin bere anai kutunaren alde...? Gaur bake ta zorionaren eguna da leku guztietan, baiña Xabier'enean dana atsekabe ta malkoak dira...

Yosu Aurra une batez isillik geratu zan, eta gero, astiro auxe esan eutsan (zion):

– Zoaz Xabiartxu'gana, eta esaiozu nire alde, gorosti guztiak aro onen maitasunaren ezaugarritzat garau edo ale gorriakaz beterik dagozala, eta areitariko adar bat artuta, bere anai kutunaren oe-buruan ipiñi dagiala (dezala).

– Eskerrik asko Yosu maitia, oraintxe bertan aren billa joango naz.

Txano arin baten Xabier'en etxera abiatu zan, eta mutikoa atearen ondoan negarrez ikusi eban.

– Aizu, Xabier, Jaiotzetik nator, eta izan be, antxe utzi dozun zaldia eder-ederra da.

– Ez niri aipatu zaldirik, jolastu gura ez dodalako. Gaur gure etxean negar-eguna da, eta jostailurik ez dot ikusi gura be.

– Ba al-dakizu, gauza bat Xabiartxu...? Ara... Yosu'ri zure anai kutunaren alde mintzatu natzaio, eta auxe esan daust (dit): joan zaitezala mendira, eta ale gorritan dagoan gorosti-adar bat artuta, Andoni'ren oe-buruan ipiñi dagizula (dezazula).

– Uste dozu Txano maite orrek, Andoni gaixoak ainbeste osagarri alperrik artu ondoren, olako adar ezaiñez osatu daitekela...?

– Ori, Yosu Aurraren agindua izan da, eta zeuri dagokizu men egitea.

Malkoak txukatu ostean, Xabier jagi, eta etxeko aizto bat artuta mendira joan zan. Gorostiak ale gorriakaz gaiñezka egozan, eta areitariko adar bat artuta, etxera biurtu, eta bere anaiaren oe-buruan eskegi eban. Ozta-ozta amaitu ebanean (zuanen), Andoni'k begiak edegi, ocan jesarri, eta abots argiaz etxekoak deitzen asi

zan... Osatuta egoan, eta onen ezaugarritzat, eleizeko joaleak joten asi ziran, eta orduantxe, zaldia ekarrela, Txano etxean agertu zan...

Arratsalde aretan, gurasoekin Xabier eta Andoni Jaiotzera biurtu ziran Yosu Aurrari eskerrak emoteko, eta ona emen Xabiartxu'ren agurra:

Andoni gaizkatzeagaitik
gatorkizuz Yosutxu maitia,
gure eskerrak eskintzeko
ta gure maitasun bizia.
Etxeko lengo atsekabea
biurtu da zeruko argia,
Zu zara Belen'go izarra
ta gure Itxaropen andia.

Txano'k etxera ekarri daust
zerutiko nire zaldia,
jolastean izan dakidan
Zuganako oroigarria.
Osasuna ekarri yakun
gorosti baten adarkia,
Zure onespina ekarren
bizitzaren emokaria.

IGELLEN ITXARKUNDEA

Barrero be, udabarria etorren, eta zabaldua astiro itxarten zan. Padura edo istingako uretan bizitza barriaren zantzuak agiri ziran neguko gelditasun luzearen ostean. Lokatzaren artean, neguko loaldia amaituta, igelen erregea zan Ugarazio eguzkiaren izpick berotuta, yoran menperagaitzak eraginda, lokatzezko oatzea utzita, arri baten gaiñean kokaturik aroko bere lenengo "kro-kro" bizia jaurtiten eban (zuan), eta aren oiartzun amaibageak bai'ltzazan, padurako zabalune guztia bere menpekoen erantzunakaz bete zan. Aintza esan-eziña lakoa, eguzkiaren txerak inguratuta bizitzaren deiak oartzean, maitasun-erakarlea zan Ugarazio'ren dei latzgozoak istinga osoan zear barreiatu ziran lagunemeak dei ta deika.

Izan be, neguko loaldiaren ostean, oraingo itxarkundeak zoramenez eragiten ebazan izaki guztiak, eta bere maitasun-abestia jaurti bitartean, arriaren gaiñetik mii itsaskorraz aal zituan mamorroak arintasan itzelaz atzitzen ebazan.

Berak be bazituan etsaiak bere aurka aalegintzen ziranak. Eguberdiaren inguruan, goiko lerradi edo piñudian, gosez beterik janaria eskatzen eutsuen (zioten) bere kumeek eraginda, sastraka baten babesean utzirik, azerieme eder bat ibarrera abiatzen zan, eta alako baten paduratik etorkiozan igelen maitasun-abestiek erakarrita, bapatean gelditu, eta gero sasitzaren artean narrazka jarraitu eban (zuan). Alako baten, eta arri baten gaiñean abestuz, ango igelen errege ederra begizaturik, ibillera narrartzariaz urreratu yakon eta ur samar egoanean, begiak gosez piztuta gelditu zan. Baekian azeriemeak, igelak ez dabezala geldirik dagozan gauzak oartzen, igitzen diranak baiño, eta begikadea irrikaz irazekia, unetxu batez Ugarazio'ri begiratu eutsan (zion); baiña eraso egiteko gertatzen zanean, ezustez, azeriaren azpitik adartxu bat ausi, eta igela uretan ostendu zan. Abo bete agiñakaz geratu zan azeriak uretara burua emon eutsan, eta asarrez, batetik bestera igelaren billa asi zan, baiña arripeko baten utsunea ustiatuz, igelen erregeak zirkiñik egin barik irauten eban (zuan), eta azeria txokoa aztertzen asi zanean, Ugarazio'k lokatzezko zipristin bat begietara jaurti eutsan (zion), eta ustekabez artutako piztiak begiak igurtziten zitua-la, beste arri baten kokatuta, igelak abesteari jarraitu eutsan (zion).

Baiña igelen etsai guztien arteñik gaiptoena, gizona zan, eta ona emen padurako igelai jazo yakena (zitzaicna) uda aretan: Erriko urdail milikako batzuk, "Txilindron" jatetxe izeneko ugazabari, askotan igel-ankak atontzeko eskatzen eutsuen (zioten), eta arein eskariai jaramon egiñez, jatetxeko ugazabak mutiko batzui igel bakotxagaitik ogerleko bana ordainduko leuskiela (liekela) agindu eutsen, eta igelak arrapatzeko guztitariko zeatzak eta argibideak emon eutsezan (zizkien).

Ona emen bearreko baldintzak: igelak geziakaz atzitu bear izango leukiezan, eta ez zipakaz, onein eztrandak uxatuta ezkutatu litzakezalako, eta orduan arrapaketea jarraitzerik ez. Urreratu bear izango leukie isillean eta astiro, ertzetako zugaitzen artean ikusteziñak izateko. Bearreko uztai-geziak euritako zaarren burdiñezko ziriakaz egin, eta uztaiak atezuan ipinteko, liztariak erabilliko leukiez.

Argibide oneik ondo ikasita, mutikoeak bearreko uztai-geziak atondu ebezan (zituzten), eta udako goiz berotsu baten, istingara joan ziran. Asiera baten, euren gora-beerak jasanda gero, apurka-apurka apara obatu, eta igelak banan-banan zorro baten metatzen asi ziran, eta olan eizaketeari illuntzerarte jarraitu eutsoen...

Eguzkiaren azkenengo printzak Txano'k gozatzen ebazala Murugane'ko basoan, zalaparta bizian Txepetxa etorri yakon (zitzaion), eta didar baten,

– Txano - esan eutsan (zion)-, erriko mutiko batzuk igel-eizeari ekin dautsoe (diote), gure istingako igelen artean eizaketa izugarria egiñez, eta alde egin dabenean (dutenean), biar eizeari jarraituko leuskioela (lioketela) alkarri iñotsoen. Txano, zeozer ez ba' dozu egiten, udako gure igelen erestaldi bikaiñak bereak egingo dau...

Zirrara batek Txano'ri biotza astindu eutsan (zion), eta eguzkia ostendu zanean, gau osoa lo egin-eziñik irauñ eban. Urrengo egunsentian, padurara abiatu zan eta luzaro jardun ostein, Ugarazio aurkitu eban.

– Zer diñostazu lagun maite orrek...?– itaundu eutsan (zion)-, Txepetxak esan daustanez (didanez), atzo erriko mutikoeak sarraski izugarria egin dautsuee (dizute).

– Bai, Txano maite ori, uztai-geziakaz etorriak, isillean eizaketa izugarria egin dauskue. Onezkero, ez dakit guretariko erdiak be bizirik aurkitzen garean... Mezedez, asmatu egizu zeozer sarraski ori eragozteko, bestelan gure udako erestaldia betirako ostenduko da...

Otzikara batek astindu eutsan biotza, eta une batez isillik iraunda gero, Txano'k Ugarazio'ri auxe esan eutsan (zion),

– Beti lez, abesten jarraitu egizue, eta ez izan bildurrik, zerbait otu yatalako (zaidalako)...

Txano'k ez eban gura ezelan be, padurako igelen erestaldi ederra amaitu ekion, berarentzat atseden eta gozamen andia zalako, eta gerturik egoan eziñak egiteko bere adiskideak iraunerazoteko. Bai orixe...!

Biamonean, aurreguneko eiza ugariak adoreturik, mutikoak padurara biurtu ziran, eta uztai-geziak gerturik, igelen ilketeari jarraitu eutsoen. Ustekabez, baiña, Txano'k egan egiñez, eiztari bakoitzaren uztai atezuan zanean, lokarria banan-banan eten egin eutsen (zien), eta eizaketea jarraitu eziñik, mutikoak abo bete agiñakaz errira biurtu ziran, eta "Txilindron" jatetxeko ugazaba, jazorikoaz jakitun ipiñi eban. Onek, baiña, tematsua zanez, altzairuzko ari banaz lengo liztariak ordeztu, eta urrengo egunean, igelen eizaketea bialdu ebazan (zituan).

Txano oraingo arazoaz oartu zanean, eiztariak gezi bakoitzaren muturra okertu eutsen (zien), eta geziak jaurtitean, apara barik nonaiara sakabanatzen ziran, eiza-

ketea eziña biurtuz. Ostera be, mutikoak jatetxeko nagusiagana joanda, euren txulut egitea azaldu eutsoen, eta oso zuurra zan "Txilindron" en ugazabak, beste eizaketa bat asmatu eban. Istinga osoa artzen eban (zuan) sare zabal bat gertatzen asi zan, eta andik iru egunetara, barriro be mutikoak bialdu ebazan (zituan) eizaketea-ri jarraitzeko.

Asmo au jakinda, aurreko gabean Txano'k Ugarazio'ri dei egiñik, azpikaldeko paduraren lokatza igel guztiek eragiteko agindu eutsan (zion), eta igelen erregearen menpekoek gau osoan lan onetan jardun eban egunsentira arte...

Urrengo goizean, mutikoak barriro etorri ziran, oraingo onetan gaiñetik urtengo litzakezala usteaz... Sartu be sartu ziran istingara, baiña lenengo urratsak ozta-ozta egiñik, oiñak lokatzean gero ta sakonago sartzen yakezala (zitzaizkiela) oartu ziran, eta izuak jota, sarea an bertan utzita, arrapalada baten errira biurtu, eta jatetxeko ugazaba euren utsegiteaz jakitun ipiñi eban.

Oraingo onetan, baiña, "Txilindron"eko jabeari asmamena agortuta, besterik ezean, istingako igelak bakean uztea erabagirik, jatetxeko atean, iragarki auxe ipiñi eban: «Abereekiko begiruneagaitik, etxe onetan ez dira igelen anak atontzen»

Eta betidanik oi eban lez, egun beroetan Txano areitz-ostoakaz egiñiko bere euritakoa zabalduta, istingara joian, eta ertzean kokatuta, igelen erregeari deitu oi eutsan (zion), eta Ugarazio'k bere menpekoekin erestaldirik ederrenak atontzen eutsazan (zizkion), gure barrutiko iratxo ongilleak, igelen latz-gozen abestiak illuntzerarte gozatu egiazan (zitzan).

Udea etorri da noizbait
alaituz mendi ta basoak;
ibarreko landaretzari
orlegitu yakoz besoak.
Izadiño pitxi yaukalak
itxartu dira zoroak,
eta zugaitzen asperenak
nonai datoz gozo-gozoak.

Istingako igel lotiak
bizitzara datoz indarrez,
eta lokatzetik astiro
esnatzen dira poztasunez.
Igelen errege bikaiña
abesten asi da yoranez,
eta bere erreñu guztiak
jarraitzen dautso abo batez...

EGILLEAREN BESTE LANAK

1975-OROITZAK	Erri-izparkari baten iruzkiñak
1979-GALDU	Txakur baten gora-beerak
1984-BIDETIK AMESETAN	Olerki-txorta
1986-BORDAZURI	Gudaldiko gora-beerak
1987-BIDEKO IPUIÑAK	Mota guztitariko ipuiñak
1989-MORROIA	Basetxe bateko morroi baten ekintzak
1989-IZADIKO PITXIAK	Gure zabaldiko abere batzuen gora-beerak
1990-PLORENTZI	Oillar baten gora-beerak
1991-YANÓZ	Naparra'ko Erreiñuan jazotakoak
1991-AMESEN ILDOTIK	Olerki-txorta
1992-MENDEKUA	Zuzengabekeri baten oparia
1993-PATXI	Umezurtz baten gora-beerak
1994-ERROTAZAR	Erailketa baten ondorioak
1995-BASAMORTUKO SEMEA	Erromatarren aldietako elebarria
1996-TXOMIN	Urizain baten gora-beerak